

EUSKARAREN LEKUKOAK BILDUMA - ZUZENDARIA:  
Joseba Lakarra, *euskaltzain osoa*.

Azken tituluak

19. *Refranes y Sentencias* (1596)

Ikerketak eta edizioa

Joseba Lakarrak prestaturiko edizioa · 1997

20. *Idazlan guztiaik*

FRAI BARTOLOME SANTA TERESA

Julen Urkiza eta Luis Baraiazarrak

prestaturiko lana · 2000

21. *Aita Juan Mateo Zabalaren Sermoiaik (II)*

JUAN MATEO ZABALA

Luis Villasanteek prestaturiko lana · 2000

22. *Gueroco guero*

PEDRO ANTONIO AÑIBARRO

Blanca Urgellek paraturiko edizio kritikoa · 2001

23. *Eusqueraren berri onac*

AITA AGUSTIN KARDABERAZ

Patxi Altuna eta Esther Zulaikak

paraturiko edizio kritikoa · 2004

24. *Birjinia, edo doneceil christaba*

Ikerketak eta edizioa

Jose Antonio Mujikak prestaturiko lana · 2009

25. *Egiategiaren filosofo huskaldunaren ekheia*

Bigarren liburua

Txomin Peillenek prestaturiko lana · 2010



Euskararen Lekukoak Bildumaren gainerako tituluak in:

[www.euskaltzaindia.net/iker\\_jagon/bildumak/lekuoak](http://www.euskaltzaindia.net/iker_jagon/bildumak/lekuoak)

EUSKARAREN LEKUKOAK BILDUMA

Mendez-mende, edozein euskalki eta edozein literatura motatan euskara landu duten autore eta hizlariekin eta arrazoi batengatik edo bestegatik estudiatuak izatea merezi duten testuekin liburu bilduma bat osatu nahi du Euskaltzaindiak. Euskararen lekuo horiek gaurko eta etorkizuneko ikasle, irakasle, idazle, euskaltzale, euskalari eta abarren eskuetan modu egoki eta artatuan jarri nahi genituzke Bilduma honi esker.

el.  
25



**TXOMIN PEILLENEK** Parisen sortu zen, 1932an. Gurasoak zuberotarrak zituen. Biologian lizenziatua. Letra eta Euskal Ikasketen doktorea. Paue eta Aturri Herrialde- etako Unibertsitatean irakasle izana, gaur egun irakasle katedradun emeritua da. Idazlea.

Euskaltzain oso izendatua 1988ko apirilaren 29an eta euskaltzain emeritua 2007ko azaroaren 30etik. Euskaltzaindiaren Onomastika eta Literatura Ikerketa batzordeetako kidea da.

Gaztetan Andima Ibinagabeitia eta Jon Mirande eza- gutu zituen. Andimak euskal literaturan murgiltzeko bultzatu zuen eta Miranderekin batera, 1962an, *Igela* aldizkaria sortu zuen.

1962an argitaratu zituen lehenbiziko ipuinak: *Azken inuesta*, *Tximinuaren segretua*, *Tristan ta Isolt*. Genero literario ugari landu ditu Peillenek, hala nola nobela, poesia, haurrentzako ipuinak, poliziakoak, itzulpenak. Ikerketa etnografikoa ere jorratu du - *Animismoa Zuberoan* eta *Allande Elixagari Ligiarren lanak*, besteak beste- eta *Paristar euskaldun bat (ni... neu)* deituriko biografia idatzi du. *Ale gorriak*, *Ale berdeak*, *Jende ederrak lanean* edota *Biziaren hiztegiaz* dira bere lan aipagarri batzuk.

Sari asko jaso ditu, besteak beste Txomin Agirre saria, hiru aldiz (*Gauaz ibiltzen dena*, *Itzal gorria* eta *Kristina Bolsward* lanengatik). 2009an Euskar PEN Idazluma saria eta Manuel Lekuona Saria jaso zituen.





Jüsef EGIATEGI  
FILOSOFO HÜSKALDUNAREN EKHEIA II



Jüsef EGIATEGI

FILOSOFIA  
HÜSKALDUNAREN EKHEIA  
(bigarren liburukia)

EUSKALTZAINdia  
BILBO  
2011

Argitalpen honen fitxa katalogografikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca Azkue de la Real Academia de la lengua vasca:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque language:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

© Txomin Peillen

© EUSKALTZAININDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitarteko berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailaren edo *copyright*taren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.

Aurreinprimatza: Ikur, S.A.

Inprimatza: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-65-2

Lege-gordailua: BI-2401-2010

# Aurkibide

Hitzaurrea .....	ix
Edizioa .....	1
Ametsetzaz .....	3
Eskerhaurretzaz edo bastartez .....	6
Biziaren laburgoaz .....	7
Akadoi azkenaz .....	9
Damorriaz .....	11
Bizitziaz .....	13
Bekhaiizgoaz .....	15
Adiskidegoaz .....	17
Izkontziaz .....	20
Begithartiaz .....	24
Amorioaz .....	26
Zahartarzünaz .....	27
Nihairengoaz .....	29
Egiaz .....	33
Denboraz .....	36
Sorgin eta belhagiletzaz .....	38
Soldado edo gudarietzaz .....	41
Aberastarzünaz .....	49
Jakindiaz .....	52
Dihariaz edo diruaz .....	56
Patuaz .....	62
Igermenaz .....	67
Errükiaz edo piedadiaz .....	71
Emaztetzaz .....	73
Zorihonaz .....	77
Gerlaz .....	81
Handitarzunaz .....	85
Zorthiaren bürüzairietzaz .....	91
Laidorietzaz .....	94

Jendiaz .....	98
Auherkeriaz .....	100
Ozartiaz .....	103
Herriaz .....	105
Bakiaz .....	108
Eskelegoaz .....	111
Paganoetzaz .....	114
Iripediaz .....	116
Pheredikiaz .....	121
Aphezetzaz .....	125
Printzietzaz .....	129
Ordainetzaz .....	136
Errelijioniaz .....	139
Aberastarzünaz .....	149

# Hitzaurrea

## **Bigarren idazki baten kondaira hitsa**

Jusef Egiategiren liburua 155. zenbakiarekin Parisko Bibliothèque National delakoan aurkitu nuenean konturatutu nintzen nonbait ehun eta hogei bat orrialde eskas zituela. Galdutzat eman nituen. Handik hamar bat urte Patri Urkizu bertso bilketa baten egiten zebilelarik, 156. esku idazkian alegia «Recueil de chants guipuzcoan» edo gipuzkoar kantu bilduma baten barrenean aurkitu zituen nik idoro ez nituen ehun eta zenbait orrialdeak.

Esku idazki horrek lehenaren\* erreferentzia alderantziz baditu bere abantailak eta bere akatsak. Abantaila da Egiategik ez duela bere hiztegiaren laramenditzeko asti osoa izan eta, erabilera deitoragarria gogoan sartu baino lehen, bere jatorrizko hizkuntza zer zitekeen hor ikus genezake. Gainera «zuzenketen» azpian irakur liteke lehen idatzaldia. Abantaila eta alde ona ere da, agian, gaiek lehen liburuan baino hobeki berotu eta goi hatsa eman diotelako gure idazleari.

Akatsak, ordea, esku idazkiaren itxurari lotuak dira, ezen esku idazki hau lehenaren alderantziz ez delako garbitan ipini eta zirriborroa delako. Orrialde batzuek, orduak eta orduak eskatu dizkideate irakurtzeko, horregatik eta modan dagoen arren, idazki horren fotokopia Euskaltzaindian dago.

Esan dut manuskrito horrek ekartzen dizkigula Jusef Egiategiri buruz xehe-tasun asko; kapitulu oso bat Belatar aitonen semeen goraipamena delarik eta lehen liburuan aitonen seme batizuzentzen delarik gure gizonak etxe horrekin zituen harremanak salatzen dizkigute. Badakigu Joan Felipe Belakoa Poloniako erregearen alde gerla egitera joan zela euskaldunekin eta hain zuzen Egiategik kontatzen digu nola gerla ikusi duen, nola soldadu egon den Polonian eta Alemania Berlinen ibili den (ik. *Gerlaz, Soldado gudarietzaz eta Bakiaz kapitu-luak*).

Egiategi filosofo eta soldadu bai, eta horregatik gerraren moral eta material kalteen aurka idazten badu, antibelizista bada, ez da soldadutzaren etsai, bakoitzak armada bere luraren zaintzeko edukitzen badu, behintzat. Beraz Egiategi J. F. Belakoaren kanpoko gerletan ibili da. Han, nonbait, zauritua izan

---

\* Tx. Peillen, *Jusef Egiategi. Filosofo Hüskaldunaren ekheia*. Euskaltzaindia, Bilbo 1983.

zitekeen zeren handik itzulita Belak «Royal Cantabres» Erregimentua antolatzen duelarik gure filosofoa ez da zerrendetan agertzen, agian, ordukoz elbarritua edo zelako idazlea.

Berak lehen liburuan dio parrokiako maisu «parropiako errejenta» izan dela eta elebidun den hirugarren liburuan idazten du «kolegioko errejent» izan dela. Egia da Frantses iraultza baino lehen eta haren lehen urteetan Maulen Belatar baten diruekin kolegio bat sortu zela eta hor bi «maître d'humanités» hartu zituztela. Haietarik izango zen Egiategi, baina bien izenen ondotik gabiltza oraindik. Argi dago, bestalde, eskuen artean eduki zituela Egiategik Jakes Belak XVII. mendean frantssez idatzi *Tablettes* delakoak eta beharbada zati batzuk mailegatu eta itzuli.

Bestalde, badakigu E. Lambertek erranik Belako zaldunak Larramendi Baionan bisitatu zuela eta elkarrekin hitz egiteko latina erabili zutela, halaber Larramendiren hizategia Sorhuetako Belatarren jauregian zegoela. Jauregi hori beti zutik dago eta hor alboan dauden ikastolako ikasle irakasleek jakin dezatela Egiategiren eta Belaren itzalean daudela.

Ahaleginak egin arren oraindik ez dugu bataio agiririk ez hil agiririk ediren. Belatarren goraipamenean, ordea, ikusten da Egiategik aitortzen duela Jean de Bela hil dela, beraz, liburua 1796-1797.ean berriz ukitu zuela, nahiz azalean lehen liburukian 1785. agertu; Koldo Mitxelenarekin sumatu genuen bezala liburu hau ez zen Frankfurten argitaratu.

Horrez kanpo, kapitulu nagusien artean badaude erlijioari buruzkoak: hor ere bere eskarmentuak gogoan, ederki idazten du kontraesan osoan lehen kapituluetan agertzen diren teologoen aukako eta lehenbiziko protestanteen aukako lehroekin, liburuki honetan edozein federen aldeko tolerantzia argudiatzen du. (ik. *Apezetzaz, Erreligionetaz, Paganoetzaz, Pheredikiaz* kapituluak). Egia da garaiko ideietan dagoela. Nahiz kontserbadorea izan Mogel baten antzean, nahi ala ez, garaiko «argien mendearen» kritika kutsua daukate biek.

*Aurkibide zaharra.* Ondotik doan aurkibidea lehen tomoan agertu zen eta orain testuarekin batean etorriko zaizue.

Hona liburu horren lehen alea argitaratu nuenean zer idatzi nuen: «Tx.P.en oharra: liburua 217 orrialdearekin bukatzen da, XXXX berezitistik landa, 218 erditan aldatzailearen izenpea: Joffrion».

Gero, gaineratzen nuen «orrialdedun kapitulu guzi horiek galdu egin dira» eta ematen nuen ondotik, Egiategiren hizkera jarraituz, *zekidoren* zerrenda.

223	Emaztetzaz	Ametsetzaz	290
228	Zori honaz	Biziaren llabürgoaz	294
230	Gerlaz	Akabi azkenaz	297
231	Handitarzünaz	Damorriaz (melenkoliaz)	301
233	Sortiren	Bizitziaz	307
		Bürüzarietza	309
236	Adiskidegoaz	Bekhaitzgoaz	310
238	Izkontzia	Laidorietza	311
242	Begithartia	Jendiaz	312
244	Amorioa	Adiskidegoaz	313
245	Bakia	Zahartarzünaz	315
247	Nihaurengoa	Eskelegoaz	325
251	Egia	Paganoetza	328
256	Sorginetza	Iripediaz	330
259	Soldado gudarietza	Pheredikiaz	336
268	Aberatstarzünaz	Apezetza	343
271	Jakindia	Ordaiñetza	350
275	Diharia	Erreligionia	353
284	Igermena	Aberatstarzünaz	364
288	Errükia		

Bigarren liburukiaren aurkibidean ikusten da frantsesezko aurkibide bat erabili duela euskarazkoa 322. orrialdetik aurrera itzultzen bada (*paix, pauvreté, païen, peuple, prêche, prêtre*).

Zerrenda hau irakurtzen denean lehen alean agertzen diren gai berdinak baina deude: *izkontzia* (ezkontzaz), *egia*, *amorioa*, *adiskidegoa*, *ametsetza*, baina lehen alean gaia teoriaz azaltzen bada, bigarrenean Euskal Herriko bizi moldeak kontatzen zaizkigu.

Gainera, zerrendan agertzen ez den «Patua» artikulua «Diharia» eta «Igermena» delakoen artean sartzen da. Horrez kanpo lehen zatian agertzen diren izenburuak berriz ematen ditu, *Ametsetza* hurbil berdin berdina, *adiskidegoa* eta *aberatstarzünaz* oso bestelako testu batekin.

Horrez gain lehen liburukian «zekidorak» edo kapituluak zenbakidunak baldin badira, galdua eman nuen bigarren eskuidazki honetan gabe daude.

## Egiategiren grafia

XVIII mendeko Zuberoako literatura euskalkiak, frantses grafia du oinarritako nagusia horregatik:

1. *au* diptongoa, frantsesen ohituraz ô ahoska ez dadin, <*ao*> idazten du: *ao-kera, hao, laor, gaossa* antzean.

2. *ai* diptongoa frantsesez gisa *e* ahoska ez dadin < *aï* > idazten du: *gaïa* (gaua).

3. Frantsesez *e* mutu asko dagoelako euskarazko ahoskerarekin ebaki dadin < *é* > ematen du frantsesez bezala, kasu gutitan < beré, bersé, mempé > eta aditz jokatuetan < diréla >.

4. Zübererazko *u* eta *üren* bereizteko, frantses grafia darabil < *ou* > eta < *u* >.

5. Zubererazko *p* aspiratua < *pp* > idazten du.: *appal, appur*.

6. Halaber < *k* > hizkia darabila beti kontsonante aspiratuaren idazkeran *ekhia, khea, khentzeco* baita hitzen barnean ere gehienetan *jarraiki, gaïzki, eskernio, akabil/accabi/acabi* baina *beroagoric, dugunic*.

7. < *lh* > eta < *nh* > naski *l, n + h* dira, ez sabaikariak okzitano grafian bezala.

8. < *tt* > < *ll* > eta < *dd* > ez dira agertzen nahiz zuberotar ahoskera herrikoian badauden, baina manexen alderantziz *ñ* bizirik dagoelako Zuberoan eta jadanik, gaur bezala *ñ* agertzen da grafia hibrido batean: *iñ, artzaiña, gaiña, ordeiñu*; guk hala-hala utzi dugu. Tildea ere badarabil, batzueta, Egiategik < *n* >ren lekuau, *ziradiā*.

Aurreko arau horiek ez ditu beti jarraitzen eta anarkia osoa sartzen hasten da zistukarien idazkeran, afrikatuak beren artean nahasiz, frikatibuak afrikatuekin eta hitz bakoitzari bizpala ur grafia emanaz, hala nola *erakhoutsi, erakhouci, era-khoutzi; sinhestia/zinhestia/sinheztia, eresuma/erezuma* idazten du. Bestalde *gaïzki/gaïtzki*, bai eta *serbutzatzen/ zerbutzatzen* irakur daitezke.

Halatan ere *x* eta *tx* entzat ez darabila grafia zaharrik, ez frantseseko < *ch* >, < *tch* >, baina < *sch* > *herescha, schuschenzen* eta < *tsch* >: *etsche, tschar, tschipi*.

Euskarazko *s* eta *z* nahasten ditu berdin idazten duelarik *soldado, sen(zen), essarri (ezarri), sabiltzalaric*. Halaxen gure *z-a*: < *c* > da *gucier*, < *s* > *saldi*, < *ss* > *gossamen*. Arau gorapilatsu horiek ere ez ditu beti betetzen Egiategik. Gainera ahoskeran zubererak ez du sekulan holako nahaskeriarik eduki, Oihenart eta beste lekuko. Halaber, < *r* > bakunen eta zuberotarrek orain ere ederki gorde dituzten < *rr* > dobleen ahoskeran zernahi irakur daiteke: *erresuma/eresuma, pikaray/pikarray, arrancuratzan/arankuratzen, errege/erege*.

*i* bi bokalen artean dagoenean < *j* > idazten du gehienetan: *suja, (süia) zerejola (zereiola)*.

## Egiategiren fonetika bitxia

Erdialdeko euskaraz, aplikatzen diren arauak, zubereraz oso gutitan erabiltzen direnak ia beti erabiltzen ditu Egiategik, sekulan, eta inon ikusi ez diren grafiak edo ahoskerak eskainiz:

-*lt* / -*ld*. Ahoskabeen ahostuntzea maiz agertzen da Egiategiren lumapean hi-perlapurtarismo batean *falta*-k ematen du <*falda*> edo <*faldha*>, baina behin edo beste <*falta*> agertzen zaio zuzendu gabea.

-*nt* / *nd*. Latinezko *voluntatis*-ek gaztelaniaz *d*'bat hartu du bigarrenean *voluntad* eta lapurteraz lehenean *borondate*, zubererak bere bidetik *boronthate* eman du baina Egiategik, lapurtarrak baino lapurtarrago, *borondade* eta *borondadhel borondathe, onesdade, banidade* eta beste ematen dizkigu.

-*rt* / -*rd*. Bertuteak aldaera horiek ditu: *berdudea, berdhudea, baina berdutheea, berthudea* ere, halaber zergatik ez dakigula eta espanola baino urrunago joanaz *liberdadia* irakur dezakegu (zubereraz orain *libertatia*) baita *adheratzen* (ateratzen) Halere hor ere *sorthaldi* idazten du ez \**sordaldi*, agian euskarazko hitz zaharragoa delako halaber *sarthü, senthagailla, guerthaldi*, eta *althare*.

(Lehen tomoa XX. mendeko grafian eman nuen hiztegiaren zaitasunei grafia nahasiena metatu ez nahiz, irakurketaren ez zaitzeko, hemen ere berdin egingo dut lehenarekin batasun baten eradukitzeko baina idazlearen fonemak ahalik eta gehien errespetatuz.)

## Jende izenen grafiaz

Ez du euskara batuaren ez eta gaztelaniaren latin izenen españoltzeko ohitura jarraitzen, alegia *-us* bukatzen diren izenak oro «-o» jarriz, ez eta frantsesaren «e»rekin. Lau aterabide ditu.

1. Latin edo grekerazko itxurapean utziz, *Albinus, Amphinomas, Cyrus, Eneas, Flavius, Heraclius, Marcus Valens, Mellelus, Seleucus* eta beste gutxi ezagunak.

2. *-anus* ekin bukatzen direnak *-an* ematen (frantsesez *-en*, gaztelaniaz *-ano*) *Adrian, Dioklecian, Domician, Gordian* (fr. *Dioclétien, Domitien, Gordien*) (Berdin hiritar eta erlijio izenekin *Athenian, Erruman/Errumen, Arian, Khiristian, Lutheran*).

3. *-us*-ekin *-es* ekin *e-kin*, kontsonante batekin bukatzen direnak maiz «-a»: *Alexandra, Aristota, Heroda, Mercura, Moysa, Platona, Pompea, Tybera*. Eta horretan Iparraldean ez da bakarra.

4. Frantses itxurapean, *-on*-dun batzuk ematen ditu: *Caton, Ciceron, Platon / Platona, Pharaon*. Grafia horiek diren bezala utzi ditugu.

## Egiategiren hizkuntza

Aditzaren aldetik XIX. menderaino Zuberoan erabiltzen zituen aditz antzak jarraikitzen eta zehatzki erabiltzen ditu beren osotasunean errespetatuz: *zereion*

(ez orain bezala *zion*), *dereit* (ez orain bezala *deit*), *dereist* (plur.) cf. bizkaieraz *deust*.

Gainera orain ere Zuberoan gorde diren aditz moduak darabiltza:

1. Geroaldi zaharra: *date* ‘izango da/izanen da’, *düke* ‘edukiko du’
2. Ahalezkaoan *iron*: *diro* ‘dezake’, *liro* ‘lezake’

Bitxikeria bat aurkitzen da Egiategiren *egon* aditz trinkoan, batean *diaude*, *zeuden*, baita beste horrenbestetan bizkaieraz eta lapurtera zaharrean erabilitako *dagotze*, *zegotzan*.

Morfo-fonetikaren aldetik zuberera zaharrarekin Egiategiren hitzen erabiltzeko «banaiteak» badaude, batuetan, batik bat < *h* >en lekuan edo izatean:

lehen	orain
<i>helthü</i>	<i>heltü</i>
<i>ürhün</i>	<i>hürrün</i>
<i>harma</i>	<i>arma</i>
<i>harmada</i>	<i>armada</i>
<i>zorhozten</i>	<i>zorrozten</i> eta beste.....

## Hiztegiaren aldetik

Hor dago iltzea, Egiategik erabili duelako Larramendiren hiztegia, eta handik hartu egiazko gipuzkera, bizkaiera baita zoritzarrez Larramendik asmatu *terminacho* asko. Egia da berotzen denean idazleari ahaztu egiten zaiola «hitz hobetu» erabiltzea eta ez duela beti astirik izan bere lehen emaitzaren zuzentzeko.

Bigarren ale honetan, agian, gutxiago daude Egiaz eta Erlilioaz idatzi kapituluetan izan ezik. Lehen alea garbitan baldin bazen bigarren hau zirriborroa eta esku on batek aldatu gabea zen, horregatik ikusten zen lehen aldiko idazkera erdi ezabatua, gainetik idatziz «hobea». Hobe hori zen:

1. Zuberotar hitz batzuen forma aldatzea lapurtartzea Oihenarteren bidetik segituz, halaxe *berze* hitzaren azpian *beste* irakurtzen da ezabatua. Gainera hitz el-kartuetan ahaztu egiten zaio zuzentzea eta *haiñbeste*, *bezaiñbeste* idazten du eta batzuetan *beste* bat ez du zuzendu. Naski, kapitulu guzietan zubereraren hitzak itzuliko ditugu, baina batzuk maiz gertatzen direlako aurrelik abisatzen zaituztet hauek direla:

<i>aidürii</i> : zain (aditzondo)	<i>gai</i> : gau
<i>aizo</i> : auzo	<i>honki</i> : ongi (sekulan ez darabil oraingo <i>untsa</i> )
<i>arauiala</i> : arauera	<i>hurren/hüllen/hüllan</i> : urran, hurbil
<i>argüsten</i> : itzaltzen	<i>idoki, idokitzten, idokiko</i> : khentü, kendu
<i>arrazo</i> : arrazoi	<i>jalkil/jelki, jalkiten, jalkiko</i> : atera, irten
<i>aski</i> : nahikoa	<i>jin, jiten, jinen</i> : etorri
<i>auher</i> : alferretan	<i>khorpitz</i> : gorputz
<i>barats</i> : bare	<i>khozüi</i> : kutsu
<i>bedera</i> : bana	<i>legar</i> : zerga
<i>bekhant/bekhan</i> : bakan	<i>mintzo</i> : ahots
<i>bena</i> : baina, baña	<i>otsez</i> : alegia
<i>doi</i> : behar den neurrian	<i>iuhaitz</i> : mendi ibai
<i>ekhi</i> : eguzki	<i>ükhüratü, ükhüratzen, ükhüratuko</i> : gelditu
<i>elhe</i> : hitz (ez idatzia, ahozkoa baizik)	<i>urthiki, urthikiten, urthikiko</i> : jaurtigi
<i>erho, erhaiten, erhoko</i> :erahil	<i>zothükati, zothükatzen, zothükatuko</i> : igi- tzen, mugitzen hasi
<i>eskelegoa</i> : txirotasuna	
<i>ezi ez</i> : ezen ez	

2. Laramendiren hitzak erabiltzea. *Diccionario trilingüetik* hartu hitzen zuberearen hitz jatorren lekuaren ezartzea, idazlana bukatuz geroz egin zuen. Halaxe, *akadoi* hitzaren azpian *jijamentü* irakurtzen da. Halaber *bage*, askotan *gabe* baten gainetik idatzia dago, eta beste anitzetan ere *gabe* «zuzendu gabea» egon da. Hona Laramendiren hitz horien zerrendatxo bat, besteak testuan daude.

<i>aboaztü</i> : ezabatu	<i>bapilde</i> : komentu
<i>adorgoa</i> : asperdura	<i>bakite bakida</i> : elkarte
<i>adiüstia</i> : latza	<i>bailleraki</i> : hitzarmen
<i>adra</i> : arau	<i>batzigoa</i> : paktoa
<i>adrakaizki</i> : arau gaizto	<i>beillaro</i> : ernetasun
<i>akadoi</i> : epaile	<i>beondaztü</i> : begira egon
<i>akarraba</i> : egokitze	<i>betanda</i> : betegintza
<i>akadoikeria</i> : auzikeria	<i>betustitu</i> : kontsideratu
<i>akogatü</i> : ito, zapaldu	<i>bilakindu</i> : egiaztatua
<i>arakai</i> : hazkurri	<i>billekindu</i> : bilakindu
<i>araukerrak</i> : konponbide	<i>bildor</i> : bitoria
<i>araukidate</i> : konponbide	<i>billareki</i> : talde
<i>arauzkida</i> : konkordia	<i>egobiar</i> : ezaxola
<i>arpetz</i> : aldarrikapen	<i>damorria</i> : melankolia
<i>artzondi</i> : adeitasun	<i>dierri</i> : nazio
<i>atzurka</i> : uka	<i>desarau</i> : arau eza
<i>bairatu</i> : bereganatu	<i>ekantzta</i> : antza, itxura
<i>banutz</i> : arrunt	<i>ekarai</i> : jenio

<i>ekarrai</i> : baldintza	<i>jardasten</i> : borrokatzen
<i>ekidatu</i> : sortu, kreatu	<i>kaltarrai</i> : eraso
<i>ekidar</i> : ahalmen	<i>katarraitu</i> : persegitu
<i>ekidrana</i> : ordena	<i>lamaldu</i> : eztitu?
<i>eragoa</i> : kondenatu	<i>letarta</i> : probidentzia
<i>eranpetzen</i> : jasaten	<i>lezarartze</i> : adimen berotze
<i>eripetü</i> : epaitu, kondenatu	<i>loteki</i> : esklabo
<i>estirletzen</i> : ahultzen	<i>megope</i> : izpiritu
<i>etartu</i> : onartu	<i>menausta</i> : jazarpen
<i>ezarpe</i> : menpeko	<i>naidar</i> : errege diktamen
<i>ezegokida</i> : egonezin	<i>nazaro</i> : konplexio
<i>esonde</i> : aholku	<i>oizterkin</i> : ohitura txar
<i>galkida</i> : usteldura	<i>oldeki</i> : ustegabean
<i>giziberi</i> : txikikeria	<i>ontarte</i> : bertute
<i>goarpe/khurpe</i> : sekretu	<i>opakatu</i> : opatu
<i>gogarte</i> : ausnartzte	<i>orlunda</i> : eki ordulari
<i>gomatu</i> : isladatu	<i>otsandiki</i> : ospetsuki
<i>gomarte</i> : alai	<i>ozarte</i> : pazientzia
<i>gordozten</i> : debekatzen	<i>pozkida</i> : kontsolua
<i>irabi</i> : iraulketa	<i>pozmagarri</i> : alaigarri
<i>irar</i> : ikur, marka	<i>zaitirandu</i> : kontserbatu
<i>iripedí</i> : populu	<i>zelakodi</i> : kalitate
<i>irudesti</i> : irudimen	<i>zideperatu</i> : bilaundu
<i>jaigura</i> : sortezko	<i>zilzikide</i> : moral

Francisco de Aizkibel eta Manuel de Larramendiren hiztegiak irakurri arren argitu gabeko lauzpazortzi hitz gelditu zaizkit: *athegita* (atari?), *degobia* (egobia ezaxola"?), *dükəraziak*, *erremalga*, *eseituko* (esetsiko?), *lamaldu*, *menaskaro* (menasta “metal”, Larramendik). Halaber, bizpahiru biografia irakurri arren Antzinateko jende ospetsu guzien aztarnak ez ditut ediren ahal izan. Acentius Alidinako apezpikua, Antica Annibalen laguna, Corneilla kapitaina, L. Cursa historilaria, Frelon, Melellus.

## Egiategiren idaztankera

Lehen liburukian legez, bigarren zati honetan perpaus luze eta katramilatsu batzuk ditu. Filosofo askoren gisa, metafora eta metonimia asko darabiltza. Gaia-ren harilkatzeko, maiz kapituluaren hasierako aurkezpena definizio batekin hasten du eta batzuetan Larramendiren erabiltzeak ez dio laguntzen. Bestalde, argi dago berak idatzi bezala «kolegioko errejent» izan dela; azken horretan Mauleko kolegioan «humanitate irakaslea» izango zen, horregatik Antzinateko idazle, errege,

printzeen, gudarien aipamenak batzuetan aspergarriki metatzen ditu, maiz gauza berdinaren errateko. Halere aipamen gehiago darabil, batzuetan atsotitz direnak edo eredu hitzak direnak.

### Egiategiren mintzaldiera. Egiategi erreformista

Lehen liburukitik ez dago arte handirik, erreformista bat ikusiko dugu, diruaren eta aurre kapitalismoaren etsaia, lehenagoko denborez topiko batekin datoarena, hots bere gazte garaia oraindik XVII. mendeko austerritatean bizi zenaren garbaitan. Halaz ere, hiru kapituluak gizonaren pentsamendu berrizalea agertzen digute, bere eskamentuen bidez nolakotu zen. Bere bizitzaz dio soldadu egon dela Polonian eta Prusian ibiliz eta handik ekarri dukela gerlarenganako ezinikusia. *Gerlaz* kapituluan armadek jende xeheetan egiten dituen sekulako kalteak gaitzesten ditu. Gero *Gudarietzaz* eta *Bakeaz* kapituluetan armadaren beharra, haren eginbidea, eta haren mugak aztertzen ditu.

*Erreligionaz* kapituluan azpimarratzeko da nola erlijio aniztasunaren alde da-goen, nola erlijio gerlak kondenatzen dituen, eta nola eskatzen duen protestanteentzat tratu hoberik izan dadin. Badakigu airean zeudela ideia horiek, baina bestalde eskuen artean zituela Egiategik Jakes Belako protestantearen frantsesezko *Tablettes* delakoak, beste liburu batean imitatuko dituenak erreferentzia.

Ohargarria da ere musulmanen ohituren goraipamena, hala nola turkoena nahiz aitortzen duen garaiko kristauen etsai handienak direla.

*Aipamenak* hamazazpigarren mendeko euskal idazle gehienen alderantziz gutitan ditu bere aipamenak jatorrizko hizkuntzan ematen eta lehen liburuan ikusi genuenez, apur bat Axularren gisa, formula aberasten du, apur bat aldatzen ustez, eta bere irakurleen heinera egokitzten. Gai batzuekin hala nola aberatsak edo dirudunak, gerla, gudariak, adibide asko ematen du, frantses liburu batetik hartuak ezen, behin, frantsesez abiatzen baitu esaldia, ezabatzen du eta ondotik euskaraz ematen. Pentsatzen dut ere hamazazpigarren mendeko Belaren *Tablettes* delakoak irakurri zituela; pazientzia higaturik irakurketan erkaketa hori ez dut egin baina biak irakurri ditudalakoan, oroitzeten naiz zati batzuk antzekoak direla.

Halere egitasmoa ikusten denean ez da liburu horren itzulpena, ezen izenburuak euskaraz alfabetoaren zerrendan badaude, frantsesera itzultzen baditut gisa batez edo besteez ez dut inolako ez alfabeto orden ez eta ideia orden zehatzik ikusten bigarren liburuki honetan.

(Lehen liburukian baziren lehen bederatzigarren kapituluak, giza eskamentuen eta heziketaren gaiak, hurrengo hamarretan familiaren barneko eginbideez,

ondoko beste lauetan biziaz eta heriotzaz, gero berriz bost kapitulu, maitasun eta gorrotoez).

Saiatu naiz Antzinateko jendeen eta lekuengaten izenak zehazten baina bospasei badira XIX eta XX. mendeko entziklopedietan aurkitu ez ditudanak.

### Aurkibideen aldaketa batzuk

Gorago ikusi badugu lehen liburuan iragarri ez zen kapitulu bat hemen agertzen zaigula eta lehen liburuan aipatu gaiak berriz errepikatzen direla, aurkibideen erkatzeak beste hau dakar.

<i>lehen liburukian hitzemana</i>	<i>bigarren liburukian agertua</i>
<i>Akabi azkenaz</i>	<i>Akadoi azkenaz</i>
<i>Sorginetzaz</i>	<i>Sorgin eta belhagiletzaz</i>
<i>Soldado, gudarietzaz</i>	<i>Soldado edo gudarietzaz</i>
<i>Dihariaz</i>	<i>Dihariaz edo diruaz</i>
<i>Errikiatz</i>	<i>Erriükiazt edo piedadiaz</i>

Aldaketa horiek darakutsate, Egiategi tinkatua zela mintzairako garbitasunaren eta ulergarritasunaren artean, batzueta irakurle arruntaz oroitzen zelarik.

### Erabilitako idazkiak

- Aizquibel, J. Fr. de; *Diccionario basco-español, euskeratik erderera biurtzeko itz-tegia* E. Lopez ed. Tolosa 1883-1885.
- Altuna, F. S. J.; «Larramendiren hiztegi berria», *Euskera* XII, 1967, 148-300.
- Bela, J. de; *Tablettes*, Eskuidazki argitaragabea. Archives départementales de Pau Ms IJ 62/2, Maulen egina 1650.
- *Commentaires à la coutume de Soule*. 1667. ingurukoa, Baionako Euskal Erakustegian dagoena.
- Egiategi, J.; (Txomin Peillenek moldatua), *Filosofo hückaldünaren ekheia* (I785) Ed. Euskaltzaindia, Bilbo 1983.
- Larramendi, M. de; *Diccionario Trilingüe Donostia*, 1745. Bigarren argitalpena Don Pio Zuazurenaren, 2 liburuki, Donostia, 1853.
- Mitxelena, L.; «Eraskin gisa», *Egan* 1-3, 1963, 78-81. Egiategiren *Aberastarzün güzien giltz bakoitza*, orduan, Urkixo mintegian zegoen esku idazkiaz).
- Peillen, Tx.; «Juseff Egiategi, Larramendiren zuberotar jarraikizale bat», *Egan* 1-3, 1963, 75-77.
- « Un historien de langue basque au XVIII ème siècle Jusef Egiategi », *Bulletin du Musée Basque* 104, 1984, 65-85.
- «Oihenarteren eragina Egiategirengan», Oihenarte kongresua, Euskaltzaindia Donapaleu, 1994. *Iker* 8 Bilbao: 467-477.

EDIZIOA



Ametsak ziradiala gezürraren aüzo hüillanenak zioana aspaldian erhaustürik dago. Makrobek, sinreste handia zianak heetan, irur herrokatan dütü jarri; lehenian gauza helgeiak dütiano salhatzen helthü direnak dirade ardüra ta ükha eztaitekinak: Josefen erran hetarik egia bada haren kondaira, ezi karzeroan zagoelarik bi lagünekila, heen ametsak zütian azaltü, ziolarik batari herio ahalkegarriaren gerthaldi<sup>1</sup> zatekiala, berziari aldiz bere autakinatik ohorezko zela jalkiren, egia bietan gerthü zena.

Geroztik ere Faraonen ametsaren azaldian Egiptaren zazpi urthetako soiltar-züna zianian erabaki ta Danielek ber gauza ziana asmegitatü.

Orozbak Josefek Ama Berjinak<sup>2</sup> bere senharra ametsian Errege Herodaren arakheietik<sup>3</sup> Jesusen salbatzeko zianian Egiptarat eraman ta biggeren ametsaz hirur urtheren landan errege haren herioaz jakintürik Palastinarat zenian ethorri<sup>4</sup> Egia heen jakilegoak Ordeñü Zaharrian ta Berrian dautzeno hoberik mündian eztago.

Berze pharte Homerak lurreko megopiak<sup>5</sup> güziak bildü zütianak Nestoren ametsetzaz dereikü erraiten erregen ametsetan federatua behar dügüla jarri, heen zorionaz edo gaitzaz diradianian mintzo; erran nahi zian errege Agamenonetzaz.

«Themistokla Athenetako lehen dükia, Persiarat abiatürik ta hanko erregiaz ezin honkiago agurtürik, gobernadoria bat ere Frigian, itxaso bazterretan printze harek emanik, khorteko izterbegiak<sup>6</sup> zütian phiztü eta heek haren herioa erabaki. Haratko abiagei zenian erhaile athe bat aitzina zienian igorri. Bideetan zelarik gaüaz loan amets zian egin Theslelioneko hiritik igaraiten bazen, herioak ziala han ügürükitzentz<sup>7</sup> / 224 / gogomen hartan iratzarririk hartan ere fedez betherik, nontik hiri harez kanpotik berze bide bat zükian zen billekintü<sup>8</sup> ta bidesken kidari

<sup>1</sup> gerthaldi: etsenplu.

<sup>2</sup> Ama Berjina: Ama Birjina, hitz jokua, «beretoria».

<sup>3</sup> arakheitik: sarraskitik.

<sup>4</sup> ethorri: atzera itzuli.

<sup>5</sup> megopiak: pentsaerak, gogoetak.

<sup>6</sup> izterbegiak: norbaiten etsaiak.

<sup>7</sup> ügürükitzentz: itxo egiten, igurikatzen.

<sup>8</sup> billekintü: bilatu.

hartürük herioari zen ordian ezkapi. Erhailek igaran zela jakin bezain sarri, laister haren jarraikiz ziradian abiatü: ühaitz bat igaraiten zialarik huriala haren hatiak<sup>9</sup> ziradian erori. Gaüa hüillan zen heen idorerazi beharrak soketan heda erazi züttien».

«Bera aldi batean jendia berzian argiaren aidürü, lürrian etzanik zagoatzan hara etsaiak helthü ziradianian. Menduler heek<sup>10</sup> zien ustian, Themistoklaren keradia<sup>11</sup> oihal heen artian zagoela ta heetara arranoak arakheiala<sup>12</sup> bezala ziradilarik zinez iraisten<sup>13</sup> lehenik borogatü zütianak «Harmetara» oihu eginik, lagünek laisterrez mendülerak üngüratürük, batere etzen ezkapi ta biziak bürüzagiari eramanik, bidian zen jarri ta hetzaz jarraikierazi».

Bada ere amets heek bezain zahar eztiradianak Luis Gaztiak Frantziako erregiak bere emaztia Felipe Augustaz erditü zen gaüan amets zian egin haur helgeia zialarik besoetan printzer ziala eskentzen ta heek artzükatzetan,<sup>14</sup> haurrak odol hanitza ixuririk igermen handia zela sorthüko. Egiazki gerthü zena, ezi haurra erregetürük gizontze odoletik ühaizte handirik bere etsaietan zian ixuri.

Amets zonbatzuen egiaz dago berze gerthaldi handia. Bi prima ziradian ber denboran ta biak erregiñagei erran nahi dirade Margaita dukesa Borgoiñan ta Anna Bretaiñako dukesa. Karle II.ak Frantziako erregiak lehenari izkontgei adina zükiano jinerazi zian erresumala<sup>15</sup> ta Amboisako jauregi ederrian kokaerazirik / 225 / bere jentetzaz erregiña bezala errekeiteraziten<sup>16</sup> zialarik, egün batez Margaita goizik jaikirik baratziala zen abiatü bere andreaurenekila<sup>17</sup> ta han pasiatzen zelakoz tiristeki, heetarik batak galthoa, zeren gogamen beltzetan zagoan. Printsesak gaü gaitza ziala igaran, amets itxusi baten gatik ta batetan erran ze-reioan:

«Loo barnian nangoan gogatü nianian baratze hontan nintzala ta eman zereitadela lili margaita bat begiratzera;<sup>18</sup> errekeitü hartan nangoalarik asto bat hüllantü<sup>19</sup> zela, nere margitarik, mila lan, haren akhazatzeko ükhen

<sup>9</sup> ühaitz bat... huriala haren hatiak: ibai bat... urera haren puxkak.

<sup>10</sup> mendüler heek: gaiztagin haiiek.

<sup>11</sup> keradia: kezaldia? karpa, oihalpea.

<sup>12</sup> arakheiala: sarraskira.

<sup>13</sup> zinez iraisten: benetan jaisten.

<sup>14</sup> artzükatzetan: ukatzen.

<sup>15</sup> jinerazi zian erresumala: etorrarazi zuen erreinura.

<sup>16</sup> errekeiteraziten: errekitarazten, mantentzen.

<sup>17</sup> andreaurenekila: andere aurenekin, konpaniazko anderekin.

<sup>18</sup> begiratzera: zaintzera.

<sup>19</sup> hüillan: hurbil.

nütiala ta azkenekoz ni beno azkarrago zelakoz, jan zaitadala ene Margaita ta ni izerdi hotzez hurtürik iratzarri».

Etzakian printzesoa gaixoak ber denboran erregeren eskondiak<sup>20</sup> erabaki ziala Bretaiñako printzesak abantailla handiagoak, Borgoiñak beno erresumari ziala ekarriren, haren haitoala zaudiala baimentürik<sup>21</sup> ta harri durunda haren ekhaitra Margaitak ziala entzunen. Llabür heltü zena ta ametsa egiatü: gogo eman dezagün bi gaúzer: lehena lili bat badela *margaita* deitzen dena ta printzesaren izena zela. Bigerrena frantzesez astoaren dela *ane*, Bretaiñako printzesaren izena zela, hala ezin hobekiago zian ametsak profezia egiazkaoaren üdüria.

Clovisek Frantziako lehen errege / 226 / khiristianaren ametsa üztar daite azkenareki Turenjako erregiña izkoitürik<sup>22</sup> zian fidestatü ta haren botoa egin esküpatez senhar berriareki lehen gaúan etzela etzanen. Ber gaúan erregiak ametsez hirur saldo arimal zütian ikerusi, batian lehon ta likornak, berzian hartzak, otso harrapazaliak ta hirurgarrenian txakür saldo bat ausikiz algar zathikatzen ziradianak. Goizian erregiña bazinari ametsa kondaiatürik azaldia zereioan galthatü. Hirur errege kasta Frantziaren zeratikiala zereioan erran Erregiñak. Lehena balios zatekiala. Bigerrenak jende aphürrak ziratikiala ta hirurgerren beren arteko ahaurretzaz zela desereustüren<sup>23</sup> hala gauzak gerthü zirenak.

Amets erhoak<sup>24</sup> haiñ üssü dirade mündian non fidantxa merexi dütienak net bekhant beitirade. Alabadere nizalakoz ametskari handienetarik bata aitortüren düt hanitz deitala egin egiak jarraiki dütianak, ezi ardüra<sup>25</sup> loan nangoelarik ehortzirik meskabü batzü helterük<sup>26</sup> gogatü ere hala ta hala egin banü nütükiala itzuri.<sup>27</sup> Ez eginez, garbaiaz iratzaririk, niri nian hitzman ametsaren esondiatzaz<sup>28</sup> nin tzala baliatüren, bena hitza ahatzerik diot, egiazki meskabü ametsek zereitzadanak esonditü haboroenak zereitzadiala heltü.<sup>29</sup>

<sup>20</sup> azpian ezabatua *conseiliac*.

<sup>21</sup> haitoala zaudiala baimentürik: aukerara zaudeala baimena emanik (aukera ona zeren bestelan Ingliterrako erregearekin izango baitzuen abantaila).

<sup>22</sup> izkoitürik: ezkondurik Egiategiten etimologia bat *hitz* + *koi* + *tu*: hitzez loturik.

<sup>23</sup> desereustüren: deusereztuko, ezereztuko.

<sup>24</sup> (zati hau ez da batere agertzen lehen liburukian, goragokoa bai, baina bigarren liburuki hontan berridatzi du gai berdina).

<sup>25</sup> ezi ardüra...: zeren askotan...

<sup>26</sup> meskabü batzü helterük: nahigabe batzuk gertaturik.

<sup>27</sup> itzuri: ekiditu, ihesegin.

<sup>28</sup> esondiatzaz (Lar.): kontseiluez.

<sup>29</sup> haboroenak zereitzadiala heltü: gehienak zizkidala gertatu.

# Esker haurretzaz edo bastartetzaz<sup>1</sup>

Zertakoz holako haurrak berziak beno bizkorrago ta azkarrago, da galthoa, di-relakoz ebatsirik<sup>2</sup> legiari da arrazo hobea ta llabürena. Zeren diradian haboroenak<sup>3</sup> aizetsü ta ürgüillütsü da biggerren galthoa. Dakielakoz nontik diren erran eztereitzeren. Romulus errumanen lehen erregia kasta hartarik zela dakie. Orozbatt Theodorik ostrogothen errege Italian izan zena, Gonzerik bandaleen erregia,<sup>4</sup> Artaxerses pharthen erresuma persianarekila batatü ziana ta Artus Inglaterrako erregia, hetarik zela, dakie.

Gure bazterretan, aldiz, Theodobera Metzeko erregia ikharerazi ziana Italia güzia. Clotaire biggerrena Fredegondaren semiala, ez Chilperikena gontran Orleanseko erregiak zioan bezala. Karles Martel<sup>5</sup> –ümen– zen ere ber khastatik. Dunoiseko kondia<sup>6</sup> Frantziak bere handitarzuna zor dereioana.

Kondairan gütik dirade gizon Artaxerses beno handiagorik Persako kondairiak dio soldado baten bastarto zela. Egia baliz haurra dela aitatik ezpala bezala egüretik, soldado bakhünak egin lüke errege famatuatarik bata, bena zonbat bastart aitatik deusere eztienik ta desohore baizik egin eztereitzenik.

---

<sup>1</sup> Lehen liburukian agertzen den kapituluaren laburpena da.

<sup>2</sup> ebatsirik: lapurturik.

<sup>3</sup> haboroenak: gehienak.

<sup>4</sup> Gonzerik bandalen erregia: Gunderic Bandaloen erregea.

<sup>5</sup> Carles Martel: Poitiers-en frantses kondairak dio arabeak garaitu eta geldiarazi zituela, orain badakigu Gaskoniako dukeak euskaldunak eta musulmanak deitu zituela Martel-en konkistari bihurtzeko.

<sup>6</sup> Dunois: Joana d'Arc-en kapitaina.

## Biziaren llaburgoaz

Mündiaren hatsarrian Jinkoak nahiz diatü<sup>1</sup> lürra bizitze lüzia zian gizonari eman bera emendatüren<sup>2</sup> zeno haren khasta ondokoak jinen<sup>3</sup> ziradiano hen bizia llabürtüko ziala zian erabaki.

Errege Davidek psalmü batetan jendiaren adinaz dioana, ordian bere bekhatien gatik patriarkak bezain berze ez etziradala biziko: nekez zonbait 70 urthetara ziradala heltzen, 80etara aldiz behanki dago erranik, oraiko bizia delarik haren denborakoari pare, adin hetara gizon zaharrena hirur mila urthe heetan adraturik<sup>4</sup> dagoela ezta düdarik.

Deusetan Jinkoaren zühürtarzuna adra hartan beno ageriago ezta ezi Patriarka zonbaiten gisala 500 urthez bizi baginande ta Daviden denboraren geroztik sortzepena oraikoen pare izan baliraie, 300 urthe mündian etzen iraiñen. Egia haren arrazoa dago ekia bezain argi, ezi dakigularik gizonak zonbat zehe xütik edo etzanik dian lür estaltzen, bederazkatürük<sup>5</sup> ere noizpaiko bizitze Lüziaren arauiala, zonbat jende lizatekian lürrian, gizonak ikhus gintiro lürrian, ogi büriak<sup>6</sup> elgian edo belhar phüntak beno üüsüago sorhoan, batak berzeren tinko jargia bagerik, gosez ta egarriz nekatürük, lerdenik hiltzen eta hirotzen.<sup>7</sup>

Gauza heek gogatü zian Jinkoak zehatü zianian lürrak zonbat gizon behar zian ta heek zonbat lür, heen beharren doiala. Adra haren landan ta lürra aski diatü datekenian adraren gatik hainbeste jende ziradala hilen nola sorthüren zian bere zühürtarzünian erabaki. / 229 / Izigarri bada Ekidrana<sup>8</sup> hortan Jinkotze jakitia, handiago da haren hontarzuna ezi gizona bereganat diano deitzen berze bat haren lekhüko dü adelatzen<sup>9</sup> ta hala zahartarzünak diano saldoa deseigotzen<sup>10</sup> ber denboran dü berritzen.

<sup>1</sup> diatü: populatu, jendeztatu.

<sup>2</sup> emendatüren: gehituko.

<sup>3</sup> jinen: etorriko.

<sup>4</sup> adraturik: arauturik.

<sup>5</sup> bederakatürük: banaturik.

<sup>6</sup> ogi büriak: galburuak.

<sup>7</sup> hirotzen: usteltzen.

<sup>8</sup> Ekidrana: genesis.

<sup>9</sup> adelatzen: antolatzen.

<sup>10</sup> deseigotzen (Lar.): suntsitzen, beheratzen.

Zeren, arren, heiagora, biziaren llabürantzaz: gaztiak goizik bere zorra dianak phakatzen zaharrak berantago dena hortara jiten, denak beno zorthia hona edo dia?<sup>11</sup> Ez balima ezi lehena bere arrazoaz deno gozatzen da joaiten, berzia aldiz erdi haurtürk dago, baliz bezala lege orozkoaz ahatzerik.<sup>12</sup> Askazi edo adiskide maitiak dütügenian galtzen, herioari dügü ogena emaiten, eztialarik harek batere. Davidek dereikü erran bekhatiak gure bizia diala llabürtü.

Dakian Jinkoak urtheek ziela lehenago gizona gaistotzen eziez hontzen ta bekhatiaren gatik behin gizontze khasta nekatürrik, bizitze llabürrian llabürtüren zela bekhatiien bidia. Hantik zonbat meskabü, dien<sup>13</sup> jende erhaiten<sup>14</sup> zonbat aita-ama haurren bizitze gaistoaz diradien hiltzen.

Dügün berezitari akabailla<sup>15</sup> dügüno erraiten zaharrer herioa zereiela barats jiten,<sup>16</sup> borthizki aldiz gazteer, dielakoz berek deitzen. Dezagün sinhets egiazko bizia dela Jinkoareki honki izaitia ta ordian llabürena dela hoberena, sobera ere lüze dela zelüko graziaz kanpo dena.

---

<sup>11</sup> (dia): du ote.

<sup>12</sup> ahatzerik: ahaztua.

<sup>13</sup> dien: duten.

<sup>14</sup> erhaiten: erahiltzen.

<sup>15</sup> berezitari akabailla: kapituluari azkena.

<sup>16</sup> barats jiten: bareki, pollikí etortzen.

Akadoi<sup>1</sup> Azkenian, Akadoi handiaren khortezko prestamenak dirate haiñ izigarri non gizondien megopiak<sup>2</sup> ez diro dremenden<sup>3</sup> haren handitarzünaren irudia den ezpailiron. Ezta gogomenik lürrian alkanza (lironik) halako pintura ezetare mihirik aipha lirokianik.<sup>4</sup>

Han, mündiaren akadoi gehiena abere jargian ekhia illuritzen<sup>5</sup> diana da gizontze khaustari agertuko ta begirik eztate<sup>6</sup> hari so egitera atrebi daitekianik: han zelian<sup>7</sup> bürüzagia jarririk bere maitenetzaz üngüratürük, lür güziak ükhen dian jendia hurubil han bildürik, tronpetaren sonila<sup>8</sup> menpe, berhezirik güziak norbere khastetan herrokatürük<sup>9</sup> ikhara, begiak tinko büria aphal, belhariko, besoak khürützelan, jüjamentü durundatzüaren<sup>10</sup> ekhaitzaren aidürü<sup>11</sup> ikhartzian.

Han dirateke traideriak ta jakile faltsiak saldo batetan ikhara, gizon erhailiak ta ohoinak berzean erdi hilik. Heben akadoi basadünak<sup>12</sup> ta kargüdant photere zelaiarraz baliatü diradianak, heen aizo<sup>13</sup> behaitzak ta eskeler sokhorri artzükätü<sup>14</sup> dien aberatsak. Heen hüillan<sup>15</sup> berzeren honaz diradianak gozatü ta gaistoak dütienak sokhorritü ta jende leala zankopeetan ezarri.

<sup>1</sup> akadoi: epaiketa (azpian ezabatua *jujamentu*).

<sup>2</sup> gizonpien megopiak: jendeen gogoak.

<sup>3</sup> ez diro den mendren... ez dezake / ez bailezake den gutienik asma.

<sup>4</sup> lirokianik: lezakeanik.

<sup>5</sup> ekhia illuritzen: eguzkia lilluratzen.

<sup>6</sup> eztate: ez da izango.

<sup>7</sup> zelian: zeruan.

<sup>8</sup> sonila: soinura, musikara.

<sup>9</sup> nor bere khastetan herrokatürük: norbere kastetan lerrokaturik.

<sup>10</sup> jujamendu durundatsuaren: epaiketa trumoitsuaren.

<sup>11</sup> aidürü: zai, igurikatzen, itxaroten.

<sup>12</sup> akadoi basadunak: sasi epaileak.

<sup>13</sup> heen aizo: haien auzo.

<sup>14</sup> sokhorri artzükätü: lagunza ukatu.

<sup>15</sup> hüillan: hurbil.

Ordian bigerren tronpetak haldian arima züzendünak trono miragarrira laister abiatürik Erregeren Erregiari jarraikiz haren erresuman dirade sartzen. Ber denboran odoi beltz ta ürrintsü batek<sup>16</sup> lürra estaltzen dü hau ere erdiratzen,<sup>17</sup> dü tü arbai güziak erberatzen<sup>18</sup> ta ozarra bethi diaureneta<sup>19</sup> bide egiten.

---

<sup>16</sup> ürrintsü: usainondun.

<sup>17</sup> erdiratzen: arraitzen.

<sup>18</sup> arbai güziak erberatzen: goratasun guziak ordokitzen, garai guziak launtzen.

<sup>19</sup> ozarra diaureneta: ausartzia iraunkorretara.

Melankolia deitzen den eritarzünaz dügün erran zerbait. Khozü<sup>1</sup> hil bat emeki gizona lür botatzen diana. Dolamen zonbaitetan du bere hatsarria. Ugormin<sup>2</sup> baizik eriak eztü egiten ta berbera izaitez baizik eztü mengoarik. Zer nahi boztario eskentürik, dremendenaz ezta gozatzen. Berzeren erria<sup>3</sup> haren nigarrak dütie deitzen, berzeren osagarrian bere herioa baizik eztü ikhusten. Haren eritarzüna medikak beno delarik hanitez azkarrago, güzier dago arrebuhiin,<sup>4</sup> ugorminak dereioano odolaren bidiak debekatzen, biziaren axolgabia zero emendatzen herioan baizik eztü gogamenik. Minik alabadere eztü, nigarrik eztiro forma,<sup>5</sup> bihotza botxia<sup>6</sup> bezain gogor, adiskideen eskarier dago goor ta müthü, azkeneko minoriaz<sup>7</sup> larria estalirik bere berazapenetan eztakialarak zer eta nola den, da hiltzen.

O! Eritazün harrigarria hatsarrian baizik medikarik eztiana ta sorminaren pare<sup>8</sup> delakoz ber sokhorriak behar lükiana batian ta berzian eriak dirade ber gaitzüretan:<sup>9</sup> sorminak looa baizik ez nahi.

Damorriak<sup>10</sup> aldiz ihoren<sup>11</sup> ez ikhustia galthro, bien medika lehana bomigarria khorpitzaren hutsgarria, hen landan erien zothükatzia<sup>12</sup> medika harez ezpadirade sendotzen, galkorde<sup>13</sup> da bata egonen bena berzian dateke. Esparantza delarik

<sup>1</sup> khozü: kutsu.

<sup>2</sup> ugormin: samintasun, behazun.

<sup>3</sup> erria: parrea, irria.

<sup>4</sup> arrebuhiin: umore txarrean.

<sup>5</sup> eztiro forma: ez dezake egin.

<sup>6</sup> botxia: arroka, arkaitza.

<sup>7</sup> minhoriaz: ikteraz agertzen da sinestea gibelaren behazunak duela melankolia ematen, edo damorriak duela behazunezko minhoria ondorio.

<sup>8</sup> sorminaren pare: min sakonaren pare.

<sup>9</sup> damorra: melankoliatsua.

<sup>10</sup> gaitzüretan: neurrieta, izarieta.

<sup>11</sup> ihoren: iñoren.

<sup>12</sup> zothükatzia: igitzen abiatzea, mugitzea.

<sup>13</sup> galkorde: perlesia.

zinez suz garbitzen, hoiñez edo zamariz ardüra ibileraziten ta bakardadia igaran<sup>14</sup> datekino bekhanti ütz bera ta soniak<sup>15</sup> ardüra eman.

Bena sorthü honez ezta damorria Hüskal herrietañ Engleterraren bezain ainskida.<sup>16</sup> Eriak<sup>17</sup> hantik Frantziala airia arhinago delakoz dütia egorraiten<sup>18</sup> ta han dirade sendotzen edo beren herrilat hiltzera berriz ethortzen.<sup>19</sup>

---

<sup>14</sup> igaran: igaro, pasatu.

<sup>15</sup> soniak: musikak.

<sup>16</sup> ainskida: ugari, nasai.

<sup>17</sup> eriak: gaixoak.

<sup>18</sup> egorraiten: bidaltzen.

<sup>19</sup> ethortzen: hemen «itzultzen».

Bizitzia edo bizipena ber gauza diradianak eztago jatian, edatian ezetare looan arimal güziena bezalakoa; bena bai gizonaren obretan, heetarik delakoz ageri bai izan zela holako denboran ta gizon pherestü zela, halako gizonak berari dio:

Bizi hizano ari hadi gauza ederrik egiten amoregatik bizi hadin hil izatenekian

Delakoz halako nere gogamena, aithortüren düt gozo handian dudala, harri goihen batian etxeko askaziaren izena irakhurtzen, ilherrian aldiz zonbaitenak naiela afadatzen, zeren eta lehenian egiliabeitüt bizirik ikhusten, berzetan aldiz ez ondokoen banidadia baizik han beita gizon pherestia ekhian,<sup>1</sup> berzetan aldiz lürpian nork daki nolakoak: lehenari dereiot ohore ta laidore ta berze orazione, ezi heen obretzaz harriak ixilik badaude deusere balio eztuke<sup>2</sup> nere dükeraziak aphür balio zianaren eretzian. Famak dütü bere zaiñak lüzeki egiten, lüzez ere dirade bizitzen. Lan honetan dago, obra ta lanik gabe obrarik eztago.

Bere izena dianak maite bizitzia dereio abritzen<sup>3</sup> dakialakoz, obrak diradiala izenaren hazkürria ta hetzaz baizik izan eztaitekiala; hartakoz dügü elizetan, aizo-etxeetan<sup>4</sup> ta oroikarri hanitzetan honki egilen izenak ikhusten. Hartakoz dezagün seiñapeta<sup>5</sup> Isak Bela beraren khostüz eragin zian zübian ta pilar baten thinian izena dagoana ziala herritarren zerbützüko Uhaitzian<sup>6</sup> herriren erdian eragin.

Eta berrogei urthez nobleziaren sindika izan zena, intendante famatiari, Pelot deitzen zenari, abiatürik herriren pribilegioak nahi zütilakoz deskidatü, heen fabori bihotztoiki intendantari mintzatürik zaitirandu zütila osoki.

<sup>1</sup> ekhian: eguzkitan.

<sup>2</sup> eztuke: ez du izango.

<sup>3</sup> abritzen (Lar?): zabaltzen.

<sup>4</sup> aizo-etxeetan: udal etxeetan, herriko etxeetan.

<sup>5</sup> seiñapeta (Lar.): azpimarra, ohar egin (Isaak Bela protestanta goraipatzen).

<sup>6</sup> Uhaitza: Mauleko basa ibaia.

Dezagün erran haren küsün propia Athanase Belapeyre, Bikari general ta ofizial zelarik herrian Mosde Saletak Oloroneko aphezküpiak goihendi ohoretsu hau nahi zialakoz deskitatü, hartakoz bi aphezküpü bere alde auzian erauntsierazi beitzian<sup>7</sup> Belapeyrek hirur apezküpüen –Bordelen aphezküpiak ere deithürük– kontseilüla, garhaitü. Han bigerren arresta<sup>8</sup> ükhenik ofizialgoa Zuberoan hil artio zian zaitirandu ta herriak halako pribilegio ederra galtzera ez utzi.

Ahatzeren eztügi Mosde Felipe Bela<sup>9</sup> zena hogei urthez nobleziaren sindika izanik Mauleko züzenak<sup>10</sup> zütiana güzien kontra izan gordoskari<sup>11</sup> ta etsaiak garhaitü. Dohaiñ ere herria zerbützatü ta Estatien denboran aitoren semiak bere mahañiala khümitatü.<sup>12</sup>

Zonbat honki ezkiniro haren anaiaz Mosde Jean de Bela-Lasalle-az herriri egindian honki miragarriak ehünetan gü beno elhestari ederrago da; dohaiña berrogei mila luis, kolegio bat Maulen herritarren faborian motolaitürük,<sup>13</sup> zonbat laidore eztü merexi zer handiagorik ta ederragorik? Badeia Züharan<sup>14</sup> harri aski, honkiegile halakoari ziameta bat hiriren erdian goititzeko? Harri franko dio norbaitek, bena ziometarik eztateke<sup>15</sup> esker beltzak ezpadü eragiten. Biz diot, nik Züberoko kondairan holako gizonek lekhü die<sup>16</sup> merexi bizi ditian sekülakoz ta lekhü die ükhenen bekhaizgoa errabiaz zaparta badadi ere.

---

<sup>7</sup> erauntsierazi beitzien: jardunarazi baitzuen.

<sup>8</sup> arresta: epai-erabakia.

<sup>9</sup> Joan Felipe Belarekin ibili zen Egiategi Poloniako gerratetan (Sorhuetako jauregian horren liburutegiaz baliatu zen).

<sup>10</sup> züzenak: eskubideak.

<sup>11</sup> gordoskari (Lar.): defentsari.

<sup>12</sup> mahainiala khümitatü: mahainera gonbidatu.

<sup>13</sup> motholaitürük: diruz zabalki lagundurik (Egiategiren kolejioa).

<sup>14</sup> Züharan: Züharra herrixkan.

<sup>15</sup> ziometarik (Lar.) eztateke: monumenturik ez da izango.

<sup>16</sup> die: due, dute.

Bekhaitzgoa da gizontzu kastan galkiro aphalena, arima hirotiaren khossia,<sup>1</sup> dü begithartian larria tximaltzen, belarra hildoskatzen, bephüriak txütitzen, begiak gartzen, südürüra ertsatzen, ezpaiñak txilintxautzen ta maxelak lüzatzen, aragi güzia lurtatzen, arima ta bihotza ber denbora bada, estiran jarten.

Oh! basagizona deit nirokeana halako minaz khoütia hizano gogo eman düka zorihonari, dükan bekhitzgoak hiri zorigaitza zonbatez dean<sup>2</sup> sordeisten, zeliak haialarik maredikatzen? Erradak zer ogen gizon pherestiaren famak derikan egiten; hiri famaren khostüz beria ezpadü egin, zertan hiz samur haren handigoaz? Erradak zeren izterbegi andia, gizon aberatsa, hartarako dereika hiri honik ebatsi? Edo hire ziratekinak bildü, ezpatütü dütianak bere lanetzaz ta obretzaz aberastu bada beraren zorihonaz dük langile. Sokhorrik ezpadereiok eman, ordarirk ez ezte-reiek zor ta aithortzen badü hire eskelegoan deus eztiala obratü hire bekhitzgoan hiz egiazki gizon gaistoa ezi nor nahi hizan hire galkiroaz desohoratzen dük giz-naren izena.

Aitoren seme bahiz, dakik zer den hire eginbidia etxaltiaren aberastia eztena ezetare fama hon baten egarrian, egün oroz ezkopeta besapian lebraost<sup>3</sup> lotsor baten jarraikian, ezetare epher kastaren nekatzian, gutiago oraiño txorier xedera hedatzian hire ofizioa dük gerlaren güdetara. Errege jaunak ezpadü hire beharrik, egik zerbützia laborari eta artzañari. Adereza hadi non diren hartzak ta otsoak, saldoak akopilatzen dütienak. Habil'hoa oihanetara basa arimal heer gerla egitera ta ohore biltzera.

Turenako probintzian nintzalarik askazi bateki, oihen handi batetan bathü güntian<sup>4</sup> hirur zaldün ta dozena bat hor<sup>5</sup> heer jarraikian, bata zen nausia berzeak haren mithilak, hirurak armatiak ta berde soinekoak. Famaz ezagützen zian ene askaziak ihizlaria. Hitz zonbaiten beren artian jarraiki günian gure bidian.

<sup>1</sup> khozia: kutsua.

<sup>2</sup> dean sordeisten: dian (hika) txartzen.

<sup>3</sup> lebraost: erzikume.

<sup>4</sup> bathü güntian: topatu genituen.

<sup>5</sup> hor: zakur.

Galtho egunik nor zen erdelduna, harek aitoren seme bat oihan güziak zütianak probintzietan otsoen erhaile lasterkatzen, bizia aspaldian gerla hartzan ziala igaraiten, herexak zütianian<sup>6</sup> güzik zereiola ezkapatzen gaiak<sup>7</sup> hartzen zian parropietan ohez pairatzen. Harritürik zagoela zioan nere askaziak nola Jaun hura bere adin handian ofizio latz hartzan ari zen oraiño. Ni ere nangoan harritürik ezi 70 urthe-tako gizonaren itxur'ageri ziradian halere botza azkar ta zaldi gizona bezala bere zamarian zabilan.

Dezagün jar ihize hartzan jaun harek ziala gozo miragarria, haiñbeste urthez haiñbeste eskernio ükhenik<sup>8</sup> ta haiñbeste diharü ixuririk zonbat zamari lehertürik ta bere jauregian honki zelarik haiñbeste egongia txarretan zonbat errezagó<sup>9</sup> etzian ükhen. Bena berze alte otso erho zianian<sup>10</sup> saldoan zonbat zerbützü erresumari etzian egin. Holako balirade aitoren seme auherrak<sup>11</sup> ta aski ofizio hartako doatsu<sup>12</sup> liratekinak, miragarri liraiteke ene gogoan ta bekhaizgoa ixil laiteke heen eretzian.<sup>13</sup>

---

<sup>6</sup> herexak zütianian: aztarnak zituenean.

<sup>7</sup> gaiak: gauak.

<sup>8</sup> eskernio ükhenik: irain eduki.

<sup>9</sup> errezagó: *ezerrago* irakurtzen da.

<sup>10</sup> erho zianian: hil zuenean.

<sup>11</sup> auherrak: alferrak.

<sup>12</sup> doatsu: dohaiindun.

<sup>13</sup> heen eretzian: haien alde.

## Adiskidegoaz

Ezta itz oren honian edo gaitzian den sorthü, zer den adiskidegoa eztakianak, ezi latz bada gozamen hartarako bidia, lleiñ<sup>1</sup> da eskierki<sup>2</sup> hartan egoitia. Gütiago nakike laido edo laidore<sup>3</sup> zeion gozamen harez axol bagerik bizi dena ta ber herrokan<sup>4</sup> gizon güziak jarririk heen adiskidegoaz onesdade mehia dianak egiten. Düdagabetarik<sup>5</sup> gizon halakoak boztaro bizirik ezpadü mündian següiro eztiala enoia handirik bena odola diano ephel hotziala hirakiala beno enjoagiago<sup>6</sup> ta gordatzen ezpadü bihotzaren degobia (?) kharron<sup>7</sup> bazik berserenetan<sup>8</sup> edirenentz eztiala. Arrazoa<sup>9</sup> dago berme, ezi tratü suerte heetan koprea ürrheren trükü ezta etartzen<sup>10</sup> ta bihotza nekez da engañaz erosten dena, ardüra hala saltzen. Hantik üdüri lizateke adiskidegoa bagerik dabilana arrankura hanitzez arauzgetürk<sup>11</sup> da-goela. Bena Izairiaren khinper<sup>12</sup> ari denak dialakoz haren egiak arauztitzen eztait basa abereen herrokan jar daitekinez, ez ja gizonenian, ezi Izariak nahi düütü gizon güziak anaie ta ez otsoak bezala beren artian erhaile.

Halako gizonak egiazki horek lagün eztütükie nahi,<sup>13</sup> ezi honki ükhenaz eztianak ezagützerik edo esker beltzak baizik ordari, arima leal harekila<sup>14</sup> lagüngorik e'lüke nahi, hantik goga zer den heen anaiegoa. Ohoiñak beno sordeitz<sup>15</sup> diradiala, dügüia erranen? Ezi heen artean adiskidegoaren legiak daude beren osoan.

<sup>1</sup> lleiñ: legun.

<sup>2</sup> eskierki: noski, jakina.

<sup>3</sup> laido edo laidore: irain edo laudorio.

<sup>4</sup> herrokan: lerroan.

<sup>5</sup> düdagabetarik (*gabe zuberotar forma ezkapatu zaio*).

<sup>6</sup> enjoagiago: emanago.

<sup>7</sup> kharron: horma (orain Z. *kharri*).

<sup>8</sup> berserenetan: *bestenerenetan zuzendu du* (Oihenarteren idatz eragina).

<sup>9</sup> arrazoa: arrazoia.

<sup>10</sup> etarten: onartzen.

<sup>11</sup> arauzgetürk: arau galdurik.

<sup>12</sup> khinper: alderantziz.

<sup>13</sup> eztütükie nahi (geroaldi): ez dituzte nahi izango.

<sup>14</sup> harekila: harekin.

<sup>15</sup> sordeitz: txarrago.

Ber galgiretzaz<sup>16</sup> anaieturik ber arakaietzaz<sup>17</sup> adiskideturik, ber arauztertzaz<sup>18</sup> karzeraturik, ber akadoiaz herioala eripetürük<sup>19</sup> sinhets eptaite heen adiskidegoaren indarra, ezetare zonbat arranka<sup>20</sup> diradian leal, ezi ardüra die arakutsi<sup>21</sup> azotia ezetare estirak, ezetare ürkhagiak<sup>22</sup> beren lagünak ezteritzela salhaerazi.

Goarpe<sup>23</sup> hartin bekhatürük eztela botzik doatza hiltzena ustian salbü diratekiala beren lagüneki. Arima haiñ aphaletan halako iraundia<sup>24</sup> ezpada handitarzün egiazkoia, eztait zer izen eman ezi iraunde halakoan herioan adiskidiari leialago ezpada berthüde, espanta ezkitiala adiskidegoarik mündian ezpada.dezagün aithor oraiko adiskidegoak izena baizik eztiala, dela hezurría hünik eztina,<sup>25</sup> txoko orotan aiphadena eta ihon ere eztena, adiskidiak aldiz arrathuen pare<sup>26</sup> adiskidiaren etxian hustüdenian hantik kanpo doatzanak ta nausiaren eskelegoaren ürrinaz<sup>27</sup> güziak ihesi joaiten.

Egün orozkoak dirade ohitüra heek, jende handietan bakhoizki berdüthe halakoaz diradinak oiustatzen<sup>28</sup> eziez jende aphaletan ediren laite.<sup>29</sup> Zeren? Zeren eta lehenak iritzia eta handinaiak erretzen dütilakoz ardüra. Khortian ber mozkinari<sup>30</sup> bi adiskidiak ixilik haginak jarririk, nork dian eramanen ber bidian beitirade batzen<sup>31</sup> ta adiskidegoaren izenian etsaiki aritzen. Ohoiñetan aldiz direlakoz mozkinak ta galtzurak<sup>32</sup> güzier batkida<sup>33</sup> bata ari beita güzien ta güziak baten.

---

<sup>16</sup> galgiretzaz: gaizki egitez.

<sup>17</sup> arakaietzaz: ekoizpenetaz.

<sup>18</sup> arauztertzaz: lege haustez.

<sup>19</sup> eripetürük: kondenaturik.

<sup>20</sup> arranka: cast. *arrancar* (Laramendiren ustez euskarak emana).

<sup>21</sup> die arakutsi: dute erakutsi.

<sup>22</sup> ürkhagiak: urkabeak.

<sup>23</sup> goarpe (Lar.): sekretu.

<sup>24</sup> iraundia: iraunde (*constancia*).

<sup>25</sup> ezurría hünik eztinak: hezurra muinik eztuena.

<sup>26</sup> arrathuen pare: arratoien pare.

<sup>27</sup> eskelegoaren ürrinaz: txirotasunaren usainaz.

<sup>28</sup> oiustatzen: aldarrikatzen, oihukatzen.

<sup>29</sup> laite: lizateke.

<sup>30</sup> mozkinari: irabaziari.

<sup>31</sup> batzen: batu egiten.

<sup>32</sup> mozkinak eta galtzurak: irabaziak eta galduak.

<sup>33</sup> batkida: bat kide, elkarren arteko.

Aspaldian igaran da denbora adiskidiak bere biziaz adiskidiaren berme jarten zena. Oraikoan adiskidegoa ezta ezagütze bakhüna baizik, arhinzki ahazten<sup>34</sup> dena ta aldizkal bathiak<sup>35</sup> diana arraberritzen.<sup>36</sup>

Zerbait hobororik<sup>37</sup> denian arimaren indarren doiala<sup>38</sup> dabila, bena ez sekülan jenden gradoala hartakoz da batzütan hotx, berzetan bardin<sup>39</sup> lasto süiarene üdüri.<sup>40</sup> Bena heen urdasta<sup>41</sup> da bi aldetarik eztiradianean bi arimen ber trenpatik ezta adiskidegoa egiazkorik.

Bizi hadi –dio filosofo frantzes batek– hire adiskideareki, etsaigei baliz bezala; hobeki khausitü lüke, erran balü “Bizi hadi hire etsaiareki adiskidegei baliz bezala” Hüskaldünak beza haita<sup>42</sup> biggerrena delakoz zühürrena.

---

<sup>34</sup> ahazten: ahaztu egiten.

<sup>35</sup> aldizkal bathiak: aldizkal paradak.

<sup>36</sup> diana arraberritzen: duena birberritzen.

<sup>37</sup> hobororik: zubereraz *habororik* erraten da orain, baina *hoboro* Detxepare nafartarrak darabila, forma horren agertzeak zubereraz pentsarazten du bi itxuratan agertzen zela hitza.

<sup>38</sup> doiala: neurrrira.

<sup>39</sup> bardin: (*aldiz* hitza ezabatu eta gainetik *bardin* idatzi).

<sup>40</sup> üdüri: irudi.

<sup>41</sup> urdasta: probaketa?

<sup>42</sup> haita: hauta, aukera.

## Izkontziaz

Lürrak dian herri güzietan hetan den dierritan<sup>1</sup> errelijiōne güzietan ta basa gizonetan, orotan da gizontzu khasaren üthürbegia<sup>2</sup> gizonaren ta emaztearen hitzkidetu diradeanean: izkontzia<sup>3</sup> dago.

Ürhün dirade egiatik türkek nahi bezain beste emazte diela ustia dianek. Kristianen gisala emazte bakhoitza baizik eztie beren aberastarzünaren arauila mainata saldoak dütie,<sup>4</sup> senharrak mithilak, emaztiak neskatoak akointarik<sup>5</sup> dienian bürrüzagiaz gorderik dabila, anderiak deusere eztaki edo alegia egiten orozbat da basa jenteetan<sup>6</sup> izkontzia hetan ez izanik ere sagamentü emaztiak leal dirade senharrari. etxian alhaba dohain perestatüren dü kanpokoari, bena berarentzat eskentzarik eztü behatüren.<sup>7</sup>

Türkian izkontzian fede emanik bi aldetarik daude tieso, desizkontzerik ezta heen artian, Polonian<sup>8</sup> bezala non senhar emaztiak algarreki aita santiaren legatari errekesta berhezegia<sup>9</sup> eskentü dienian berhezenbeitüta izkontzia hautserik<sup>10</sup> beita, hantik gizon ta emazte dütianak ta emazte bi senhardünak üssü dabiltza, üsiago balima berze lekhütan pribilegioak balirade halako.

Frantzian ezkontze berheziak<sup>11</sup> eztirade bekant,<sup>12</sup> bena akadoiak dütialakoz manhatzen<sup>13</sup> sagamentia dagoeno xütik, izkontzia da hausten ardüra ere andere

<sup>1</sup> dierritan: nazionetan.

<sup>2</sup> üthürbegi: iturbegi.

<sup>3</sup> Izkontzia: zubereraz *ezkontzia* erraten da gaur; hau lekukotasun bakana da. Beharbada nonbait entzuna Zuberoako Pettibarrean –ezker hitzaren ordez *izker* entzuten baita—gero ere hitz joku bat herri etimologia zeren lehen perpusean *hitzkoidatu* / *hitzkidatu*, hitza eman bezala darabilalako.

<sup>4</sup> mainata saldoa: mirabe taldea (türken goraipamena askotan egiten du Egiategik eta, agian, pastoralak itxura txarra ematen dielako ez zituen gure idazleak gogoko).

<sup>5</sup> akointarik: harremanik (inglesez *acquaintance*).

<sup>6</sup> jenteetan: jendeetan (zuberotar forma ez du hemen zuzendu beste lekuetan bezala).

<sup>7</sup> eskentzarik eztü behatüren: eskaintzarik ez du entzungo.

<sup>8</sup> Polonia aipatzen du Egiategik, han egona delako. Beste leku batean kondatzen du nola hara joan zen Poloniako erregearen aldeko gerran.

<sup>9</sup> errekesta berhezegia: bereizteko eskaera.

<sup>10</sup> hautserik: hautsita.

<sup>11</sup> ezkontze berheziak (oraindik Zuberoan darabilaguna) dibortzioak.

<sup>12</sup> bekant: bakan.

<sup>13</sup> akhadoiak dielakoz manhatzen: justiziak dielakoz agintzen.

bi phartidak beren borhondadiaz dirade berhezten ta arrazkontzia<sup>14</sup> salbü, beren khorpitzetzaz<sup>15</sup> nork nahi diana egiten.

Han<sup>16</sup> neskatilak hogei ta bost urthiak eztütieno aita amen photerean / 239 / daude. Etxe handietan net gazterik, seroren konbentietan amak alhaba ezarten izkontzeko adina heltü deno, senarra dereie buskatzen. Ediren denian bürdüin barren artetik dereie arakhusten ta auzkerrentzat amusta<sup>17</sup> ezteientako anderegeiari dereie emaiten.

Thermaiñia zonbait aldziz lüzatzen, zonbait aldziz llabürtzen bi pardiden ta askazien gozoaren doiala bena karzeratik jalki nahiz anderegeia lehen baia khüto<sup>18</sup> dü erraiten, hantik elizala biggerrenaren aiphatzera die eramaiten ta haren landan ezagütze bagerik üzrtartiak doatza, biak manurgan<sup>19</sup> etxerat, tronparik ezpada izan: tratian sarri izetaren<sup>20</sup> garrotea da agertzen ta deithoriak aita amari heltzen. Aberats zen khüinata,<sup>21</sup> bena ez maithagarri, saldü dereie alhaba, dolamenak orai auher.<sup>22</sup> Beheztia behardün bada hantik auzietan ezkoniak ta askaziak etsaitzen ta etxia haur bagerik egoiten.

Dügün ere zerbait jende aphaletzaz etxe zaharraz eztatekina erran. Non nahi neskatilak dirade güziak izkontziari enjogi. Hen amets lehena da, senhar gazte, eder ta aberats zereitzela heltüko, bizi deno maite dükila zin egiten. Anderegeia ametsaz bihotza phiztürük goiztiar dago, edertürük eskiak, gauza orotara jarterik ta güziak ezin hobekiago daude gerthürik. Andere prima dagoelarik ezkaratzean mürkhüilla<sup>23</sup> gerrentzian jarririk.

Morroiñ<sup>24</sup> fresko bat makhila besapian montera beharondoan, elhiurraren pare galtza mutxak<sup>25</sup> da hüillantzen ta denbora ez galdu nahiz auherki dereio anderegeiari / 240 / amorio eskanburra<sup>26</sup> bezain beroa eskentzen ta ametsaren elhe güziak

<sup>14</sup> arrazkontzia: berriz ezkontza.

<sup>15</sup> khorpitzetzaz: gorputzetzaz.

<sup>16</sup> han: Frantzian, ezen Zuberoako foruan (pribilejioan) hamazortzi urteetan ziren neskak beren adin gehiengoan (mutilak 25etan) Jakes Belak 1650.ean idatzi bezala arrazoi-naren heldutasuna gazteago iristen delako nesken artean.

<sup>17</sup> auzkerentzat amusta: aukerentzat hamabost egun.

<sup>18</sup> khüto: labur.

<sup>19</sup> manurgan: karroza ederrean.

<sup>20</sup> isetaren: izuaren? edo isekaren, trufaren.

<sup>21</sup> khüinata: ezkontzekoa.

<sup>22</sup> auher: alfer.

<sup>23</sup> mürkhüilla: kiloa, gorua.

<sup>24</sup> morroiñ: mutil gazte.

<sup>25</sup> galtza mutxa: azpantarrak.

<sup>26</sup> eskanburra: ikatzburra, ikatz gorria.

arra erraiten;<sup>27</sup> anderegeiak ere denboraz zekeintto<sup>28</sup> zelakoz morroiñak izkontziar hitza eman bezain sarri zarta berriaz zian lagüntü: gauza khüto eginak dirade hobenenak, erranak botxia beno tiesoago ziratikila alatürük, morroiña nabastarriaz<sup>29</sup> barkamen galthatürük ta ber grazia biharamüneko alkantzatürük, ainhera bezain arhin zen abiatü.

Anderegeiak photroa<sup>30</sup> dialarik gibeletik aitzinetik bezala<sup>31</sup> zehatü berari dio «hori da ametsetan düdana ikhusi. Ezta bazterretan gizon gazte propiagorik,<sup>32</sup> haren elhiak kobain eztiz bethe denetik dirade jalkiten.<sup>33</sup> Libürüak bezala mintzo da, amorioaren garrak begietarik zereitxo jalkiten. Den orotan eliza besta,<sup>34</sup> bethi merkhatzale, egün oroz tahernakari. Den jai güzietan laisterkari ta phastoraletan lehen philara; bai ene senhar dateke Jinko jaunak du hala erabaki».

Lealgoak eztü amorio gazteren hitzetan beno segürtantza hoberik, jagoitik han-tik eztü izan zankharterik.<sup>35</sup> Bi amorosak bi latsün labien pare<sup>36</sup> berbez ziradian ber süiaz erretzen hogeita laur orenak igaran beno lehen, morroiña zen heltü ta gaiaren<sup>37</sup> lúzaroaz dolümenak bere anderiari eginik hitzemana ezteno kunplitu, oren oroz hiltzen dela dereio zin egiten ta berme dagoelarik izkontze hobenak hitz llabüretan diradiala eginak ezteiak dirade bien artian adelatzen ta galthoa photroak bere gaiñ hartzen. Aita amek berzelako<sup>38</sup> küinat bat begietan zielakoz, khüto ezetz arrapostü,<sup>39</sup> bena anderegeiak diano baietz mügak / 241 / ütüago. Askazien meskabü<sup>40</sup> zonbaiten lotsan zioelarik ezpazen nahi, neskatila heen gozoala ütz lizen bereala izkontzera; otsez<sup>41</sup> jokian jarten ziala hek beno gehiago ta dolützen bazen berari zükiala falta.

---

<sup>27</sup> arra erraiten: berriz esaten.

<sup>28</sup> zekeintto: apur bat motz eta zeken.

<sup>29</sup> alatürük: zin eginik... morroiña nabastarriaz: mutila ausartziaz.

<sup>30</sup> photroak: ez du hegoaldeko sexu erran nahi berdina, “mutil” gazte baizik.

<sup>31</sup> gibeletik aitzinetik bezala: atzetik aurretik bezala.

<sup>32</sup> zehatü berari dio: xehetasunez hari dio.

<sup>33</sup> jalkiten: ateratzen.

<sup>34</sup> eliza besta: herriko jaiak.

<sup>35</sup> zankharterik: *zancadilla*.

<sup>36</sup> latsün labiaren pare: gisu labearen pare.

<sup>37</sup> gairen: gauen.

<sup>38</sup> berzelako: azpian *bestelako*.

<sup>39</sup> arrapostü: erantzun.

<sup>40</sup> meskabü: ezbehar.

<sup>41</sup> otsez: alegia.

Egún güziak eztirade zohardi,<sup>42</sup> bena bai ardüra lanhotzü, borogatzen diana<sup>43</sup> etxeko andere gazteak sarri aharrok<sup>44</sup> aizo goorrek<sup>45</sup> baizik entzütienak, hantik llabür zapartak azalia gabe<sup>46</sup> eztirenak, ezetare nigar bagerik ahazten direnak ta pozkidarik<sup>47</sup> batere izkontzia etzienen nahi(ren) ganik. Bihotzmin handia zena.

Bi izkontze hetarik zoíñ da lealena ta hobenenaz arrapostiren aidürü nagoen, izkongeier<sup>48</sup> zerbait dereit erranen: «Jende honak zelian daude ezkiribüz, izkontze güziak xüxenak, okherrak bezala. Lehenetarik gerth<sup>49</sup> dügün gure aita amer, gütarik hartze diradian errespetia. Jar azkarki bürian ta azkarkiago bihotzian hen eskiatarik baizik izkontziak Jinko jaunak eztütiala beredikatüren; diot ere ber denboran delarik amari alhabari hen borhondadiala<sup>50</sup> izkondu ezpada nahi beriala ütz dezen izkontzera: lana hon bada, balima boztaro<sup>51</sup> gütiago eztükie eziez balitz heen obra. Halako aldiz, ezpada, alhabaren zorigaitza ez obratüz, eztükie heriotzü dolamena zahartarzünian.

---

<sup>42</sup> zohardi: ozkarbi.

<sup>43</sup> bogoratzen dianak: sumatzen duenak.

<sup>44</sup> aharrok: eztabadak.

<sup>45</sup> aizo goorrek: auzo gorrek, auzo elkorrek.

<sup>46</sup> azalia gabe: musikarik gabe.

<sup>47</sup> pozkidarik: bozkriorik.

<sup>48</sup> izkongeier: ezkongiae.

<sup>49</sup> lehenetarik gerth'dügitin: lehenetarik eman dezagun.

<sup>50</sup> borhondadiala: borondatera.

<sup>51</sup> boztaro: boztario, poz.

## Begithartiaz

Begitharte ederra zioan Kristinak, Suediako Erregiñak biala<sup>1</sup> hon bat zela mündian. Egiazki halakoer orotan honki jina zereie.<sup>2</sup> Ezagütze honak dereitzo aitzinatzen<sup>3</sup> ahala bere egitekotan deroie<sup>4</sup> bidia llabürtzen, bortha<sup>5</sup> güziak laister zabaltzen ta zerbütiak orotarik lehiatzen. Halako abantailla da, düda bagerik zeliren<sup>6</sup> dohaiña ta jendiaren iritzitik ustia «arima ederraren egongia khorpitz ederrian» irudi ezin faltsiena ezi egunkal dügü gizon itsusietan arima ederrik edireiten<sup>7</sup> ta erraiten «ohoiña dela gizon perestiari üdürü dena».

Halako elher ezkitela arren fida, bena begiak direlakoz arimaren miraillak bena bai hetan ezagütze hartü dienetarik bada egiazki artiskada hartara aldiratürük<sup>8</sup> hanitz gerthaldiz jakite hartakoan azkartürük,<sup>9</sup> nolako den arima erranen diena begietara soo eginik. Aithortüren düt ezagütze zerbait niala noizpait ekite<sup>10</sup> harten küperatü;<sup>11</sup> bena artizkada harek galthro dialakoz oitokia<sup>12</sup> ta frogantza hanitz, haboroenak düdüldala ahatze<sup>13</sup> ta denarentzat jendia ützi.

Alabadere, düdalakoz seiñale zonbait gogoan kokatürük halakoak dütienetan fede güzik jar dirot;<sup>14</sup> gütiago ere arakuts jakintze harten adra<sup>15</sup> xüxenik emaitia, da ofizio harten bürüzagien lana, ezi arimak dereio begithartei bere mugida güzien ekantzak<sup>16</sup> ta hetan da irakurten zer dian jendiak gogoan.

---

<sup>1</sup> biala: biatikoa.

<sup>2</sup> honki-jina zereie: ongi etorri zaie.

<sup>3</sup> dereitzo aitzinatzen: dizkio aurreratzen.

<sup>4</sup> deroie: diote.

<sup>5</sup> bortha: atea.

<sup>6</sup> zeliren: zeruren.

<sup>7</sup> edireiten: aurkitzen, idoroten.

<sup>8</sup> artiskada: ariketa (fisiognomia, orain modan dagoena aipatzen).

<sup>9</sup> azkarturik: sendotua, gotortua.

<sup>10</sup> ekite: ariketa.

<sup>11</sup> küperatü: eskuratu.

<sup>12</sup> oitokia: ohitura, ekantza, praktika.

<sup>13</sup> ahatze: ahaztu.

<sup>14</sup> dirot: diot.

<sup>15</sup> adra (Lar.): arau.

<sup>16</sup> ekantzak (Lar.): ohiturak .

Jules Caesar-ek begitharte lürtzuak / 243 / etzütian maite, halakoak (ümen) die arima beltz, bekaitz, zarratzu<sup>17</sup> ta arrapazale. Gizon handi harek aldiz, maite zütian begitharte gorriak, direlakoz hontarzün, motalai, artzondi<sup>18</sup> eta emaile. Xurpailak die arima hon, griñaldak ta azertak<sup>19</sup> dütie hotz ta herabesti beltzek khexari, bortxari ta esteraziala<sup>20</sup> dirade enjogi.

Gizon güтик dirade arima gorde ahal dükienik, heetan oïtakin lüzia dianari, ezi beza ahalik arima estiran tinka, probatzeko egia begithartiak gezürra diela salhatuko. Ezta ere gizonik bere begitharteari nahi dian koloria eman lironik, han dago arimaren photeria, eztü arimak gizonari menperik, harek dereio manhatzen.<sup>21</sup> Gizona da aragi zalhe bat<sup>22</sup> arimaren nahiala zothükatzten dena<sup>23</sup> ta hari arrabuhin<sup>24</sup> eztaitekina ta begithardia date sekülakoz haren gogomen salhazalia.

Aski erran ezinez ta soberanaren beldürrez ixiltüren niz heben<sup>25</sup> düdalarik erranen haiñbeste badela banaita gizonen arimetan nola begithartetan ta hen ezagützeko nahia, itsasoaren dela agortziaren borhondadia.<sup>26</sup>

---

<sup>17</sup> zarratzu: zerratuak.

<sup>18</sup> artzonde (Lar.): adeitsu.

<sup>19</sup> griñaldak eta azertak: griñaldiak eta helburuak.

<sup>20</sup> esteratziala (Lar.): zurikeriala.

<sup>21</sup> dereio manhatzen: dio agintzen.

<sup>22</sup> zalhe bat: laister bat.

<sup>23</sup> zothükatzten dena: higitzen dena.

<sup>24</sup> arrabuhin: muzin egile, mutur egile.

<sup>25</sup> ixiltüren niz heben: ixilduko naiz hemen.

<sup>26</sup> (Fisiognomiaz dudatzen du).

Amorioa da azerta bat asmatze güziak borogatzen diana<sup>1</sup> ta ihori ere arpezt' e'lirokiana, jaiera da<sup>2</sup> haiñ handia non zeliak betzeitzo aphalegi,<sup>3</sup> ekhaitzak ixilegi, mendi gorenak ordokiegi hitz bakoitz ezta trebes erraukeriz garhait' e'lirokianik,<sup>4</sup> ezetare pitralerik txoztü e'lirokianik,<sup>5</sup> gogorrik mardo e'lironik. Gaitzik batere eranpa e'lironik.<sup>6</sup> Megopiak düütü bizkortzen, alaigoa azkartzen. Obra ederreterat dü bihotza bizten, tontoak elhestari ederra gertzen. Ezta halako errejentik mündian llabürzki dokdoratzen gizona haren eskolan, dütienik. Heetan eztautze haren senthagaillak<sup>7</sup> gizon mantzoaz dü ohila egiten ta ohilaz mantsoa; kobartaz bihotztoia gizon basa ta gitzaz, motalaia ta maithagarria; hordizalia hur edale, jokariaz bakartarria. Gizona dü lehen hobetzen eziez gaistotzen.

Berze abantailla handirik daude amorioan zahartu denian dü adiskidegoan bere lekian jarten ta batian izan zen bezain beste leal, berzeren hala dago; bena bego, amorioa bere abantailla güzien barnen. Franko ja ni azotatürik, adioak ere erranik, ezagützen eztienetara düt igorraiten eta esparantzan nago eskernio de-reitzenetarik eman, sorthü honak naiala hebentik aitzina begiratüko; bihotz oroz düdalarik opatzen bere photere güziaz goza dadin gizon gazteetan, ezi ni berme, hari ihesi egiliak diratekila mündian gizon mehiak.

---

<sup>1</sup> borogatzen: frogatzen.

<sup>2</sup> arpezt' e'lirokiana, jaiera: aldarrika ez dezakeana, atximendua.

<sup>3</sup> zeliak betzeitzo aphalegi: zeruak baitzaizkio beheregi.

<sup>4</sup> trebes erraukeriz garhait: zeihar ariketaaz garhaitu.

<sup>5</sup> pitralerik txoztü e'lirokianik: haberik zotz egin ez lezakeanik.

<sup>6</sup> eranpa e'lironik: jasan e'lezakenik.

<sup>7</sup> senthagaillak: mirariak, mirakuiluak.

Zahartarzünian dirade abantailla ta ezeragoa<sup>1</sup> handirik; hartakoz ezta mündian aukerrik<sup>2</sup> gizon zaharrak bezain beste errespetü zor zereionik. Gizontzu kastaren desohorian izan noizpait dierri,<sup>3</sup> gizon zaharrak erhainen<sup>4</sup> zütienak sogdianak ziradien hetarik, ezi dügü ikhusten Alexander Handiak odolgirode halakoa zereiela debekatü. Kantabruk noizpaikoak ere zahartarzünaz ziradianian nekatürük larapoka<sup>5</sup> zabiltzan botxien thinila leezetara berak larrützera.

Zahartarzünaren abantaillak dirade, hanitz gauza ikuhsirik, hetzaz ohartzia; gerthalди honik jende gazteari emaitea ta egin dian egongiarene begiratzia. Eritarzünetañ gazteak beno dolore gütiago ta ozarte<sup>6</sup> gehiago ükhaitia ta bere azken egünian lotsa bagerik hiltzia, borogatürük<sup>7</sup> odola zereiola hozten, indarrak flakatzen, bista aphaltzen, entzütia neketzen, mengoak gütitzen ta loa arhintzen bena arima zahartzen ezteno graba ta arroska heetan debeiatürük<sup>8</sup> karzeratü noiz jalkiren den, karzelaren aidürü<sup>9</sup> dagoela, aspaldian du Herioa opatzen ta gauza ederrik mündian eginik, zeliala<sup>10</sup> ederki abiatzia.

Zaharrak dirade arrazki damürratzü<sup>11</sup> dielakoz bethi gogoan beren aitak etzütelakoz balio, beren haurrak gütiago hek beno diratekila. Egia daitekina bena izairatik beita, ez gizonen faldatik urrapena dela joaitatü<sup>12</sup> eztü gogatzen ta emekiz emeki khasta deuseretara doala. Dütiano indarrak galtzen, ustia dago etxenkoek diela garhaitzen, hartakoz dremenden elheaz da samurtzen.<sup>13</sup> Bena za-

<sup>1</sup> ezeragoa: ezdeuskeria.

<sup>2</sup> aukerrik: aukerarik, hauturik.

<sup>3</sup> dierri (Lar.): nazione.

<sup>4</sup> erhainen: hiltzen.

<sup>5</sup> larapoka: lauoinetan.

<sup>6</sup> ozarte (Lar.): pazientzia.

<sup>7</sup> borogatürük sumaturik.

<sup>8</sup> graba ta arroska heetan debeiatürük: harri eta arkaitz haietan asperturik.

<sup>9</sup> karzelaren aidürü: presontegia itxaroten.

<sup>10</sup> zeliala: zerura.

<sup>11</sup> damurrutsu: melankoliatsu.

<sup>12</sup> urrapena dela joaitatü: urratzea dela gertatu.

<sup>13</sup> demendren elheaz samurtzen: den gutien hitzaz samurtzen.

harretan enfadatzia dirade auherkerian<sup>14</sup> bizitzia igaran dienatarik, buria hutsik, megopia gauza aphaletzaz eripekatürük<sup>15</sup> ta adüstia<sup>16</sup> / 246 / bazka bagerik, jakintzerik deuseretan batere, arrazoari bethi bihürtürik, jendia hetarik doa ihesi.

Halako ezta zaharra bere denboraz enplegū hona egin diana. Zer nahi ofiziotan zentzühonez bere bizitziaren kondaira dü erranen, zeren ta nola egin dütian gauzak bederakatüren<sup>17</sup> heetan ükhen dütian meskabiak ez ahatzeren<sup>18</sup> ezetare bere faltetan hutsik ez eginen.

Halako zaharrari dereio Herio eztia ordaria ekhartzen zakartzü ordian etxaltiaren aizoak üngüratürük daude marrakaz, nigar thurrustaz, haren ehortz ziloa<sup>19</sup> bustatzen, gazterik hil balitz bezala deithoratzen. Zahar gaitzak aldiz etxekoeng begia idor ützirik ta eskerrak franko jinkoari lürra hartzian pezaz<sup>20</sup> arhintü da sarri ahatzerik; joan da bera bezalakoer gerthaldi<sup>21</sup> lotsagarriak emanik.

Hanitz dirade zahar gazte direnik ta güzik gazte zahar ager diradianik, heetan arrazoa haiñ berantiar nola berzetan goiztiar, heetan haurzaroa delakoz lüze, bizia llabür, berzetan bizia haurzaroa bezain lüze ta auherkerian igaranik,<sup>22</sup> hartan dena akabatzen, hala herioa bizia beno lehenago heltzen.

Halakoak ezpakirade izan nahi diezagün megopiari ta korpitzari<sup>23</sup> behar dükien eman. Khorpitz ere bere zahartarzunian sokhorri bazka behar die, bethierreko lanian daudenek, ezi haren faltaz, bata ta berzia galkortürük<sup>24</sup> doa gizona deusereztara gitian ediren<sup>25</sup> zaharren gisala bizi gaztaroen amorekatik gazterik zahar gitian. Arima obra honestaz bizi ezkada laket ezta<sup>26</sup> bere egongian<sup>27</sup> hetzaz baizik ezta bizi khorpitzza algarri etxekitzen<sup>28</sup> ta hareki berhezia botzik ügürükitzen.<sup>29</sup>

<sup>14</sup> auherkerian: alferkerian.

<sup>15</sup> megopia .... eripekatürük (Lar.): gogoa .... menperatürük.

<sup>16</sup> adüstia (Lar. ): pentsaera, gogoera.

<sup>17</sup> bederekatüren: banatuko.

<sup>18</sup> ahatzeren: ahaztuko.

<sup>19</sup> ehortz ziloa: lurperatzeko zuloa.

<sup>20</sup> pezaz: askoz.

<sup>21</sup> gerthaldi: etsenplü, adibide eredugarri.

<sup>22</sup> auherkerian igaran: alferkerian igaro.

<sup>23</sup> megopiari eta khorpitzari: izpiritü eta gorputzari.

<sup>24</sup> galkortürük: galtzekotan jarria hemen dirudienez aszetismoaren aurkakoa.

<sup>25</sup> gitian ediren: gaitezen topa.

<sup>26</sup> laket ezta: ezta gustora.

<sup>27</sup> egongian: egonlekuan.

<sup>28</sup> algarri etxekitzen: elkarri eusten.

<sup>29</sup> ügürükitzen: igurikatzen, itxaroten.

Ezta it elhe haren izena gazteago denez eziez gauza; dakit bakhoizki dela latinetik *ego* ta frantzesetik *-isme* ta bi hitz heen izkontzetik dela sorthü *egoísmoa*, hüs-karaz *nihauengoa* dena oraiko erreligion, bazterretan güziena. Dügün beha Mosde Mercier irakasde hartarik mintzatü dena lehena dio:

«Net barna nangoan loan fantoma batek nündiala eskütik nianian gogatü nere ametsian, eskuia zialakoz izigarri hotz; hari ezkapi nahizbihurtzen nintzan azkarki; bena ni beno zelakoz azkarrago behartü nintzan jarraiki, lürpetik bobeda batetan bortha net hertsi zenetik nündian sarerazi, hantik larrapoka<sup>1</sup> lekhü zabal ta ülhün batetara nündian eraman»

„Hirur lanpadek bobedan xilintxau<sup>2</sup> harzülo lotsagarria zien haiñ nekez argitzen non ülhüna alde orotarik argia beitzian garhaiten. Behera begiak nütianian jarri üngüruniak thonba zathiz ikhusi nütian betherik bazterrak.

„Hanko borthazaiñak zian khorpitsa llabür, büria handi ta thorpe zen ere ezinago gaitz, elheak khorronkaz zütian nahasten ta laguntzen. Bere zopinetzaz zen ageri xirzigarritara zela enjoig<sup>3</sup> belarrean<sup>4</sup> zian *finance* bere izena zena. Lagün bat zian abarra bezaiñ idor, begiak ere okher, bere eskelegoatik zian alabadere airia, bihoztoi, maxelan ere bere izena *La ressource*.<sup>5</sup>

“Biek zabaltü bezain sarri bortha<sup>6</sup> jende saldoa besainkoak batak berzer ezin tinkoago sarthü zen hurubil batzuek zütien<sup>7</sup> itxuriak ardotzu ta ahetzu,<sup>8</sup> berzek sabelak izigarri lodi, zankoak podagratzü,<sup>9</sup> lepoak sormintzü. Berzerik / 248 /

<sup>1</sup> larrapoka: lauroinka.

<sup>2</sup> xilintxau: dilindan.

<sup>3</sup> xirzigarritara enjoig: zirtzilgarrietara.

<sup>4</sup> belarrean: bekokian.

<sup>5</sup> *La Ressource*: baliabidea.

<sup>6</sup> zabaltü bezain sarri bortha: ireki bezain laister atea.

<sup>7</sup> zütien: zituzten.

<sup>8</sup> ahetzü: ahetzdun.

<sup>9</sup> zankoak podagratzü: hankak gotarekin.

pikak bezaiñ ahülik, xarnegoen<sup>10</sup> sabeiakin, begithartiak zütien lürtzü ta beren bilhotzak intxaldietan,<sup>11</sup> eskiak mangita bilhoz pelatietan.<sup>12</sup>

“Güziek zütien<sup>13</sup> besapetan pergamin parrafatiak handi edo txipiak, marrakaz khentzen zütienak ari zirelarik. Nere landan uholdea,<sup>14</sup> biderbilen dütüt nere barrentak<sup>15</sup> auher niz biziko, askazi güziak dütüt desprimitzen, dateke nere mahaiña «jarriko ta hariko».<sup>16</sup> Estalbia zaldiz betherik. E’niz izkontüko» Azalia marrakatzü hortan etzen entzüten baizik *ni, nirez, nihauaren, neretzat, enetakoz* ...

Behazaler zütien arima ta beharrian<sup>17</sup> phorrokatzten zirelakoz bethi ber txanpak<sup>18</sup> arraberritzen.<sup>19</sup>

«Fantomak kheiñu bat egin bezain sarri jendia laister ürrhe ta zilhar haren jargiala<sup>20</sup> zen abiatü, eiheran hura bezala arropari ixurtera. Jargiak zian hamasei zehe goratarzün, llabür fantomaren bidarrialadrano<sup>21</sup> metha zen handitü. Jalki zen ordian ta aberatstarzün hortarik ekharzaler detxemaren barreiatzeko.<sup>22</sup> Harzale hedetarik ziradian hanitz zarta hiltzen ta lagünek hotzik ta begiak idorrik<sup>23</sup> salaren bazterreko thonbetan zütien herrokatzzen».<sup>24</sup> Bizidünek hilen diharia zien biltzen ta berriz methala urthukitzten<sup>25</sup> zioelarik berzetzaz dükela axolik, ni, niri, nere landan ez deus, nere aitzinekoek egin diena egin nik ere. Ber denboran flasko bat sakolatik idekirik zian fantomak berdiren atzamaiteko<sup>26</sup> zioan «ehün urtheren bizia düt huntarik edanen». Arrapazaleak haiñ emaile ikhustian nündian / 249 / harri-garri espantatzen.

---

<sup>10</sup> xarnegoen: zakur iharra, hemen.

<sup>11</sup> bilhorzak intxaldietan: beren adatsak harrotuetan?

<sup>12</sup> mangita bilhoz pelatietan: biloa kendutako boltsetan.

<sup>13</sup> zütien: zituzten.

<sup>14</sup> nere landan uholdea: hori esan zuen Luis XV. Frantziakoak Egiategiren gazte garaian eta benetan Iraultzarekin ondoko erregeak uholdea eduki zuen.

<sup>15</sup> biderbilen... barentak: bikunduko errentak.

<sup>16</sup> jarriko ta hariko: hitz joku bat *haricot* babarruna delako frantsesez.

<sup>17</sup> beharrian: belarian.

<sup>18</sup> txanpak: zaunkak.

<sup>19</sup> arraberritzen: birberritzen.

<sup>20</sup> jargiala: aulkira.

<sup>21</sup> bidarrialadrano: okotzeraino.

<sup>22</sup> detxemaren barreiatzeko: hamarrenaren banatzeko.

<sup>23</sup> idorrik: lehorrik.

<sup>24</sup> zütien herrokatzten: zituzten lerrokatzten.

<sup>25</sup> urthukitzten: jaurtigitzen.

<sup>26</sup> berdiren atzamaiteko: tontoen harrapatzeko.

„Fantomak hamabi buulta<sup>27</sup> bardinetan bere khorpitzা ützül erazi diharü xehez zialarik ihiztatzen,<sup>28</sup> zakialakoz zer ziradian berantarren mozkinetarik zonbat zen baratzen<sup>29</sup> bera saldoa saiherztürk<sup>30</sup> zonbat ützülika lüze zen, zertakoz zioan batek sorthü gaitza düdano izena Abraham, enaie izentatü Zakharia. Fantoma bethi elher goor libürüñi bat «probabilités de la vie humaine» irakurtzen ari zen liburua zen güтик jendek ziana ezagützen ta gütiago ere enthelegatzen ziena.<sup>31</sup>

„Meta aphal bat zeno ixuriari luisak<sup>32</sup> lürriala zeritzen erorten, bera harzaliak bildü etzütiano hilik zen erorten, herresta eramaiten zianak urzuloala<sup>33</sup> abarikatzen<sup>34</sup> zioan: garaztu dutene kitantza.<sup>35</sup>

„Artean nigar batere gabetarik<sup>36</sup> batak berziak ehorzten ziradian ta diharia sa-koletan ikhertia lürrila ere eroria. Ezta zer mirakindiaz<sup>37</sup> zen metala berriz ethor-tzen. Azkenekoz fantoma haren erdian berebera zen lanthatü.

„Nihaur nintzan baizik salan, fantomak soo lotsagarriarekilan<sup>38</sup> erran, nor iz, zer ari iz, nork honat ai<sup>39</sup> ekharri, zer nahi duk? Nik ere arrapostü ikharan he! Pergamin bagerik ekhiaren zearginatzaz,<sup>40</sup> lür lapurretzaz ta zühaiñek<sup>41</sup> dienatarik gozatzia. Hartan ixiltü zen, nere ganik diharürik ez ükenik eta bera haiñbeste hilen artian bizirik nangoalakoz aire samurra zian.

„Begi izialketzaz<sup>42</sup> nere jaun Fantomari soo egiten, aztaletara arropa berdia / 250 / zereionian erori. Ordian azurutza<sup>43</sup> beltz bat –zaldi azurutza batetan– ikuusi nian igaiten<sup>44</sup> ta ustia ükhen apokalipsaren bertset misterius hetara, bata niala irakhurten. Zaldiren ta zaldunaren kharrasketarik gogatü metako ürrhiaz<sup>45</sup>

<sup>27</sup> buulta: itzulika, buelta

<sup>28</sup> ihiztatze: ihintsez busstatze

<sup>29</sup> saiherztürk: saihesturik, bazterturik.

<sup>30</sup> baratzen: gelditzen

<sup>31</sup> enthelegatzen ziena: ulertzen zutena.

<sup>32</sup> luisak: errege diruak

<sup>33</sup> urzuloala: urzulora, harpera

<sup>34</sup> abarikatzen: apurtzen, hausten

<sup>35</sup> garaztu: ureztatu

<sup>36</sup> gabetarik: (zubererazko itxura, ez du *bagetarik* zuzendu)

<sup>37</sup> soo lotsagarriarekilan: begirada izutu batekin

<sup>38</sup> zer ari iz...: zer ari haiz,...

<sup>39</sup> ai ekarri: hau ekarri.

<sup>40</sup> ekhiaren zearginatzaz: eguzkiaren gardentasunaz.

<sup>41</sup> zühaiñek: zuhaitzek.

<sup>42</sup> izialketzaz: iztuetaz.

<sup>43</sup> azurutza (Lar.): bizkaierazko hitza ezurhütsa zubereraz.

<sup>44</sup> igaiten: igotzen.

<sup>45</sup> ürrhiaz:urreaz.

etziradiala gizentü. Meta ere ikhusirik hurtzen ta bobedaren harrien artetik haren lanhoa igaraiten, berzerik ez salbü ülhünak laurdenka lürrian herresta.

„Azalia nahatsu batek zian batetan harzulo lotsagarria bethe, hilak alde orotarik zatitürik zen entzüten marraka: nere haurrek, nere llobak, nere adiskidiak ahatze dütütanak, gorago mintzatü nahi ziradian bena nekez ta botz flakiaz zioen herriren kontra jokhatü, eskeletu, eskeletu ahül ta jale harekilan herioareki girade erauntsi. Partida dügü irapaizi, herioak hitz hek erranik ixilik beren thonbetara ziradian erorten.

„Ni bakhoitz,<sup>46</sup> haiñbeste hilen artian hanbat dolamenen erdian, ta ixiltze lotsagariago batetan, beldürrak, ikharak ta hatsbahiaiak<sup>47</sup> arima dereitade<sup>48</sup> garhaiten, izerdi hotzak nai murgiltzen,<sup>49</sup> heiagora<sup>50</sup> batek iratzartzen.

---

<sup>46</sup> bakhoitz: bakarrik.

<sup>47</sup> hatsbahiaiak: arnas nekeak.

<sup>48</sup> arima dereitade: arima didate.

<sup>49</sup> nai murgiltzen: nau itotzen, nau pulunpatzen.

<sup>50</sup> heiagora: deihadarra.

Jarri zien noizpaikoek egia ekhiaren<sup>2</sup> erdian, jakin lezan mündiak haren egongia zagoela argi handienian, haren berdüthiak egiazki dialarik, ezarten dereitzen oideiak akhazatzen, ekhiak dütian bezala lanhoak ahoetzen<sup>3</sup> bere distir ederretan da agertzen, ta gizon pherestien gogamenian bere lekhia hartzen, hantik falta begien so-khorrialda jiten. Berdüthia dü haiñ indartsü non salgaitzaz denian ilaundu<sup>4</sup> bere etsaien garhaiteko beraz baizik behar ezpeiti ta bere alte hen jarteko.

Egia da barniaren eta kanpoaren erakinda obetandena<sup>5</sup> erran nahi dena ari-maren ta ahoaren artian erantzé<sup>6</sup> lealena, eskernio gizon pherestiari dereitzenetan kontra ere lezarla bidagerzetan<sup>7</sup> ta izardi lokabia menperatzen dienetan.

Sü beraren sendia bere jalkitiatik<sup>8</sup> dian dohañaz, gezürrari bethi khinper,<sup>9</sup> errukiari tinko oitura lealenetan dü egongia maitena.

Orai diala berrehün urthe gizon damürratsiak zioan<sup>10</sup> haren denboran mündia zagoela haiñ galkiratürk non egin gezürraz garhaitürk, hari ere jendia gibeltürk eztiala mündian egongiarik, ber elheak gure artian dütügüno biderperatzen<sup>11</sup> ta nozpaiko jendiaz honki erraiten, zer erran liro orai ber gizonak bere anaietzaz, ikhustian egiaren oitura mespretzü handienian dagoela.

/ 252 / Egin düdü hügün<sup>12</sup> bazter txokoak ta ezkapagiak, bera ezta lekhü age-retan alde orotarik ikhusten denetan, baizik laket harez beldürdünak, soorik hari ezinez egin, ülhünkeriaz die menperatzen ta dakiilarik non dagoan, begiak ikuhs eztezen dütie baztertzen.

<sup>1</sup> Hamahiru lerro ezabatuak eta azpian berridatziak. Kapitulu zailena da larramendismoz betea delako.

<sup>2</sup> ekhia: eguzkia.

<sup>3</sup> ahoetzen: barreiatzen, sakabanatzen.

<sup>4</sup> salgaitzaz denean illondu (Lar.): salatzalez denean suntsitu.

<sup>5</sup> erakinda obetandena (Lar.): adostasun beteginena.

<sup>6</sup> erantzé: erantzule.

<sup>7</sup> lezarla bidagerzetan (Lar.): probindentzia bide agertzetan.

<sup>8</sup> bere jalkitiatik: eguzkiaren ateratzetik.

<sup>9</sup> khinper: alderantziz.

<sup>10</sup> damürratsiak (Lar.): melankoniatsuak.

<sup>11</sup> biderperatzen (Lar.): errepikatzen.

<sup>12</sup> hügün: gorroto.

Bakiaren adiskide beroa maitiago dü erdi gorderik egoitian eziez ogen egin balizo<sup>13</sup> osoki agertürik. Alabadere gezürra eztü nahi bere lekhian, ezetare zogirak ta zabaldiak<sup>14</sup> eztereitzo agradatzen; bere izairiari ogenik<sup>15</sup> egin dezen nekez ere erranpa lamaldu<sup>16</sup> lealek traojiarrek *bonum dolum* deitzen diena diana egiaren üdürüa.

Egiaren eskudari zelotziak<sup>17</sup> düda bagerik beltzazki halakoari eztie eskü emanen gezürraren aizo hüllanegi<sup>18</sup> direlakoz ta urgaitz gogotsuak<sup>19</sup> dütielarik mespretzatzen Judithen lana Holofrenaren eretzian da eripetzen<sup>20</sup> hala egia santiak ezterrazi<sup>21</sup> güziak bere obretarik dütie urthukitzen<sup>22</sup>.

Dian Egiaren azantza, zogiro khidari, noiz, non, noren eritzian dian enplegü, behar da gogo eman jenden arauiala hartan ari; ezi khinper dütialakoz ekaraiak<sup>23</sup> ardüra adiskide nahi günükiana egia baten ordari, etsai latza da gertzen. Egiak zonbait aldiz gozaldi dü emaiten, bakhanki dü gogatzan, ardüra ere, sinhesterek ezükheiten hartakoz betüste<sup>24</sup> arauen gatik jendia haren ihesi doa.

Mündian ezta photherik egia garhait / 253 / lirokianik. Denbora zaharrek egia-ren phartez baizik errespetürik eztie. Dakigü alabadere egiaren probantzä gütiago denboran, eziez denborarena egian dagoela, hartakoz irudier zogiegi izan ezkinakteke ardüra diradialakoz faltsü gertzen.

Egia ezagütiari bihurtzea da ere peligroso, suskartez ta zankharterez<sup>25</sup> hari ogen egitia. Saldo dirade egiak ta hen artian banaite handia, bena güziak «sencilloan» ta bakondian baizik ez laket. Gezürra aldiz megopian eta orozterian<sup>26</sup> dialakoz sortezepeña ta hazkürria, falta zereionian egiten, dütie pikarraitzan<sup>27</sup> ta dago ordian ahalkez estalirik. Egia aldiz dago ederrago bilaizik errana. Erranik deno berzea egünkal berenetan bere erranetzaz ezestatzen.

---

<sup>13</sup> ogen egin balizo: kalte egin balezaio.

<sup>14</sup> zogirak eta zabaldiak: zuhurrak eta leku ageriak.

<sup>15</sup> izairiari ogenik: naturari kalterik.

<sup>16</sup> erranpa lamaldu (Lar.): oinazea jasan, eztitu(?).

<sup>17</sup> eskudari zelotziak: eskutari arduratsuak.

<sup>18</sup> aizo hüllanegi: auzu urranegi/hurbilegi.

<sup>19</sup> ürgaitz gogotsuak: moral laguntza gogo onezkoak.

<sup>20</sup> eripetzen (Lar.): kondenatzan.

<sup>21</sup> ezterrazi: zurikeria.

<sup>22</sup> urthukitzen: jaurtigitzen.

<sup>23</sup> ekharaiak (Lar.): jenioak.

<sup>24</sup> betüste: begirune.

<sup>25</sup> süskartez eta zankartez: su emanaz eta beaztoparaziz.

<sup>26</sup> megopian eta orozterian: gogamenean eta oroimenean.

<sup>27</sup> pikarraitzan: bilaizten, osorik eranzten.

Düdatzia egiaz, berri delakoz, da erhokeria handia, ezi egia da denbora güziena, sekulan gazte ezetare zahar izan eztena. Lezarratza<sup>28</sup> dü etsai handiena ta haren ez berze arrazorik, mündiak eskernio egiten zereitzonak<sup>29</sup> baizik, bena zer probetxü hetarik ükhen die egilek batzu baizik egiaren omenari diradiala zerbützari gerthü.

Auherki<sup>30</sup> dirade erauntsi<sup>31</sup> egiaren kontra mündüko alaido borthitzenak. Zer die obratü badoi<sup>32</sup> txar mehe batez die zonbait aldiz estali, ürratü diana ordüz edo berant<sup>33</sup> bere nahiala. Nola egiazki nola gizonak güda diro<sup>34</sup> berdüthe bat bihotzükeriaren arima dena hareniala,<sup>35</sup> ekhia dena haren begietara.

Bai daiteke, egiak düükiala bethi bere xidizkariak, jezariak ta ükariak<sup>36</sup> bena heetarik eztaite batere haren ziargitzetzaz<sup>37</sup> errerik belhariko<sup>38</sup> faboria galthatüren ezterieionik<sup>39</sup> ta bethi haren argiari ihesi eginik, dolamenez abartürik<sup>40</sup> bihotza eztükianak bilauroki sekülakoetzaz janik, ethorriren.<sup>41</sup>

/ 254 / Egia denboraren alhaba zela gure aitzinekoen zen elhea bere berdüthiaz delakoz bere osoan egon ta bethi haiñ miraraztia, non –ümen– balü nahia, genezen ikuhs bere izairia, khorpitzza beilüke<sup>42</sup> argian ta arima egian, ezi egiak dü berdüthe bat jinkotik dena, noispaloko diana erran erazi, ekhi bat zela zothükatzten etzena<sup>43</sup> ta sorthaldiarik etziana. Oh! sorthü honian jendiak haren argiaz deusetan ari eztirenak.

---

<sup>28</sup> lezarratza: adimenaren berotzea.

<sup>29</sup> eskernio egiten zereitzonak: burla egiten zizkionak.

<sup>30</sup> auherki: alferretan.

<sup>31</sup> erauntsi: ari izan, jardun.

<sup>32</sup> badoi (Lar.): buruko oihal.

<sup>33</sup> berant: berandu.

<sup>34</sup> diro: dezake.

<sup>35</sup> hareniala: harenera.

<sup>36</sup> xidiskariak, jezariak ta ükariak: txistuegileak, jasaileak eta ukatzailak.

<sup>37</sup> ziargitzetzaz (Lar.): argi izpiez.

<sup>38</sup> belhariko: belauniko.

<sup>39</sup> galthatüren ezterieionik: eskatuko eztionik.

<sup>40</sup> abartürik: apurturik.

<sup>41</sup> ethorriren: itzuliko.

<sup>42</sup> beilüke: bailuke.

<sup>43</sup> ekhi bat zela zotükatzten etzena: eguzki bat zen mugitzen ez zena.

## Denboraz

Alhabaren doandiaren landan<sup>1</sup> dügün haren zerbait erran. Sofoklek Jinkoaren izena denborari dereio eman hatsarrerik<sup>2</sup> ezetare akabaillarik eztialakoz ükhenen mündüko gauzak diratekino. Mugida güzien hauslia dela ta phorrokaria ororen khanbiazalea ta izariak egin dütian<sup>3</sup> gogorrenen higazalia, botxiak ta bürduiña jaten ta ühaitzer<sup>4</sup> bidia khanbiatzen.

Filosofoek bi denbora baizik eztela ezagützen, igarana ta jingeia.<sup>5</sup> Orain dioe jingeiareni hatsarria baizik eztela, bena Ezkiribü Santia, hirur denboretzaz mintzo da heetan ere dügü sinhestia.

Ezta denborarik azkena deitzen denik, eztelakoz gizonik ikhusi dianik ezetare dironik.<sup>6</sup> Alabadere<sup>7</sup> profetek ta apostoliekin azken denboretzaz dereikie zerbait erraiten ta hek dirade azken jüjamentiri<sup>8</sup> hüllantzen diradianak ta denborak jingeigoan dagotzanak.<sup>9</sup>

Mündiareki sorthü da denbora, hareki ere akabiren, dabilarik bethi bere grado khanbio bagerik ta hütsarte bagerik bere obretan ezaite; ari da hiri egiten ta arrasatzen, jende gaztia zahartzen / 255 / emazte ederrak itsusten, batzük goratzen berziak aphaltzen. Zonbait aberasten, saldoki eskeletzen, gauza gordeenak agerezitzen, itsasoa largatzen ta hersatzen.

Dü üthurriaren üdüria, bethi hur bera diana ta bethi ber hura igarana berriz etzereio jiten<sup>10</sup> hala ere denbora da bethi denbora eta ez ber denbora hartakoz ützi dianak auherki igaraitera e'liro küpera.<sup>11</sup> Lekhü güzietan büriüzagien büriüzagi da bethi ari pausü bagerik; igarana eztago jingeia,<sup>12</sup> aizearen pare da igaranen,

---

<sup>1</sup> doandiaren (Lar.) landan: dohain handiaren ondotik.

<sup>2</sup> hatsarrerik: hasieratik.

<sup>3</sup> izariak egin dütian: neurriak egin dituen.

<sup>4</sup> ühaitzer: basa ibaiei.

<sup>5</sup> igarana ta jingeia: iragana ta etortzekoa.

<sup>6</sup> dironik: dezakenik.

<sup>7</sup> alabadere: halatan ere, alabaina.

<sup>8</sup> jüjamentiri: epaiketari.

<sup>9</sup> dagotzanak: daudenak.

<sup>10</sup> etzereio jiten: ez zaio etortzen.

<sup>11</sup> e'liro küpera: ez lezake eskura.

<sup>12</sup> igarana ezta jingeia: iragana ez da etortzekoa.

oraikoa nekez bien artian dügü borogatzen<sup>13</sup> ta heltü ezteno da igaraiten igaran, arren segürrena dena hartarik ez protxürik egoiten.

Hogeitalaur phartetan dezagün erthailt' denbora, dügün heren bat oheari ta mahaiñari berze bat lanari edo egitekoer, nola hirurgerrenaz kontü eman daiteke? Alabadere behar zütian lanak daude galdurik ta següro berriz ezta jinen ezi haren jarraikiz dabilanak dütü bere lanak, haboro eziz<sup>14</sup> üthurr'hura itsasoalat abiatia bezala den denbora ta haren eretzian zer da gure bizia: minüta. Denboraz direnak zekeiñ dirade jende pherestiak ta langile handiak hetzaz ere Zenonek dio denbora dela hen beharrak handiena.

Gauza güziek die beren denborak nahi ezi batari doi lizatekina berziari bada igaraiten, daiteke bientzat auherki<sup>15</sup> galdurik. Hantik zeha fida dena denborari erho thipila<sup>16</sup> dela ezen, arren gizonek jakin denbora dügüno guria dela, gure es-kietarik, denian kanpo ezkiradiala harenak.

---

<sup>13</sup> borogatzen: nabaritzen.

<sup>14</sup> haboro eziz: gehiago ezik.

<sup>15</sup> auherki: alferki.

<sup>16</sup> erho thipila: ero hutsa.

/ 256 /

## Sorgiñ edo belhagiletzaz

Eztait hitz heen zaiña nontik, ezetare zertan jende heen ofizioa dagoan; bena dakit, diala ehüntze bat ta erdi<sup>1</sup> hüskal herriean ofizio halakoa sinheste handian zagoela, galdu ere eztiala osoki fama. Obra hona lizate fama halakoari bide güzien thapatzia, bena elhe zaharren herrokan<sup>2</sup> dagoan sinhestia borratzia lizate lan arhina heben, haren besarkatzia ezta ene egarria baina gauza harenaren düdan zerbaiteen erraitia.

Belhagilegoaren dohaina beitaldiro<sup>3</sup> emazte zahar ta eskele batzuer da emazten ta bereziki amuinaz<sup>4</sup> bizi direner, her Debriak gaitzaren photeriak emaiten dereitze ta hala sorgiñatürük daude; bebita<sup>5</sup> haren faltsükeria proba laiteke arrazo saldoaz bena apevez baizik heben eztüyü beharrik.

1. Nere ustia da, gaitz egiteko mithilik, ezetare neskatorik, Debriak eztiala beharrik.

2. Halakorik behar balü aberats litírola<sup>6</sup> ta ez eskele enbeia<sup>7</sup> diradian bezala.

3. Egia bada halako mainatetzaz<sup>8</sup> ari dela ofizioan soldata ageri dela emaiten eztereielo, ezetare nahian dereitzela, direlakoz belhagile güziak ahalkeigarri. Han-tik, jarraikia edo nausia zikiñ dela edo miskandiek<sup>9</sup> gaizki zerbützatzen diela. O! sekülan ezta ikhusi maiñatarik soldata ta ogi bagerik, alabadere hartan daude sorgiñ güziak.

4. Gizonak direlakoz emaztiak beno azkarrago, bihoztoiago, espantagarri dago Debriak eztian mithilik ta den haren konfidantza jarri, emazteetan beno lehen; ezpaliz ere segretiaren gatik, bai etare khordosta<sup>10</sup> süiaz eztiradealakoz gizonak be-zaiñ lotsor.

---

<sup>1</sup> ehüntze bat eta erdi: mendet' erdi, 150 bat urte.

<sup>2</sup> elhe zaharren herrokan: legenden lerroan.

<sup>3</sup> beit aldiro: baita aldi guziz.

<sup>4</sup> amuinaz: eskez.

<sup>5</sup> bebita: bibeta?, prediku.

<sup>6</sup> aberats litírola: aberats letzakeala.

<sup>7</sup> enbeia: mengoa, gura.

<sup>8</sup> mainatetzaz: mirabetzaz .

<sup>9</sup> miskandiek: mirabeek.

<sup>10</sup> khordosta: kordaz zintzilikatu.

/ 257 / Debria dügü nahi gaitz güzien den langilia ta ezinez berak oro behar dian jenden, sokhorria. Eztügia arren gure bekhatietzaz gaitz aski egin dereiküna Jinkoak berak gastigoa zonbait eman Debriak mezia eman gabetarik; gü girade gü, gure meskabien arotzak, gihaurek dugü buhaderaz<sup>11</sup> süia phizten, burduiña gorritzen ta gihaurek marteilliaz dügü joiten: gure izairian dirade eritarzünak;<sup>12</sup> bena ez sorgiñen photerian. Jinkoaren manhüz girade antsiatzen hartakoz sorgiñen beharrik eza.

Magikoer nozpaitzkoek federatu handirik zien ta sorgiñak heen alhabak ziradiala ustia zelarik batzü eta berzek mündia gezürrez akogatzen zien.<sup>13</sup> Denbora heek igaran dirade. Ordunko senthagaillak<sup>14</sup> gure fisikak itzalturik, oraiko sorgiñek edo belhagileek gure mespretzia baizik eztie merexitü.

Delakoz izan bethi gezürra egia beno engañazaliago ordian ere jendia sinestiala orai beno lerrari<sup>15</sup> majikoen gaiztokeriak ziradian harrigarri; Moisa ezkiribazaletarik lehenak, Faraonen sorginkerietzaz da mintzo.

Haren landan Orfeak paganoen autore gehienak magiko zaharretzaz ta sorginetzaz zer eztetereikie erran. Orozbat profeta Samuelek Saulen ta Sorginaren elhestetzaz<sup>16</sup> da mintzo. Jinkoak bere senthagaillen obratzeko nahi zütian ta medio heetzaz da üsatü bena bera lurrila jin geroztik<sup>17</sup> profetek kunpliturik ezta izan senthagaila gehiagorik ezetare sorgiñik edo magikorik bazakialakoz ofizio hartara zi-ratekiala xarlatanak<sup>18</sup> franko izanen. Zinez dereikü debekatü heekilan arreman güziak, dakigü zer dagoan haren manhien aisaeran?

/ 258 / Kondaira santiak dereikü erraiten egiazki Manasse<sup>19</sup> Judako ta Okhosias<sup>20</sup> Israeleko erregeak magiko ziradiala orozbat ere –ümen– Gilles de Rayz<sup>21</sup> Frantzian izan zena mareskal. Bena dezagün sinhests oraiko fisikan dügün profe-

---

<sup>11</sup> buhaderaz: hauspoaz.

<sup>12</sup> izairian dirade eritarzünak: naturatik da gaisotasunak.

<sup>13</sup> akogatzen zien: zapaltzen zuten, itotzen zuten.

<sup>14</sup> senthagaillak: mirakuiluak.

<sup>15</sup> lerrari: labainzale, zerbaiti gehiegi ekarria.

<sup>16</sup> elhestetzaz: elkarhizketez.

<sup>17</sup> jin geroztik: etorri ezkerro.

<sup>18</sup> xarlatanak: baratariak, izuregileak.

<sup>19</sup> Manasse: Maneses gazteean errege ankerra Isaias hil zuena, zahartzean idolatriaren etsaia bilakatu zena.

<sup>20</sup> Okhosias: Israelgo errege IX. mendean.

<sup>21</sup> Gilles de Rayz: Gilles de Ray, Joana d'Arc'en bretoin gudakidea, pedofilo eta hiltzaile ospetsua izan zen; auzitaratu eta sorgin gisa erre zuten.

sorek errege heek beno magikoago diradiala, bai eta ere puilleralari<sup>22</sup> italianoak beno. Belhagilegoaren güdariek nahi derekie sinhests erazi banaite<sup>23</sup> handia magikoetan ta belhagileen artian dela, delakoz Debria magikoer menpetzen ta halako mündia iraunen deno izanen, belhagiliak aldiz nahi dükiano haren menpetzen diradialarik; bena elhestari<sup>24</sup> heetarik batek ere tratü heen notaria izentatü ezte-reikü.

Egia handiagoa da Zeliak<sup>25</sup> eta Lürrak dütie ofizio hartan ari diradianak maredikatü,<sup>26</sup> diradialakoz bütü flakien nahaszaliak ta bihotz beldurtzüen espantazaliak. Amorrehenak ta Kaldeenak<sup>27</sup> hartakoz zütian Jinkoak beren herrietarik deslürerratü. Jabe-ek<sup>28</sup> ere ustian Jezabel<sup>29</sup> zela sorgiñ, horer<sup>30</sup> janerazirik, haren haurrak hilerazi zütian.

Lehen Hamabi Tauletan da ageri belhagilegoaz dirade mintzo: errumanek<sup>31</sup> griegoetarik zütiengartua legiak belhagiliak izairiaren ta jendiaren etsaiak dütianak deitzen, arrazo handian: ezi egiazko fantasmoa<sup>32</sup> delarik sorgiñen ofizio bekhaiz-tia ezkiribü santiak dio, hartzara seiñalatürik daudiala Infernila eripeturik ta di-radialakoz engaiñüz, salgurriez,<sup>33</sup> gezürrez ta ebatskeriaz,<sup>34</sup> ez bizi Jinkoaren manhien erakidan,<sup>35</sup> khordasta<sup>36</sup> süiaz akadoiek<sup>37</sup> eztereitzela falda eginen.

---

<sup>22</sup> a. «Joueurs de gobelets» Egiategik frantsesetx orrialdearen azpialdean idatzia.

<sup>23</sup> banaite (Lar.): differentzia.

<sup>24</sup> elhestari: eleketari, hitzegile.

<sup>25</sup> Zeliak: zerauk.

<sup>26</sup> maredikatü: madarikatu.

<sup>27</sup> Amorrehenak eta kaldeenak: amorrarrak eta kaldearrak, Mesopotamiako Asiriarrak. Amurrhabiren tribukoak.

<sup>28</sup> Jabe: Jahwek.

<sup>29</sup> Jezabel: Axab erregearen andrea Elia hil eta Baalen jaurespena Israelen sartu, Jehuk leihotik behera botatu eta hila zakurrei janerazi zuen (-IX. mendean).

<sup>30</sup> horer: zakurrei.

<sup>31</sup> errumanek: erromatarrek.

<sup>32</sup> fantastismoa: ez da ongi irakurtzen, fanatismoa?

<sup>33</sup> salgurriez (Lar.): salakuntzaz.

<sup>34</sup> ebatskeriaz: lapurketez.

<sup>35</sup> manhien erakidan: aginduen adostasunean.

<sup>36</sup> khordasta: kordaz urkatuak.

<sup>37</sup> akadoiek (Lar.): epaileek.

Diradilarik errejentak<sup>1</sup> soldadoen edo gudarien bürüzagi lehenenak, hetarik khidarigeier<sup>2</sup> agintze zonbait dügün jar heben, heen ofizioan gizon handienez baliatü direnetarik, hartan batzütan ere gerthaldi ikhusi düdanetarik ezi errejent baniz ere zerbait berze ofizioetan ikhusirik nago.<sup>3</sup>

Soldadogoa gerlan, thonsuratiak diradianak Elizan, soldado ta apezgei gaztiak, kargü handietara heltzeko die bide lüzia ta gaitza, bena esparantzak garhaiten diana ta jakitiak llabürtzen: ezta berze biderik haren beharra eztianik: banüzke gerlak jakintze güziak nahi dütiana: ezi ezta aldekairik<sup>4</sup> mündian harmadan khidariak bath eztirokienik<sup>5</sup> ta medika mementoan behar eztianik. Han kasü güzie-tara dagoelarik aidürü, gudarien adelatzia<sup>6</sup> dü errekeitü mehienet<sup>7</sup> gerlaren ta bakiaren legeetan jakintsü, zer diroan ta eztiroan egin,<sup>8</sup> heek ezpadazki, deus egin e'liro; gerla zaharrak ezpadütü irakhurtü nola berria egin liroke, delakoz bethi ofizioa, berari üdüri. Hola gerlatik kanpo ogenik ez egitia, jendeen züzenetan ezpada jakintsü ta zer diradian obrak gerlak zilegiten eztütianak.<sup>9</sup>

Gerlako lehen akaroa<sup>10</sup> khidari hona eztaitekila gerlan soldado ona izan eztena ta honki manha e'lirokiala, honki menpetü izan eztena. Bakhanki dirade gudariak jaiesti<sup>11</sup> delakoz gerlaren ofizioa langilena, haboroena. Astokin, hezkaitz, arrabuhin ta suspitakor.<sup>12</sup> Bena errege jaunak, apezak, erreligionearren mantenatzeko badirade

<sup>1</sup> errejentak: eskola erakasleak.

<sup>2</sup> khidarigeier: gidarigaiet, ofizial izango direnei.

<sup>3</sup> (hemen berriro berak ikusi eta bizitu ofizioa Prusian ta Polonian ibilia baitzen gudan, batik bat Poloniako erregeren alde).

<sup>4</sup> aldekairik: gaitasunik.

<sup>5</sup> bath eztirokenik: batu ez dezakenik.

<sup>6</sup> adelatzia: prestatzea.

<sup>7</sup> errekeitü mehienet: eginbehar meheena, ardura txikiena.

<sup>8</sup> diroan ta eztiroan egin: dezakeen eta ez dezakeen.

<sup>9</sup> gerlak zilegiten: gerrateak zilegi egiten.

<sup>10</sup> akaroa: baldintza?

<sup>11</sup> Jaiesti: jaizale.

<sup>12</sup> arrabuhin ta suspitakor: uzkur eta hasarrekor.

eginbide hartan ere khidariak die eskia etxekiten<sup>13</sup> gudarietan arima ezin ederra-gorik ere, fedeari tiesorik bada.

Zilharkeriak dirade gerlan gauza auherrena, hen begiratziak errekeitu<sup>14</sup> gehiago dü emaiten eziez gozomenak somoia ekhartent. Karles XII Suedako erregiak / 260 / ontzi latorrieta baizik<sup>15</sup> etzian jaten ezetare edaten arrazo haren gatik. Ardoak eta aigardentak<sup>16</sup> sekükän eztie gerlan senthagaillarik egin, dielakoz gizo-naren büria nahasten ta indarrak trenkatzen.

Egiasko baloria dagoelako gizonaren zentzü honian ta hotzian ta ez mementoak dian borraskan: hartakoz ere Pesennius-ek, zelarik Egipitan Nilaren bazte-rreten, ardoa zian debekatü ta koziner güziak akasatu.

Gogozia ta hordikeria<sup>17</sup> diradialakoz gozapenaren deskiarriak, Alexandra Se-verak<sup>18</sup> legionen khidari batzü, heen faltaz, gudariak zirelakoz halakatü, hilerazi zütian. Melellus<sup>19</sup> ere Afrikarat Jugurtharen kontra igaran zenian Spurius Albi-nus<sup>20</sup> haren aitzineko khidariak harmada osoko gogoziatera ützirik, aragi erreak zütian debekatü, kabale güziak<sup>21</sup> salerazi ta soldadoak soinian harmeki eraman lezen beren hazkürria manhatü.

Gudariak dian idiki edo behiki, hen faltan zamalki ta ogi nola nahi, dian hetarik doia. Bena ez gogozikinik<sup>22</sup> batere armaden herioa direlakoz. Heetarik Babilonian Alexander Handiaren armada zen galdu, Kapoen Anibalena, Karles VIII Frantziako erregiak Italian nahi zütianak eginik, gogozikinetzaz bere harmada hurtürük ethortzen zelarik erresumarat, zaldün saldo bateki etsaiek bidia thapatürük lantza ta ezpata'khaldiz ezpalütü garhaitü, irapaizi zian herriak galdurik, karzeratürük zagoan.

Ber gerthaladia dereikü Suediako errege erranak Alexanderren pare izan dena gazterian hirur podentatzü Danemarkeko, Poloniako erregiak ta Errusiako enbe-ratoriak haren kontra jarririk, lehenari zen abiatü ta bakia galtha erazi<sup>23</sup> hantik 8.000 gizonekilan hirurgerrena Narvan 8000 zütian, zian garhaitü ta bigerrena

---

<sup>13</sup> khidariekin die eskia etxekiten: ofizial diete eskua eusten.

<sup>14</sup> errekeitü: ardura, eginbehar.

<sup>15</sup> ontzi latorrieta baizik: kobrezko ontzietan baizik.

<sup>16</sup> aigardentak: pattarrak, aguardienteak.

<sup>17</sup> gogozia ta hordikeria: sabelkoikera ta mozkorkeria.

<sup>18</sup> Alexandra Severa: (205-235) Aurelius Antonius Severus Alexander.

<sup>19</sup> Melillus eta Albinus pertsona bera da.

<sup>20</sup> Melellus Spurius Albinus: Severus Alexanderrek erahila.

<sup>21</sup> kabale güziak: armadak jarraikiarazten zituen abereak.

<sup>22</sup> gogozikinik: jateko gozokirik.

<sup>23</sup> galtha erazi: galde arazi.

hirur urthez güdatürik, Poloniako tronütik zian eraitzerazi<sup>24</sup> ta Saxala jarraikirik, han bakia galthaerazi. Herri gizen hartan bere / 261 / harmada erthaitürük<sup>25</sup> soldadoak gizentürük, diharüz kargatürük erruso enberadoriak mendikatü nahiz 1709 negü harrigarrian gosez ta hotzez jendiak ta kabaliak hiltzen zeitzeno Pultavadrano<sup>26</sup> zian jarraiki ta Saxako-gogozetzaz bere jendia zelakoz flakatü, hamar urtheren gloria han galdu, hantik ere Europako dierri batena gorennetik obratü.

Güdarien zorthia da herioaren mespretzian bizitzia gauza aphürrenek alabadere lotsatzen diena ta giziberia<sup>27</sup> batez següratzen dena ez. Gure dierria<sup>28</sup> da arhin ta khanbiakor, hartakoz mündü güzian Frantziarik bezaiñ bere banderetarik ihesi dabilzanak, galotz<sup>29</sup> haren eginaia da khidarietan dütielakoz soldadoak auherkerian<sup>30</sup> üzten ta delakoz gizon auherra debeiatzen<sup>31</sup> lekhüz khanbioan laket.

Baleze errumanek bezala bethi soldadoak lanian edo ekaira<sup>32</sup> zonbatetan, haiñ lasterkari<sup>33</sup> elizate ta menpiago bere ofizioan lizate; bena khidariak ere auherkeriaz khoi<sup>34</sup> ta hen gerthaldi txarrari jendia lanari, auherki dirade halako laisterkariak ürkhaeraziten haregatik mina ez sendotzen etzeroialakoz medika beharra jarten.

Mosde Louvois-en denboran lauzpabost harmada ziradian Frantzian ta batetik berziala «laisterkariak» haiñ üsü, non errejimentiak elhürra bezala ekhian beitziratzen hurtzen zakialakoz gizon handi harek zela debeiatik<sup>35</sup> eritarzüna sortzen, xarlanan saldo bat erregeren khostüz zian mantenitzen harmadak, aldizka bufoikeriaz zütienak soldadoak akogatzen. Erran baladi gudariari kobartak baizik eztiradala laisterkari, gütiago, baliman, heetarik lizateke.

Anibalek dereikü gerthaldia: Italiarat zabiltzalarik hirur mila espanolek zien batbatean ützi ta abiatü ziradian bezaiñ sarri harmadan zian barreiatü,<sup>36</sup> etsaiaz beldür zirelakoz, berak / 262 / zütiala egorri: ahalkez berzetarik batere etzen ge-roztik zothükätü.<sup>37</sup>

---

<sup>24</sup> eraitziera: jaitzarazi.

<sup>25</sup> erthaitürük: zatikaturik.

<sup>26</sup> Pultavadrano: Poltava-raino.

<sup>27</sup> giziberia: txikikeria.

<sup>28</sup> dierria: nazionaia.

<sup>29</sup> galotz (Lar.): galbide.

<sup>30</sup> auherkerian: alferkerian.

<sup>31</sup> debeiatzen: aspertzen, nozitzen.

<sup>32</sup> lasterkari: lasterka iheslari, desertore.

<sup>33</sup> ekaira (Lar.): jarduera.

<sup>34</sup> khoi: oso zalea, biziatura.

<sup>35</sup> debeiatik: aspertzetik.

<sup>36</sup> barreiatü: sakabanatu.

<sup>37</sup> zothükätü: igitü, mobitu.

Ezta photererik manteni ditekenik gudari bagerik, harmadak behar dütü, bena handitarzünaren arauiala. Haren zedarriak diradiano aitzinatzen,<sup>38</sup> gaztiak dirade emendatzen<sup>39</sup> hortakoz ere erresuma handienak ez dirade aberats direnak. Egia horren gerthalidia dago, Espaňan hanko erregek Amerika güziak ta Indiak gidatü nahiz bere erresuma propin die desdierritü: ürrhe ta zilhar mendiak bezain gora herri heetarik die atheratü ta harrigarri gizon heetan ehortzi. Aberastarzün heek dirade abartü dierria aberastarzün egiazko dena dena dago oküpaturik ta lürrak langile bagerik.

Eztago indarra bethi indarrian, bena bai gudarien bihotzian. Eztago ere harmada handietan, bena bai harmada txipietan honki irakatsietan. Zonbat egia haren jakiliak eztirade jende gütik saldo handiak garhaiturik. Egiazko indarra üdan dago arren, gudarien haitoan<sup>40</sup> dena, bethi soldado herritarretan ta ez kankokoetan. Frantses I. Frantziako erregiak etzükian Paviako guda galdu, hamar mila suizek süiareni erdian ezpalie utzi, etsaiez üngüratürük goga hantik zogira xühürrak<sup>41</sup> harmadan arrotz haboroenian<sup>42</sup> laurdena baizik eztela behar.

Soldado zaharrak berriak beno hobe direla ezta düdarik, arrazoaz bürüzagia aprendiza beno dela langileago, manħü gaberik obra dakielakoz ta hartan tiesoago. Bena kasü hanitzetan bizitarzüna delakoz irapaiziaren erdia soldado gaztiak ezin hobe dirade zaharretzaz arrimatürük ezi heek azalian ta herotsian<sup>43</sup> zahartürük hetzaz berzek bezala eztie lotsarik ta alanoen pare ausiki dienari<sup>44</sup> zathia eztieno, daude betüstegarri.<sup>45</sup> Berdude haren khinperra da hen mugaitz osoak, heen zerbüütü lazien dereitzenak.<sup>46</sup> Hartakoz errumenak ziradianian / 263 / 50 urthegeurrenean beren etxetarat zütien egorraiten. Gazterik ere zütien alizan<sup>47</sup> jarten erran nahi beita 17etan hala 20 edo 25 urthe zerbüütü bazien eta bethi gerlan izanik, düda bage, gizon higatiak ziradian, auherrak ez, zireno gazte adin hartin.

Alemanian ta ipar herri berzeetan soldadoa bizi deno edo ahal diano da soldado, hartakoz ere hanko harmadak tieso ezinago ta haiñ ürrütizko entzüna, non frantzesak sei asteez ttipiltü dian ordokian<sup>48</sup> sei hilabetez berian beita bazkatüren.

---

<sup>38</sup> zedarriak diradiano aitzinatzen: mugak direno aurreratzen.

<sup>39</sup> emendatzen: gehitzten.

<sup>40</sup> haitoan: hautu onean, aukera onean.

<sup>41</sup> zogira xühürrak: zuhurtzia zuhurrak.

<sup>42</sup> haboroenian: gehienetan.

<sup>43</sup> azalian ta herotsian: musika ta otsean.

<sup>44</sup> ausiki dienari: ausigi duenari, ozkatu duenari.

<sup>45</sup> betüstegarri: errespetagarri.

<sup>46</sup> mügaitz osoak ... lazten dereitzenak: mugi gaitz osoak ... latz egiten dizkienak.

<sup>47</sup> alizan: kintan.

<sup>48</sup> thipiltü dian ordokian: hustiatu duen zelaian.

Soldado frantzesaren zerbützia da zortzi urtheren, heen landan ofiziotik, gudari hona lizatekenian dabila etxerat ta khidariak daude bethi errejent eta errejimentiak bethi berri.

Alexandrek Cœsar eta Pompeak ta berze gizon handiak zekielakoz soldado zaharren balioa<sup>49</sup> zütian balakatzen ta aberastü esparantzaz zütien harmadan zinez etxekiten<sup>50</sup> ta behartzen ziradenean, arrabuhin, eskari, gaztigua jarten. Photere halakoa gerlan ezpaliz nola gizon bakhoitzak ehün mila herioala litiro<sup>51</sup> eraman. Dezagün aithor heetan halako obedia dela Jinko honaren obra.

Bekhanki da güdari saldoa eginbidiari okhertzen khidariak dagotzenian bere netan. Harmada errumana galkidatürk zen osoki Coriolan heltü zereionian khidari. Dremenden falda leger kastigo latzenetzaz zütialarik azotatzen. Soldadoa lanez zian phorrokatzan. Bera bürhas ta saia arhinean,<sup>52</sup> elhürraren ta kharroaren<sup>53</sup> erdian zabilan ta bere apairietan<sup>54</sup> ez berze hazkürririk soldadoena baizik, hala zian bertan harmada hezitü ta manhütara menpetü.<sup>55</sup>

O! Denbora zer khanbioa: oraiko khidariak manurgetan<sup>56</sup> baizik eztirade harmadeetarat heltzen, bakian bezaiñ beste betadera<sup>57</sup> die jarraikiz. Aragi suerte güzietarik mahaiña estalirik heen landan gozagaiñez ta ardu zonbat nahi / 264 / herri güzietarik mainaten zaldien saldoan haiñ handi non hen haiñbeste jende ta kabalen hazkürririk harmada gosetzen beitü ta haren goradak soldadoak humetzera, halako phüntian<sup>58</sup> gure khidariak dabilitza enberadore errumanek berrehün lekoak beren harmadeki oīñez egiten zienian.

Mündü güziaz bürüzagıtü badirade ezkitiala arren espanta dügünian ikhusten Errumako enberatoren bizipena ta heen khidarien obrak: ezi L. Q. Cinsinatus diktadorak L. Minucius kontsulgoatik zian ideki harmada bere barrütian Egikodek<sup>59</sup> zielakoz setiatü. Lucius Calfurnius ere Sizilian, Titus ere zialakoz errebelder harmaz menpetü, zaia zereioan mutzerazi urthuts<sup>60</sup> harmadaren guardak eragin,

---

<sup>49</sup> balioa: balorea, hobeki.

<sup>50</sup> zinez etxekiten: benetan eusten, zinez atxikitzen.

<sup>51</sup> litiro: letzazke.

<sup>52</sup> bürhas eta saia arhinean: buru hutsik eta beroki arinean.

<sup>53</sup> kharroaren: hormaren, leiaren.

<sup>54</sup> apairietara: otorduetara.

<sup>55</sup> manhütara menpetü: aginduetara menpetu.

<sup>56</sup> khidarriak manurgetan: ofizialak karrozetan.

<sup>57</sup> betadera: asebetetze.

<sup>58</sup> halako phüntian: halako punduan.

<sup>59</sup> bere barrütian Egikodek: bere barrütian konstantziak.

<sup>60</sup> zaia mutzerazi: beroki motzarazi... urthuts: ortutsik.

bere lagünitarik berhezi ta gerlan habaildünekilan<sup>61</sup> gudaerazi. Gerthaldi halakoak üsü dirade Alexandra Severaren biziñenean, alabadere soldadoer haiñ zen mai-thagarri non Enberadore Jinkotzea beitzien izentatzen. Hanitz proba gudariak erakasde latza maite diela eztenian mina beno kharatsago medika.

Khidari batzü izan dirade gudarien herrokan gudan ari zirelakoz soldadoen biziñaz axol güzik ükhen ez dienik. Erruman zen halako khidarrien eginbidia, Cœsaren biziñean dago proba, ezi mündüko güdan, Pompearen semien kontra bere jendekila<sup>62</sup> nahasirik ta etsaiez arbüiatürük<sup>63</sup> zioan oihuz. “Ene lagünak nahi nai-züia haurrer libratü?” Heen arima elhe heetzaz arrapiztürük<sup>64</sup> güda zian irapaizi. Beretzat ari zen han Cœsar jende hanitz han galdu zialakoz erresumaren gaiñ erauntsi izan balitz<sup>65</sup> trionfarik etzian ükenen. Alexandra Severak soldadoren biziñaz khidarriak nahi zütian zekein,<sup>66</sup> ziolarik heetan zagoela erresumaren segürtantza. Egiazki ere Errumako jende hanitz galtzen zienian bildorra,<sup>67</sup> zioen, güdarier zela zor ta ez khidarien jakintziari.

Eriak harmadan enberadore harek zütian berak ikhustatzen ta bere aitzinian errekeita eraziten, ziolarik, «*hiri galdiak arrahartzen ziradala, bena ez gizon hilak arrapizten*».

Soldadoen zorthia da doligarri ezi heen odolareñ khostüz delarik bildorra khidarrari dago ohorea ta harek dianian erran gudariari bete diela beren eginbidia, ustia dü dela bethi berea, ta daiteke laidorez akogatürük, gudariak eztiano batere. Cœsarek ere etsaien herriren khostüz aberasten zütian bere soldadoak hala ere bere zorthü honari harmadak zütiano üztañen erresumaren bürüzagigoa zian adelatzen ta beraren erhaileak haramatzen.

Ofizioan har beza gazterik soldadoa, bena ez eraman gerlarat indarrak eztutiano ezi hanko ezaundietzaz nekatürük, ordüñ eritürük hospitalialat behar düke. Han güzik dirade zaharrak biziñen hartara diradialakoz oïtüratürük. Ikhusirik<sup>68</sup> jende gazte saldoak gerlan eritarzüñez hiltzen ehünetañ igaran zait gogoan, zeren Franzian ofizio hartako haurtarzünetik eztiradian gudari geiak<sup>69</sup> bazkatzen ta adiratzen?<sup>70</sup> Eztelakoz mündian erresumarik haren abantaillak dütianik ta harritürük

---

<sup>61</sup> habaildünekilan: habaildunekin, harri tirokariekin.

<sup>62</sup> jendekila: jendeekin.

<sup>63</sup> arbüiatürük: hasu honetan, bazter batean tinkaturik.

<sup>64</sup> arrapizturiak: berriz pizturik.

<sup>65</sup> erauntsi izan balitz: ari izan balitz.

<sup>66</sup> zekein: biziñaz xuhur, bizi aurrezle.

<sup>67</sup> bildorra: garaipena, bitoria.

<sup>68</sup> ikhusirik: Egiategi ezta teorilari hutsa, lekukoa da.

<sup>69</sup> gudari geiak bazkatzen: gudarigaiaik hezitzen.

nago gobernia nola ezten oraiartio heetzaz baliatü, ezi non dirade Frantzian bezañbeste haur edirenak.<sup>71</sup> Parisen ta berze hiri handietan dirade hospitaleak heen fabori, hantik ünhüdetara<sup>72</sup> dütie emaiten, heetarik kanpo derenian berze hospitaletan dütie ezarten, ofizio zonbait erakasten, bürüzagigoa batzü emaiten eta hetan / 266 / eskele sorthürik, eskele hiltzen. Zeren ezten haiñbeste gudaltzü eskola haur heentzat. Bite ezar<sup>73</sup> nola herri erresuman beitirade ta heetarik lurreko soldado hobenenak egin, holako etxe batek merexi lüke bere berezita bena lizate heben lan auherra.<sup>74</sup>

Dezadan hitz bakhoitz erran gudari holakoekilan elizatekiala konjitik<sup>75</sup> hamadak egunkal berritzen dienetarik. Eztie aitarik, amarik ezetare egongiarik etxerat deitzen dütienik, sekulan primugoarik<sup>76</sup> beren ofiziotsik gibelt litirokianik<sup>77</sup> ta lükie Invalidetan<sup>78</sup> zaharzaroan beren beharrak honki Erregeren zerbütziaz baizik ezpeilükie<sup>79</sup> berze egarririk.

Adrian enberadoriak soldadoak zahar ezetare gazteegi etzütian nahi. Adiskidegoa güdarien artian zereioan zerbütziari honkia ta handia. Botz<sup>80</sup> dirade soldadoak nor gibelian ta saihetsian dien dakienian. Beren eginbidiaz arrottak beno lagünak jakile nahiago dütie; zahartzen hasi den güdariak harmeen egunkal era-biltiaz hügün die;<sup>81</sup> gaztia ari deno hartan bego berzia pausian.<sup>82</sup> Ofizio hartan bada ardüra khanbio, hartara nekez da plegatzen zaharra. Arren ez giziberietzaz<sup>83</sup> eskernia soldadoa, bena ordokian mendietan ta oihanetan zothüka<sup>84</sup> nola behar dian gudatü etsaia, ezi saldoa algarreki ari, ezinez manhia<sup>85</sup> ere lizatilakoz auher:<sup>86</sup> soldado jakintziak nola behar dian, ordian daki. Borostetan ta khaparretan<sup>87</sup> de-

---

<sup>70</sup> adirazten: trebetzen.

<sup>71</sup> haur edirenak: aurkitutako haurrak (Iparraldean bakanki).

<sup>72</sup> ünhüdetara: iñudetara.

<sup>73</sup> bite ezar: ezarri bitez, jar bitez.

<sup>74</sup> lizate heben lan auherra: lizateke hemen lan alferra.

<sup>75</sup> konjitik: armadaren uzteko ziurtagirik (8 urteren buruan).

<sup>76</sup> primugoarik: mayorazgorik.

<sup>77</sup> gibel litirokianik: atzera eginarazi lezaketenik.

<sup>78</sup> Invalidetan, Parisen dagoen soldadoen zaharretxea. Parisen Louis XV.enak eginberria zen etxe hori ordüko kupuladun eliza klasiko ederrenarekin.

<sup>79</sup> ezpeilükie: ezpailukete.

<sup>80</sup> botz: pozik gibelian, atzean .

<sup>81</sup> hügün die: gorroto dute, higuin dute.

<sup>82</sup> pausian: atsedenean, deskantsua.

<sup>83</sup> giziberietzaz: txikikerietzaz.

<sup>84</sup> zothüka: higi, mugi.

<sup>85</sup> manhia: agintea.

<sup>86</sup> lizatilakoz auher: lezatekelako alfer.

nian etsaia, harma xuriaz baizik eztela ariren,<sup>88</sup> tiroz erho eztetzan bere lagünak, gogo dü emanen, soldado gaztiak e'lirokiana, zeren eta bere lagünen ta etsaien marraketaz aturditürik dabila aitzina zer egingei dian jakin bagerik.

Halakoak khidarriek azken herrokan ezar betze<sup>89</sup> beldürrez izuti soberanaz falta dadin egiazkoa bego egitera garhaitü datekenian etsaia, ordian da güdari gaztia zer den agertüko. Sokhorri emaiten badü etsai kolpatiari bihoztoi da, erhaiten badü kobart,<sup>90</sup> scíñale heetan ez da düdarik.

Gudarieki dierri güzietan die beren koloriak griegoak ta errumanak gerlala zabitzan bürdüinezko soingiaz khorpitza estalirik belhaiñetaradrano, petik kota gorri bat, besoak ta zankoak pikarrai<sup>91</sup> eta hoiñak abarketan. Beso ezkerrian erro dela<sup>92</sup> bihimenez egina<sup>93</sup> ta bürduiñ mehez estalirik, lantza esküiñian ta ezpata llabür ta zabal bat txilintxau<sup>94</sup> gerrentzian.

Orai Europako güdari güziek ber harmak dütie, bena ez ber koloriak. Nozpait españiolak beltz zütien soiñezkoak, orai xuri, urdin, gorri ta hoilli<sup>95</sup> dütie. Frantzian xuri hoinezkoak, zaldünak urdin ta dragoak berde. Enberadorirenetan haboroenak<sup>96</sup> xuri. Prüsian xuri zaldünak, hoinezkoak urdin. Engelesak gorri<sup>97</sup> holandesak haboroenak urdin. Danemarkak gorri. Suedian güziak urdin eta Rusian zaldünak urdin, hoinezkoak berde. Oraiko egünian phudentata heek güziek die milion bat zortzitan ehün mila laur hogei ta mila gudari, egüñkal phakia die-nek ta hoiñez edo zaldiz gerlako adelatürik daudenak. Europa mündüko laur phartetarik bata bere printzetan photere die berze hirurak garhait liroana.<sup>98</sup>

---

<sup>87</sup> borostetan ta khaparretan: xarra eta sasietan.

<sup>88</sup> eztela ariren: eztela ariko, eztuela jardungo.

<sup>89</sup> ezar betze: jar betzate, ipiñi betzate.

<sup>90</sup> kobart: lotsati, izuti.

<sup>91</sup> pikarrai: bilaizik, bilusik.

<sup>92</sup> erro dela: ezkutua.

<sup>93</sup> bihimenez egina: mihimenez egina.

<sup>94</sup> txilintxau: dilindan.

<sup>95</sup> hoilli: hori.

<sup>96</sup> Enberadorirenetan haboroenak: Enperadoreneta gehienak.

<sup>97</sup> engelesak gorri: gaitizenez ingelesa «galtza gorri» zen Zuberoan.

<sup>98</sup> garhait liroana: garaitu lezakeana.

Gütik dirade mündian lealki diradian aberastü, gütiago ere aberastarzünaz lealki baliatzen diradianak elherik txarrena da “hau aberats da”, (izan) arren gizon pherestia.<sup>1</sup> Bai honkiegile baliz bena zekhingoa<sup>2</sup> aberastarzünaren arreba: laidore halakoa aberatser etzereie hetarik haboroenak ürrhia<sup>3</sup> salbü eztielakoz berze Jin-korik. Bethi hari belhariko, bethi hari arima ta bihotza lerdan sekulan behardünari<sup>4</sup> soorik ta mündiren güretzaz horditürik,<sup>5</sup> beren mereximentia dien ürrhiren phezila<sup>6</sup> beitie baliatzen<sup>7</sup> ta zoria emendatü nahiz khorpitzari phausürik ez emaiten. A! Gizon halakoak sookhaldi bat eman beza bere üngürünian ta deusere ez-tianak ezetare deus oparatzen, dela aberatsago dü ikuhsiren.

Aberatsak gozatzen den zorihonari dereiola zor ohore egiten dereiena daki: biz<sup>8</sup> kargü zer nahi erosirik nori pare eztaite ta nor hari? Harez jendia mintzo dela gaiski, bena ixiltüren, dela badaki. Isterbegiak dereitzo<sup>9</sup> hegalak azkartzen dialakoz aberatsak iritzia berea, eztialakoz eskeleak esparantzarik hartan, bena Israelitek derezelakoz ürhezko xahala gurtatzen erakatsi.

Aberatastarzüna da zühain bat<sup>10</sup> hartara igaiñ nahiak izigarri jendia zothükatzten diana, bena eztialakoz orotan axala bardin latz edo leiñ<sup>11</sup> batzük thinila<sup>12</sup> direno heltzen berziak lerratzen ta lüretik abiatürik, lurrila dirade erorten. Bata salerosgoaz ta salgoaz biggerrena ohoiñtzatik beldür eztienetzaz, hirurgerrena bere zekingoaz, laurgerrena dohainetzaz ta arrapatietzaz<sup>13</sup> aberats den, bena güziak

<sup>1</sup> pherestia: prestua.

<sup>2</sup> zekingoa: abarizia.

<sup>3</sup> ürrhia: urea (azpian ezabatua *dibarua*).

<sup>4</sup> behardünari: hitz horren ondotik *ezpeitie egin* azpian.

<sup>5</sup> güretzaz horditürik: guretaz mozkor.

<sup>6</sup> ürhirene phezila:urrearen pisua.

<sup>7</sup> baliatzen, hitzaren ondotik *zehatzen* ezabatua.

<sup>8</sup> biz: izan bedi.

<sup>9</sup> Isterbegiak dereitzo: pertsona etsaiak dizkio, deutso.

<sup>10</sup> zühain bat: zuhaitz bat.

<sup>11</sup> leiñ: leun.

<sup>12</sup> thinila: gaillurera, gaingainera.

<sup>13</sup> dohaiñetzaz eta arrapatietzaz: emanez eta arrapuez.

lehen eskele izanik orai diharian ithorik eztirade aberats aski zeren eta sekulan doia eztielarik, ustia aberats egiazkorik eztela, eskelegoaren ta aberastarzün izigarrriaren artian dagoenik.

/ 269 / Erregeek jakin nahiz zertako aberatstarzünak diradian heen eskietan Daviden Josophaten, Ezekhiasesen ta Josiasen bizipenaz ikhus beze jakiteko zertakoz gozatü diren errege handien famaz ta heetarik emaitia hartzia beno maithagarriago dela ikhasiren. Zer erran daite Senekaz, Neronen maisuaz, haiñ harrigarri aberastürük non eta Enberadoriak ezterbegi<sup>14</sup> zereiolakoz zereoan bere hon güzia eskenstürük, behartü bere bizia ere harekila galtzia, laborari haiñbeste biltzeko, lan biltzeko, ikhusi barreiatürük.<sup>15</sup> Eskele izan baliz, eskelegoan zen lüziago biziren ta eskele hilen<sup>16</sup> egiazko aberastarzünen mezperetzian aberatstarzünen eritarzüna helgaitz bat da<sup>17</sup> eztiana eria eztena etxekiten<sup>18</sup> bera bai eria hartan dena, haren egarriak itxasoko hora edan liroama, egarritz hiltzen (diano edateko mengoa da hiltzen, ezabatua)?

Naharoa ta aberatsatarzüna gauza beharrezkoak heetarik behar dienentzat ezpadirade, hartakoz Xilo lazedemoniatarak zioan, heetan dagoenak ogen handian dela zeren eta enplegū hona heetzaz egiten ezpazian<sup>19</sup> ziala gaitza eginen, erran nahi zian hona behardüner emaitian, galtzia aldiz diharü biltzian.

Marcus Curius-ek zütianian samnitak garhaitü jin zereitzen<sup>20</sup> ürhe athe handi baten eskentzera, ari zen ordian arbi egoseraziten, artzükatü zian<sup>21</sup> dohaiña ze-reitzelarik<sup>22</sup> bere arbien jateko etziala ürhe beharrik ta ürhiari beno ürhedüner manhatzian maitiago ziala. Babialasek ürhia zian haiñ mespretzü handian non jenderen izürria beitzien deitzen. Cratis Thebeinak hartara bihotza sobera enjogi zialakoz bere ürhia ta berze aberatstarzünak itxasoala zütian urthiki oso-osoak.

Aberatstarzüna egiazki jar eztaite honki handien herrokan, ezetare gaitzenian, bera bai gauza egobiarren<sup>23</sup> artian. Gizon zühürrak (laisterkarik eztü eginen haren ondoan ta bethi mespretzatuko; dügün aithor bere doia dianak heen beharrik ez-

---

<sup>14</sup> ezterbegi/izterbegi: ezkerreko begi (norberaren etsaia).

<sup>15</sup> barreiatürük: sakabanaturik.

<sup>16</sup> hilen: hilgo.

<sup>17</sup> helgaitz: sukarrak.

<sup>18</sup> etxekiten: atxikitzen, eusten.

<sup>19</sup> ezpazian: ez bazuen.

<sup>20</sup> jin zereitzen: etorri zitzainen (zereitzon = zitzaison behar luke).

<sup>21</sup> artzükatü zian: ukatu zuen.

<sup>22</sup> dohaiñak zereitzelarik: opariak ematen zizkietalarik.

<sup>23</sup> egobiarren (Lar.): ezaxolen.

tiala, ezi auher da<sup>24</sup> biziaren lüzatzeko auherrago herioaren gibeltzeko: Aita Santiak Erregiak, printzeak ürhe mentsik eztienak: heltzen dirade eskeleenak bezala.

/ 270 / Berrogei mila mando ümen Alexandre handiaren aberatstarzünak nekez zütian bizkarretan ekhartean, hilzen eta gauza zütian ederrenak hareki erre.

Aberatstarzüna zer da? Berzerik ez soberakina baizik ta zer soberakina? Beharra gaintitzen diana baizik. Ezkiribü santiak dü Job aberatsen herrokan jarten, zialakoz zazpimila ardi, hirur mila kamelo ta bostehün idipare; heetzaz aski ziala habororik etzian nahi Milesianak Greziako zazpi zühürretarik batak zioan, gobernü hobena zela aizoek<sup>25</sup> etzienian soberanik ezetare nekeziarik ezi aberatstarzünian honki baliatzen eztenian egiazko eskelegoa dago Meskabier eztenari bethi bihurtzen ardüra zereitzo heltzen, hala gerthü zen Attahalpari Cuzconioresen erregeri hitzmanik zazpi milion, zazpi egünetan barne bere lokabearentzat hirur pagatürik, espaiñolek ustian haren herri güzia ürhe zela hilerazi zien.

Zühürren<sup>26</sup> erregiak ere dio, aberatstarzünak diradiala beren nausier begiratzen<sup>27</sup> amorekatik eskernio dereitzen.<sup>28</sup>

Eztirade aberastarzünak hartzeala biltzen, bena bai ez emaitiarekila ta heen zühürki mantenatziala sokhorriak bakhanago, eziez arrankürak<sup>29</sup> dütie lagün ikhussten dütüğü ardüra eskü haiñ aphürretan non ageri beita zonbat<sup>30</sup> Jinkoak mespretzü dutian. Ez arren galtha<sup>31</sup> zonbat ürhe dian gizonak bena bai bera zer duen balio, ezi ürhiak eztü gizona baliaraziten berak ezpadü ürhia baliaraziten. Jinkoak egiten dianian aberatsak düti eskelentzat halakatü, nahiz haien obra honak berzeren mengoen diren<sup>32</sup> sokhorri; eztirenian ezta harrigarri heetarik zonbaitek egiten dienian ützüliphurdi!

Publius Anticus aberats egin zelakoz, biziaz debeiatürük<sup>33</sup> berak llabürtürük, probatü zian gure zori hona eztagoela ürhian.

---

<sup>24</sup> ezi auher da: zeren alferretan da.

<sup>25</sup> aizoek: auzoek.

<sup>26</sup> zühürren: zintzoen.

<sup>27</sup> begiratzen: zaintzen.

<sup>28</sup> eskernio dereitzen: neke eman dezaieten.

<sup>29</sup> arrankürak: kezkak.

<sup>30</sup> zonbat: zenbat.

<sup>31</sup> galtha: galdetu.

<sup>32</sup> berzeren mengoen diren: besteengurarien izan daitezen.

<sup>33</sup> debeiatürük: asperturik, noziturik.

Jakindia gauzen ezagützian dagoela, dio Galianek ta mündü güzia besarkatzen dialakoz, lürrian izan den gizon jakintsuenak Sokratesek haren jakinde miragarriaz mintzo ziradiener zioala, dakit hau, deusere eztakidala halako gizon zer moldezia jakintze güzietan atrebi zena; mea<sup>1</sup> harrigarri zakialakoz, bazela etzakianik zakian, ta heek ments zeitzolakoz<sup>2</sup> deusere etzakiala ustia.

Gizontzü egitekoetan ta izariarenetan dago jakindia libürütan biltzen ta gure auherkeriatzaz hontzen. Güzia kide ezinez bil gizon bakhoitzean, bederen etarkia<sup>3</sup> dago, doi zereioan gauzari lotzen denari ta nola bizi edo herabesti den merexia derie zehatzen<sup>4</sup> ta hantik gizon handi edo txipi gertzen.

Jakinde gozatzen giradianaz dügü fraire benediktaner zoor ezi Italia barbaroek ügoldatü<sup>5</sup> zienian jakintze güziak itho zütien ta hiruzpalaur ehün urthez ziradian Charlamagne denboratadrano egon erortzirik; printze handi harek Parisen ikasola famatia ondikaturik,<sup>6</sup> Jakindia Europa güzian emekiz emeki ereiñik oraikoala da heltü, bena ez oraiño grekoetan nozpait zena ezetare lübez hartara datekina, ezi zerbait mendeetan dügüno egiten, ederrik eztügü obratzen griegoen obrak hüillantzen eztügüno griegoa ta latia heen jakindiaren ünhüdia<sup>7</sup> dü falta, galdurik ziradianak, benediktanek errekeitatü ezpalütie ta heek landan<sup>8</sup> elizaren khidarriak beren edertarzünian jarri ezpalie.

Jakintze haren egarri Alexandra Handia etzen ohatzen Homeroren *Illiada* etziano dagareki<sup>9</sup> bürüpian, ezetare Cœsar libürüü bagerik. Batak ta berziak beren megopietan gerlaren lanetzaz zien franko, bena libürü honek jakindia zorroizten<sup>10</sup> hala zakien. Ta gizonaren ta aberien artian banaitürük eztela ezarten diana jakin-

---

<sup>1</sup> mea (Lar.): jakituri.

<sup>2</sup> ments zeitzolakoz: eskaz zizkiolako.

<sup>3</sup> bederen etarkia: behintzat aprobabazioa.

<sup>4</sup> merexia derie zehatzen: merezia diete neurtzen.

<sup>5</sup> ugoldatü: inbaditu.

<sup>6</sup> ikasola famatia ondikaturik: unibertsitate famatua eraiki.

<sup>7</sup> ünhüde: seinzain.

<sup>8</sup> heek landan: (denboran) haien landa.

<sup>9</sup> dagareki: dagarekin batean.

<sup>10</sup> zorroizten: (ezabatua *irakurten*).

diak baizik, ezi hantik kango, berze predentan<sup>11</sup> hanitz dirade heetan gizonak beno onesbide<sup>12</sup> dienik: elefanta ezagützian, lehoa<sup>13</sup> balorian, zaldia zerbützü güzietan, hora<sup>14</sup> lealtarzünian etcetera. Eztü arren gizonak heen gañean jakindia baizik ta harez balia daitekenik. Sokratesek zialrik gizon aberats bati soo egiten zioan zaldi bat ürrhez kargatürük zatekiala, bena büria hutsik. Cleantas filosofoak gizon tontoaren ta astoaren artian berze banaiterik etzian salbü ekantzetan edireiten ziana,<sup>15</sup> gerthaldiak direlakoz gizonaren bizipenan bürüzagi hobenenak. Libürü onetan jakintze ta heen jarraikiaz ari direnak, gizon handioenek heetan dereizkie zori hona eskentzen; heetan dügü gure gozamenen azia bildüren ta bihotz handien hazkürria edirenene.<sup>16</sup>

Jakindia da arimaren bizia, megopiaren<sup>17</sup> khidarrian bizipenaren maiasturia<sup>18</sup> ta Izariaren argia, harez dügü honkia ta gaitza ezagütürük, batari ihesi, berzeari jarrakia egiten erakusten jakindiak dereizküla gogomenak ülhünpetik<sup>19</sup> khentzen ta zertara hon diradian erraiten. Ezagütze segürena da harek emaiten dereiküna ezi arimak jakin eztiro arrazoak salhatzen dereioana baizik. Alabadere jakindia ta zühürtarzüna lagün eztirade ezi hel daite latian zühür dena frantzesian erdo edo tzar daitekiala, dü ere jakindiat galgiroa mesperatzatzez zejakinde<sup>20</sup> tontoa.

Delarik jakindia mehea, ülhüna ta hotza, alabadere estatü güzier behardüna, printzetik gizonetarik arhiniala drano<sup>21</sup> balio handian dago. Zaldigoan, gudan dü beriak ta handiagoak akadoikerian,<sup>22</sup> nun zühürtarzüna ta zogira<sup>23</sup> dütilakoz lagün. Pompea handia gerletan pare güzik üritardian<sup>24</sup> zena, orozbat atrebi ta ihortek beno hobeki zakian gobernia. Alexandre Handia net jakintsü zen, Cœsar ere, zertan nahi mintzo ta obetande<sup>25</sup> güzietan, ari zen, haren obrak jakile daude. Dieiri / 272 / güzietan jakindia printze handian da izan. Alinera Epirako erregia gaz-

<sup>11</sup> predentan: elizako erretaula zatian.

<sup>12</sup> onesbide: estimu.

<sup>13</sup> lehoa: lehoin.

<sup>14</sup> hor: zakur.

<sup>15</sup> ekantzetan edireiten ziana: ekoizpenetan aurkitzen zuena.

<sup>16</sup> hazkürria edirenene: janaria aurkituko.

<sup>17</sup> megopiaren: izpirituaren.

<sup>18</sup> maiasturia: zurgina.

<sup>19</sup> ülhünpetik: ilunbetik.

<sup>20</sup> zejakinde: ezkakintza.

<sup>21</sup> arhinila drano: arineraino.

<sup>22</sup> akadoikerian: zuzenbidean.

<sup>23</sup> zogira: zuhurtasuna.

<sup>24</sup> üritardian: abertzetasunean.

<sup>25</sup> obetande: beteginzarre, perfekzio.

terik jin zen Athenatara ikhastera, ta gizon haiñ endrezua<sup>26</sup> bere herrilat ethorri non, lege berriak ta gauza handiak obratürik printze famatia beitzen hil. Errumanetan zonbat Athenak, gizon handirik etzian egin.

Demetrius Balerianak printzer ardüra libürü gobernioetzaz mintzo da diradienak *arakhurri* deitzen direnak ta gomendatzen deritze, Homerari beha dagoenak zakiala anatomia, Hektor eta Ziklopoaren zankotzaz mintzo denian, ta dio Hesiodek zori hona diela erregek Jupiter dienian fabori, hobe orano Musak dütienian adiskide. Biak zütian Cyrus-ek Alexandra Plinak dio Caton hitzdun izigarria, khidari ezin hobeagoa ta akadoi<sup>27</sup> harrigarria.

Ciceronek ere Lucullus denian mintzo dio Mithridaten kontra abiatü zenian harmadaren khidari hitzik bere ofizioan etzakiala, bena libürü honen irakurtüz ta soldado zaharrer galthoz<sup>28</sup> gizon baliosenetarik jalki zela.<sup>29</sup>

Zertara ere harmada errumana etzaitekian atrebitü, manhia honaren jakindia delakoz berdüde lehenetarik bata.

Badü ere berdüthia bere kastatik ez ükheitia,<sup>30</sup> ezi gauza mündüko arauena da gizon pherestiaren semia auher dena, bihoztoiarena kobart, jakintsuarena tonto etc. Eritarzün hau zahar da gizontsu kastan, ezi Daviden denborala bagirade igaiten, heen semetarik aita balio zenik eztüğü ediren, Salomonen kastan orozbat. Augusta enberadore handiak bere odoletik zütian jende haiñ okherrak non izkondü zen, dolümenaz ezpeitzen ixiltzen. Ezta mündian txokorik gerthaldi heetarik franko eztütenik. Khinperretik daude Commodus Erruman izan den printze goihenetarik, Marc Aurela<sup>31</sup> hobenenaren seme. Bassinus galgiro güzietan bidaze<sup>32</sup> bat; Severus Septimus enberadore handiaren seme halako biperaren hümiak<sup>33</sup> amaren erhaiteko<sup>34</sup> sortzen diradianak.

Jakinde gizontsua zazpi arte arauetan, hirur lehenak Gramatika, Rhetorika, ta Logika latinez dirade deitzen. Berze laurak Arithmetika, Geometria, Kosmographia ta Musika, Astronomia ere gaiñtik: güziak auher diradianak zogira<sup>35</sup> honak ezpadütu balieraziten. Adam zereiolakoz jakinde güziak berez sarthü gizonetarik

---

<sup>26</sup> endrezua: kalitatea.

<sup>27</sup> akadoi: epaile.

<sup>28</sup> galthoz: galdez.

<sup>29</sup> *beitzen bata* ezabatua.

<sup>30</sup> ez ükheitia: ez edukitea, ez izatea.

<sup>31</sup> Marc Aurela: Marcus Aurelius Antoninus (121-180) enperadore eta filosofo. Semeak Commodus eta Verus.

<sup>32</sup> bidaze: gidari.

<sup>33</sup> biperaren hümiak: sugekumeak.

<sup>34</sup> amaren erhaiteko: amaren hiltzeko.

<sup>35</sup> zogira: zuhurtzia.

jakintsiüna izan den bezala ta heetarik lehena. Geroztik lanaz baizik jakindian biderik eztie gizonek egin, eztiala berzekijesaitez<sup>36</sup> baizik argi famatürik dereienik batere mündian. Aitzinekoen liliistarik<sup>37</sup> dügüno azia biltzen girade heen frütuez gizontzen giradilarik jakintze batetik berziala igaraiten<sup>38</sup> ezi jakindiek die abantailla batak berziari bortha<sup>39</sup> beitie idekitzen. Orozbat ere mintzoek<sup>40</sup> ezi hiruz-palaur dakianak haiñbeste llabürzki dütu ikhasiren.

Jakinde güziek dielakoz batak berziari eskü emaiten, nahiz ere algarreki izan lotoskariek<sup>41</sup> derekie erraiten Musak ber amaren alhabak algar eskütik ari diradiala dantzan. Engliterrako Elizaren kondairian dügü ikhusten Theodorik apezküpiak<sup>42</sup> ta Adrian abadiak Theologia, Arithmetika, Astronomia, Lotoskindia<sup>43</sup> latia ta griegoa zütiela erakasten.

Josef bere jakindiaz Egiptan ohore handienetara zen heltü. Moisak beriaz denbora hartan gizon güziak zütian itzalten.<sup>44</sup> Daniel Nabukodonosoren ta Dariusen grazietara jakindegiz ziradian jin. Salomonez ere dereie laidoria jakinde güziak zütiala. Jakintze güziak egiatsü direnak beren artian bata berziari doi<sup>45</sup> dirade zeren eta bata ezpeita berziari. Etsai ezetare batak berzia akhazatzen, hantik eta errana orotarik gehiena Theologia dela, dialakoz zeluko bidia<sup>46</sup> erakusten.

---

<sup>36</sup>jesaitez: mailegatz, hartuz.

<sup>37</sup>liliistarik: antologiarik, loretegirik.

<sup>38</sup>igaraiten: igarotzen.

<sup>39</sup>bortha: atea.

<sup>40</sup>mintzoek: hizkuntzek, mintzairek.

<sup>41</sup>lotoskariek (Larramendi): olerkariek.

<sup>42</sup>apezküpiak: apezikua, gotzainak, obispua; Theodoretus (393-460) Calcedoniako kontziliokoa, dogma, apologia, exegesis egilea.

<sup>43</sup>*hots + lotu + kinde*: soinuen lotzeko artea; humanitateen goraipamena komeni zaio, geroxeago Mauleko kolejioan horiek erakatsiko dituelako Egiategik.

<sup>44</sup>itzalten: itzaltzen.

<sup>45</sup>doi: neurrian, justu.

<sup>46</sup>zeluko bidia: zeruko bidea, Egiategik aipatzen du, zeren kolejoko errejent izan baino lehen parropiako errejent izan delako eta ofizio hortan, eginbeharrez, dotrina, katekima erakatsi duelako.

/ 275 /

## Dihariaz edo diruaz

Diharü xehia<sup>1</sup> mündüko gauza zaharrenetarik ezta. Denbora lehenetan trükatzez ziradian jendiak tratütan. Bena ardüra zelakoz heltzen ber gauzaren mengoan ziradiala eroslaria ta saltzalia khanbioan batak edo berziak damnü ziela<sup>2</sup> kopre edo bürdüiña zathi phezian<sup>3</sup> emanik doiarentzat ziela emanen, topatü zien. Medio hau ontarte hartarik emekiz emeki hedatü zen bazter orotarat tracia. Bena menasta<sup>4</sup> dener phezazale<sup>5</sup> beharrak tratian zelakoz, ekai handi bat zathi heetan, hasi ziradian phezia ozgarriten.<sup>6</sup> Geroztik bürdüiñazkoak ützirik, koprezko moneda sarthü zen tratü güzian sokhorri, ordian printzek ta soberanoek zütien moneda heetan norkbere señaileak jarten.

Janus zen ümen lehena dirua diruskatu ziana, ordian diruska zian behia edo ardia, hantik xehe heek deitzen zütien aberiak latiz *pecudes*, zoiñtarik nozpaiko frantzesca egin beetzian *pecune* hitza holarik begiratü dena.<sup>7</sup>

Zilharrez diraskatu zenian ber üsantza zena jarraiki diru haren hatsarria Abraham beno zaharrago, ezi Kanaanko herrian bere emaztearen ehortzeko lür salhi bat<sup>8</sup> zilhar diruz ziala erosi dügü ikhusten.

Alabadere Amman Marcelus Athenesekи berze dirurik koprezko baizik egiten etzela dereikü erraiten<sup>9</sup> ta hartan bakiren ta gerlaren indarra zagoela. Tertulianusek lehen diharu markazalia zela Saturna ta koprez zela dirua. Egiazki ere diru heetarik ezagützen dütüğü, lehenak eta zaharrenak Tulsa ziradian deitzen, zonbaitek ere zioan Tholosa edo Pala, hamabi halakoek balio zien sos tournoisa<sup>10</sup> / 276 / Servius

---

<sup>1</sup> diharü xehean: monetan.

<sup>2</sup> damnü ziela: damu zutela.

<sup>3</sup> phezian: pisuan.

<sup>4</sup> menasta (Lar.): metala.

<sup>5</sup> phezazale: pisuz neurrien hartziale.

<sup>6</sup> phezia ozgarriten: pisua izendatzen.

<sup>7</sup> begiratü dena: *pecune* hitza galdu da, *pécunier* gelditu frantsesez.

<sup>8</sup> lür salhi bat: lur burdinzali bat.

<sup>9</sup> adibide hau frantsesetik itzulia, ustegabeen hasten da kopiatzen: « cependant Amman Marcelus dioscurie d'Athènes ne... ».

<sup>10</sup> Sos Tournoisa: Flandriako Tournayen egin «libera»; aldiz Thulsa, Tholosan, Pala frantsesez *livre tolosane* Gaskonian egina, XVIII. mendeko dirua zen.

Publicus zen heetarik eragin ziana ta heetan gizon bütü bat jarten, ezi lehenago Erruman ere kabalen idüria baizik etzen ezarrarazten.<sup>(a)</sup> Pretejan-aren<sup>11</sup> erresumetan diharu güziak ziradian ürrhetan seíñalerik bage, Portugalian aldiz zilharretan laurtzunak pheziala emaiten ziradian. Engleterraren J. Coesaren denboran koprez baizik etzen, hanko dirua ta xehia zen bürdüinezko erhaztütetan Illionen urdia<sup>12</sup> zen seíñale, den bezala Biarnon behia. Samosen egaztarra,<sup>13</sup> Theban xaberrama<sup>14</sup> Españañ thorre ta leho. Sckhio-an ogiburia, Nafarroan khatiñak, Frantzian hirur lisloreak, Austrian saia, Enberadoren erresumetan arranoa, Suebian 3 koroak.

Ürhezko ta zilharrezko moneden balioak dütie beren gora beherak ükhen errege batzuek erresumatik jalki e'litean<sup>15</sup> zien phezia aphaltzen. Karles Handiak diruari eman zereioan balio leal bat, ageri dena haren kapitülietarik lib.4, art.32 enetarik manhatü zian eskütiak 60 sos balio züzkiala ta man hü hari bihürtüren<sup>16</sup> zenari 60 makhila'khaldi zereitzela emanen.

Henrike IV. Luis XIII ta haren semiak khanbio batzü diharüren balioan zien obratü. Luis XV.ak egin ziana ürhian ta zilharrian ziradian ederrenak. Ürhiren phezia dü Luis XIVak gütitü ta zilharra bere balioan ützi, denborak dereikü erranen zer honki den hantik jalkiren.<sup>17</sup> Nola nahi den gaitz handia da erresuman diruaren balioaren aldairetan, hartakoz ere Frantses I.aren ta Henrike biggerrenaren lenargoak<sup>18</sup> net<sup>19</sup> latz dirade artikülü haren eretzian, ezi diru faltsiari fabori eman dütien printzeak gerthü ziana, jakile Isaakange<sup>20</sup> zilharrezko faltsütü zütianak. Henrike X. Danemarkekoa zilharraren lekhian kopria ezarri ümen ziana,<sup>21</sup> halako obrak merkalegoaren hilgarri direnak.

Diharia bihotz hanitzetan da Jinkoa ta aho haboroetan debria.<sup>22</sup> Barreiazaliak<sup>23</sup> dio, nola diharü debria laister doan, bilzaliak aldiz nola diharü debria nekez hel-

<sup>(a)</sup> Egiategiren oharra: Toloson (Lizian) lekhian eginak ta hantik tholosanak hüskaldünnek dütie dinarak deitzen, lehen diharia zena.

<sup>11</sup> Pretejan: frantsesez *Prêtre-Jean*: Ethiopiako legenda erregea.

<sup>12</sup> Illionen urdia: Troian zerria.

<sup>13</sup> egaztarra: paboa.

<sup>14</sup> apo harmatua, dortoka.

<sup>15</sup> jalki e'litean: irten / atera elitezen.

<sup>16</sup> man hü hari bihürtüren: agindu hari bihurtuko.

<sup>17</sup> zer honki den hantik jalkiren: zer ongi den hantik aterako.

<sup>18</sup> lenargoak: errege diktamenak.

<sup>19</sup> net: osoki.

<sup>20</sup> Isaak Ange: Constantinopolisen Enperadore (1155-1204).

<sup>21</sup> ezarri ümen ziana: ipiñi omen zuena.

<sup>22</sup> debria: deabrua, demonioa.

<sup>23</sup> barreiazalia: prodigo, iriole, gastatzaile.

tzen den. Harzaliak debriren sosa küpera eztiroala,<sup>24</sup> zordün gaiztoak aldi z debriaren ardita eztiala. Auzilariaik diharük debria bere prokùradoreari bethi eman behar zereiola, azkenekoz debria da diharü ta diharia orotan debrü. Gauza handietan txipietan bezala diharua güzietan da heen izterzaiña bakian ta gerlan deusere zothüka eztaite diharü gaberik.<sup>25</sup> Hiri bortaliak<sup>26</sup> dütü phorrokatzetan, mürrü azkarrenak iratiausten,<sup>27</sup> zübiak ühaitzetan<sup>28</sup> egiten ta norat nahi heleraziten.<sup>29</sup>

Phelipe Mazedoniako erregiak zer zatekian egingei<sup>30</sup> zian gerlaz magikoa us-tenkidatürük.<sup>31</sup> Arrapostia<sup>32</sup> zilharrez bazütianak lantzak zükiala bitoria: abiso harez baliatürik zioan geroztik asto ürhez kargatiak hiri azkarrena irapaiz litrola,<sup>33</sup> bürdüinezko mürrüan ürhezko ükharaiaik<sup>34</sup> zulaozkera<sup>35</sup> bertan egin lirola.<sup>36</sup>

Zonbat ohoiñkeria<sup>37</sup> faltsü-jakile, gizon erhaile, kontratü faltsü, akadoitze okherrik,<sup>38</sup> aita ta ama khozütürük<sup>39</sup> diharüaren egarriak eztie eragin? Zonbat mithil ta neskato, bürüzagien ta nausien ber egarriaz lepoak ezterezte trinkatü.

Diharia auher da, harez baliatzen eztenari ezi hobe da ogia hütxan<sup>40</sup> eziez diharü sakütak arkhan, bata jaten delakoz ta berziak lantzia ta errekeitu ta ebatsirik denian, dolü harrigarri. Gizon pherestiak dielarik etxen urthegeiaren hazkúrrria ta khozinaren diharü beharra, haboroago<sup>41</sup> nahia da erhokeria, da eskaria<sup>42</sup> egiten. Badü gero galtzen, merexia baizik etzereio gertzen Printzer baizik thesoro biltzia etzereio konbeni, delakoz dirua, gerlako<sup>43</sup> zain güzia, delakoz ere, gerla ardüra ja-

---

<sup>24</sup> küpera eztirioala: eskura ez lezakeala.

<sup>25</sup> gaberik: zuberoar forma hori ez du *bage* zuzendu.

<sup>26</sup> hiri bortaliak: hirietan sartzeko portaleak.

<sup>27</sup> iratiausten: iraultzen.

<sup>28</sup> ühaitzetan: ibaietan.

<sup>29</sup> heleraziten: helduarazten, iritxi arazoten.

<sup>30</sup> egingei: egingai, gertagai.

<sup>31</sup> magikoa ustenkidaturik: aztia kontsultaturik.

<sup>32</sup> arrapostia: erantzuna.

<sup>33</sup> irapaiz litrola: irabaz letzakeala.

<sup>34</sup> ükharaiaik: esku muturrak.

<sup>35</sup> zulaozkera: zirrikita, erdioa.

<sup>36</sup> lirola: lezakeala.

<sup>37</sup> zonbat ohoiñkeria: zenbat lapurreta.

<sup>38</sup> akadoitze okherrik: epai okerrik.

<sup>39</sup> khozütürük: kutsaturik, pozoindaturik.

<sup>40</sup> ogia hütxan: ogia kutxan.

<sup>41</sup> haboroago: gehiago.

<sup>42</sup> eskaria: galthoa zubereraz.

<sup>43</sup> gerlako: gudako, gerrako.

kiten bakia bera loo handienian dagoenian / 278 / Tibera handiak hirur urthez baizik thronoan etzena izan, ützi zian zazpi milion bostetan ehün mila eskutu. Alabalipharen<sup>44</sup> thesaurak hirur etxez ürhez zütian bethatzen, bazian oraiño berze bost eltzekotan, ehün mila ürhezko lamina bederak berrogei ta hamar ezkutu balio zienak.

Irakhurtzen dügü ere Salomoni urthekal zereiola jiten ürhe phezian<sup>45</sup> seiehün hiruretan hogei ürhezko talentarik. Berbez hetarik merkaderen deberak ta Arabiako erregen legarrak<sup>46</sup> algarreki haiñbeste ürhe meta non hetarik gerlako harma hanitz beitzian eragin batian ta kozinako ta mahaineko baxera<sup>47</sup> güzia ere ezi judioak zien zilharra mespretzütan non zilharkeriak Jerusalemeko kharriketara urthikitzen zütien.<sup>48</sup>

Salomonen landan izan da berze aberats handirik Pithius Basianus heetarik batak zian Dariusi Persiako erregiari zühain bat, platana deitzen zena, ta minatze ondo bat<sup>49</sup> ürhe xahüz<sup>50</sup> zena eman ta Xerxesen harmada zazpiehün mila gizonez zena, bost hilabetez bere khöstüz mantenitü. Caius Cæcilius Clodius Isidorus batek ere gerlan honki ederra galdurik eta ützi zian alabadere 4.116 esklabo, 3.000 idi pare, 2.373 ardi eta seietan ehün mila liberaren phezüa diharü. Bederakatu zen<sup>51</sup> üzten zian honak esklaboetan ta aberetan hiruretan hogei milion diharütan hamabi milion, lürrak berze althe.

Joben aberatstarzünak erran dütüğü gorago erran bena errumenetzaz gitian mintza.<sup>52</sup> Sillak bere etxenko haziendaz kanpo, bere lürrian bost milion errentaz zen gozatzen diharütan. Pompearen libre eginak milion bat zortziehün mila esku tu zütian errenta.

Cœsarenak, Dallaria<sup>53</sup> deitzen zenak zazpi milion ta erdi hon bazütian, / 279 / Collius Palinus bere illobari egin zerion dohaiñ bat milion bat balio ziana ürhetan. Lencullus augur, hamar milionez zen aberats. Senekak zazpi milion ta erdi errenta zütian urthekal.

---

<sup>44</sup> Alabalipha: Ali Baba «Ajonjoli ireki hadi» erranaz lapurren altxorraz jabetu zena. Hala dio Mila eta bat gauetako ipuinak.

<sup>45</sup> ürhe phezian: urre pisuan.

<sup>46</sup> legarrak: zergak.

<sup>47</sup> baxera: zubereraz orain *untziak*.

<sup>48</sup> urthikitzen zütien: jaurtigitzen zituzten.

<sup>49</sup> miñatze ondo bat: mahatsondo bat.

<sup>50</sup> ürhe xahüz: urre garbiz.

<sup>51</sup> bederakatu zen: kontatu zen.

<sup>52</sup> errumenetzaz gitian mintza: erromatarrez dezagun hitzegin.

<sup>53</sup> dallaria: segalaria, Cœsarek askatu esklaboaren beste izena.

Anonclus Rigulus etzelarik abokatü famatiünetarik irapaizi zian hamabost ehün mila eskütü aberatstarzün harrigarriarik gerlalako ohoinkerietan<sup>54</sup> bildürük Pompea Judeara abiatu zenian hanko egitekoen xüzentzera Ptolemeok eman zereioan zortzi mila zaldi bere dihariaz erosirik, aphairü bat mila jende khümitärik nork bere ürhe kopa aitzinian,<sup>55</sup> baxera güzia ere ürhez ta jatia khanbiatzen zen aldizkal baxera ere hen doiala orozbat,<sup>56</sup> nahiz Pompea adiskidetü.

Lucullus Coesarek ta Pompeak Xerxes doia, lüküdüna<sup>57</sup> deitzen ziena hogeitabost mila jenderi jatera eman zükian aberatski bere palazioan. Plina gazteak Quintilianusen alhabari ezteientzat etzelarik bera khümitü<sup>58</sup> berrogei ta hamar mila eskütü eman zereitzoan. Firmius-i ere sar ahal ladin zaldunen Ekidranan,<sup>59</sup> ezagütü zialakoz haurzaroan, ehün mila eskütüz dotatü zian; Caima bere llobari berrogei mila ere; Quintus Metellius-i bera libre eginalari berrogei mila eskütüren zeroian egin dohaiña. Seneka S. Paolo apostoliren adiskidiak zazpi milion ürhetan zütian.

Polinbrota Persiako erregiak sei ehün mila gizon, hogei ta hamar mila zaldün ta zortzi mila elefante gerlan jar ahal izan zütian. Candansa Ethiopiako erregiñak bere goardarentzat berritan ehün berrogei ta hamar gudari zütian ta hekilan laurten ehün mila langile egünkäl phaküa<sup>60</sup> ziena güziek.

Nontik haiñbeste diharü. Darius abiati zen skitoen<sup>61</sup> gudatzera zazpitana ehün mila gizoneki?

Johanes 22gerrena,<sup>62</sup> 18 urthez bere kargian izanik hogeitabost milion ützi zian ürhetan. Sixta V.<sup>63</sup> Erruma hanitez edertärik sei urtheetan barnen bildü zian sei miliunen / 280 / üngürünia. Henri IV. Frantziako erregiak zorrez erresuma betherik, zütian phakatü<sup>64</sup> güziak, okherkeriak estatü orotan xüzentü ta

---

<sup>54</sup> gerlalako ohoinkerietan bildürük: gerrarako salgaietan lapurturik.

<sup>55</sup> aitzinian: aurrean.

<sup>56</sup> doiala orozbat: neurriira berdin.

<sup>57</sup> lukuduna: lukurari (izenean hitz jokoa eta etimologia).

<sup>58</sup> khümitü: konbidatu.

<sup>59</sup> Ekidranan (Laramendi): ordenean, kastan.

<sup>60</sup> phakia: ordain phakatü: ordaindu.

<sup>61</sup> skiten: eskitarren.

<sup>62</sup> Johanes 22gerrena: Aita saindua, Jacques d'Euze, Avinhon-en aita saindu (1245-1334) Eliza aberats baten aldekoa *Extravagantes, Clementines Gravantes adventius* idazkiak eman zituen, frantziskotarrak eskomulgatu zituen *Cum inter nonnullus* buldarekin (ikus Humberto Eco).

<sup>63</sup> Sixta V.: Sixto V. Aita Saindua (1520-1590) sortzez Felice Peretti.

<sup>64</sup> phakatü: ordaindu.

etzialarik hamalaur urthez baizik gobernia etxeki hamazazpi milion zütian Bastillan<sup>65</sup> ützi.

Diharüz khoi<sup>66</sup> direnak heben akoga bitez ni ja haiñbeste milionez asetürik nago non dereiot berezitari<sup>67</sup> bere azkena botzik.<sup>68</sup>

---

<sup>65</sup> Bastillan: Bastillako gazteluan Parisen.

<sup>66</sup> khoi: oso zale.

<sup>67</sup> berezitari (Larramendi): kapituluari.

<sup>68</sup> botzik: pozik.

## Patuaz

Patua, latinez *fatum* espaiñolez *hado*, frantzesez *destin* deitzen denak, delakoz lehenago pheredikü<sup>1</sup> baten ekei delarik, eziez heben berezita batena düdan izan, niz<sup>2</sup> lankhei halakoari lüma jarriren nizanez beno bakarrentzat ari denari balius zereio,<sup>3</sup> hain nahi bezaiñbeste papel belztia, atrebitzen niz hartara.

Bada mündian dioenik lankheietan eztela patuarik ta izarren eginde honek edo gaitzek dütiela deberakatzen.<sup>4</sup> Bada ere ustia dienatarik izarrek photere badiela gaizetan<sup>5</sup> sera bortxaz eztela Aristotak dio patuarik ezetare izarrik bortxatzen gütienik ta gizonari heltzen zereitzon gauzak khinper<sup>6</sup> ustekabetsü ta destapo<sup>7</sup> diradiala ta zeliak<sup>8</sup> ezetare Patuak dütiela gizonetan batak filosofiala berziak gerlala enjogi sortzen. Plotinek ta berze jakintsü saldoak sinhestian dirade izan izarren egikarren indarrak deus gizonaren obretan eztirokiela,<sup>9</sup> alabadere ükhatten etziela izairiaren lanetan heen menpian zagotzanetan,<sup>10</sup> aritzen ziradiala zonbait aldiz ere gizontsu khorpitzetan, zütielako berziak beno berdüthiala edo galkiroetara enjogiago<sup>11</sup> griñaerazten.

Proban düdarik eztago bakidero, gizon mukaitzak<sup>12</sup> diradeala alper, damürratiak auher,<sup>13</sup> odoltsuak orroatsü ta egüntak da ikhusten jende errazitak net ezti,<sup>14</sup> odoltsuak errabiaz betherik, mukhaitzak perestü ta damürratiak langile handi direla, hantik argia bezain ageri / 281 / izarrek gizonaren ariman eziela photererik ta jendeek dereitzena emazte ürrüxen<sup>15</sup> elhe txarra dela.

<sup>1</sup> pheredikü: sermoi.

<sup>2</sup> niz: naiz (perpaus hasieran azpimarratzeko).

<sup>3</sup> balius zereio: balio zaio.

<sup>4</sup> deberakatzen: bederakatzen, banatzen.

<sup>5</sup> gaizetan: gauzeta (zuberotar aldaera bakarra liburu guzian).

<sup>6</sup> khinper: alderantziz.

<sup>7</sup> destapo: ustegabea.

<sup>8</sup> zeliak: zeruak.

<sup>9</sup> eztirokiela: eztezakeala.

<sup>10</sup> zagotzanetan: zeudenetan.

<sup>11</sup> galkiroetara enjogiago: gaizkira emanago.

<sup>12</sup> mukaitzak: geldoak, nekez mugitzen direnak.

<sup>13</sup> damürratiak auher: melankoliatsuak alfer.

<sup>14</sup> errazitak net ezti: erreak oso ezti.

<sup>15</sup> emazte ürrüxen: emakume urrizen.

Zer da arren Patua? Jinkoaren borhondadia, haren manħüaz<sup>16</sup> zabiltza beren herroketa münduko gauza güziak hartan dago kasü ororen kausa lehena, bethi bere gradoan dabilana ta deuserek okhert eztirokiana.<sup>17</sup> Trüfa bite<sup>18</sup> dienek uste azagaiaz<sup>19</sup> doatzala eskün ta ezker gertapenak mündian jende zühürrenek die sinhestia bederaka<sup>20</sup> lege aldeazkiro baten pian<sup>21</sup> jendiak dagoetzela<sup>22</sup> menpetürik, kausa gorderik ta zerüan izartürük<sup>23</sup> aspaldian mündiren goberniaren gatik bethiereko daudelarik, zoñ egünian güda halakoa datekian,<sup>24</sup> noiz hiri bat erreren<sup>25</sup> dagotza, Patuan delakoz zelian egina khanbiorik eztukiala<sup>26</sup> sekulan, ezetare hari ezkapagiarik.<sup>27</sup>

Eztü gizonak meskabürik<sup>28</sup> ere merexi eztianik, eztüttialakoz bere kondütaz okhertü<sup>29</sup> helgei eztiradianak haren faltaz bazik: halako ezzpaliz Patua herabestiari<sup>30</sup> ezetare auherrari dohaiñak zerütik etzereitze eraitsiren.<sup>31</sup> Meskabiak orozbat hantik dirade jiten, heer bihürtzia da erhokeria handiena ta eskü potez honkia<sup>32</sup> bezala ezartia khiristiaren<sup>33</sup> eginbide hobenena, dialarik bihotzian, gogoan bezala patua dela Jinkoa bera, honkiak ta gaitzak egorten dereizkünak.<sup>34</sup>

Khent arren bürütik garaitezgarria<sup>35</sup> edo patu itzurigarriaz<sup>36</sup> diradiala gauzak heltzen, ezi hala baliz jakintze arikorik elizate,<sup>37</sup> lizate ere erhokeria zühürtarzünaz heer bihürtzia eta ordian ützia bezala bere makhilari jendea ere patuari arrimatürik

<sup>16</sup> manħiaz: aginduaż.

<sup>17</sup> eztirokiana: ezlezakeana.

<sup>18</sup> trüfa bite: irri egin bezate.

<sup>19</sup> azagaiaz: nolanahika.

<sup>20</sup> bederaka: bereiz, banaka.

<sup>21</sup> lege aldeazkiro baten pian: ezin aldatuzko lege baten azpian.

<sup>22</sup> dagoetzela: daudela.

<sup>23</sup> zerüan izartürük: zeruan izarturik.

<sup>24</sup> datekian: izango den (geroaldi zaharra, oraino erabilia).

<sup>25</sup> erreren: erreko.

<sup>26</sup> eztükiala: ez duela izango (geroaldi zaharra, oraino erabilia).

<sup>27</sup> ezkapagiarik: eskapabiderik.

<sup>28</sup> meskabürik: ezbeharrik, zorigaitzik.

<sup>29</sup> kondütaz okhertü: jokaera.

<sup>30</sup> herabestiari: uzkurrari.

<sup>31</sup> ezttereitze eraitsiren: ez dizkiete jaitsaraziko.

<sup>32</sup> potez honkia: musuz ikutua.

<sup>33</sup> khiristiaren: kristauaren.

<sup>34</sup> egorten dereizkünak: igorten/bidaltzen dizkigunak.

<sup>35</sup> garhaitezgarriaz: ezin garaituaz.

<sup>36</sup> itzurigarriaz: ihesgarriaz.

<sup>37</sup> arikorik elizate: ariketarik ez lizateke.

lizate ta gizona aberen gradoala eraitsirik,<sup>38</sup> honki eginetan e'lüke ordariaren<sup>39</sup> es-parantzarik ezetare gaizkietan kastigoren beldürrik ta hala oraiko denboraz liza-tekeano osoki gozatzen; jingeiaz<sup>40</sup> güтик lizate arranküratsü,<sup>41</sup> bego halakoer errana gauza güzietan badela bihar bat zoíñi<sup>42</sup> jakintzerik / 282 / ez etare zühürtarzünik gizonian hari bihur daitekenik, berze arrapazaleaz gorago erran düguna baizik dena.

Gaitzaren ta honkiaren artian banaiterik<sup>43</sup> eztatekiano ordaririk ezetare kasti-gorik eztaitekila. Zer hari bütza? Heltia<sup>44</sup> helgei dela, ez behar errana ondokoari etzaioan, bai gerokoari inpensan<sup>45</sup> dela heltü. Hantik jarraikia behar ziala heltü etzianian ez heltzeko arrazorik. Zeren eta beraren eretzian gitian edo ez gitian,<sup>46</sup> beitziradian bere haitoan<sup>47</sup> hala arren behar errana berzerik ezta baizik giderreana baten usikizina<sup>48</sup> beraz loz egobiaz<sup>49</sup> zena ta bethi inpentzatian jingei zela denbora igaranian edo gerozkoan.

Dezagün arren aithor gauzen lankheia izariari dagokezia<sup>50</sup> ager denian ürhü-nagorik jiten direla, beita tontokeria handia, zeren eta ikhusten dügünian tron-koan adarra nontik sorthü den galthro beita erhokeria, orozbat da heltzen zereizkünen meskabietan, ezi Eskiribü Santiak dereikü erraiten erresumer ta erreger mündüko egitekoetan gauza güziak egin dütianak, dütila manhatzen bere bor-hondadiala.

Dezagün aithor ere bortxaz ezpada amorioz Jinko bat balinbada letarta<sup>51</sup> bat badela ta letarta bat balin bada ekidran<sup>52</sup> bat badela mündüko gauza güzietan khidaragin<sup>53</sup> hareki arren behar die premiazkoa helgarri diradianetan ortzaz

<sup>38</sup> eraitsirik: jaitsierazirik.

<sup>39</sup> ordariaren: ordezkoaren.

<sup>40</sup> jingeia: etorgaiaz, geroaz.

<sup>41</sup> arranküratsü: kezkati.

<sup>42</sup> zoíñi: zeiñi.

<sup>43</sup> banaiterik (Lar.): differentziarik.

<sup>44</sup> heltia: gertatua (*heldu* aditza *gertaturen* lekuaren hemendik aurrera).

<sup>45</sup> inpentzan: ustekabean.

<sup>46</sup> beraren eretzian gitian edo ez gitian: beragan gaitezen edo ez gaitezen.

<sup>47</sup> haitoan: aukeran.

<sup>48</sup> usikizina: usiki ezina?

<sup>49</sup> loz egobiar: loz itxoegiten.

<sup>50</sup> izairiari dagokezia: naturaren egokitzea.

<sup>51</sup> letarta: probidentzia.

<sup>52</sup> ekidran (Lar.): orden (beso), kasta.

<sup>53</sup> khidaragin: gidari.

ezkinirio<sup>54</sup> arren ükha Jinkoa harten dagoala bere bethierezko berjakinde osoan.<sup>55</sup>

Dakigü Jinkoa dela bethi, bera berariz tinko bethi, khanbio gaberik, bethi bera, berari bethi üdüri erran edo egia diana sekulan deusere igitzen eztiana, bera sekülakoa delakoz, sekülako manhiak emaiten<sup>56</sup> dütianak. Manhü heetan dago patua ta pato harten Jinkoa.

Egia hari eztaiteke megopia bihurt,<sup>57</sup> erran beza Patuak diala mündia gobernatzen Jinkoa delarik patuaren arima harek dü arren / 283 / mündüko gauzak erabilten eta ez Patuak hari menpe dagoenak ta izen hotza baizik eztiana.

Bada pagan batzü Jinkoaren ta patuaren artian eztienik banaiterik, Erisipak zioan patua letarta<sup>58</sup> zela, arrazo bethiereko. Panuseriusek: Jinkoa ta patua ber gauza ziradiala. Senekak dio «izenta ezak nahi dükan bezala izairiaren ta gauza güzien langilia, ezi patua ezpada ekidrana iraunkorralen<sup>59</sup> kausa, düda gaberik da güzien kausa lehena»

Ta Aristotek Alexandre Handiari ezkiribatzen zilarik hitz heetan mintzo:

Nere ustia da beharra, Jinkoa baizik izenta eztaitekiala, delakoz izairi bethiereko ta patua güziak biltzen dütiana dela bethi aitzina abiatzen ta arrauskitarik ez batzen<sup>60</sup>

Bena khristianoek patuari dereitzoan arpetzak<sup>61</sup> jarraikiten, düfügüno dügün erran<sup>62</sup> patua dela Jinkoaren manhiak ezkribatürük daudenak libürü sekülakoa. Jinkoaren batzarretik dekretoen registroan da ere naidar<sup>63</sup> ezin mugitia mugitzen diradienetzaz goga güziak beren lekütan dütiana sekulakoz jarten.

Bada dioenik letarta ta patua bat diradiala harez diradiala gauza güziak algarreki daudenak aritzen Jinkoak seiñalatü bezala, dielarik bederaka beren denbora ta lekhia gerthaldegi Cœsaren hiltzia erori zenian Pompearren talluaren<sup>64</sup> zankoetara Domitian bost orenetan hilgei zena, ber thenorian haren

<sup>54</sup> ezkinirio: ezkenezaioke.

<sup>55</sup> berjakinde osoan: konzientzia osoan.

<sup>56</sup> manhiak emaiten: aginduak ematen.

<sup>57</sup> megopia bihurt: izpiritua bihurtu.

<sup>58</sup> letarta (Lar.): probidentzia.

<sup>59</sup> ekidrana iraunkorra: orden iraunkorra.

<sup>60</sup> arrauskitarik ez batz: arau kontrakorik ez topatzen.

<sup>61</sup> arpetzak: aldarrikapenak.

<sup>62</sup> dügün erran: dezagun esan .

<sup>63</sup> naidar: errege diktamen.

<sup>64</sup> tailluraren zankoetara: segaren anketara.

jendeek gorderik uste zen lekhian lepoa muztü zereien franko gerthaldi halakorik dereikü eskentzen kondairak gure irakhurzaliak han edirenko dütinak.<sup>65</sup>

---

<sup>65</sup> han edirenko dütinak: han aurkituko dituenak (*-renko* atzizkiak geroaldia indartzen du, ingelesezko *willek* bezala).

Etzen nozpait amets txarrik bere azaldia<sup>2</sup> behar etzianik, zelakoz ordian jendeen iritzia<sup>3</sup> ametsak zeliaren meziak ziradiala. Badago ere, orai, heetarik behar beno haboro amets bederari bere erabakera dereitzenik. Halako eritarzuna delakoz eza-güütietarik zaharrena ürrühüntik zereio zaiñak ikhertüko, ez heen atheratzeko es-parantzan, bera bai erakusteko daudela gizonen erhokeria ametsen berezitan ja<sup>4</sup> heetzaz franko girade erauntsi bera Paganek heetan dien, heetzaz, deungetzaz<sup>5</sup> girade ixiltü, nahi bage nahaskürarik.

Igermenen hatsarriak<sup>6</sup> dirade eritarzün demonietan zielakoz gauza gorderik zirenetarik beren zorabietan salhatzen. Filosofoek ere uste zien Merkura ta Saturna ziradenian bathzen profeziena zatekila. Talento halakoari zereielakoz gogomenaren alphorrak doi<sup>7</sup> damürratiak ümen eritarzün hartara dirade net enjogi.<sup>8</sup> Heen megopia bethi gogomenez betherik dagode miraillian balirade bezala sooz<sup>9</sup> ta dirade haiñ üssü non mila igermenetan bat kausitzen<sup>10</sup> badie, ezpeita senthagaillardik.

Ezkirade heben mintzo<sup>11</sup> profetez ez eta aingürüez Jinkoak obratü dütienetzaz. Ezetare hilena agerrendetzaz ta ametsetzaz gütiago ere zelietan agertzen diradian gertha güzietzaz izanik ere sortzizko ta izakoi<sup>12</sup> faltsieren ametskeriak baizik ez diradianak. Paganen igermenak halako ziradian, gerthalde dagotze.<sup>13</sup>

<sup>1</sup> igermenaz: adebinazioa, aztikeria (oraingo zubereraz).

<sup>2</sup> azaldia: azalpena, esplikazioa.

<sup>3</sup> iritzia: aburua, opinionea.

<sup>4</sup> hatsarriak: hasierak.

<sup>5</sup> ametsen berezitan ja: *laski* ezabatua, noski.

<sup>6</sup> deungetzaz: deabruzkotzaz.

<sup>7</sup> gogomenaren alphorrak doi: gogoaren beroaldiak komeni.

<sup>8</sup> enjogi: emana, joeraduna.

<sup>9</sup> sooz: begira.

<sup>10</sup> kausitzen: ardiesten, lortzen.

<sup>11</sup> ezkirade heben mintzo: ez dugu hemen hitzegiten.

<sup>12</sup> sortzizko ta izakoi: sortzez eta naturaz.

<sup>13</sup> dagotze: daude.

Florentzako dükia gerlatat joaitian, zianak ustekidatü arakoitz,<sup>14</sup> gerlan hilen zenez bai ala ez, arrapostü hitz heek zütian ükhen: *ibis redibus non in bello navrieris*, erran nahi dena abiatüren hiz, ethorriko ez gerlan hilen<sup>15</sup> harek hantik gogatürik etzela hilen abiatü zen botzik gerlatat eta han etsaiek zien erho.

/ 285 / Arakoitzari zienian iraunatu enganaitü ziala dükia? Ezetz harek, asmagia<sup>16</sup> gaizki ziala hartü zereiolakoz erran joanen zela, jinen ez, gerlan zela hilen. *Cambisari orozbat zereion heltü*, ezi Catonako arakoitzak gogo eman lezan ez iga-raitez Ekatainen<sup>17</sup> herrian, zorien gañtik igaranen zela. Mediako bidea zian hartü ta han ber izeneko jende bathürik bizia zian heen eskietarik galdu.

Meskabüra<sup>18</sup> Alexandre Albaniako erregiari zen erori, ezi arakoitzak zialarik mezütü Pandesiako hiriari egin lezan ihes ta Arethusako aiñtziari bere herria izen hartarik zütialakoz ütz letzan, Pullialat abiatürik, han gerla egitera, Tarontanen<sup>19</sup> fabori ta han hil Pandosako hiriren aitzinian. Athenianek gezür halakoaz enganatürik gerlan sartü ziradien ta han beren photeria galdu.

Enberadore Neronek erran zereinian numero 73 gogo eman lezan biziaren penan. Galba adin harten tronola igain zelakoz asmegi<sup>20</sup> txarra zian konplitu. Cœ-sari ere Martxoko Ideer<sup>21</sup> gogo eman lezan ardüra entzünik elhe heetzaz zen trüfatzen, ber egünian Senatiala zabiltzalarik bathü zian asmegilaria<sup>22</sup> bidean ta erran: «Martxoko Idusen egunian güyük», berziak, «bai bena ezta igaran». Egiazki azkena izan zen haren biziarena traketatürik<sup>23</sup> Senatian zen hil. Bena ehünetañ asmegi halakoetan egia jalki bada, milatan gezürretan heen faltsükeria da agertu.

Hartakoz ere dio Diogenianek:<sup>24</sup> «Zonbait aldiz arakoitz heen erranetarik zer-bait bada heltzen egiarik ezta ofizioan den segürtantziatik, bena bai bentüraren obretarik, federik deusetan merexi eztienetik»

Saulen gerthal Diaz baliatü nahi lizatiener erran daitet, Jinkoak baizik zer helgei den eztakiala ta Satani zonbait aldiz gauza halakoen salhatzeko esküdantza de-reionian bere arrazoak dütila gure megopiari heltzen, ezin laitekinak, ezpaliz bai-

---

<sup>14</sup> arakoitza: aztia.

<sup>15</sup> esaldi maltzurra zeren komarik gabe bi gisaz irakur daiteken.

<sup>16</sup> asmagia: igarkizuna.

<sup>17</sup> Ekatainen: Ekbatania Mediako hirinagusi aberatsa grekoek ohostua.

<sup>18</sup> meskabüra: zorigaitzera.

<sup>19</sup> Tarontanen: Tarontoarrak (Italiako Grezia Handian, portua).

<sup>20</sup> asmegi: asmo egia, *prédiction*.

<sup>21</sup> Ideer: Martxoko Iduak.

<sup>22</sup> asmegilaria: *voyant*.

<sup>23</sup> traketatürik: tanpan harturik.

<sup>24</sup> Diogenianek: Filosofoen bizitzaz idatzi zuena (III. mendean).

zik Satanen erranetan jendeen profezietan beno eztela sinheste, ezi Jinkoak Saulen maredizionia ta Daviden goratarzüna beraren egingeiaik ziradian. Satanek hitzik errege haren hiltziaz zakian bazelarik haren adiskide arren helgeietan deus segürrik erran eztaite photere sekülakotik ezpadirade jalki.

Satan megopiaz da betherik edo hobeki dezadan erran ezta megopia baizik gauza izakoietan da ezinago atrebi, hala igarana oraikoareki bederakatzez zerbait erran diro jingeiaz<sup>25</sup> bena haren jakindia ez ükhenik ere oraikoaz dakigü, arakoitz.

Nolako datekian<sup>26</sup> biharkoa igelen jakintzia dena ta txori güziena, bena Satanek gizonari gogomenetan sargiarik<sup>27</sup> ezta Jinkoak ezpadereitzo eskümatzen.<sup>28</sup> Angürier gaillardi<sup>29</sup> halakoa dago, ta nola den arima bere egiliaren eretzian dirade angüriak edo satan khidarri; bena hau ez sekulan jendeen demorrian<sup>30</sup> ta zorabietan baizik arakoitz.

Emazte batek Erruman Fausta deitzen zenak bi seme ta bi alhaba batetan sor-thürük zonbait egünez Enberadore Augusta hil beno lehen, denbora hartan, bentüraz izan zen gosete handiaren asmigarkia.<sup>31</sup> Egiptan Pharaoren ametsaren Josefek arpeztu<sup>32</sup> ziana pare zena. Asma igarki halakoен gerthaldi egiazkora / 287 / badüğü Severa Sulpisa-k.

San Martinen hiltziaz mintzo denak dio, S. Ambroisa<sup>33</sup> zela ordian apezküpü Milanen *Lectione Profetica* irakhurtü zian bezain sarri altharean loak ziala hartü ta hartan Elizan ziradian jendeek bi orenez ziela ützi, iratzartzian zereiela erran «Nere anaia Martin hil da, haren ehortze ohoreetarik ethorririk nago». Jendea harritürük egonik bederakatü<sup>34</sup> zela S. Martinen hiltzearen ta ehortziaren egünak ta haren ezarteko lürpian, orena ta erabaki zela S. Ambroisaren altharean loaren thenorea zela.

---

<sup>25</sup> erran diro jingeiaz: erran dezake helgeiaz, gertagaiaiz.

<sup>26</sup> datekian: izango den.

<sup>27</sup> sargiarik: sarrerarik.

<sup>28</sup> eskümatzen: ezku uzten.

<sup>29</sup> gaillardi (Lar.): pribilegio.

<sup>30</sup> demorrian: melenkolian.

<sup>31</sup> asmigarkia (Lar.): adivinanza.

<sup>32</sup> arpeztu: aldarrrikatu.

<sup>33</sup> S. Ambroisa: San Anbrosi, elizako aita (340-397); gaztetan pagano, Milango apezpiku, arioaren etsaia.

<sup>34</sup> bederakatü: banakatu.

Dügün berze gerthaldi bat Julian Sabba Theodosa<sup>35</sup> kondairiaren adiskide handienak denak dio, haren herioa jakin ziala heltü zen ber egünian zelarik hogei egünen bidez hantik ürrhün ta harez ta egünaz. Nola egin hala, Eduart Lehena Engliterrako erregia,<sup>36</sup> Jinkoa othoitü landan bere üngürü zaudetzener zaioelarik Frelon Danamarkeko gerla egitera jiten zereiona berrogei ontzireki itxasoan izakaldü<sup>37</sup> zela, gogatü berriaz llabür kemendikatu<sup>38</sup> izan zena.

Irakhurtzen dügü gizon batek Dianaren tenploan Efesan Apolon-en thesoroaren ebatsi ziala ta Parnasako mendilat eraman ta han oihen<sup>39</sup> barnenian ziala gorde. Akhidüräz<sup>40</sup> looari libraturik otso batek lepoala lothürik zian erho; hantik otsoa Efesarat abiatü orrhon izigarriak<sup>41</sup> zütilarik egiten ta jendia hil zenez harritzen; zerbait zela hetan miragarririk otsez<sup>42</sup> jarraiki zien otsoa ta abiatzen zelarik baraitx<sup>43</sup> hiritarrek hilila<sup>44</sup> zütian aitzinkidatü<sup>45</sup> ta heek ideren<sup>46</sup> han Apolonen ürhia.<sup>47</sup>

Badaite<sup>48</sup> kondaira hau ezten osoki egia bena bai franko dezagün sinhets elizen ohoiñak diradiala otsoen bazkak, ta basa animal ere. / 288 / Arakoitz erran dügünetarik ta Solonek erran zereion nontik zen ohoinkeria Apolonen adiskide zela.

Nola nahi soo eginik<sup>49</sup> arakoitzer ezta gizon zentzüdünik aithor eztirokianik hartako Satanen ofizioan ari diradiala ta mündian eztela ofizio txarragorik, ezi lürrian dirade osoki eskele phützü gezürrez betherik agort' eztaitekina ta hantik igermenak egiazko pikaroadiak orozbat.<sup>50</sup>

---

<sup>35</sup> Julian Sabba Theodosa: VI.m.ko bizantiar kondairalaria.

<sup>36</sup> Eduart lehena: *Edward the first* (1239-1307) Eskoziar eta Gales herriaz jabetu zena.

<sup>37</sup> izakaldü: jendea galdu.

<sup>38</sup> kemendikatü izan zena: baietsi izan zena.

<sup>39</sup> oihen: oihan.

<sup>40</sup> akhidürä: nekadura.

<sup>41</sup> orrhon izigarriak:orroa izugarriak.

<sup>42</sup> otsez: alegia.

<sup>43</sup> baraitx: bare, mantso, emeki.

<sup>44</sup> hilila: hilera, hilarengana.

<sup>45</sup> aitzinkidatü: aurrez gidatu.

<sup>46</sup> ediren: aurkitu.

<sup>47</sup> ürhia: urea.

<sup>48</sup> badaite: posible da.

<sup>49</sup> soo eginik: begiraturik.

<sup>50</sup> pikaroadiak orozbat: pikarokeriak berdin.

## Errükiaz edo piedadiaz

Aita ama ohoratüren dütien haurrer biritze lüzea Jinkoak hitzmanan dereitze. Piedadia ariman ta bihotzian dago hain sortizkoro<sup>1</sup> non aberetan dügünian ikhus-ten, biduzgarri beita<sup>2</sup> jendian eztenian edireiten errükia aita amen eretze, halako haurrak dirade arren hartzaren, otsoaren ta lehonaren hümiak beno sordeitzago.<sup>3</sup>

Jinkoak manhatü dian errespetia izairiak zian lenbizian manhatü ta paganek de-reikie eginbide hartan gerthaldi miragarirrik eman: ikhusten dügü Troja garrek orotarik üngüratürik. Eneas bere aita zaharra süiari arrapatü nahiz, konkaitz<sup>4</sup> hiriz kanpo eramaiten dialarik Askaiña bere haurra eskütik adheratzen.<sup>5</sup>

Bestalte Coriolan bere etsaien kaltaraietzaz<sup>6</sup> Errumarik jelkirik harat zelarik Volsken khidari, bere ama aitziniala abiatürük erraiten harmada etzela hiriala hel-türen bere khorpitzaren<sup>7</sup> gaiñetik etzeno igaran. Coriolan ikhustian bere ama lürrian heda, dago harritürük, bena amari dereioan amorioa, ohoria beno zereio azkarrago, dakilarik ere ützültzia ta Volskei traideore dela die erhaitein.<sup>8</sup>

Amon Athenianak zialarik aita bizipenaz karzeroan, zathizka ziana aitaren haz-kürriaz bere hona saltzen ta oro gastatürük Aita hil zereionian karzeroan bere li-berdadia dü saltzen, bere aitari harzülo batean ehortzeko ta bera esteki jarten.<sup>9</sup>

/ 289 / Ber herrokan<sup>10</sup> Amphinomas ta Anapus ikhusirik sütan beren hiri güzia laisterka garren artetik aitaren salbatzera abiatürük. Clovis ta Bion<sup>11</sup> manurgari üztartürük beren amaren karreiatzeko. Cornelius aita ütsiari<sup>12</sup> arrima jarririk ta

<sup>1</sup> sortizkoro: sortzezko, jaiotzezko.

<sup>2</sup> biduzgarri (Lar.) beita: eskerga, harrigarri baita.

<sup>3</sup> sordeitzago: txarkiago.

<sup>4</sup> konkaitz: lepoan harturik, iztakoloka.

<sup>5</sup> adheratzen: atheratzen, kanporatzen.

<sup>6</sup> kaltaraietzaz (Lar.): erasoetzaz, atakeez.

<sup>7</sup> khorpitzaren: gorputzaren.

<sup>8</sup> erhaiteen: hiltzen.

<sup>9</sup> esteki jarten: loturik jartzen.

<sup>10</sup> ber herrokan: lerro berdinean.

<sup>11</sup> Clobis ta Bion: Bion, III. mendeko zinikoa.

<sup>12</sup> Cornelius aita ütsiari: Cornelius Ballus hispaniarra Erromako kontsul (gutti gorabehera -40. urteetan).

hartakoz Scipion izena eman zereienak. Daona<sup>13</sup> errromana ziana aita karzeroan gosez hiltzera eripetürik bere dithia egoskitzera emaiten zereoiana. Orozbateko gerthalidia dereikü ginbeletek seíñalpeten,<sup>14</sup> alhaba baten bere amaren eretzian ta ber kasian diolarik alhabaren piedadiari amaren bizia baliozgatü<sup>15</sup> izan zela ta batak ezetare berziak etzielakoz zertzaz bizi, manhatü izan zela erresumaren khos-tüz zükiela hazkürria. Piedade haren gatik tenplo bat berdüthe hari karzeroa zen lekhian ziela obratü.

Arima eder heetarik paganoetan bazen ta halakoetarik güti khiristianetan zonbat haur begiak idorrik beren aita amen ehortzten daudenian, zonbat herioaren aidürü<sup>16</sup> heen bizia lüzegei zereitzenik, zonbat ere llabürtü zereitzanik attegita<sup>17</sup> heetara zereit<sup>18</sup> lüma artzükatzentz<sup>19</sup> papera odoltsützen ta besoak erorten.

---

<sup>13</sup> Daona: Roger François Daon (1669-1749) teologilari antijansenista.

<sup>14</sup> ginbeletek seíñalpeten: ginbeletek azpimarratzen, seinalatzen.

<sup>15</sup> baliozgatü: baliokidetu.

<sup>16</sup> aidürü: zain, itxaroten.

<sup>17</sup> attegita: atheguita? ateraldi?

<sup>18</sup> zereit: oraingo zubereraz *zait*.

<sup>19</sup> artzükatzentz: ukatzen.

Legeak emazter haiñ latz e'liraiteke, eskü, berek heetan ezarri balütükie; bena gizonek beretza obratü nahiz, lan hartara eztutie deitü hala beren egarriala dütie menpetü, okherkeri handia dena, ezi ükha eztaite bethi izan dela heetan gizonetan beno megopia biziagorik ta zentzü miragarririk, gizonenak itzaltü dütienik.

Eva zen gure ametarik lehenena ta gure eskelegoaren ogena dereioguna,<sup>1</sup> Adam zialakoz enganatu Jinko jaunari menaustian eman zereioan manhian,<sup>2</sup> frütü ezta-kigünaren jatian artikülü horrek merexi dü thipiltzia.<sup>3</sup> Egia hartarik berze bat ükha eztaitekina da Adameren dela ogen handiena ezi hau bere emaztiaz enganta-türük, Satanez Eva zen enganatia ta hala indar azkarragoari bihürtü ezinez. Adame bere emaztia beno flakiago izan zen sügiari bezala etzelakoz bihürtü emaztiari, zen arren ogendün egiazkoa; bena nola nahi aithortü behar dügü.

Evak bere alhabak, semeak beno hobeki zütila dotatü, jakile Sararen zogiera,<sup>4</sup> Rebekaren beillaroa,<sup>5</sup> Anaren bihotzükia<sup>6</sup> Abigailen trebaia,<sup>7</sup> Judithen baloria ta Tabilkaren honkitarzüna.

Zonbat emazteen laidoretzaz gerthaldi ezkünüke<sup>8</sup> bederakatü behar bagüntü: heen obra hetetzaz, heen arimen handitarzünetzaz, heen jakintze bañetzaz,<sup>9</sup> heen amorio azkarraz, zer erran e'laiteke, kondaira lüzegi lizateke; bena ahalena llabür-türük zerbait debeia<sup>10</sup> eztaitekina dügü erranen, dakiener emazteen bürü güziak giziberiaz<sup>11</sup> eztiradala betherik, hanitz ere diradala heetan, jakintze izaitian ohore

<sup>1</sup> eskelegoaren ogena dereioguna: mixeriaren errua dioguna.

<sup>2</sup> menaustian eman zereioan manhian: desobeditzean eman zion aginduan.

<sup>3</sup> thipiltzia: argitza.

<sup>4</sup> zogiera: zuhurtasuna.

<sup>5</sup> beillaroa (Lar.): zaindaritza.

<sup>6</sup> bihotzükia: bihotz beroa.

<sup>7</sup> Abigailen trebaia: Abigail Nabalen alargun eta Daviten lehen emazte, Xileab semea eman ziona.

<sup>8</sup> ezkünüke: ez genuke.

<sup>9</sup> bañetzaz: ugarietzaz.

<sup>10</sup> debeia: aspertu.

<sup>11</sup> bürü güziak giziberiaz: buru guztiak txikikeriaz.

orai gütik diela biltzen, askaziek ere hartara eztütiela aderezatzen, alabadere. / 291 / ebatziz dakigü gizon jakintsia hanitez diradiala bardintü, bai etare hanitez aitzintü<sup>12</sup> heetarik ezagützen dügün lehena da Leonia, Theofrasta filosofo famatiaren kontra libürü bat egin ziana. S. Geroma, Aspasias ta Saphonas bi emazte jakintsiuetzaz da mintzo. Proba Adelfa prokonsularen emaztiak Persiako güdetzaz poema bat egin ziana. Esfio Boezaren emaztia jakintsü zen ezinago, Arianen kontra erauntsi zen borthizki. Amalasion da Alariken ama, griegoan, latian ta berze mintzoetan zen haiñ atrebi non bere denborako gizon jakintsü güziak beitzütian garhaitü. Xerses Persiako erregiak Artemisa bere emaztiaren baimenaz baizik deusere etzian egiten.

Justinian-ek orozbat Theodoraren eretzian. Candazaren ta Semiramiren damak nork eztütü ezagützen. Amathea ta Marupeak zonbat eztie jakintza ohoratü. Lisbeak bere 19gerren urthian Homeraren pare gerthü zen. Hipokhironen alhaba haiñ barna helgeietan zen sarthü, non Jinkotze gaiza<sup>13</sup> hainitz beitzütian salhatü. Zenobia<sup>14</sup> mintzo zaharretan atrebi zenak Alexandre handiaren bzipenaren laburtantz eman zian. Ursula Kornuailako prinziaren alhabak bi libürü egin zian, bata ikhuskera gordenetan,<sup>15</sup> berzia fedearen irakasdetan.

Veronissa Gambara ta Victoria Columna biak printzesak jakintzian fama handienian, Theonos, Proteus Egiptana-ren alhaba filosofia eta ordünko theologian bide handia egin zian. Phœnix Nicostrata, Nicola Sabako erregiña, errege Salomon ikhustatü ziana, argi handiak zütien. Martia Proba englesen erregiña 348 J. K. beno lehenago bizi zenak, hanko lege lehenak egin zütiana. Alkonara berze erregiña englesa.

/ 292 / Johane erregiaren ama Aita Santiarri Celestin 3gerrenareki ezkiribü handietan erauntsi zena. Litossa, Curus-en alhaba ta Dariusen emaztea net zen jakintsü. Sabena Flavia Augusta, Cœlius Engleterrako erregiaren alhaba ta Constantin handiaren ama letartan gaiñen<sup>16</sup> egin ziana libürü bat, berze bat ariaren hilezindian ta hirurgerrena honki bzipenak. Catharina<sup>17</sup> Alexandriako printzesak berrogeita hamar bere denboran filosofoekila egarkian<sup>18</sup> jarririk, güziak

---

<sup>12</sup> aitzintü: aurreratu.

<sup>13</sup> Jinkotze gaiza: Jainkotze gauza.

<sup>14</sup> Zenobia: Palmyra eraiki zuen erregiña.

<sup>15</sup> ikhuskera gordenetan: ikusmolde izkutuenetan.

<sup>16</sup> letartaren gaiñen: probidentziaren bizkar.

<sup>17</sup> Catharina Alexandriakoa: santa.

<sup>18</sup> egarkian: harremanetan.

zakian<sup>19</sup> sarthü zütian. Berze Catharina<sup>20</sup> bat izan da ere Englaternan Henri VIII-gerrenaren emaztia libürü bat bekhatorearen dolamenak deitzen zena egin ziana. Margaita bat ere Nafarroako Erregiña ezkiribü santian net jakintsü zena, Aita Loretien<sup>21</sup> ezkiribütarik ageri den bezala hanitz ta hanitz berzerik denbora sobera galtha lirokienik ta megopia Evak beno azkarrago dütienik.

Emaziak maite eztianak har beza nahi badü ene erranen khinperra,<sup>22</sup> nik diot gizona dela sorthü lürretik, emaztia aldiz gizona loo zelarik haren saihetsentik, bihotzari aizo<sup>23</sup> zenetik ta beren artian balinbada bainaterik emaztiari da goela pharte nobleena. Begotze<sup>24</sup> heen flakünen elhe zaharrak ta amazonetzaz mintza.

Amazonak gudari emazteetan handienak Asiaren pharte handienaz ziradian gozatzen. Melak<sup>25</sup> dio Samarian ziela egongia<sup>26</sup> ta ttii esküina errerik gizonki ziradiala gudatzen. Plinak sokaumatek dütü deitzen ta Hipokrata jakile sokamaute heen artean baziradila zaldiz ziradianak gudatzen gibelerat<sup>27</sup> zütielarik dardoak ta islorrak<sup>28</sup> lantzatzen ihesi inkaria zielarik<sup>29</sup> egiten hirur gizon erho eztütieno etzi-radian izkontzen.<sup>30</sup>

/ 293 / Denbora bat zen Asia güzia heena zela. Dianaren tenplo famatia xarlatanen khostüz eragin zien. Nozpait Caspianen mendien hüillen<sup>31</sup> ziradian, berrrehün mila saldoan han bi hilabete Gileki ta Egieki ikhustatzen ziradian ta gero beren herriala ethortzen gizon bagerik, izorra; hantik ziradianak haurrak sorthü bezain sarri ameek, arrak aiten herriren mügala zütian eramaiten ta han lürrian üzten, ürruxer<sup>32</sup> aldiz ttittiak muztürük gerlako begiratzen.<sup>33</sup>

<sup>19</sup> zakian: zakuan.

<sup>20</sup> Catharina Engeletarrakoa: Aragoikoa, Henrike VIII.aren emazte bat.

<sup>21</sup> Aita Loriet: Aita Lonet edo Lorinet?

<sup>22</sup> ene erranen khinperra: nire esanen alderantzia.

<sup>23</sup> aizo: auzo.

<sup>24</sup> begotze: beude.

<sup>25</sup> Maela: Pomponius Mæla hispaniar historilaria, Senekaren ahaide, lehen mendean bizia. eta *de situ urbis De Chorographica* idatzitakoa.

<sup>26</sup> egongia: bizilekua.

<sup>27</sup> gibelerat: atzera.

<sup>28</sup> dardoaren beste izena.

<sup>29</sup> ihesi inkaria zielarik egiten ihesarena egiten.

<sup>30</sup> izkontzen: ezkontzen.

<sup>31</sup> hüillen: hurbil.

<sup>32</sup> urruxer: urrizei, neskei.

<sup>33</sup> ttittiak mutztürük: ditiaaren ebakitze hori ezta sinesgarri izan geroagoan.

Peruan, mündü berrian orozbat emaztiak dirade gudari handiak harmetan izigarri ta gizon güzien ikharagarri: semiak dütie erhaiten, khastaren doiala baizik ez begiratzen. Errege Cuzcoren khortian bostehün emazte harmatürık daude, Erregiaren goardagei soldata die ükheiten. Afrikan ere bada halako emazterik Olibiaz deitzen direnak.

Amazonen erresumaren hatsarria ta noiz akabi zen eztakigü, bena Alexandre Handiaren<sup>34</sup> kondairan dügü ikhusten heen erregiña printze haren fama izigarriaz akogatürük, jin zereiola ikhustera galthatzera<sup>35</sup> ere haur bat hareki egitia ta hartzkoz erregiak bereki ohatü ziala, bena izorra jaiki zenez L. Cursa<sup>36</sup> dago ixilik. Gerlarik ezetare amazoner Alexanderren phartez ezta ageri batere. Hantik berezgoa<sup>37</sup> amazonen erregiña menpetü zela Alexanderri haur baten lankheian zereoanian galthatü, zereoala adiskidegoa hitzeman ta Alexanderri aphalegi zereoalakoz emazteen kontra güdatzia, egorri ziala botztarioz<sup>38</sup> amazonen erregiña.

---

<sup>34</sup> Alejandro III Mazedoniakoa (-356, -323).

<sup>35</sup> galthatzera: eskatzera.

<sup>36</sup> L. Cursa: Curtius lege gizonetatik bat XIV-XV. mendekoetan?

<sup>37</sup> berezgoa: bereizketa.

<sup>38</sup> *botztarioz* edo *botzharki*: nekez irakurtzen da.

Gauza güziak mündian dielarik beren sorte hona ta zori gaitza lehenetik da sorthü fortuna ezta düdarik, bena filosofoen erraniala eztelakoz deusere mündian ustegabian gertzen, fortuna dago gauza hutsa, izena baizik eztiana, ezi dügüno ikhusten aizeak thenpestak xilimistak, ekhaitzak lürrian manhü<sup>1</sup> zonbaitez diradiala ari, ihorek<sup>2</sup> düda eztiro salbü düdatzen direnak Jinkoa dela obra güzien langilea. Ezekhieli Jinkoak agertü zereioan<sup>3</sup> ikhuskera dago jakile, deusere eztela haren manhietzaz baizik mündian zothükatzentz<sup>4</sup> ta manhiak aingürü honetzaz edo gaiztoetaz dütiala egorten.<sup>5</sup>

Zorihona ogen<sup>6</sup> handian dago gizon zaharrari denian gibeltzen; bena liskar eginen dereionari ogenik bere eginbidian eztiala dia erranen? Laidoa zühür uste dügünari dagoela, dialakoz honlako ta halako gauzetenan huts egin ta hala zori honaren bidetik okhertü, erranen dü gauza güziek beren medioak dütiela ta heen haitoan gertarria dagoela.<sup>7</sup> Egiazki ere dotor jakintsuak liburutan edo beraren obretan eritarzünari zoin medika den doi badaki, hartan da tieso egonen ta jarrakiz zorigaitza dü hontüren.<sup>8</sup>

Dotor txarrak aldzirik zori hona gaitzen izairiaren zühürtarzünak dü forunaren borhondatiala üzten, berzela xarlataneriari osagarriaren lekhian herioa dü jarten. Hartako Tita Livak dio gerlan khidarriak<sup>9</sup> honki ezetare gaizki handirik eztirokiala, bena zogirak ta arrazoak<sup>10</sup> garhait dirokiela<sup>11</sup> meskabiak.

<sup>1</sup> manhü: agindu.

<sup>2</sup> ihorek: iñork.

<sup>3</sup> zereioan: zion.

<sup>4</sup> zothükatzentz: mubitzen.

<sup>5</sup> egorten: bidaltzen.

<sup>6</sup> ogen: erru.

<sup>7</sup> haitoan gertarria dagoela: aukeran gertakaria dagoela.

<sup>8</sup> honturen: umotuko.

<sup>9</sup> gerlan khidarriak: gerrateko lehenburuak.

<sup>10</sup> zogirak eta arrazoak: zuhurtasunak eta arraziak.

<sup>11</sup> dirokiela: detzazketela.

Guda ahal diroie zogirak ta arrazoak zorigaitza, gerthaldiak üsü dirade / 295 / borhondate borthitzak diala ardüra zori gaitza bortxatü, hantik hüskaldun ada-jioa:

Bentüra dadinak hartza  
eztadinak ezetare bartza<sup>12</sup>

Zorihonak nahi dü bere jarraikarria den bizi ta ekinai batzuk dütü ütsützen,<sup>13</sup> berziak argitzen, sortzepenaren legiak dütiana harten jarraikitzen, tontoa eztiro egin pherestia, bena bai megopiaz antsia.<sup>14</sup>

Bi erresuma photheretan bardin direneetarik gobernü hobenena diana sokhorri beharran ezta, sokhorroa bethi tieso egonen eztelakoz zoria<sup>15</sup> gauzen khanbioaz berme, denborak ta mügaldiak<sup>16</sup> diradialakoz khanbiakor heetarik, egün errikor<sup>17</sup> bihar nigartsü, ihor hil artio zori honaz daitekienik lausenga: Askhila khorpitz<sup>18</sup> güzian zen zaurizgeigarri<sup>19</sup> salbü aztalian,<sup>20</sup> hantik ere hil zen.

Zori honak dütü bere maitiak esküin ta ezker dütianak (gure üdüriala) hon-tarzünaz akogatzen,<sup>21</sup> bena balima hetarik ez batere beretzaz merexitü zerbait etzienik: ikhusten dügü Jakob artzaiñ eskele, makhila eskian ta berze honkirik mündian, hoiñez Jordaina igaraiten ta denbora zonbaiten landan ber ühaitza<sup>22</sup> igaraiten bere familia jarraikiz ta kabale<sup>23</sup> suerte orotarik saldoak maiñatek<sup>24</sup> dütienak haren ondoan eramaiten.

Ikhusi dügü azken ehüntzian<sup>25</sup> hirur anaie khorteala heltzen haiñ eskele non beren artian kapa bakhoitza baizik ezpeitzien ta gehienak zialakoz mi-

---

<sup>12</sup> atsotitza Zalgizek, Belak eta Oihenartek eman zuten eta Egiategi Oihenarteren miresle dugu.

<sup>13</sup> ütsützen: itsutzen.

<sup>14</sup> antsia: ardura handia.

<sup>15</sup> eztelakoz zoria: delako zortea.

<sup>16</sup> mügaldiak: egokierak, hautuak.

<sup>17</sup> errikor: barrekor.

<sup>18</sup> khorpitz: gorputz.

<sup>19</sup> zaurizgeigarri: zaurikor.

<sup>20</sup> aztalian: orpoan.

<sup>21</sup> akogatzen (Lar.): zamaz itotzen.

<sup>22</sup> uhaítza: ibaia.

<sup>23</sup> kabale: abere.

<sup>24</sup> maiñatek: mirabeak.

<sup>25</sup> ehüntzian: mendean.

rotz<sup>26</sup> txori txar zonbaiten atzamaiteko, Lois XIII ordian haur zena, ihizka haren berri ükhenik, nahiz ikhusi ta hartan laketürük ihizlaria zereion haiñ agradatü non bera ta bere anaiaik düke ta Frantziako kargü handienetan hel erazi beitzütian; hori da zori honaren bürüjaietarik<sup>27</sup> bata, haur baten jokian obratü ziana.

/ 296 / Hiri<sup>28</sup> ez galtha fortunaren ahalkia eztenez berrehün Frantziako etxe handi nausi heen aitasoak ta aitak bezala khortean zahartürük, diradian grazia batere gaberik, abokatü baten hirur semeak, pikarrai<sup>29</sup> harat jinik<sup>30</sup> oñddoak bezala ikhusten dütüğünian 24 orenetan fortunaren thiniala heltürük; erranen dük halako diradiala zori honaren bordokak;<sup>31</sup> alabadere, hari fida direnak erho diradiala<sup>32</sup> handiak. Mündia deno gora beheraz izan da txordonpatürük<sup>33</sup> ta halakatürük iza-nen deno.

Zeren Cœsar Augusta 44 urthez zori honian izanik ez balü holakoa ükhen kantabrer egin zian gerlan salbü, zeren haiñbeste gudari ehün gudetan mankhaturik<sup>34</sup> ta zonbat heen lagünetarik guda heetarik sano jalkirik, halako direlako fortunaren petik gora Jüsef, Moisa ta David ta gaiñetik behera erorik Aman, Belisaira<sup>35</sup> ta hanitz berzerik. Zortü gaitzak güitianian eskerniatzen<sup>36</sup> dügün Eropus Mazedoniako erregiak bezala Lampada ta ixarki egiazkoja jarraik<sup>37</sup> ezi gaitz haribihurtzia haiñ auher da, nola itxasoan bagen bederakatzia.<sup>38</sup> Gizon zaharrak dian zorthü hona edo gaitza daki nontik ta haren photerian eztagoela heen khanbiorik egitia ezetare bataren lüzatzia ta berziaren llabürtzia bena jokütik irapaizi dremen-denareki bai jalki laitila<sup>39</sup> halako zen Similisen gogomena Adrian enberadoriren faboriaz gozatzen zelarik osoki, khortia ta mündia zianian ützi berareki baitzeko ta zazpi urtheren bürian hiltzera zoelarik bere obizdean<sup>40</sup> jarrerazi.

---

<sup>26</sup> mirotz: miru.

<sup>27</sup> bürüjaietarik: buruza(g)ietarik?

<sup>28</sup> hiri: bere buruari hika.

<sup>29</sup> pikarrai: biluzkorri.

<sup>30</sup> harat jinik haraino etorririk.

<sup>31</sup> bordokak: itzulipurdia.

<sup>32</sup> erho diradiala: ero diradeala.

<sup>33</sup> txordonpatürük: kordoka jarririk.

<sup>34</sup> güdetan mankhaturik gerretan zauriturik.

<sup>35</sup> Belisaira: Belisarius, (494 - 561) generala Justinianusek eskerbeltzez herbesteratua, eskean hil zena.

<sup>36</sup> güitianian eskerniatzen: gaituenean erasotzen.

<sup>37</sup> lanpada ta ixarki (Lar): lanpada ta argi mutil.

<sup>38</sup> itxasoan bagen bederakatzia: itxasoan uhinen banatzea.

<sup>39</sup> laitila: lizatekieala.

<sup>40</sup> obizdean (Lar): hilartitzean, epitafioan.

Similisek gazterik bere denboran  
zerbützü egitez bizia zian igaran  
zahartarzünez heben dago hilik  
zazpi urthez baizik biziaz gozatürık

/ 297 / Silla orozbat diktatura beraren bakiren gatik zeren ützi.<sup>41</sup> Dioklezianek ere bere erresuma ziolarik, kargü soberna zela. Carlos V gerrenak printze photere osoena ützi zian, erresuma bere semiari. Gütik dirade erregiak hurak beno zortü hona egokidago<sup>42</sup> ükhen dienik, bena azkentzian okhertü zereiolakoz, zioan fortuna püta bat zela jente gaztiak baizik maite etziana.

---

<sup>41</sup> zeren ützi: zien ützi.

<sup>42</sup> egokidago: iraunkorrago.

Gerla da Jinkoak egorri dian mikalta latzena.<sup>1</sup> Bethi izan ta izanen dena pholboraren sorlakiak diratekieno;<sup>2</sup> khanbio handia dü jarri gudetan nozait harma thipilak<sup>3</sup> eskian gudariak ziradian bata berziari hüillantzen<sup>4</sup> eta han bihoztoiari erramia<sup>5</sup> zagoan. Orai kanon ta ezkopeta'khaldiz ürrhünetik dirade harmadak gudatzen, hala gütiago jende da hiltzen ta bitoria merkiago dena erosten tiesoago bere lekhian dago.

Izan da dierri batzu gerlan baizik etzirenak laket, hetarik alemanak ta thrassak hartakoz Euripidak deitzen dü Thrassia, Marsen herri. Dierri bada gudariekin harmak dütieno bethi garbi ta xahü, bena nontik jinen zereien gerla ez bethi beha ta dremenden astakürian<sup>6</sup> atabalaz edo tronpetaz ari direno gerlak bereki dütian lokariak eztakie, herri osoki errer eztie dolürik, jendia oihanetan ihesi dütie ikhusten ta haurrak gosez hilik. Hiritarrak ohitürik, biñatze erretzaz,<sup>7</sup> etxalte galkerredaz<sup>8</sup> eztie axolik heek dirade gerlaren frütiak; alabadere gerla da sü bat behin phiztü denian ta lekhü bat erre berziala laister doana ta / 298 / nekez hiltzen dena.

Negiari üdüri ekhia<sup>9</sup> gureganik abiatzen deno, odeiez dü zelia beltzen aria izotzez loditzen, lürra kharroaz herkhatzen,<sup>10</sup> ostoak zühainetarik erorten<sup>11</sup> ta lürra bere edertarzünaz da pikarraitürik,<sup>12</sup> orozbat<sup>13</sup> ari da gerla haren ere-

<sup>1</sup> mikalta (Lar.) latzena: minkalte, plaga latzena.

<sup>2</sup> sorlakiak diratekieno: egileak izango direno.

<sup>3</sup> harma thipilak: arma bilusiak.

<sup>4</sup> hüillantzen: hurbiltzen.

<sup>5</sup> erramia: aintzaren erramua.

<sup>6</sup> demendren astaküriaz: den gutxieng aitzakiaz.

<sup>7</sup> biñatze erretzaz: mahasti erretaz.

<sup>8</sup> etxalten galkerredaz: baserrien suntsitzeaz.

<sup>9</sup> egiari üdüri ekhia: neguari irudi eguzkia.

<sup>10</sup> kharroaz herkatzten: hormaz lehertzen, zartatzen.

<sup>11</sup> zühainetarik erorten: zuhaitzetatik erortzen.

<sup>12</sup> pikarraitürik: biluzgorririk.

<sup>13</sup> orozbat: berdin.

tzian<sup>14</sup> zian aberastarzünetik herexarik ezterieo üzten<sup>15</sup> ta harez basa eremia<sup>16</sup> dü egiten, bere langiletzaz bagetürik dialakoz hobenak erho.<sup>17</sup> Milion bat gizon khosta zen Coesaren fama; zer fama errabiatia!<sup>18</sup> Zonbat urthez halako galtzepena küperatü ezten!<sup>19</sup> Hiriak hutsik, legiak hilik, erreligionia mengoan,<sup>20</sup> khaparrek elgeak estaltzen<sup>21</sup> ta dolamen beltzik baizik orotarik ez entzütén.

Gaistokeriak dialakoz gerla behartü, bere legiak düti. Halarik ihor baztert ez-taitekina heetarik ezpaliz, hala photeria lükianak gerla egin liro<sup>22</sup> bere nahiala ta guda lizateke mündian bidezaleak bezala oihenetan ohoiñen artian, hartakoz ezta gerla lealik, printzen artian dena baizik. Heek ere bere arrazoak<sup>23</sup> behar dütie ta harmak hartü beno lehen ogenak<sup>24</sup> izanik ere, batari arpezkiroz, manifesto deitzen direnetzaz, nahiz mündia bere althe jarri, die bere züzenak edertzen ahalena kanoan ezkiribüz dagoelarik *ultima ratio regum* hartan erregeren azken arrazoa da-goela.

Bakiaz akhi diren<sup>25</sup> printzek gerlaren astaküriak<sup>26</sup> franko dütie: berrehün urthez hiri batez gozatzen delakoz, aizoak<sup>27</sup> ordian arrapatü zeienak edo aizoa sobera handitürik itzal egiten dianak edo adiskideak eskerniatzen<sup>28</sup> badü printze bakal-tarri<sup>29</sup> batek. Zonbat aldiz erreligionearren gatik dialarik harek bakia pheredikatzen edo ardüra jeloskeriaz aizoa<sup>30</sup> delakoz sobera aberatsten.

Bada dierri denboratik denborala gerlaz beharra dienik frantzesa da heetarik lehena. / 299 / Aspaldian da errana hamar urthekal odol gaistoaren idokitzeko<sup>31</sup> ezpada guda eraziten dela hirotzen,<sup>32</sup> gerla dü maite, non nahi den harat doa fran-

---

<sup>14</sup> gerla haren erertzian: gerra hura dela ta, gerla harengan.

<sup>15</sup> herexarik ezterieo üzten: aztarnarik eztio uzten.

<sup>16</sup> basa eremia: basamortua.

<sup>17</sup> hobenak erho: hoherenak hil.

<sup>18</sup> errabiatia: amorratua.

<sup>19</sup> küperatü ezten: birreskuratu ez den.

<sup>20</sup> mengoan: beharrune handian, behar ta nahian.

<sup>21</sup> khaparrek elgeak estaltzen: sasiek zelai soroak estaltzen.

<sup>22</sup> egin liro: egin lezake.

<sup>23</sup> arrazoak: arrazoiaik.

<sup>24</sup> ogenak: erruak.

<sup>25</sup> akhi diren: nekatuak diren.

<sup>26</sup> astaküriak: aitzakiak.

<sup>27</sup> aizoak: auzoak.

<sup>28</sup> eskerniatzen: zirikatuz aspertzen.

<sup>29</sup> bakaltarri: despota.

<sup>30</sup> jeloskeriaz aizoa: susmo txarrez auzoa.

<sup>31</sup> idokitzeko: kentzeko.

<sup>32</sup> hirotzen: usteltzen.

tzesla laister, hartakoz ere nozpaitekoak zioan *nullum bellum sine gallo*, gerlarik ez frantzes bagerik etzela, net<sup>33</sup> egia dena, ez berze batek beno herioaz eztian axolik, bena bai gauza berriak maite dütilakoz.

Lan lüzia da frantzesaren ozartezaren ta ezegokiaren heztia. Haren bulzadaz baliatzia ekinarte<sup>34</sup> handia ezi khea bezala auher<sup>35</sup> dagoenian badoa, hartakoz da errana güdaren hatsarrian gizon beno haboro dela ta azkentzian emazte beno gütiago.

Ez lotsaren gatik bena haren bizitarzünak obra lüziak dütielakoz hügüin<sup>36</sup> ta bertan ezlotsarengatik beita minkaizten.<sup>37</sup> Beraren ozartitzak dü etsaiaren komeiak beno akhitzen erran dianak hobeki akopilatzian<sup>38</sup> ezi ez gordotzian ta espaiñola gordotzian akopilatzian beno, bi dierriak zütian ezagützen.

Hantik broba balore hotza beroa beno gerlan tiesoagoa dela. *Circus Sulpicius* prokonsulak frantzesen kontra ari zenian zioan etziala etsaiaren bere ezokidaz hurtzen<sup>39</sup> zianareki deusere bentüratüren, zialakoz denbora faltsiak frantzes bulzada *furorem gallicum* deitzen ziana, hiltzen.

Bena zoin nahi dierrian zonbat nahi gudari den diharü falda denian flaküki doatza obrak, diharia delakoz gerlaren zaiña ta ezi kidari zühürrak zioan gerlan hirur gauza behar ziradiala, ürrhe zilhar ta kopre, hiruetarik diru egiten dena ta haren mengoa<sup>40</sup> denian gauza güzien mengoaan dabila jarraikiz, hartakoz Augusta enberadore zühürenak Senatari zian gogatü bakian gerlan bezala sekülakoz harmaden bertraondiarena<sup>41</sup> egin ladin, thesoro bat osorik egonen zena, ezi den gudaria nahi bezain bihoztoi behar guziak ezpadüti kobart / 300 / dateke jarri, bihoztoiago ere gertzen deusere falda eztianian; ta kidarriak zütianian zaitiran-tzen.<sup>42</sup>

Laz edemoniek etsaiak zütienian jokotria zonbaitez<sup>43</sup> garhaitü Mars jinkoari zezen bat zien oberta<sup>44</sup> emaiten. Gudarien indarraz aldiz oillar bat baizik etzien

---

<sup>33</sup> net: osoki.

<sup>34</sup> ekinarte handia.

<sup>35</sup> auher: alfer.

<sup>36</sup> hügüin: higuin, gorroto.

<sup>37</sup> minkaizten mikazten: mingosten.

<sup>38</sup> akopilatzian (Lar) gordotzian (Lar.): defentsan.

<sup>39</sup> ez(eg)okidaz hurtzen: ezinegonaz hurtu egiten.

<sup>40</sup> mengoa: gura.

<sup>41</sup> bertraundiarena: betiraundearena, jarraitasunarena.

<sup>42</sup> zütianian zaitiratzen: zituztenian zaintzen.

<sup>43</sup> jokotria zonbaitez: maltzurkeria batzuz.

<sup>44</sup> oberta: oberenda, oferta, doneskaina.

eskentzen<sup>45</sup> hantik zielarik erakusten garaipen ederrenak ziradiala odol güzik ixuri zütianak, halakoxe, Cœsaren errana: “Bakia nahi badiük (dio adagioak) gerla adela ezak”.<sup>46</sup>

Gerla aidürü dagoenari ardüra falda dereio egiten zeren eta hartara zabilana asustomaren<sup>47</sup> esperantza galdurik, beitago geldirik ta printzen artian fedetik edo batere ezpeita algarreki adiskide etsaigeiak bezala dirade bizi; hartakoz gudariak ahalik haboroenak ta aitzinetik diharü behar zereiena, ezi zerbaiti falda küpera eztaite: *Non licet in bello pecare.*

Cœsar izan da khidari ta gudari münduko handiena, berak zütian soldadoak ekireiten<sup>48</sup> bakian gerlan bezala. Kasü güzietan zer egingei zian<sup>49</sup> etzian bakhoitzik, noiz baraitz,<sup>50</sup> noiz laister, noiz aitzina, noiz gibelerat, noiz lantzaz, noiz ezpataz, noiz algarreki noiz berhez gudatü behar zien, batere etzen etzakianik. Bera ere beharrean zen gudari ta khidari gerla handirik egin bazian ta lloria<sup>51</sup> hanitz bildü erran daite<sup>52</sup> etziala bere bizian soldadorik manhatü<sup>53</sup> berak beno lan ariman, megopian<sup>54</sup> ta khorpitzian gehiago ükhen zianik.

---

<sup>45</sup> etzien eskentzen: ez zuten eskaientzen.

<sup>46</sup> gerla adela ezak: gerra presta ezak.

<sup>47</sup> asustomaren (Lar.): izualdiaren?

<sup>48</sup> ekireiten: itxuratzen.

<sup>49</sup> egingei zian: egin gogo, egin gura zuen.

<sup>50</sup> baraitz: geldiro, emeki, bareki.

<sup>51</sup> lloria: aintza.

<sup>52</sup> erran daite: esan daiteke.

<sup>53</sup> manhatü: agindu.

<sup>54</sup> megopian: gogoan.

## Handitarzünaz

Delarik handitarzüna gizonak egar diroan<sup>1</sup> karga pezüena<sup>2</sup> ta lekhü leiñian lerratzia<sup>3</sup> net ehi dena,<sup>4</sup> alabadere ezta txipirik handi nahi e'lizatekenik, zori honak bide haratkoa erakuts diro, bena berdüthiak baizik eztereio eskentzen; han jargia<sup>5</sup> khorpitzaren<sup>6</sup> handitarzüna baizik ezpada, da gauza aphürra: abantaila haren gatik israelitek Saul zien erregetü ta Erruman Maximus enberadoretu, bata etzelarik astozaiñ baten semia baizik ta berzia artzaiñ batena.

Handitarzün gorenak dütü doiala<sup>7</sup> bere etsaiak, erresuma handienek dütien bezala berenak, ezi nola batak ta berziak ageriago direno, meskabier dirade enjo-giago,<sup>8</sup> dürrundak<sup>9</sup> haritz handienak ta thorrü<sup>10</sup> gorenenak dütü aphalak beno ardürago joiten,<sup>11</sup> orozbat zorigaitzak handitarzünak dütü desegiten ta handiak lehen ziradian beno aphalago ezteno jagozatzen.<sup>12</sup>

Gauza txipia da handitarzüna berebera baizik ezta ezi zorihonaren dohaiña baizik khoi denian<sup>13</sup> mehatsiek<sup>14</sup> ta mehatsier da enjogi, bekhanki ürgüllu bagerik dabilalakoz, S. Gregorik dio senthailla handia dela jende handien bihotzian hü-miltarzüna edireiten denian, jakintze handia dela lloriari<sup>15</sup> bütü emaitea, poderoso izaitea ta halako giradala, ez jakitia. Orozbat S. Augustinek dio zorihonaren gar-haitea egiazko dela, zorihona ta egiazko handiak diradeala handi beren handitarzünaz ütsü<sup>16</sup> eztiradianak. Norat nahi ditzan üngüra zorihona dienak bethi fabori

<sup>1</sup> egar diro: jasan dezake.

<sup>2</sup> karga pezüena: karga astunena.

<sup>3</sup> leiñian lerratzia: legunean labaintza.

<sup>4</sup> net ehi dena: oso erraza dena.

<sup>5</sup> jargia: eserlekua.

<sup>6</sup> khorpitzaren: gorputzaren.

<sup>7</sup> doiala: neurri egokiara.

<sup>8</sup> meskabier dirade enjo-giago: zorigaitzei dirade emanak.

<sup>9</sup> dürründak: trumoikak.

<sup>10</sup> thorrü: absolutoan *thorriatik*, *torreren gainzuzenketa*.

<sup>11</sup> ardürago joiten: gehiagotan jotzen.

<sup>12</sup> jagozatzen: zaintzen, jagoten.

<sup>13</sup> khoi denian: oso zalea denean.

<sup>14</sup> mehatsiek (*dereio lagin emaiten izenian*) ezabatua.

<sup>15</sup> lloriari: aintzari.

<sup>16</sup> ütsü: itsu.

eztielakoz<sup>17</sup> ükheiteko bakia baizik, badaude ürgüllüz hantürik ez deno heetan espantagarririk.

Gure parean dügün handitarzünak ezküttü legasketzen.<sup>18</sup> Diradean printzeak beren sortzepenaz araodia, jendia beno handiago biz<sup>19</sup> hüillenti<sup>20</sup> ikuusi dütianak –lausenga berhez<sup>21</sup> die jende txipien ezkaratzetarik<sup>22</sup> diela hanitz. Bakia erre-sumetan erregek jar diroie,<sup>23</sup> bena helgaitza ezetare durunda<sup>24</sup> akhaza, ezetare Engleterrako galtzakordak podagra hoiñetik khent, handiek txipien erotarzünak dütie, ber flakeziak ta ber jeloskeriak,<sup>25</sup> bena gordatzen dakitze, hartakoz jende güzik ikhusten dütie.

Txipia eztadiala handiarekila sobera akointa<sup>26</sup> lür ontzia bürdüñezkoari aizo jarten dena, porroka daite. Soberanian dena igerikatzen, mengoan da ithotzen. Athenianek lazedemonek zütienian bilatü Asia güiaz ziradian egarritü ta deuse-rezü. Bere hona handier emaiten dianak galtzeko arriskoan dago ezi ez ützültzeko astakürü franko dükie.<sup>27</sup> Hartakoz dioe handien artian jende pherestürik badela erran nahi dena güziak halako eztiradeala.

Zauririk eztelakoz bere arradiza<sup>28</sup> eztianik üzten, orozbat jende gorenen bihot-zian dago aphalek egin dereien eskernioaren herexa.<sup>29</sup> Australasian saxoak sarthü ziradianian Dagoberti Lothera Borgoiñako erregeren semea bilho gabe zelakoz, bohor zahar pelatia zien izentatü boiloetan<sup>30</sup> printziak beltzargoaz latzki mendikatü, ezi güdan saxoak garhaitürük manhatü zian bizirkiz zaudenek haren ezpataren lüzeroala ziradila muzturen. Printzek beltzaroak sekülan eztutie ahazten ordüz edo berant dirade mendikatzen lüzeki dielarik utsartez argoeitatzen,<sup>31</sup> jakile Tibera Fusius-en eretzean ta Neron Vetistinius-enean.

Gerthaldi gaztiagorik ere badügü dienak erakhusten mendikak barna dütiala zañak, Enberadore Carlos Vgerrenak, / 303 / Mauriza Saxako dükiari, Felipe

<sup>17</sup> eztielakoz: ez dutelako.

<sup>18</sup> legasketzen: legeztatzen, ziurtatzen.

<sup>19</sup> biz: bedi.

<sup>20</sup> hüillenik: hurbildik.

<sup>21</sup> lausenga berhez: salbu eta laudorioa.

<sup>22</sup> ezkaratzetarik: tresnategitik.

<sup>23</sup> jar diroie: jar dezakete.

<sup>24</sup> helgaitza ezetare durunda: sukarra ezetare trumoia.

<sup>25</sup> ber jeloskeriak: susmotxar berdinak.

<sup>26</sup> akointa: harreman.

<sup>27</sup> astakürü franko dükie: aitzakia frango izango dute.

<sup>28</sup> arradiza: orbaina.

<sup>29</sup> eskernioaren herexa: karikaturaren aztarnak.

<sup>30</sup> bohor zahar pelatia: behor zahar garbala.

<sup>31</sup> utsartez argoeitatzen: astia zuenean zelatatzen.

Hessako landgrafiaren eretzian: liberdadia hitzemanik itsuski falda egin zioan. Dukiak enberadoria Spraken zela eritarzün izigarrian gudari saldo bat bildürirk zen harat abiatü ta federatua harrigarria egin, nahiz bere etsaia atzaman bena Karlos barazkaltzen ari zelarik dükeren heltiaz mezütürrik,<sup>32</sup> mahaiñetik zaldiala jauzirik joan zen ihesi, ta dukiari zilharkeria ta beharpret<sup>33</sup> güziak ützi.

Carles bere partez ere aukeraz zen Johane Maurizaren semiren eretzian ohartü<sup>34</sup> ogen ahalak zereitzon egin.<sup>35</sup> Bai etare Benaita Weimareko dukiak Saxakoaren askaziak Gustaf Suediako erregeren harmadan khidari<sup>36</sup> jarririk, Karleren ondo-koer gerla ikharagarriak egin: hantik goga printzeen artian mendika haiñ kharatz<sup>37</sup> denian, nolako den jende aphalenen eretzian diena.

Handien sinhestia da zordün ihorentzat izaitia, bena bagirade eztiradiala jende güzien harzale hartakoz barkhatzen ezie menpekoen ordaririk galtha dereitzen;<sup>38</sup> ta zer nahi zerbüütü ükhenik ere dohaiñ izenian baizik honkirik eziegiten, ta doiala<sup>39</sup> baizik eskerraz eztutie egarten.<sup>40</sup> Heen honkien hatsarria<sup>41</sup> da nekezena bena hantik aitzina eztirade baratzen<sup>42</sup> ontartüz emanez<sup>43</sup> akogatü eztieno<sup>44</sup> ta obra halakoetan dielakoz beren handitarzuna jarri, handitzen die ahala: harta-koz Lois XIV. korteziar bati erranik zeren etzereioan ezkütx bat baizik galther? Berziak arrapostü zeren eta baitakit haren jarraikiz saldoak diradiala jinen.<sup>45</sup> Erran balereio<sup>46</sup> merexitü ziala haboro, deusere etzian ükhenen, ezi printzeek zerbüütü egingeia maitiago dütie ezieg eginak ta zaharrak hügün dereialakoz<sup>47</sup> esker beltza iraunatzten<sup>48</sup> hartakoz ere Lois XI gerrenak zioan Argenton-i korteziararen zorthü<sup>49</sup> hobenena zela, merexitü bagerik honki hanitz ükheitia.

---

<sup>32</sup> heltiaz mezütürrik: etorreraz abisaturik.

<sup>33</sup> beharpret: beharrezkoak.

<sup>34</sup> semiren eretzian ohartü: semeaz oroitu.

<sup>35</sup> ogen ahalak zereitzon egin: kalte ahalak zizkion egin.

<sup>36</sup> khidarri: buru, aitzindari.

<sup>37</sup> kharratz: garrattz.

<sup>38</sup> galtha dereitzen: eska diezaten.

<sup>39</sup> doiala: neurrrira.

<sup>40</sup> eztutie egarten: ez dituzte jasaten.

<sup>41</sup> hatsarria: hastapena.

<sup>42</sup> aitzina eztirade baratzen: aurrera ez dira gelditzen.

<sup>43</sup> ontartüz emanez: probetxuz, mesedes emanez.

<sup>44</sup> akogatü eztieno: zamaz ito.

<sup>45</sup> diradiala jinen: direla etorriko.

<sup>46</sup> erran balereio: esan balio.

<sup>47</sup> hügün dereialakoz: gorroto diotelako.

<sup>48</sup> iraunazten: iraunazten.

<sup>49</sup> sorthü: zori.

/ 304 / Mürrü batetan haiñbeste harri txipi nola handi ta hegatzian zuraje txipiak<sup>50</sup> handiak beno dirade üsüago (orozbat jende apala gaberik handia handi e'lizateke, harez paira eztaite,<sup>51</sup> hari jende mehia hüillant ezpaladi<sup>52</sup> handia abia laite mehiari: hantik jarraikira beharrago dela txipia handiari, handia beno txipiari, balakie zorthia zonbaitez handien beno die zori hobe, berzenaz bekaztia lükie mehe. Düğün gerthaldi zori honaren ezokiaz eman heben pharrasta bat ereiñ.

Zirus erregetarik famatiena Jinkoak bere populü maitia Babiloniako katiberiatik khentzeko haitatü<sup>53</sup> ziana hirur urthez baizik etzen erreinatü gerlan segariak<sup>54</sup> zütiala Erroman, bena Thomiris hanko erregiñak gudan garhaitürük, lepoa zereioan motzarazi ta büria zakü batetan sarthürik odolez zian betha erazi ziolarik, odola haiñ maithe zianak odolaz behar ziala asia.

Türken enberadorearen zorthiak hanitez zen sordeitzago<sup>55</sup> tartaren erregiaz gerlan garhaitürük katiberia haiñ apalian zian jarri non zaldian jarteko ezkabela beitzian haren bizkarra, orozbat ere Persako erregiak Errumako Enberadoriaren eretzian.<sup>56</sup>

Sizeta ber denboran khidari handiena Israel ikhararazi zianari Jahelek itze<sup>57</sup> bat bürian lantzatürük emazte baten hoinetara zen erori hilik ta 135.000 manhatzen zütianak bakhottz bat ez egon haren deithoren egile; Morabi ta Zeaba erho zütianian<sup>58</sup> Gedeonek mithil bedera heen khorpitzen ehortzeko etzeitzeten egon semiak.

Cœsar paregabia haiñbeste mila gizon bere handigeiaren dosaintürük<sup>59</sup> bere hirian Senataren erdian puiñal'khaldiz jorik, Pompea Tuluaren podestatiak herrestaz<sup>60</sup> hiltzera –üdüri galthro zereioala barkhamentü<sup>61</sup> gizon haren kasura zialakoz nekatü–, aita ta bi semiak.

Caius Caligula bere harmadaren khidaria bere eskütik hil, Neron berak erho Galba orozbat ta haren büria Othoni eroan. Othon ere beraren erhaile Vitellius

---

<sup>50</sup> hegatzian zuraje txipiak: teilatuan zureria txikiak.

<sup>51</sup> paira eztaite gabe: gabe egon ez liteke.

<sup>52</sup> jende mehia hüillant ezpaladi: jende xehea urbil ezpaledi.

<sup>53</sup> haitatü: hautatu, aukeratu.

<sup>54</sup> segariak: zerrariak.

<sup>55</sup> zorthiak ... sordeitzago: zoria ... txarrago.

<sup>56</sup> eretzian: aldean.

<sup>57</sup> Jahelek Jalin zuen, iltze bat lokian sartuz, hil.

<sup>58</sup> erho zütianian: hil zituenan.

<sup>59</sup> dosaintürük (Lar.): sakrifikaturik.

<sup>60</sup> podestatiak herresta: potestatak narrasta.

<sup>61</sup> galthro zereiola barkhamendü: eskatzen ziola barkamendu.

eskiak bizkarrean esteka ta khorda lepoan herresta karriketan<sup>62</sup> laistererazirik ta lohiz estalirik ühaitziala urthuki<sup>63</sup> hilik. Domitian erho zien bere jendek Amorius berek ürkatü bere jendek zienian erho. Severak hil zian Julian. Claudia Albinari büria muztürk ürkhagian zian ezarri;<sup>64</sup> horetzaz ere pharte, horez janik<sup>65</sup> ühaitziala urthuki Caracalla matatu izan zen. Macrin ta Diadamenus haren semia xehekatürik<sup>66</sup> hil. Heliogabala lohian herrestatürik harri bat lepoan ühaitziala urthuki. Marius Cœlius zathizkatürik hil, orozbat Balbinus ta Pergrianus. Gordean ta haren semia hil ta ürkhan jarri. Bi Maximin büriak muztürk Erromara ekharri, han erre ta khorpitzak hurialat urthuki.<sup>67</sup> Caius matatürik horak jan.<sup>68</sup> Carus durundak erho<sup>69</sup> Constantin 3 gerrena bere jentek mainhian hil<sup>70</sup>. B. Valius Hostilianus ezurgian<sup>71</sup> hil. Trajan itho, Galian, Persan Caolibs. Mandances leze batetan lerratü<sup>72</sup> ta haren khorpitzza galdu. Justinian IIgerrenari südürüra ta beharriak muztü.<sup>73</sup>

Tibera IIIgerrenari dierria jakile lepoa muztü. Philipe Bardesanori begiak lehertürik tronotik akhazatü. Anastaze II. konbentü batetan karzeratü. Constantin VIgerrenere ere begiak lehertürik. Alexandre Handia ardoaren soberanaz hil. Demostena, Pompea, Ciceron, Sertorius ta gizon handiak saldoak matatürik hil. Karles VI. eskelegoan bizia akabi. Henrike III ta IV matatürik; Karles Stuart Engeleterrako erregeari 1649. urthian üztailaren 3gerrenian sententziaz Londran plaza püblikan borrooak askoraz pikatü zereioan büria. Orozbat geroztik Maria Stuart erregiñari...

Herio meskabüsü hain saldo handiren landan ta güziak jende handienetan dügü fortunaren gora beheretzaz zerbait heen eretxian erran. Eunapius<sup>74</sup> berzela Ablavius<sup>75</sup> enberadore behin seinalatürik zien deslürratü ta matatü, Philipi-

<sup>62</sup> herresta kharriketan: narrasta kaleetan.

<sup>63</sup> ühaitziala urthiki: ibaiera aurtigi.

<sup>64</sup> muztürk ürkagian zian ezarri: mozturik urkabean zuen ipiñi.

<sup>65</sup> horez janik: zakurrez janik.

<sup>66</sup> xehekatürik: zeturik, irindurik.

<sup>67</sup> hurialat urthuki: urera bota.

<sup>68</sup> horak jan: zakurrak jan.

<sup>69</sup> durundak erho: ekaitzak hil.

<sup>70</sup> mainhian hil: bainuan hil.

<sup>71</sup> ezurgian: ezurtegian.

<sup>72</sup> lerratu: labaindu, zirristatu.

<sup>73</sup> beharriak muztü: belarriak moztu.

<sup>74</sup> Eunapius: Eunapios neoplatoniar filosofoa (347-420).

<sup>75</sup> Ablavius: Eunapiosen beste izena.

que<sup>76</sup> enberadoriak Justinian IIgerrenari<sup>77</sup> lephoa zereioan mutzerazi Sejan<sup>78</sup> Tiberaren enberadoriaren haiñ izan zen maithatia non enberadoria bezaiñ gurtatürık erresuman ere ber photeria ziana, ürrhezko manurgan<sup>79</sup> Senatuala bazoana bütüzagि bezala, harez baizik jendia mintzo etzena Erruma orotan haren talua<sup>80</sup> ageri ürrhezko bat ere, güziek gurtatzen ziena. Egün batez parada hartan Senatian sartzen zelarik ustian tribun haitatü<sup>81</sup> zatekila, karzeratü zien consulus-atik khentü ta hirur egünez karriketan herrestatürük<sup>82</sup> Tibroala zien urthiki<sup>83</sup> sententziaz ere haren haurrak hilerazi.

Ikhusi zen Erroman notari Mazedoniako Erregeren zerbütxüko, han ta lürraren fortunaren balaketzaz<sup>84</sup> ta batean haren ostikoetzaz haiñ üssü dirade gerthaldiak<sup>85</sup> non heen kondairaz egin balaite libürü handi bat; bena erranetzaz da franko jendiari erakhusteko, eztela mündian handitarzünik txipikeriala lerra eztaitekina,<sup>86</sup> ezetare aberastarzünik eskelegoala<sup>87</sup> eror eztaitekinik ta zori honik mündian eztela salbü handigoaz axolik eztiena paira<sup>88</sup> ezetare aberatstarzünik mengoarik eztiana, ezetare aberatstarzünaren egarririk mengoan doia dianaren.<sup>89</sup>

---

76 Philipique: Justinianus II.a, Bizantzioko enperadorea hil zuen.

77 Justinian II: Justinianus «Rhinotmetos» enperadore odolzalea.

78 Sejan: agian Tiberiusen seme Sejan.

79 manurgan (Lar.): karroza ederrean, korteko karrozan.

80 talua: urezko dirua.

81 haitatü: hautatu, aukeratu.

82 karriketan herrestatürük: kaletan narras erabilirik.

83 urthiki: aurtigi.

84 balaketzaz: laztanetaz.

85 gerthaldiak: adibide jakingarriak.

86 lerra eztaitekina: labaindu ez daitekeana.

87 eskelegoala: txirotasunera.

88 axolik eztiena paira: axolarik ez dutena jasan.

89 mengoaren doia dianaren: desiraren neurrira duenarentzat.

Zorthia delakoz khanbiakor, bi zelakodia<sup>2</sup> dereio emaiten hontarzüna ta gaitz-keria. Egün da egiazki bata ta bihar berzia bere bürüzaira baizik arrazogei eztiano, ezi egüñkal merexia dü ta gibel üzten ta aphürkeria aitzinatzen dügü ikhasten. Mündüko gauza güziak diradalakoz arrotaren üngürünian, behin gora, gero behera, hala izan dirade jende handienetarik batzü beren herriak lülez gobernaturik eskele hil diradianak: jakile Menenans, Nummius, Epaminondas eta eskelegoa haiñ handian hil zirenak non ehortzeko gastientzat<sup>3</sup> ezpeitzien ützi. Thomas Morus ere berzerik Engleterrak erresumako egitekoak lülez eskutatürük<sup>4</sup> jin ziradian<sup>5</sup> bezala mündiala hola hantik beitziradian abiatü. Net bekant dena ezi zilhar arditen eskütatziian dütu belzten eskiak eta ez xuritzen arima.

Badirade hanitz beren mereximentü handiaz loriathü, honkitü<sup>6</sup> ta lealtü diradienik, heetarik Decius jende apürretarik sorthürik Errumako gobernan langile handienetarik zena jalki. Enecius Marius, EspaÑan errumenen izena lanthatü ziana jende apürretarik herritarrez ohoretzaz hil zen akogatürük.<sup>7</sup>

Saldoa berzerik laborantza kastatik handitarzün goreniala<sup>8</sup> diradianak heltü; Marius handia, hantik zian sortzepena; zer honki<sup>9</sup> harez erran eztaite gerthaldi halakoetzaz broba laite.<sup>10</sup> Izairia laket delakoz gizonen lehen ofizioa zela, hantik hirietarik beno gizon handiagorik dela gerthü.<sup>11</sup> Nork eztaki noblezia sorotarra hirikoa beno zaharrago dela edo xahiago:<sup>12</sup> mintza nadin lehenetik, biggerrena dela zorthia.

<sup>1</sup> zorthiaren bürüzarietzaz: zoriaren agintetzaz.

<sup>2</sup> zelakodia (Lar.): kalitate.

<sup>3</sup> ehortzeko gastientzat: ehorzteko gastuentzat/lurperatzeko.

<sup>4</sup> eskutatürük: eskuetan erabilirik.

<sup>5</sup> jin ziradian: etorri ziraden/ziren.

<sup>6</sup> loriathü, honkitü: gloriatu ta ongitu.

<sup>7</sup> akogatürük (Lar.): zamaz itorik.

<sup>8</sup> goreniala: gorenera, altuenera.

<sup>9</sup> honki: ongi.

<sup>10</sup> broba laite: proba liteke.

<sup>11</sup> gerthü: gertatu.

<sup>12</sup> xahiago: garbiago.

Eunapius Ablavius jende aphurra zena / 308 / Constantin handiren denboran, pretorgoa zian erondu.<sup>13</sup> Gordius<sup>14</sup> jende aphaletarik Frigianek zien erregetü. Kondairak irakhurtzen badütügü hanitzago mereximentiaz, eziez sortzepenaz handitürik dügü edireneng.<sup>15</sup> Lehenena düda bagerik errege profeta Santia David, lekhü ülhünetik artzaintü ta hantik erregetü.

Tuele Hostilaren aita zen ez jakin nontik, beraz alabadere bürian khoroa ükhen.<sup>16</sup> Marc Porcius Caton zen ere jende aphüretarik izan jende pherestien aita. Valedacius Bessus, Parthan lehen garhaizalia zen leitiera egile.<sup>17</sup> Platon ta Sokrateren aitak harregile biak. Demostena kinkillari baten seme. Homera denbora lüzez limosnerian erauntsi zen ta haren herria ihork ez jakin. Virgila baratzainaren seme. Artaxerses mandozaingoatik ohoiñen khidari fama hain handiala heltü gerlan, non errege Seleucus gudan beitzian garhaitü. Aita Saintia Urbein 4gerrenra Troiako Champagnan oski egile baten seme.

Agatocle Siziliako bidaguza thupiñ egile<sup>18</sup> baten seme. Maximin artzaingoatik enberadore gerthü. Maximus zerraillaren<sup>19</sup> seme, orozbat Philipus Arabian sortharia<sup>20</sup> ez jakin noreganik ere, enberadore. Cessius Lucinus Postumius soldado-goatik trono enberadoriala igaiñ. Galerius Maximus<sup>21</sup> artzain baten seme ber gradoala heltü. Licinius<sup>22</sup> laborantxatik enberadortü. Justinian<sup>23</sup> gazteroa urdezañ lüzez soldado zerbützia egunik. Leon sortzepena haiñ aphaletik non lehenik langile gero soldado, enberadore hil. Majon olio saltzale baten semia xanzelero ta Amiral Sizilian. David Ileis Turinen müsikari bat zian aita, Eskozian ereginaren sekretari, erregetze handitarzüniala heltü.

Diocletian<sup>24</sup> soldadogootik enberadortü ta / 309 / Jinko bezala bere izena gurerazi. Pertinax<sup>25</sup> enberadoriak zian tehernakari<sup>26</sup> bat aita ta bere sortzepenian

---

<sup>13</sup> erondu (Lar.): gobernatu.

<sup>14</sup> Gordius: Gordius Tuele Hostila.

<sup>15</sup> edireneng: aurkituko.

<sup>16</sup> khoroa ükhen: korona, buresuna eduki.

<sup>17</sup> leitiera egile: lastaila, ohatze egile.

<sup>18</sup> tupinegile: eltzegile, lapiko egile.

<sup>19</sup> zerrailiren: zarrailgile.

<sup>20</sup> sortharia: sortu aria, jaiotza leinua.

<sup>21</sup> Galerus Maximus: Lehen mendeko kontsul bat.

<sup>22</sup> Licinius: Licinius Justinianus Orthonen hitzaldiak egiten zituenak.

<sup>23</sup> Justinian: Justinianus II.a Bizantzioko enperadorea.

<sup>24</sup> Diocletian: Caius Valerius Aurelius Diocletianus (245-313) kristiar martirizatzalea, Galerius-i utzi zion lekua zahartzearekin.

<sup>25</sup> Pertinax: Publius Helvius Pertinax (126-193) Erromako enperadore.

<sup>26</sup> tehernakari: tabernakari.

ahalke haiñ handia non bere aztüratz etxia sekülakoz gordatzeko zolaladrano<sup>27</sup> deseginik bastimenta berriz unduan erazi beitzian herexadrano<sup>28</sup> kadena ager eladin. Maximinus aita goth ta ama alaina, errumanek barbaro deitzen zütien kastak, hatsarrian mithil ofizio aphalenetan haren aitak zian izena Mina, amak aldiz Ababa, ülhaingoan<sup>29</sup> geroztik gidari, gerlan tronoko bidia egin.

Maximoren aita Maximus izen ziana arotz zen.<sup>30</sup> Marius<sup>31</sup> aroztegiko seme. Maxanza<sup>32</sup> enberadore pagano zenak Aita Santiarri Marcellus<sup>33</sup> deitzen zenari, Erruman zena apezküpü<sup>34</sup> bere establiak zereitzoan xaha eraziten.<sup>35</sup> S. Jüsefek maiastürgoan<sup>36</sup> J. K.ari erazi zian. Agammes Judeetako erregiaizar egile baten semia. Eumenes manurgari batena, Bouda Suedian da laborari,<sup>37</sup> heetarik bata han erregetürik bere ofizioko izena zian begiratü, han oraino izen haren etxe net noble bat dago, errege hartarik ümen jalkiten dena ta betüste<sup>38</sup> handian ere faman dagoena.

Gerthaldi franko heben dügü jarri fortunaren bi begithartien erakusteko. Egia handia dügün harez erran aiskidegoatik etsaigoala dela lehenago igaraiten, ezen etsaigoatik adiskidegoala jiten, hartakoz haren dohaiñetzaz aphür gozatü dena, ordüz oztartzza egin beza lotsaz idok<sup>39</sup> deitzoan emanak; honkirik<sup>40</sup> aldiz hartarik eztianak üzten jarraikiz ta jarraikiz arriskatzen eztiano deus, balima zerbait dü atzamanen.<sup>41</sup>

---

<sup>27</sup> zolaladrano: hondoraino.

<sup>28</sup> herexadrano: aztarnatik aztarnaraino.

<sup>29</sup> ülhaingoan: unaigoan.

<sup>30</sup> Maximus, arotz (burdin arotz, errementari): Lucius Marius Maximus (165-230) historilaria. Augusta enperadorearen bizitza idatzi zuen.

<sup>31</sup> Marius: Caius Marius, (-157/-86) general eta kontsul.

<sup>32</sup> Maxanza: Marcus Aurelius Maxentius (280-312) Severus hiltzen du, enperadore eta augusta bere burua izendatzen, baina ondotik eta ordaina eginez Constantinusek hiltzen du.

<sup>33</sup> Marcellus: Ulpius Marcellus, Erromako lege gizon eta lege liburu idazle.

<sup>34</sup> apezküpü: gotzain, obispo.

<sup>35</sup> establiak zereitzoan xahaeraziten: ikuiluak zizkion garbiarazten.

<sup>36</sup> maiastürgoan: zurgin.

<sup>37</sup> bouda: herriko hizkuntzan «nekazari».

<sup>38</sup> betüste: errespetu, begirune.

<sup>39</sup> lotsaz idok: beldurrez ken.

<sup>40</sup> honkirik: ongirik.

<sup>41</sup> atzamanen: atzemango, arrapatuko.

## Laidorietzaz

Laidoriaz khoi dena<sup>1</sup> laidoaz beldür dela da erran zaharra ta egia lizatekina norbaitentzat. Laidoria da zonbait aldiz Parisatzeren<sup>2</sup> nabalaren pare, alde batzuk zianetik hontzen ziana berarena. Laidoria da behazaliari<sup>3</sup> biska dena ülliari.<sup>5</sup> Dezagün alpha egiazko laidoria. Moisaren hontarzünian<sup>6</sup> Joben ozartian<sup>7</sup> Abrahamen fedian, Isaaken menpegoan, Apostoloen sinhestean: hantik kanpo gauza laidogarriak bekhant diradiala sinhets; sinhets ere laidoretariak gezürrak kanpo, hitz güitian dagoetzela, gauza güzier dielakoz beren aurkhaia ta khinperra<sup>8</sup> egia ere da laidore berari dadinak franko laido dükiala kantotik.

Laidore soberanak eroslia dü afadatzen ta saltzalia lohiztatzen. Soberantza da orotan galkiro, bakhozki ofizio hartan gezürtarien ta bohamiena dena, izterbegia phizten diano gizon xüxenari honki beno gaitz egiten ere. Priscus Helvidio ta Sutilianus zütielakoz Aristecus ta Herenis laidatü Domician enberadoreak zütian odolgiroki kastigatü ta hen liburuak merkhatiren erdian erre erazi.

Laidoriak eztaoketzenian<sup>9</sup> leialki eztirade trüfakoi baizik. Badirade gaistokeriak pharrasta emanetarik laidoa sortzen diena ta salgaitz hügüngarriaren<sup>10</sup> obra dena. Hala Valerius Asiatiko ari<sup>11</sup> zen heltü. Gizon net pherestia zen berritan consul izanik, zerbützü handirik dian erresumari egin. Etsaiek salketa faltsüz zienian belztü ta haren kontra Claudius<sup>12</sup> enberadoria enganatü, haren etsaietan akadoiak haitatürrik<sup>13</sup> zer egingei zen Valeriusi, Vitellius<sup>14</sup> heetarik gaistoenak Valeriusen

---

<sup>1</sup> laidoriaz khoi dena: laudorio zale dena (laidoa: iraina).

<sup>2</sup> Parisatzeren nabela: X.en labana?

<sup>3</sup> khosützia: kutsatua.

<sup>4</sup> behazaliari: entzuleari.

<sup>5</sup> biska dena ülliari: apurra dena euliari.

<sup>6</sup> hontarzünian: ongitasunean.

<sup>7</sup> ozartian: egonarria, pazientzian.

<sup>8</sup> aurkhaia ta khinperra: aurkia ta infrentz.

<sup>9</sup> eztaoketzenian: ez dagoketzenian.

<sup>10</sup> hügüngarriaren: gorrotagarriaren.

<sup>11</sup> Valerius Asiatiko: kontsula, Messalina-k hil 47. urtean.

<sup>12</sup> Claudius: (-10, +54) Tiberius Claudius.

<sup>13</sup> akadoiak haitatürrik: epaileak hautaturik.

<sup>14</sup> Vitellius: Aulis Vitellius enperadorea (15-69) herriak hil.

herioa gogartatü zianak, lehena zen mintzatü zialarik nigarra begian laidorez zian akogatü<sup>15</sup> bere adiskide ta lagün zaharra haren zerbait ere izigarri laidatü, gero haren okherkerietzaz zena beno gehiago erraitean zian, bere nigarretzaz begiak hurturik botz ikara batekilan, eztaitekila ogendünari<sup>16</sup> noizpaiko mereximentien gatik lakion artzüka<sup>17</sup> hiltzeko motaren erabakia hala laidorez traideriak bere adiskide zaharra zian zerbützatzen. Halako akadoiaren halako adiskidiari Parketetik<sup>18</sup> dardo bat nola etzerien lantzatü da espantagarri.

Bada berze laidore kasta bat, traiderok zelialadrano<sup>19</sup> altxatzen dütienak, amoregatik jeloskeriak dütianian berhezi ikhus dadin jendiak diela enganatü, ta honki beno gaitz gehiago dadin barreia,<sup>20</sup> jakile Fabius Valius, Mancius Valens<sup>21</sup> nahiz enganatü, laidorez beitzian orotan estali ari zelarik petik Legione Italicaren<sup>22</sup> kentzeko Manliusen belzten.

Orozbat Apelek Philipa Mazedoniako erregiaren zaitari<sup>23</sup> izan zenak, zialakoz bere Taurio Peloponeseko gobernadoria, nahiz bere adiskide bat haren lekhian jarri, erregiaren aitzinian Taurioren laidorietzaz etzen ixiltzen, bethi erraitean halako gizon handiak bethi etzian egongia korthian damnü handia zela traidero laidore hetzaz zian bere lekhütik Taurio jalkerazi ta adiskidia han kokatü. Polibak<sup>24</sup> kondaira harez egin dereikünak dio, bere denboran ja sorthü zela medio bat famala<sup>25</sup> eta kargü handietara ere heltzeko ta zankhartia<sup>26</sup> norbaiti emaiteko esker beltzaz edo gaitz erranez etzela bena bai laidore hanitz erraitian.

Agrikola<sup>27</sup> bere printziaren grazietarik erori zenean etsaiak haren laidoriak bazter orotan lanthatzen züti. Alfonso zaharrak Napleko<sup>28</sup> erregiak etsaigoa berri hori zükianak, etzian laidore halakoetan federik, entzünik ardüra<sup>29</sup> khortezañ

<sup>15</sup> akogatü: astunki bizkarreratu, zamaz ito.

<sup>16</sup> ogendünari: errudunari.

<sup>17</sup> lakion artzüka: lezaion uka.

<sup>18</sup> Parketetik: Parkak biziaren haria mozten omen zutenak.

<sup>19</sup> zelialadrano: zeruraino.

<sup>20</sup> barreia: sakabana.

<sup>21</sup> Fabius Valius, Mancius Valens: araniar enperadorea (328-378).

<sup>22</sup> Legione Italica: 6.000 gizonezko armada, Meniusek antolatua.

<sup>23</sup> Apelek... zaitari: Apele zaindari.

<sup>24</sup> Poliba: Polubios (-200/-120) Historilarri, politika ikerlari poterearen usteldura, historiaren gurpila, Machiavelok baino lehen, aipatu zituen.

<sup>25</sup> famala: famara.

<sup>26</sup> zankhartia: zangartea behaztoparazteko.

<sup>27</sup> Agrikola: Cnæus Julius Agricola (40-93) Bretania Handiaz jabetu zen generala; bekaitzez Domitianusek pozoinez hil zuen.

<sup>28</sup> Napleko: Napoliko.

<sup>29</sup> ardüra: maiz.

baten<sup>30</sup> laidoriak berze batez aipatzen, adiskide batir erran zereioan hilabete igaran eztira eztiraterekino / 312 / ikhusiren dügü laidatzen dianaren gatik penarrobatzan, egiazki gerthü zena.

Laidore güziak alabadere hartara eztirade bada lealik berdüthiari laket direnik bakhozki jende gaztiari, honki eginari khoiago gertzen direna, obrer laidore beharra diener.<sup>31</sup> Gilika harek bihotzean dereitze hantzen<sup>32</sup> ta laidore handiagorik nahiz gauza handiagorik dereitze eragaiten.<sup>33</sup> Hola haurzarotik loria haren egarriaz zereio arima azkartzen ta handitziareki zahartzian ere hutsik eztereo egiten.

Gutik dirade jendiak laidoer goor direnak, Alemanian legioniak errebelatü ziradinian Germanicus thermaiñü hetzaz jarri zian bat eginbidian «Hogeigerren Legionia haiñbeste gudatan ta kasailan lagüntü diana Tibera ta hainbesre hontarzünez handitü haiana hori deia haren khitadiarari dükan ezagützia?».

Orozbat Antonius Primus-ek hirurgerren legioniari kapitan balerusak Vespasianen althe zenak etziana fede honiala jinerazi erraiten zereiolarik?<sup>34</sup> «Hi Hirurgerren Legionia Marc-Antoinaren pian dianak Parthak garhaitü, Corbulan-eki Armeniak ta lehenago Sarmatak!» Coesarek kasü berian etziana bere harmadari erran «ihork ere jarraiki ezpanündü nahi, hamargerren legionareki Augusturi gudarik emanen!». Hura zian egiazki maitena haren aitzinian güdetan zen sartzen ta beraren goarda zian. Elhe haboroetzaz zütian<sup>35</sup> soldadoak laidatzen ta egin zian senthagailla obratzen: hantik da ageri zonbat den handi laidoren abantailla bakhozki soldadoen eretzian, ezi arrapatziaz bezain khoi dirade loriaz, bata behar die berzeren lekhian.

Laidogarri da gauza denian bere obetandiala<sup>36</sup> heltü, hartakoz gizona bizi datokino haren laidoriak zaiñ arhinetan daude, herioaren landankoak baiezik tiesorik eztelakoz hüskarak dio hil adi, laida hadi. Zühürrak dio laidatzian ez hadila lehia, jinen düük<sup>37</sup> eguna adiskidia, agertüren baitü,<sup>38</sup> dena.

---

<sup>30</sup> khortezañ: gortesau.

<sup>31</sup> diener: dutenei.

<sup>32</sup> hantzen: hanpatzen.

<sup>33</sup> dereitze iragaiten: dizkiete pasarazten, deutse iragoten.

<sup>34</sup> jinerazi erraiten zereiolarik: etorriarazi ziolarik.

<sup>35</sup> elhe haboroetzaz zütian: hitz gehienetaz zituen.

<sup>36</sup> zeartiak izan bite: zehartuak izan bitez.

<sup>37</sup> ekiaren ziargiak bitriean: eguzkiaren argi izpiak leihotan.

<sup>38</sup> khanbera barnerat: logela barrura.

Laidoriak agradageiek ekhiaren ziargia pare zeartiak izan bite.<sup>39</sup> Gizonen laidatzian Jinkoaren obrak dütüğü laidatzen, ezi ekiaren ziargiak bitrietañ <sup>40</sup> eztirade baratzen, bena khanbera barnerat<sup>41</sup> sartzen, orozbat eztago aukerarik, Jinkoari doanak xüxen diradialakoz haren obrak, zor den bezala langiliari obra ederren laidoria.

---

<sup>39</sup> obetandiala (Lar.): betegintzara, perfekziora.

<sup>40</sup> jinen dük: etorriko duk.

<sup>41</sup> agertüren baitü: agertuko bai.

Erthailt baladi<sup>1</sup> mündia 30 phartean khiristianek e'lükie heetarik 5 baizik, ma-hometanoek 6 ta 19ak paganek. Khiristianetarik aldiz berhez ezartia xismatika ta hereserak Aita Santiaren menpien direnetarik ta khiristianki bizi direnetarik saldoa lizate hain txipi non 30 phartetarik khiristianaren 20 phartetakoak nekez egin belaite<sup>2</sup> –bego egin balezate–. Xehekiago mintzatzeko lurreko jendia saldo<sup>3</sup> bakhotzian bildürik ta sei phartetan jarririk, beren erreligionetan ikuhsiren dügi paganek judioek, türkek bost saldotan doatzala ta seigerrena khiristianentzat dagoela, hartarik eta nekez katholikek diela erdia egiten, hantik erranaren lekhü *Multi vocati, pauci electi.*

Leheneko mündian Jinkoak Noe ta haren hirur semiak bizitzia merexi ziela ediren zian erabaki ta gizontsü kastaren arraberritzeko / 314 / berze jende güziak ithoren zeno<sup>4</sup> zütian haitatü.<sup>4</sup> Bena laur gizon bakhotx heetarik grazia senthagailatsüaz<sup>5</sup> heroari ezkapi zirenak zer ziren, aita zen horditzen. Kham bigerren semia aitaz zen trüfatü ta haren anaie ondokoak Japhet deitzen zena aitari phürfoi.<sup>6</sup> hala lauretarik hirur bekhatiala erori.

Berzalthe Sodoman hiri izigarri diatia<sup>7</sup> bere handitarzünian Jinkoak haren bekhatien aserratzian Loth ta haren etxenkoer baizik biziaren grazia inhori etzian egin. Nekez bere hiri üngüriak<sup>8</sup> gidari zütian hiritik errapenatü kanpo, non Loth emaztia gibelerat soo egitia debekatü zereioelarik debeka dü mesprezatzen ta hilik gatzezko tallutan bidian xütik egoiten. Bera aldiz botxü ürpotz<sup>9</sup> batetan hordi, ustez mündia zela akabi, bi alhabak zütian izorratü, hantik moabitak ta amonitak sorthü Ismaelelik bezala orai arabak ta türkak,<sup>10</sup> khristianen etsai handienak.

---

<sup>1</sup> erthailt baladi: zatika baledi.

<sup>2</sup> belaite: bailiteke, bai lizateke.

<sup>3</sup> ithoren zireno: itoko ziren bitartean.

<sup>4</sup> zütian haitatü: zituen aukeratu.

<sup>5</sup> senthagailatsüaz: mirarizkoak.

<sup>6</sup> phürfoi: perfidiaz betea.

<sup>7</sup> diatia: jendeztua, populatua.

<sup>8</sup> üngüriak: inguruak.

<sup>9</sup> botxü ürpotz: harkaitz mokor.

<sup>10</sup> araba ta türkak, türkoak ez dira Ismaelen ondokoak.

Jendiaren gaistokerietzaz zonbat gerthaldi ezkünüke eta zonbat Jinkoaren heen eretzian hontarzünetzaz gogozadietzaz liberaltarzünetzaz<sup>11</sup> ta haren barkhamentü miragarrietzaz erran ezkünükietzaz.<sup>12</sup> Alabadere jendia haiñ ardüra galkiro iztautürk<sup>13</sup> dago orano xütik. Haiñbeste grazien azia galdurik den oraiño lürrian, zonbat dolamenen üthürria? Bena bada baliman elhegun<sup>14</sup> zain berri dereiona eginen. Noeman zonbait frütü biltzen izanak, harez trüfatzen ziradian ta farisianek zankopetan zütien ürüskitzen.<sup>15</sup> Denis Aeropagita<sup>16</sup> batek ta Damarisa<sup>17</sup> purpra saltzale, zeluko dohaiñetzaz honkirik<sup>18</sup> Jinko honaren zankoak zütien besarkatü zakiolarik mündüko gauza güziak hausteren diradiala<sup>19</sup> ta Jinkoaren hitza bethierekoa egonen.

---

<sup>11</sup> gogozadietzaz: liberaltarzünetzaz.

<sup>12</sup> ezkünükietzaz: ez genuketaz.

<sup>13</sup> galkiro iztautürk: arriskutsuki zinhautsirik.

<sup>14</sup> elhegün: hitz gai.

<sup>15</sup> zankopetan zütien ürüskitzen: ankapetan zitzuzten ostikopetzen.

<sup>16</sup> Denis Aeropagita: (I. mendean) Dionisos Athenasko apezpiku saindua, Paulok kristiartu zuena.

<sup>17</sup> Damarisa: Jon Done Paulo.

<sup>18</sup> honkirik: hukiturik.

<sup>19</sup> hausteren: hausteko, apurtzeko.

## Auherkeriaz<sup>1</sup>

Antonio enberadoriak bere bihotz beraz Malsoro<sup>2</sup> izengaiña zianak, auherkeria zian hain hügün non lanik egiten etzian ofizialer<sup>3</sup> soldatak ezpetü beitzereien. S. Paolori ere zereioan auherkeria haiñ itxusi non inhoren ogia haratakoak etziala behar jan, baita errana Athenan hiritar güziek zertan zien biziñena irapaizten erran behar zien, Philostratos –omen– lege latz haren aita auherren kontra zen.

Zonbait dirade dioenek hobe dela auher egoitia eziez deusere egitia, gogomen faltsia dena; ezi auherra dagoano lanari gibel, hartara eztiro gozorik har; ari dena aldiz giziberietan<sup>4</sup> obra honen bidera dago ta auherkeria delakoz eskelegoaren ama, hari ihesi dabila lanaz dremendena khoi dena.<sup>5</sup> Hügrün dinak aldiz Jinkoaren ta Izairiaren manhier arrabuhin dago.<sup>6</sup>

Ezta handigoarik ezetare handitarzünik eskü auherretan honki<sup>7</sup> dagoenik. Erregeetara heltzen bagirade, ikuhsiren dügü hetarik handienak lan handienetan daudiela ta berak egin nahi balütie<sup>8</sup> heekin, loak ta apairek ütsarterik<sup>9</sup> e'lukiela.

Auherrak dirade mündiaren eretzian lozarrak kobiañetan<sup>10</sup> diradianak lehenek dirade pherestien lanetzaz gozatzen, bereziak dien bezala erlien eztia hürrüpazten jende heen kastatik hordiak, gogozitiak, destakatiak, dollorrak,<sup>11</sup> azkenian ohoiñtez ürkhagiala<sup>12</sup> doatzenak.

Gizona da haiñbesteetan gizon non lanari amorioa beitü agertzen ta harrez horrenbeste jakile nola beitü<sup>13</sup> obra ageri. Deusere bere berean egin eztiana galkiroz

---

<sup>1</sup> auherkeriaz: alferkeriaz.

<sup>2</sup> Malsoro: Antonius mantsoa.

<sup>3</sup> ofizialer: eskulangilei.

<sup>4</sup> giziberietan: txikikerietan.

<sup>5</sup> dremendena khoi dena: den gutxienik zale dena.

<sup>6</sup> manhier arrabuhin dago: aginduei musin dago.

<sup>7</sup> honki: ongi, ondo.

<sup>8</sup> balütie: balitzte.

<sup>9</sup> ütsarterik: astirik.

<sup>10</sup> lozarrak kobiañetan: arrak erauntzeten.

<sup>11</sup> gogozitiak, destakatiak (Lar.): jale handiak, heziketa gabekoak.

<sup>12</sup> ohoiñtez ürkhagiala: ohointzaz, lapurretaz urkabera.

<sup>13</sup> jakile nola beitü: lekuko nola baitu.

dabila, bethi bihotza betherik, auherkeriaz izan dela haren eskelegoaren ama, jakile dago. Egia delakoz Satan, auherren branlian<sup>14</sup> gidari, haren boztaroa herrokaren doiala doala ezta düdarik.<sup>15</sup>

Egiazki arima ederrari deusere gaitzgorik eziez auher egoitia, adorgoari<sup>16</sup> ihesi ezinez da abartzen<sup>17</sup> ta dakialarik lanak diala arima azkartzen, mehenetara da lothzen ta heetarik gaitzenetara botzik<sup>18</sup> igaraiten. Halako ziradian gure aita lehene-nak. Golde nabarrila artzaingoatik edo ülhaingoala, hantik etxeetan auherren errekeitziala, auherkeriari biderik etzien üzten bihotziala, ta lan batari azken eskü-lana jarri bezaiñ sarri berziari ziradian lotzen.

Errumenak gerlan harmadan khidari, bakian idien goldenabarrian edo arrian<sup>19</sup> gidari etziradian güda baten irapaiziaz axolik, ederraz beno doatsuago.

Persian ezpataren ezpata bezala Persiaren ber boztaroan zien khanbio egiten, 250 mila gizon manhatzian ürgüllü idiparian beno etzian jarten, auherkeriak etzian batean ezetare berzian bazkarik, heen bihotzek lan nahi zien, zoñ nahi gü-ziaik bardin zereitzen. Jinkoari zonbat auherkeria gaitzesgarri, pherestiaren ta au-herraren elgeetan da ageri.<sup>20</sup> Paganek Jupiteren ta Ceres-en orationez zütien zaitatzen ta engomendatzen, bena Jinkotze hek lan jarraikiak manhatzen zereitzela, zakien.<sup>21</sup> Ünhürriak<sup>22</sup> biltzen dianaz dela bizi ta nekeziala dela auherra eror-tent, orozbat Jinko egiazkoak laborari pherestiari beharialla dereio<sup>23</sup> ekhi edo euri herabestiari aldiz khinper<sup>24</sup> gauza güziak dirade ari.

Auherkeriari meskabiak ülliak bezain üsü<sup>25</sup> dirade ezi non nahi den, norat nahi dabilan, gozagia dü lagün lealena ta astoari berdüthia ta delakoz galkiro gü-zien ünhüdia<sup>26</sup> ta debriaren ohe kosna,<sup>27</sup> honkiak oro looraziten diana, hartakoz, Sn Jeromak dio «fraire zerbait egiten dakiatzienak etzitie sekulan auher egon, hur lotiak hirotzen<sup>28</sup> dirade, laisterrak aldiz garbi egoiten».

<sup>14</sup> branlian: branle dantzan.

<sup>15</sup> boztaroa herrokaren doiala: poza lerroaren neurri zuzenera.

<sup>16</sup> adorgoari: kemenari.

<sup>17</sup> abartzen: puskatzen, apurtzen.

<sup>18</sup> botzik: pozik.

<sup>19</sup> arrian: lurraren karrakatzeko, arrean.

<sup>20</sup> elgeetan da ageri: lur goldatuetan da ageri.

<sup>21</sup> manhatzen zereitzela, zakien: agintzen zietela zekiten.

<sup>22</sup> ünhürriak: txinaurriak.

<sup>23</sup> beharialla dereio: belarrira dio.

<sup>24</sup> herabestiari ... khinper: uzkurrria ... alderantziz.

<sup>25</sup> ülliak bezaiñ üsü: euliak haina ugari.

<sup>26</sup> ünhüdia: iñudea.

<sup>27</sup> ohe khosna: koltxoia.

<sup>28</sup> hirotzen: usteltzen.

Orenloi<sup>29</sup> desegina ordoillak dü jaten. Süiak ezpadü erregairik da hiltzen. Lür hobenena lan bagerik dagoena kapar<sup>30</sup> ta kardabera baizik eztü egoisten. Dezagün jar oraño jende pherestietan / 319 / auherretan beno bekhatiak diradiala gaistoen, saldoa handiago.

Arrazo hau baizik ezpaliz, erresuma honki adratürrik<sup>31</sup> auherrak ta herabestiak akhazatürrik, pherestienek lükie fabori. Auherren khozia izürrian dago pare<sup>32</sup> Ber-sabetzaz amorustü zenian David mündüko gizon xühurrena, auhertürrik harat ta honat zabilala zentzü gaberik. S. Paulek ere dio khristianak abere gaistoa diradiala ta gaiztokeriaren üthürria auherkeria dela.

---

<sup>29</sup> orenloi: ordulari.

<sup>30</sup> khapar: sasi, sastraka.

<sup>31</sup> adratürrik (Lar.): arauturik.

<sup>32</sup> khozia izürriaren pare: kutsua izurritearen pare.

## Ozartiaz

Ozartia edo pazientzia ber gauza diradianak, da jende bizien berdütthe handia-goa eziez jende mukaitzoan.<sup>1</sup> Lehenak beha dialakoz haren gabe izairia garhaitü ta bizian aldiz dagoelakoz sortzepenari josirik, hartakoz ere khristianari dereio früti honik, garaipena dianian ozartian jarri ta non etare bitoria berari egin dian indartetzaz dianian irapaizi, mereximentia arauiala<sup>2</sup> handiago düke.

Ezpaliz ozartia khristianaren arimaren harma hobenena mündüko egitekoetan khidari hobenena; ezi balarike<sup>3</sup> martirek dielakoz pharadüsia irapaizi, egitekoetan aldiz ozarte falda bi herenak dirade gaizki gertzen. Gizona ezta harriz ezetare zurrez den meskabier sorhaio,<sup>4</sup> bena dü her bihurtzeko indarra: beza Moisan haren gerthaldia, khexari ta supitar<sup>5</sup> gizona zen ta Israelitak jende gaitzak egünkal legiari irainde zonbait egiten zereienak:<sup>6</sup> gero Egiptarik Lür Hitzemaniala<sup>7</sup> Jinkoak khidaritezat Phalios, haren manhiak<sup>8</sup> konplitu beharrez bide izigarri lüze berarekila, jende hekila güda / 320 / harrigarriak zian ekipatü<sup>9</sup> baieta bizitarzünaren garhitzeko, baietare mündüko gauza okherrenaren xüxentzeko

Hala gizon santü harek zilarik Izairia bere eginbideari khinper<sup>10</sup> ta 50 mila gizon, emazte ta haur manhier arrabuhin,<sup>11</sup> Itxaso Gorriari ta berze peligro güzier lehena bethi aurbenitzen<sup>12</sup> zelarik, osokitü zütian doatsüki Jinkoaren manhiak, hartan jarri zialakoz bere esparantza.

Jakintzia da düda bagerik lürrian bütüzagi handia, bena ozartia handiagoa, ezi batak bortxaz e'lirkiana,<sup>13</sup> berziak denbora dereiola emaiten, dü eginen. Merku-

<sup>1</sup> mükaitzoan (Lar.): egonezinean.

<sup>2</sup> arauiala: arauera.

<sup>3</sup> ezi balarike: ezen beharbada.

<sup>4</sup> meskabier sorhaio: ezbeharrei soraio, ixtripuei sor.

<sup>5</sup> khexari ta supitar: asarrekor ta biziena.

<sup>6</sup> irainde ... egiten zereienak: legehauste zegitenak.

<sup>7</sup> Lür hitzmaniala: Agindutako Lurrera.

<sup>8</sup> manhiak: aginduak.

<sup>9</sup> ekipatü (Lar.): eutsi, sostengatu.

<sup>10</sup> khinper: alderantziz.

<sup>11</sup> manhier arrabuhin: aginduei herabe/uzkur.

<sup>12</sup> aurbenitzen (Lar.): aurkezten.

<sup>13</sup> e'lirkiana: ez lezakeana.

raren bageta pare honkitzen zütianak ürrhetzen baitzütian. Gauzen meskabietan, Errumenek dereikie gerthaldi ederrik eman, ezi meskabürik etzien harritzen zütienik, ezetare patu asi honik ütsützen zütienik. Goapokeriarik sekulan heen goberrian, sekulan hitz emaiten etxeiki nahi zienetan baizik. Coesarek harmadetan Legione maitena Ozartia zian deitzen ta soldado ozartariak ziradialakoz loaz ta jateaz beharrian pairatzen ta bazeno ere neke güziak zielakoz garhaitzen.

Ozartiaren broba<sup>14</sup> dago gizonaren begithartian ta haren indarra aldandetzen,<sup>15</sup> hau eztenian lagün, heltzen zereitzonetan da haren arrimü bakhoitza aidürü<sup>16</sup> etzagoenetan harez behardün. Gehiago ere medikarik eztienetan non egiazko medika ozartia bakhoitza beita erier<sup>17</sup> ta sanoer orozbat doi dena, zer egin dü ejakinez? Haurrak ünhüdia galdu dianak, marrakaz deia ariren?<sup>18</sup> Galdu düzia aita ama, emaztia, haurrak zure münduko botztaro güziak? Zure sokhorriala deith ozartia, deith arrazoa,<sup>19</sup> adiskidiak hoberik ozartiareki batian opa eztiro<sup>20</sup> deusere gizon zühürrak mündian.

---

<sup>14</sup> broba: proba.

<sup>15</sup> aldandentzen (Lar.): konbertitzen.

<sup>16</sup> aidürü: zain.

<sup>17</sup> beita erier: baita eriei, delako gaixoei.

<sup>18</sup> deia ariren?: ote da ariko?

<sup>19</sup> deith arrazoa: deitu arrazoia.

<sup>20</sup> eztiro: ez dezake.

## Herriaz

Dierririk ezta mündian húskaldüna beno bere herriari estekatüagorik, beraren artian egobiarragorik<sup>1</sup> ta hantik kanpo adiskidegoan beroagorik. Da jendia berari baizik pare eztena, herriaren izterbegiak ta behaitzgoak dütie erratzen, herritarai sekulan ikhusi eztianari bere odola dü emanen. Amorio izigarri harengatik Espainolek dütie húskaldünak, judio khiristianak izentatzen, ustian haiñ anaie bizi diradala ordokietan nola bere mendietan. Bena delakoz ordokitarren etorkien<sup>2</sup> artian banaita<sup>3</sup> handi bat, dezagün sinhets, herriz khanbiatzian húskaldüna herriko behatietzaz dela bilaizten ta berzeren berdüthiak dütiala hartzen.

Herriren eritarzüniala<sup>4</sup> berze jendea beno húskaldüna da enjoigago, hartakoz ere behant net aberasten diradianak herri ürrhünetan, nahiz bildü dien apürra herrilat ekharri, han eskeletzen edo aberatsago nahian ofizioan, Jinkoak dakina egiten. Deus ezta herriaren amorioa beno ederragorik denian Themistoklaren<sup>5</sup> pare, haren zian amorioa haiñ handi non herritarren esker beltzaz nekatürik ta Artaxersez<sup>6</sup> abiatürik errege, haren herritarren kontra harmada baten khidargoa<sup>7</sup> eskentürik, nahiago ükhen baitzian khozüz hil eziez bere herritarentzaz mendi-  
katü.<sup>8</sup>

Ezta egiazki mündian gauza legautsiagorik<sup>9</sup> eziez bere ama herriari gerla egitia, eztügülakoz Jinkoaren landan herria beno maiteago behar dügünik, ezetare arrazorik menaldeera holakoa mendera lizatekienik. Zeren herriari düket dolürik banoalarik lizatekia hori ta hau dütüdalakoz üzten? Bena aspaldian urthuki nian nere buneta Ahünzkiren hurari,<sup>10</sup> dükeda dolü holakorik?

<sup>1</sup> egobiarragorik (Lar.): pazentzia gehiagorik.

<sup>2</sup> etorkien: jatorrien.

<sup>3</sup> banaita: differentzia.

<sup>4</sup> eritarzüniala: gaixotasunera.

<sup>5</sup> Themistokla: Themistokles (-525,-460) Termopylesetan galdu eta Salaminan irabazi ondoren herbesteratua.

<sup>6</sup> Artaxersez: Akemenide erregea (-465, -424).

<sup>7</sup> khidargoa (Lar.): zuzendaritza.

<sup>8</sup> mendikatu: apentza hartu, bengatu.

<sup>9</sup> legautsiagorik: lege hauste handiagorik.

<sup>10</sup> Ahünzkiren hurari: Ibaresküineko iturri ospetsua, Ahüzki.

Ene idurikinak ediren dü<sup>11</sup> non nahi, honlako edo halako gauzer dolü bat badüt gehiago eztüdalakoz ikhusiko, zeren eztüt nihauri erranen egünian ekhia, gaian<sup>12</sup> argizagi beno ederragorik nahi nükinez; arren heek mündü güzian düüt ikhusiren ta heen langilia ene bihotzian barnen bethi edirenen, herrian honik ezpanian, eztüt arren han deusere galduren.

Dakit düdana herrian üzten ta eztakit zer herri ürrhünetan düdan bathürük<sup>13</sup> hanko jendiak dütianak ekhiaren alphora<sup>14</sup> herrikoak beno berotzenago edo hotzago denaz izarren ere fresküra gurea beno lüziago edo llabürrago.

Eztakizia jende güzia lürrian peregrinak bezala bidazale dela? Egongia ederrenetan ta txarretan da biltzen orozbat abiatü behar diela, lege haribihurtzeko ezta mediorik, izeiak beren botxien thinian<sup>15</sup> eztirade zothükatzan bena bai hiltzen, deusere ezta khanbioari menpe eztenik. Bürian jarten badüğü mündia dela hiri handi bat ta hartan barnian edo iraurkian<sup>16</sup> orozbat, hanko iritar nizala, haren erdian dagoena bezala. Etxea erretzen bazeit, berze etxao batetara noa ezagütza berririk egitera, bena bethi herritar nago.

Diogena bere herriari zerbützü izigarriak egin zütiana herritarrentzaz kalterraiatürük<sup>17</sup> abiatü zen, ziolarik lür güzia bere herri ziana ta herritarrek egin bagerik ontzi batetan itxasoan aizeen borhondadia zian, bere zorthia bentüratü. Piratek hartürük loteki egin zielakoz etzen antsiatü, bena bere pheredikari jasotürik<sup>18</sup> hen bizitze gais totik ideki nahiz ari zen zinez azkenekoz saldü zien ta Corinthan, Athenen bezala bizi zen hala lotekiak<sup>19</sup> Diogenatik filosofia etzian akhazatü ta bethi ber gizona Diogena egon zen: halaz jende guzia izan behar lizate; ihork goga e'lezan herro orotarik beria dela hobenena ta berze dierrieta eztela gizon zühürragorik.

Herri gizenetan ahületan beno betaldiroa<sup>20</sup> da thorpeago. Menditarrak diradialakoz xotilago, harmetan dirade hobeago, hartakoz Anibali bi falda handiak dagokiten:<sup>21</sup> lehena Canes-aren guduaren landan Errumara xüxena abiatü etzelakoz, biggerrena lüzegiz bere harmada Capuan egonerazi zialakoz, han soldadoak ta zaldiak sobera gizentürik auhertü ziradian ta geroztik obra honik ez egin.

---

<sup>11</sup> ene idurikinak ediren du: nere irudimenak aurkitu du.

<sup>12</sup> gaian: gaeane.

<sup>13</sup> bathürük: topatuta.

<sup>14</sup> ekhiaren alphora: eguzkiaren hats beroa.

<sup>15</sup> izeiak beren botxien thinian: izaia beren arkaitzen gain gainean.

<sup>16</sup> iraurkian: inguruan.

<sup>17</sup> kalterriatürük (Lar.): erasorik, atakaturik.

<sup>18</sup> jasotürik: latxaturik.

<sup>19</sup> lotekiak (Lar.): esklabotasunak.

<sup>20</sup> betaldiroa (Lar.): harrera.

<sup>21</sup> dagokiten: egoizten zioten.

Abraham zagoelarik bere herrian boztaroen erdian<sup>22</sup> Jinkoa agertü zereioan ta manhatü bere aita ta herrian zütian askaziak<sup>23</sup> ützirik abia ladin erranen zereioan herrialat, han dierri handi bat zela hartarik jalkiren<sup>24</sup> ta aberastarzün handiak züti ala gozatüren, gerthü zena.<sup>25</sup> Abraham maite zian Jinkoak, zelakoz gizon phe restia ta gizontsü kastatik sorthü zen famatiена. Bere herrian egon baliz harez aiphatü etzaitekian hitzik ta berze gizon bederaka eztaitekinak bezala ülhünpiان zen egonen,<sup>26</sup> biziren ta hilen.

Egia da herri arrotzetaн gizona humildazun bagerik eztagoela, bena heer bi hurtu beharrak dereio megopia zorhozen<sup>27</sup> ta zerbaitetara atrebi eraziten ordian zoria hon badü bekhaitzgoa hain segür dü, nola zorigaitzian mesperetzia, segürrago lanari erauntsiak<sup>28</sup> düтияла garhaitüren bata ta berzia.

Laz edemonak (ümen) lehonak<sup>29</sup> ziradian beren herrian, hantik kanpo axeriak, errumanak aldiz betsüsteгарри<sup>30</sup> herri arrotzetaн. Anibalek Antiokari<sup>31</sup> zioan Italia zatekino gerla bagerik, soldado hazkürri ta berze probianta etsaien kontra lütükiano<sup>32</sup> etzela dierririk, erregerik ezetare podentatik errumanak garhaiit lirokienik;<sup>33</sup> üthürri halakoa behar zereiela agortü ta behar errumenak Italian barnen güdatü.

Bada frütü bat Lotos deitzen dena, hartarik jan dianak haiñ hon ediren herria (ümen) ütz eztirokiana.<sup>34</sup> Bada baliman hartarik Hüskal Herrietaп, jaler hon dagiana bena eztie ithoren<sup>35</sup> erranak «gizona dela haiñbesteetan gizon nola beitü herri ikuhi ta hanitz mintzo ikhasi diala ere. Onesdade güzia loriatzen eztenian, lehen baterik eziez berzetik seme dela. Lür güzia da gizonaren egongia ta honki dagoan lekhia haren ama herria».

<sup>22</sup> boztaroen erdian: boztario/pozen erdian.

<sup>23</sup> askaziak: ahaideak.

<sup>24</sup> jalkiren: aterako, urtengo.

<sup>25</sup> gerthü zena: gertatu zena.

<sup>26</sup> ülhünpiان zen egonen: ilunbean egongo zen.

<sup>27</sup> megopia zorhozen: izpiritua zorroztzen.

<sup>28</sup> erauntsiak: ari izanak, jarduntuak.

<sup>29</sup> lehonak: lehoinak.

<sup>30</sup> betüstegarri: errespetatzaile.

<sup>31</sup> Antioka: Antiochus Anibal traditu zuena.

<sup>32</sup> lütükiano: lituzkeano.

<sup>33</sup> lirokienik: lezaketenik.

<sup>34</sup> ütz eztirokiana: utz ez dezakeana.

<sup>35</sup> ithoren: itoko.

## Bakiaz

Justiziaren edo akadoiaren etsai odolgiroenak dirade bakiarenak. Ezta alabadere zori honik mündian bakiaren pare denik. Haren begithardia haiñ eder da nola ekhia,<sup>1</sup> haren izairiaren hatsa Arabiako intzensak beno maithagarriago. Gerlaren ezko suia<sup>2</sup> denian hiltzen, suminak ehorzten, zelütik odeiak akhazatürik egün ederrak dereizkü eskentzen.

Bakia galthero dianari ez artzüka;<sup>3</sup> emailiaren eskütan haiñ eder da nola haritzalireneta ta sekulan ez ederrago baizik zori honak dereikünian, erre egiten delakoz hanitezze bitoria beno hobe delakoz Jinkoaren eskütan berzia aldiz gizonareneta. Fortuna aizia bezala da ützültzen alde orotarat eztu egongia tiesorik, egün zonbaiten adiskide izanik ezartzen da arrazo bagerik, gizon zaharra. / 324 / Arren hari ez fida, bakia etzelakoz ez eta kharrioegi haren eros liraniari<sup>4</sup> ezi joan bada behin nekez da atzamaiten. Gerletan garrak hiriak ta elizak düti erratzen, lürrak deseigoan ta gal-kiroan jarten bere odolian bera ithorik, lürrak khapar<sup>5</sup> ta elhorri baizik ez emaiten, jendia bakiari marrakaz hel dadin, nahiz sorhoen berderazitean elgiak erein berrian, jendia etxetarat deithzera, han aita, ama haurrak, miskandiak oro bakian, batzü berziak ürgaisten<sup>6</sup> dütieno, die Paradüsiren üdürigoa.<sup>7</sup> Bai bakia da Jinkoaren lloriala leku dagoan herri güzietan han berdüdiaren herria.

Bakiak dü gauza güziak beren lekhütan jarten, legiak azkartzen, hoiñak nekatzten. Bakia ezten etxian dago han infernia. Eztaite bakerik bizi, algarri eskiak eztieno emanik, faltsü ere bihotza, hitzmanen berme ezpada. Bakiak düti etxaltiak xüzentzen, mendiak dien bezala ordokiak hontzen.

Gerlarik ikersti eztianak, bakiaren balioa eztaki. Filosofoek derekie erraiten bakia eztela gauzetan ekidran<sup>8</sup> ederra baizik, dena gogomenen erakida<sup>9</sup> ta bor-

---

<sup>1</sup> ekhia: eguzkia.

<sup>2</sup> ezko süia: argizai sua.

<sup>3</sup> artzüka (Lar.): uka.

<sup>4</sup> lirainari: lezakeanari.

<sup>5</sup> khapar: sasi.

<sup>6</sup> ürgaisten: laguntzen.

<sup>7</sup> üdürigoa: irudia.

<sup>8</sup> ekidran (Lar.): orden, arau.

<sup>9</sup> erakida (Lar.): adostasun, akomeatze, ontsa jite.

hondadia gizonetan. Alabadere bethi bakian bartzia debeiagarri lizate.<sup>10</sup> Aharra arhin batek arrapizten dü batzütan adiskidegoa. Algarrekin bizi behardünetan ber gauza ta amorioa ezpadie bakian lüzez irein ezpeitaite.<sup>11</sup> Zeren eta güziek haren bozkarioz errekeitiü beharrian, hartin laket eztenak bere phartez gütiago axol dialarik agertüren, astakuria hel betaite<sup>12</sup> hantik. O! Etxandian jendia eztenian ber gogotik nola laiteke parropian, herrian, erresuman.

Jaun bat bazen hiri batian jende güzien tirano kharrikan zelarik igaraiten emazte zahar bat bathü zian<sup>13</sup> belhariko zereioanak erran<sup>14</sup> Jinko honak dereizüla Jaun maitia bizitze lüzia osagarrian.<sup>15</sup> Hüillantü<sup>16</sup> zen emaztiari ta galthro egin zertakoz zian Jinkoa harentako othoitzen zakialarik parropianter<sup>17</sup> min ahala ari zela. Emaztiak, bai Jauna hori zakit, zure aitaso Jauna ezagütü dit aitoresemeetan ezpeitzen gizon hobenena, haren semia zen zure aita zena gais-toago zena, beldürrez zure jaun semia zü beno gaitzago gert' dakigün bizitze lüze bat dereizüt opatzen.<sup>18</sup> Han, bakerik aspaldian ez izanik, ageri hirur parropiako Jaunen phartetik ezeta laurgerrenetik esparanza handirik.

Gerlak dütü erresumak khanbiatzen, errepublikak desegiten, erreligionia iha-rausten, haurrari ünhudia erhaiten,<sup>19</sup> aitari semia ehortz eraziten. Bakiaq baizik desodera<sup>20</sup> harrigarri hek aitzinta<sup>21</sup> edo heltü diradianian medika eztiro.<sup>22</sup> Jinkoaren manhüetan<sup>23</sup> dago bakiaren zori hona, heetarik gibeltzen giradino, bakia da ürrhüntzen.

Nahi die etsaiak guhaur bezala deitzagün maitha ta ahalena dütüğü eskerniatzen ta kaltarraiten ta gure elhetzaz edo obretzaz egünkal etsai berri dügü egiten. Bakia zen enia, niano, haustü<sup>24</sup> düdan bezain sarri berzerena dago ta heen borhondadia hartara ezpada, küpera eztirot.<sup>25</sup> Gaitz handi baten gibeltü nahiz bakiaz

<sup>10</sup> debeiagarri lizate: aspergarri lizateke.

<sup>11</sup> ezpeitaite: ez baidaiteke.

<sup>12</sup> hel betaite: heldu baitaiteke.

<sup>13</sup> bathü zian: topatu zuen.

<sup>14</sup> belhariko zereioanak erran: belauniko zionak esan.

<sup>15</sup> osagarrian: osasunean.

<sup>16</sup> hüillantü: hurbildu.

<sup>17</sup> parropianter: parrokiako bizizalei.

<sup>18</sup> opatzen: agiantzaten, desiratzen.

<sup>19</sup> ünhüdiak erhaiten: iñudeak hiltzen.

<sup>20</sup> desodera: desorden.

<sup>21</sup> aitzinta: aurrera(tu).

<sup>22</sup> eztiro: ez dezake.

<sup>23</sup> manhüetan: aginduetan.

<sup>24</sup> haustü: hauts egin.

<sup>25</sup> küpera eztirot: ez dezaket eskura.

niz gabetü, bena gogo ez emanez gaitzurre<sup>26</sup> handiagoala erori. Jinkoak ta Izariak dereikie bakia gomendatzen, delakoz egiazko zori hona; bena hitz faltsiez ez eros artzakian<sup>27</sup> ez ahatz<sup>28</sup> hirur suerte direla:

- 1.a Hitz emaitian eztenian etxeki nahia,<sup>29</sup> desleialtarzüna dena.
- 2.a Hitz emanaz garbaia, astokeria dena.
- 3.a Hitz emanaz garbaia, astokeria dena.
- 4.a Hitz etxeki ezina ganbero ta ohointsiuen beltzakia dena.

---

<sup>26</sup> gaitzurre (Lar.): arrisku.

<sup>27</sup> artzakian (Lar.): baldintzan.

<sup>28</sup> ahatz: ahaztu.

<sup>29</sup> etxeki nahia: atxiki nahia, eutsi nahi.

## Eskelegoaz

Gizonez artian eskelegoa da diru menande handia eztiana. Hirietan da gahüna,<sup>1</sup> kharriketan zikiña,<sup>2</sup> orotan jaletarik azkena aberatser da ürrintsü,<sup>3</sup> bere lagüner hügün<sup>4</sup> mintzo denian behazalerik<sup>5</sup> eztü, erorten bada ez ürgaitzalerik, oraziona da erraile ta ordariaz harzale eskelegoa da ofizioa dierri bakhoitzak bere gisala egiten diana, espaiñolek antolazkaz,<sup>6</sup> Frantziak gürrez,<sup>7</sup> italianek nigarrez, alemanek khan-tatzez, bena orotan eskele ürgüllütsüa kriatura ihon egar eztaitekina.<sup>8</sup>

Egiazko eskelia da diana beno gehiago opatzen diana. Bihotz botzak<sup>9</sup> nekeziarik eztü ezagützen ezetare soberakinik eztianak nahi. Jinko honak maite diala eskelia probak daude, emaiten dereitzen boztaroan,<sup>10</sup> hazkürrian ta hotzaren doiala soi-nekoetan. Deusere eztie, deuseren mengoan eztaude ta beren eskelegoa izigarrian, aberatsak beno aberatsago dirade botzki bizi ta botzki dirade hiltzen, ordeiñü behar bagerik. Egia haren gerthaldiak mündüko txoko güzietan daude ta güziek derekiek erraiten nekezia ogen bagia ta arraia aberastarzün gefñhatzia<sup>11</sup> beno milatan hobe dela.

Aberatsa eskelegoaz da beldürrago, eskelia aberastarzün den beno khoi,<sup>12</sup> hon-kitik gaitziala erortia da egiazki ikharagarri. Eskelegoatik aldzí aberastarzüniala bidia haiñ da lüze non eskelerik ezpeita aberastü nahia bürian jarten dianik. Jende bere suertekoak direlakoz hanitez berziak beno üsiago dütie ikhusten haurrez za-matürik, arkha hutsik, abere, ogiz edo arthoz eztirade ments ta lastoan khosnan<sup>13</sup> bezain honki loo diela egiten, legarrez<sup>14</sup> eta ohoiñez eziela lotsarik.

<sup>1</sup> gahüna: bitsa, haguna.

<sup>2</sup> kharriketan zikiña, kaleetan zikiña.

<sup>3</sup> ürrintsü: usain txarreko.

<sup>4</sup> hügün: gorroto.

<sup>5</sup> behazalerik: entzulerik.

<sup>6</sup> antolazkaz: antolaketaz.

<sup>7</sup> gürrez: aurrean makurtuz, erreberentzia eginaz.

<sup>8</sup> ihon egar eztaitekina: iñon jasan ez daitezkena.

<sup>9</sup> bihotz botzak: bihotz alaiak.

<sup>10</sup> boztaroan: boztarioan, pozik egotean.

<sup>11</sup> gefñhatzia: aurreztea.

<sup>12</sup> khoi: oso zale.

<sup>13</sup> khosnan: koltxoian, lumatxan.

<sup>14</sup> legarrez: zergaz.

Nekeziak dialakoz bihotza aphaltzen nozpaiko errumenek etzütien eskeliak gudarikatzen. Soldadorik legionetan etxaltia etziana etzen sartzen, amorekatik herrirrentzat gudatzian orhit ladin<sup>15</sup> ari zela berentzat. Etxen jaun ziradialakoz soldado güziak, han etzen ezkapagarririk ezetare ezkapazalerik. / 326 / ta arrabuhintzen ziradianian gaztigoa zien harrigarri. Viriato-ren kontra Senatiak egorgeian<sup>16</sup> Espaiñiala harmada bat, bi khidariak izentatürük Scipion Emilianek errebokatü zütian, bata eskele, berzia zekeiñ ziradiala otsez nekezia ta zekeingoa diradialakoz gobernu güzietan gaitzkiala lerrari<sup>17</sup> ta hartzera ardüregi enjogi.<sup>18</sup>

Eskelen mesperatzia da mündüko obra aphalena, ezi ohe ürrestatietan ta goritzian ohatzen diradianak ber kastatik dirade, ber ekhiak mendi gorenena ta irara aphaLENak düütü argitzen, izei handiener ta khapar herrestaler<sup>19</sup> dü bizia emaiten ta ber larreak elefantak ta ünhürriak<sup>20</sup> bazkatzen. Izairiak aberatsak ta eskeliak eztütü berhezi, algarreki zütian sekülako jarri.

S. Pethirik etzian ürrherik ezetare zilhar edo sakolan sosik. S. Paol bere lagünen ta beraren eskelegoaz ta heen gose egarriaz ere mintzo da, pikarrai<sup>21</sup> zabiltzala dio. S. Augustin bere nekeziaz etzen arranküratzen etzianian baizik eskelerari dremen den<sup>22</sup> sokhorria emaiteko. Acentius Alidinako aphezkübiak zazpi mila eskele bizarazi ezinez bere aphezküpügoako<sup>23</sup> aphez güzier aimona<sup>24</sup> zian galthatzen.<sup>25</sup> Bena zonbat enberadore, errege ta printze eztirade hil eskele.

Jendian eskelerik e'lizate, balie<sup>26</sup> güziak lana maithe. Khiristianak erraiteko eskeliari zeren ezten ari langiten, eztü züzenik, eman bezo edo artzüka.<sup>27</sup> Eskele es-paiñolak holako elheari arrapostü: limosna dereizüt galthro Jauna ez konfesa. Eskeliak hirur suertez dirade, hala sorthürük hala hilgeiak, aberatstarzünaren eztielakoz egarririk. Bigerenak honez akogatürük hitzaz axolik batere eztienik ta aberatstarzüna bihotzian ezetare bihotza harten eztienak. Hirurgerrena aldiz gogoz diradianak eskelegoan ta hantik jalki nahian arima dienak estiran, heetarik orotarik batere eskelegoaren primagoa baliotsua dela ohoria aithortzen diana.

<sup>15</sup> orhit ladin: gomuta lezan, oroitu ledin.

<sup>16</sup> egorgeian: igortzekotan, bidaltzekotan.

<sup>17</sup> gaitzkiala lerrari: gaizkira labainlari.

<sup>18</sup> ardüregi enjogi: gehiegí emana.

<sup>19</sup> khapar herrestaler: sasi narrastariei.

<sup>20</sup> ünhürriak: txiñaurriak.

<sup>21</sup> pikarrai: bilaizik.

<sup>22</sup> dremen den: den gutienik.

<sup>23</sup> aphezküpügoako: apezpikutegiko.

<sup>24</sup> aimona: amoina, limosna.

<sup>25</sup> zian galthatzen: zuen eskatzen.

<sup>26</sup> balie: balute.

<sup>27</sup> artzüka: uka, ezezekoa eman.

Bekhaizteria da eskelegoa haboroenaren ama ta ünhüdia etxekoena falda eskeletütan da sortzen ta aberatsten kontra etsaitürük lanari arrabuhintürük,<sup>28</sup> eztirade etxenkoak nola aberatstüren diren errekeitatzen,<sup>29</sup> bena bai lanari bihürtzian eskelegoan gogortzen.

Haurrak ere askazier moldaskidatzen diradianak heen ürrhatsen herexak<sup>30</sup> jarrakituen ta bi eskele baizik eztireno etxetik hamar bat batetan jalkiten<sup>31</sup> hala bekhaizteriak eskelegoari eskü emaiten ta hantik ardüra desaradüra<sup>32</sup> handirik sortzen.

Jesu Kristo ta haren apostoliak beno gizon eskelegorik mündian ezta izan alabadere Ezkiribü Santian batek ere limosna diala galthatü eztüğü ikhusten, ezetare mengoak hoztü zereiela zeloa azkener.

Bada eskelegoa muzintürük, hantik adagio hüskaldüna, gabiak aharra<sup>33</sup> jende auherretan üsü dena ülhünian<sup>34</sup> argian beno laketagorik ta sekülan ageriago eziez dianian zahartarzüna lagün, ordian da gaitzondo handiena jende pherestietan. Eskelegoan eztü berdüthiak bide lüzerik egiten mengoak derio aldizkal gogoa thapatzen, megopiari ere bürdüin trabak ezarten. Eskelegoa ezta gizontziaren behar bat, bena bai mügaldia beldürrik erran behar e'lirokiana<sup>35</sup> ezi pikarrai mündiala girade jiten<sup>36</sup> ta mihise txar batetan trozatürük hantik abiatzen, hantik Jinkoak gütila eskele igorrainen ta deitzen dago proba, egiazki arren eskelegoaz zertakoz günüke beldür, osagarria dükegüno ta honki eginaren borhondadian gireno, zerbaite lan ere gure eskeleari handia txipiari, meskabiak salbü, eztate mündian behar dienik edo gütilik ta Platon Jinkotze gizonaren erraniala eskelegoatik mündüko gaitz haboroenak<sup>37</sup> sortzen direlakoz, honki egilerik eztela lürrian beretako ari deno, eztükiana ordaria zelian zereiola tinko.

---

<sup>28</sup> arrabuhintürük: muzin egunik.

<sup>29</sup> errekeitatzen: errekeritzen.

<sup>30</sup> ürrhatsen herexak: pausuen aztarnak.

<sup>31</sup> jalkiten: ateratzen.

<sup>32</sup> desaradura: desauraketa.

<sup>33</sup> gabiak aharra: gabetasunak liskarra.

<sup>34</sup> auherretan üsü ülhünian: alferretan sarritan ilunean.

<sup>35</sup> e'lirokiana: ez lezakeana.

<sup>36</sup> pikarrai girade mundiala jiten: biluzik gara mundura etortzen.

<sup>37</sup> haboroenak: gehienak.

## Paganoetzaz

Paganoek herriaz zütien khristian lehenak salgaiz<sup>1</sup> eta meskabü heltzen zereitzeetan heez ogena<sup>2</sup> emaiten. Tibria Italian bazen gainthü,<sup>3</sup> Egipitan Nilak ordokiak ezpazütian bere hurez estaltzen, khristian donaotsiak<sup>4</sup> ta sakrilegioak ziradian aragoakoak. Orozbat gosetziak ta hilkorrak ziradianian hiltzen: hartan beren Jinko faltzier grazia othoitzeko, khristianak lehoner, tigroer ta hartzer zütien barrükietara urthukitzten ta bizirik janeraziten. Jesus Kristi etziena ere Coesaren etsaia zela salgaiztū ta erresumen menaldetzen ari zela barreiatü.<sup>5</sup>

Neron enberadoriak Errumari sü zianian eman, jakile hanitz, erran lezen khristianek ziela phiztū, zütian pagatü ta heetarik izigarri erre erazi, berak ziolarik zinez erreljione khristia heltü geroztik galkiro güziak erresumari erori ziradiala.

Kharidadia delakoz khristiaren berdüthetarik gehiena eztait akadoika laitekinet,<sup>6</sup> pagano güziak diradiala eripetiak<sup>7</sup> zeren eta Jinkoaren akadoiaren bian<sup>8</sup> ai-patzia heriotsuer zilegi ezpeita; bena haren errükia dügülerik orotan miratzen, jakintsü handiren landan paganoak salbatü ta gozabetatü liraitekila.<sup>9</sup>

Jakile Ruth ta Job, orozbat Nabukodonosor dotore zonbaiten erraniala, paradiisian dena, harekilan ere Corneilla kapitaiña. Ber herrokan ere dena Alexandra Severa jarten, uste zialakoz J. K. Jinko zela ta hari tenplo bat gora erazi ta Jinkoen artean jarri; printze haren arima beno egiazki ederragorik izan dirade gütik.

Jüdioek J. K. khurutzatu zienian, soldado athe bat haren begiratzeko<sup>10</sup> jarri zütien pagano ziradian ta heek aithortü beraren erranetarik erremalgak zereielo probatü Jinkoa zela. Apostoliak ere ephe ziener ezttereria erraiten,<sup>11</sup> Jinkoak haitatü

---

<sup>1</sup> salgaitz: salatuz, denuntziatuz.

<sup>2</sup> ogenaz: erruaz.

<sup>3</sup> gainthü: gainditu.

<sup>4</sup> donaotsiak: sakrilegio.

<sup>5</sup> menaldetzen.... barreiatu: errebeldatzen... banatu.

<sup>6</sup> akadoika laitekinet: epaitu litekeenik.

<sup>7</sup> eripetiak: kondenatuak.

<sup>8</sup> akadoiaren bian: epaiaren bian, epaiaren pean?

<sup>9</sup> gozabetatü: askietsi.

<sup>10</sup> athe bat haren begiratzeko: meta bat haren zaintzeko.

<sup>11</sup> ephe ziener erraiten: itxoiten zeudenei esaten.

gütuela<sup>12</sup> santü gerth gitian, orozbat haren goarda paganek Jinko deithzen zien haren izena ezagütü bagerik. Plina biggerrenari dügü eskerra haren denboran kchristianek üken zien bakiaz ta Trajan enberadoriaren manhüetzaz heen fabori.<sup>13</sup>

Jinkoak apostolier zianeantz erran jartera jinen zenian loriazko tronoala hamabi israelita kasten akadoitzera etzian erran nahi dierri heek baizik bederakatürük<sup>14</sup> eztitadiala zeren eta israelitak beno lehenago berzerikbeitzen mündian dierri saldo handirik, zoiñak<sup>15</sup> israelitak haur haitatiekila<sup>16</sup>beitüti Jinkoak deithüren erraiten zereielarik «zaurizte<sup>17</sup> nere aitak beredekatü dütienak» S. Paolek Aratusen nausitarzunga J. K. fediaren indartzeko zian jarten ta Sibella Cumanaren beroak Virgilan diradianak hanitz pagano khiristiatü zütien Tiberak ere berze alte Senatian galthero egin zian J. K. jar lezen beren jinkoen herrokan.

Paganetan nork zian bere Jinkoa gorde ere ta fabori ziana. Erhokeria zen heetan izigarri ustian Jinko saldo handi hartan photreak erthaitürük ziradiala<sup>18</sup> ta batari galthatzen ziena<sup>19</sup> berziak erabaki etzirokiala.<sup>20</sup> Bena gauzaren izenian graziak zütien galthero, hala Augustak ari zenian kantabroer gerla egiten, Sabibarek bere leitiran haren kontra düründak<sup>21</sup> erho zereiolakoz mithil bat, Erruman eragin zian tenplo bat Errumako Capitolian Jupiter düründazaliari ziana donkitu<sup>22</sup> erremestiatentuz<sup>23</sup> dürüründaz hil etzielakoz Kantabrian. Hirur erregiak Betelemera J. Kristen jin zirenak gurtatzera ziradian egiazki paganak, bai etare artzañak.

---

<sup>12</sup> haitatü gütiela: hautatu gaituztela.

<sup>13</sup> manhüetzaz heen fabori: aginduetaz haien alde.

<sup>14</sup> bederakatürük: bereizirik.

<sup>15</sup> zoiñak: zeinak.

<sup>16</sup> haitatiekila: hautatuekilan, aukeratuekin.

<sup>17</sup> zaurizte: zatozte.

<sup>18</sup> erthaitürük ziradiala: zatikaturik zirela.

<sup>19</sup> galthatzen ziena: eskatzen zutena.

<sup>20</sup> erabaki etzirokiala: erabaki eztezakeala.

<sup>21</sup> düründak: trumoiaik, ortzantzak.

<sup>22</sup> donkitu: kontsagratu.

<sup>23</sup> erremestiatentuz: esker emanaz.

/ 330 /

## Iripediaz

Iripidiaren<sup>1</sup> izenean laborariak, hiritarrak, langile suerte güziak dütügü jarten, erregetan pharaitü<sup>2</sup> direnetan. Iripedia da errege ta Senatak edo zernahi tribunalek dierrian botza bagerik photererik dianik, hartakoz ere deus etzen egiten non ikhus-ten etzagoenik bi photeriak lagün detz heetan<sup>3</sup> *Senatus populusque Romanus*. Bena hañberze herri hanitzetan bezala, iripidiaren desaurodiak ta bakhotza zonbaiten handi nahiak gobernü halakoak dütü erresumatü ta bürüzagi saldoaren lekhian bakhotz bat haitüz<sup>4</sup> edo bortxaz erregetü.

Izairian dago manħüa<sup>5</sup> eztaitekiala gobernü honik non etare ezpeitateke kħidarrī honik. Lürrian ta airian zabiltzalarik ezta lege hari jarraikitzen eztenik abe-reetan ta txori güzietan saldoek batere beren gidariak eztütienik, kürüloek, antzera ta ahate baseek dütie beren aitzintarra<sup>6</sup> ta egiazta baladi gauza, giniro ikhus bethi dela bera; erran nahi dena lehenik haitatü ziena doa egiazki aitzina ber bera saldoa hari jarraikiz binaka jendia prozesioan bezala, bena herroka xüxenagoan, batere eztelarik okhertzen ezetare lürrilat hüllandzen<sup>7</sup> gidariak eztieno manħatü. Düda-rik ezta gidari halakoa saldoan dela onesbedatiena ta güziak hari menpe dagoe-tzela.

Orozbat die gizonek egin, ezta jenderik beren artian gurtati<sup>8</sup> baliosagoa eztenik ta haren manħiala jarkin aier bat<sup>9</sup> eztianik; hantik erregiak dirade sorthü ta heen ondokoetarik printze aphür batzü dirade jalki.<sup>10</sup> Xilperik bezala Frantzian, mena<sup>11</sup> hañ handi zen Clovisen oroitza non ihorek zejakitzen<sup>12</sup> etzian printze handi harek

---

<sup>1</sup> iripedia: popula, herrixeha.

<sup>2</sup> pharaitu: pairatu?

<sup>3</sup> detz: sektore.

<sup>4</sup> haitüz: hautuz, aukeraz.

<sup>5</sup> izairian dago manħia: naturan dago agindua.

<sup>6</sup> aitzintarra: aurrelarria, aitzindaria.

<sup>7</sup> lürriala hüllandzen: lurrera hurrantzen, hurbiltzen.

<sup>8</sup> gurtati: gurtatu, adoratu?

<sup>9</sup> jarkin aier bat: buru emateko gogo bizi bat.

<sup>10</sup> jalki: atera.

<sup>11</sup> mena: agintea.

<sup>12</sup> zejakitzen: ez jakiten.

errumenak, burgiñonak, visigothak ta godiak zütiala frantziarik akhazatü, haren ondokoek lüez mereximentü bagerik haren famaz dirade gozatü zirelakoz ere errege kristianetarik lehenaren haurrak.

Iripedian dago iritzia izen zaharrenetan berdhütia dagoela, hari ere iritargarrietañ<sup>13</sup> dereio gomendamentia, bena da jendia haiñ khanbiakor non, jaten beitü arratsian gurtatü ziana goizian ta zeliala<sup>14</sup> altxatü ziana atzo, zankopeetan egün bardin jartia, berze arrazorik salbü zorigaitzarena eztü ta haren eretzian arrenküra,<sup>15</sup> legautse delakoz orotan desürrikütü.<sup>16</sup>

Iripediak ehün bürü dütü gaitzari baizik, bakhoitzik eztiana enjogi gerthaldia dago S. Paolen eretzian Listrianek, nahi zienian behinbehinko bezala gurtatü, gero harri'khaldiz oztakatu. Beraren esker beltzaz dago ustian gauzak honki, beren obretzaz, zaudiala, gaizki aldiz gidarien faldaz zoatzala. Hartan zaudian israelitak, Moisaren kontra arrabuhintzen<sup>17</sup> ziradian egitekoak heen egarriala etziradianian. Berze althe jüdioek gure Jinkoa nahi zienan bakhotzian erregetü honki egiten zeielakoz, gero profeta handi bat zela, hantik denbora llabürrian salgaiztu ta hilerazi.

Iripediak ehün bürü dütü gaitzari baizik, bakhoitzik eztiana enjogi gerthaldia dago S. Paolen eretzian Listrianek, nahi zienian behinbehinko bezala gurtatü, gero harri'khaldiz oztakatu. Beraren esker beltzaz dago ustian gauzak honki, beren obretzaz, zaudiala, gaizki aldiz gidarien faldaz zoatzala. Hartan zaudian israelitak, Moisaren kontra arrabuhintzen ziradian egitekoak heen egarriala etziradianian. Berze althe jüdioek gure Jinkoa nahi zienan bakhotzian erregetü honki egiten zeielakoz, gero profeta handi bat zela, hantik denbora llabürrian salgaiztu ta hilerazi.

Zernahi honki iripediari badü egin bekhant da haren ezagützia, dago aizia bezain arhin haren ondokoan, lasto süiaren pare khe lodi bat hantik da gertzen ta berze bat beno lehenago aboatzen.<sup>18</sup> Amorio halakoa dago haiñ arhinzki ondekitia<sup>19</sup> nola etxia hariña irakaurtian<sup>20</sup> dagoena, ühaitzaren aizoan,<sup>21</sup> lehen uhaiz-

<sup>13</sup> iritargarrietañ: hiri agintarietañ?

<sup>14</sup> zeliala: zerura.

<sup>15</sup> arrenküra: kezka.

<sup>16</sup> desürrikütü: desurrikaldu.

<sup>17</sup> arrabuhintzen: muzin egiten.

<sup>18</sup> aboazten: sakabanatzen, barreiatzen.

<sup>19</sup> ondekitia: fundatia, ekidatua.

<sup>20</sup> irakaurtian: hondomenean.

<sup>21</sup> ühaitzaren aizoan: ibaiaren auzoan.

teak<sup>22</sup> diana eramanen; hegoaren / 332 / pare dago haren adiskidegoa. Maite diana egün, bihar düke hügün<sup>23</sup> hegaltaz dabila bere borhondatietan ta ihon ere ez baratzen, salbü aberaststarzünaren eretzian, bena hau deno gütitzen da hurtzen ta khanbioan baizik eztelakoz laket, beldürrik ezpadü honki egitiaz eskerbeltzaz düti liliak estaltzen.

Dianaz,<sup>24</sup> sekülan naikide, eztianaz aldiz bethi gose. Eriak<sup>25</sup> bezala ardüra da gaitz zereioanaren nahia ta honki litirokianaren artzüka.<sup>26</sup> Hala israelitak ziradian Egiptarik Jinkoak salbatü zütianian, han eskelegoa izigarrian izanik ta basa herrietan zelüko manaren asean phorrü, baratxurier ta Egiptako oin-huer<sup>27</sup> zirelakoz gabian, ahatze heetarik jaten zieno loteki ziradiala,<sup>28</sup> orai aldiz beren berrietzaz nausi heen librazaliari eskernioz alamenatzaz zereiela etzen azkena.

Basa aberiari üdüri azkar, ohil<sup>29</sup> ta lotsor da iripedia, beldürtiak gidari bagerik, ezpadü arres saldoa<sup>30</sup> bezala otsoari doa ihesi, büría berotü zereionian esküiña eztare ezkerra eztütü ezagützen, delakoz ere ordian ohitürik Jinkoak dü zentziaz gabetzen, amoregatik bere okherkerietan dena saldürik hala ere dabila jiten, joaiten, arrajiten ta arrajoaiten<sup>31</sup> zonbat ogen berari dian egiten gogo eman gaberik, itxasoaren pare bagak dütianian aiziak behin zothükätü, bata berziaren joitekilan<sup>32</sup> denbesta da sortzen. Irupediak orozbat bere marraketzaz jendia bordokatzen ta hiriak kordokatzen. Azkenekoz zühürrak erhoak bezala hurubil ta bürüz behera leziala larrützen<sup>33</sup> düti jarraikian eramaiten.

Zonbat<sup>34</sup> irupedia den ütsü, dago bere khidarien<sup>35</sup> egiten dian haitoan,<sup>36</sup> dela-koz bethi saldoan, erhoena eskü, ta deus gal etzirolakoz ausartiena, zentzü gabie-na ta marrakarik handiena. Saldoa hari bena bera dagoeno hari arrimatürik,

<sup>22</sup> ühaizteak: uholdeak.

<sup>23</sup> hügün: gorroto.

<sup>24</sup> dianaz: duenaz, daukanaz.

<sup>25</sup> eriaz: gaixoaz.

<sup>26</sup> artzüka: uka.

<sup>27</sup> uñhuer: tipulei, kipulei.

<sup>28</sup> loteki ziradiala: esklabo zirela.

<sup>29</sup> ohil: basati itxurako.

<sup>30</sup> arres saldoa: artaldea.

<sup>31</sup> jiten... ta... arrajiten: etortzen... berretortzen.

<sup>32</sup> joitekilan: jotzearekin.

<sup>33</sup> leziala larrützen: leizera amiltzen.

<sup>34</sup> zonbat: zenbat.

<sup>35</sup> khidarien: agintarien.

<sup>36</sup> haitoan: hautuan, aukeran.

athian<sup>37</sup> dagoeno bere ustian gorderik ari da hagün buhatzen<sup>38</sup> ta hel zer nahi<sup>39</sup> ari da denbestetatik<sup>40</sup> ezkapiren dela dügülerik gogoan. Iripedia ere fitez<sup>41</sup> obratü nahi lükiana, dianak ere sinhesten arhin ahoa zabalik dago ta lege zaharrak garhaitüren dütiala iritziaz eztü düdarik, arrazoari nekez da menpetzen, dereitzola goor edo deno bethi bihürtzen. Erranditza<sup>42</sup> hareki dü medika bakhoitza ta bürüz haren joitia eriaren herioa.<sup>43</sup>

Zehe bat behar zaio, auna eman dezan<sup>44</sup> haren marraketzaz eztianak axolik gaizki dü jendia ezagützen, bere gozo ere bethi dago tinko, ta liberdadiari bethi hasperez ta hartan zedarririk<sup>45</sup> eztialakoz ezagützen, dremenden laiatziak<sup>46</sup> dereitzo iganeraziten bere saldo handiaz bihoztatürk den bezala, ühaitza bere huretzaz hantürk<sup>47</sup> bathzen dütian<sup>48</sup> güziak bere bidian dütü eramaiten. Berarentzat iripedia da bihoztoi, kobart aldiz hirirentzat. Bego diano bere buulta urthiki<sup>49</sup> haren landan zerbait dü behatuko ta bortxala beno eztitarzüniala da xüxentüko.

Erregimentü bat izentatzen eztüdana rebeldürük etsaietara bazabilan ofizierak ützirik, heetarik batak zien jarraiki ta ziolarik soldadoer hanitz urthez heen lagün zelarik ta guda güzietan hekila,<sup>50</sup> bizi zatekino izan nahiz heer lagün leal, laister zela jin heetara. Erregimendiak heltzia honki zian agradatü ta khidarri jarri; hantik zonbait lekoa egin eta barazkalgiala ziradianian heltü han jatea ta edatiareki elhestan,<sup>51</sup> güziak ziradian sarthü, batzü ziolarik bethüsteari laidore<sup>52</sup> berzek laido emaiten ofizierari, zer zian harez gogatzen, gudarieki galthro zereien egin. Harek nere gogoak dio arrazo<sup>53</sup> bagerik eztügüla herria ta gure erregia üzten ta norat nahi abia gitian gosez ezkiradiala heben.<sup>54</sup>

<sup>37</sup> athian: metan.

<sup>38</sup> hagün buhatzen: habuina/barautsa putz egin.

<sup>39</sup> hel zer nahi: zer nahi gerta/heldu.

<sup>40</sup> denbestetatik: tenpestetatik.

<sup>41</sup> fitez: laister.

<sup>42</sup> erranditza: errenditza, amor ematea.

<sup>43</sup> eriaren herioa: gaixoaren hiltzaea.

<sup>44</sup> zehe bat ... auna eman dezan: arrabat ... beso bat eman dezan.

<sup>45</sup> zedarririk: mugarririk.

<sup>46</sup> laiatziak: laidatzia.

<sup>47</sup> ühaitza bere huretzaz hantürk: ibaia bere uretzaz hanpatüürk.

<sup>48</sup> bathzen dütian: baratzen/topatzten dituen.

<sup>49</sup> buulta urthiki: buelta/oldea jaurtigi.

<sup>50</sup> hekila: haiekilan: haiokin.

<sup>51</sup> elhestan: hizketan, berbetan.

<sup>52</sup> bethüsteari laidore: errespetuari laudorio.

<sup>53</sup> arrazo: arrazoi.

<sup>54</sup> heben: hemen.

Bena gogomen beltz batek dereit bihotza tinkatzen, lotsa<sup>55</sup> handian nago honki jinak<sup>56</sup> nahiz esker beltza baizik eztügülakoz ükhenen ta mespretzia laidore beno dügüla bakhiren ohi<sup>57</sup> ta noren pharthez, güda orotan garhaitu dügünetzaz heen erran karratzez dereit arima zathizkatzen. Harmada etsaien ezkirateke azkarrenak<sup>58</sup> izanen, behar tübüü arren han ezkerreko güziak iretsi edo ürhünago abiatü ta printzerik gure beharra lükianik ezzadüğü batzen, ohoiñak bezala ebastez giradia biziren ta otsoek bezala berehezirik, oihanetan gure egongia eginen? Halako lanaren obran berezi lagün maitiaz: hau da nere beldür bakhotza, eztatilarik berze borhondaderik zien a baizik ta haren lehen jarraikaria erranik nago orotara prestatürik.

Erregimendiren erdiala erori baliz bezala düründe soldadoak ixil aphürbat egonik, batetan ofizierari othoi erran lezan egingeia ta manha<sup>59</sup> haren menpian zaudiala. Ordian ofiziera xütik jarririk «nere gogomena da ethor gitian gure egiazko eginbiduala, gure harmadan herriren ta erregeren zerbützian hiltzera» Batean entzün zen bi mila halabiz, zakiak ta harmak bildürik goizian kanpoala<sup>60</sup> erregimendia zen abiatü.

Gerthaldi hartarik dügü ikhusten gizon arrabuhinak saldotik diradianian ema diraitekiala, hartzen direno beren pünthian, ezi zaldi ohilaren pare iripedia eztitarzüniala, hau berzea olhoaala bezala, dirade jiten<sup>61</sup> ta ez mehatxüz ta azotekhaldiz, bata ez berzia ematzen. Hartakoz iripedí mügaiztiaren<sup>62</sup> kontra lehen harma da ozartia, delakoz bethi behar beno handiago esparantza ardüra ere ez uste beno dialakoz ozarra.<sup>63</sup>

---

<sup>55</sup> lotsa: beldurra.

<sup>56</sup> honki jinak: ongi etorriak.

<sup>57</sup> bakhiren ohi: batasunari ohitua.

<sup>58</sup> azkarrenak: sendoenak.

<sup>59</sup> egingeia eta manha: egitekoak eta agindu.

<sup>60</sup> kanpoala: soldado kanpamentura.

<sup>61</sup> jiten: etortzen.

<sup>62</sup> mügaiztiaren: nekez mugatzen denaren.

<sup>63</sup> ozarra: ausartzia.

## Pheredikiaz

Pheredikia<sup>1</sup> da erreligioneari dena egurra süian, dütie biak arrapizten, heen bagerik dirade hiltzen. Pheredikiak gütü gure eginbidian jarten. Jinko honaren ekarraiak<sup>2</sup> erakasten ta sagramendien medioaz bekhatien barkhamenaren aidürian<sup>3</sup> gure arimak bakian geldartzen.<sup>4</sup> Pheredikiaren sokhorriaz haurzaroan jakinak ez-tütügüa hazten? Heetan ere girade azkartzen. Jinkoaren phartezi ari da pheredikaria, ezi beraren botzaz ikharaz hil gintake. Hala ere israelitak zioen Moisari «mintza hakigü ihaur ta behatüren haigü, Jinkoaren aldiz botzak gaitü erhaustüren». Zakhariak aingürü baten botza entzünik denbora zati batez egon zen müthü. Dakialakoz Jinko honak gure flakezia gizonen mihiaz zereikü mintzo<sup>5</sup> ta uste ez-tezagün pheredikariekin engañatzen gütiela, Eskiribü Santütan dereizkü bere manhiak eman. Pheredikiek hetzaz baizik mintzo eztireno fediari dereie indar emaiten, megopia<sup>6</sup> borthitzentzat argitzen. Ebanjelioaren argia ekhiaren pare<sup>7</sup> salbazioneararen bide xüxena dereikü erakusten, harek dü jüdioen zeremoniak indargetü<sup>8</sup> ta J. K. k manhatü dereizkünak aisatü.<sup>9</sup>

Nahi ükhan dü Jinkoak jendiarentzat egain dianian<sup>10</sup> salhagaitzetzaz<sup>11</sup> pheredikiak latin jakintsü bena apostoloetzaz zütiano erraneraziten, behazaler berak gogoan zereian sartzen. Pheredikariekin die giltza serraillan ezarten, bena Jinkoak dü ützültzen, gure bihotzak ikhertzen ta gure borhondadiak zothükatzez ahal liro<sup>12</sup> berak jendia argi; bena Satanek lehen gizona beharrietarik<sup>13</sup> gaitzala goga-

<sup>1</sup> pheredikia: sermoia.

<sup>2</sup> Jinkoaren ekarraiak: Jainkoaren izaerak.

<sup>3</sup> barkhamenaren aidürian: parkamenduaren zain egotean.

<sup>4</sup> bakian geldartzen: bakean geldiarazten.

<sup>5</sup> zereikü mintzo: zaigu mintzatzen, digu hitzegiten.

<sup>6</sup> megopia (Lar.): izpiritua.

<sup>7</sup> ekhiaren pare: eguzkiaren pare.

<sup>8</sup> indargetü: galerazi, indargabetu.

<sup>9</sup> aisatü: erraztu.

<sup>10</sup> egain dianian: igo duenean?

<sup>11</sup> salhagaitzetzaz: nekez sala ditezkenentzat, misterioez.

<sup>12</sup> zothükatzez ahal liro: mubituz lezake.

<sup>13</sup> beharrietarik: belarrietatik.

türük<sup>13</sup> nahi dü ber medioaz honkia behatziala hel dakion; hartakoz ere dio Isaiak «aphal ezak beharría ta biziren dük hire arima».

Zelütik zereien heltü gure erreligioni, ezi J. K.k dio pheredikatzen zian doktrina etzela harena, bena bai egorri zianarena. Berak ere, zioan apostoloer «zoaztie dieri güzien irakastera, zier nik erranak jarraik detzen». Jinkoa mintzatü zen bezala gizonez profeten ahoaz, orozbat J. Kristo zereie mintzat». J. K.ek ere dio Jinkoak «eman zeiztadan hitzak apostoloer dütüt eman, heen erraner jarraik zitezte».

Pheredikariak apostoloen gerthaldean<sup>14</sup> ari direno Jinkoaren manhiak ikhasten ta haren zerbürtziaren bidean jarten ezta pheredikia baizik Jinkoaren manhua<sup>15</sup> denaz; hel daite behin falda egin dianari dereikiola sekülakoz mingarri, entzün eztialakoz behar ziana ordian jakin.

Ebanjelioa da pheredikien phasta bakhoitza hartin egon bite pheredikariak nahasküra bagerik. S. Paolet dio Ebanjelioaren kampo mintzo den pheredikaria maradikatürük bedi. Jinkoak debekatü dianian azi banaite<sup>16</sup> ber elgian erein e'ladin, erran nahi zian haren hitzak berzerenekila<sup>17</sup> nahasi behar eztirodiala.

Hitz ederrez pheredikiak dütienek aphaintzen ürüegi dirade bena heen jarraitetzaz erran daite saltzaz aragiaz beno khoiago diradala.<sup>18</sup> Dezagün erran halako pheredikariak dirade beharrien gilikagarriak deitzen. Egiazki hümiltarzuna, ürgüllütsü elhez erran eztaite. Jinkoarenek die gatz beren doia, espeziarik ezetare jakigairik<sup>19</sup> eztü nahi. Jinkoak ere manhatü zian althare harrigeia, harri ezpikatüz<sup>20</sup> bena gropez zatekiala<sup>21</sup> hori erran nahi beita haren zerbürtzia ekinarte<sup>22</sup> bagerik zatekiala.

Ükha eztaite pheredikariak egin badie mündian obra honik obratü diela ere gaitzik brobak gerla ürrikoetan.<sup>23</sup> Frantzian berze lekhütan beno üsiago daude ezi errege bi Henriken herioen langileak pheredikagiak zütian legautsi<sup>24</sup> har-

---

<sup>13</sup> gaitziala gogatürük: gaitzera seduziturik.

<sup>14</sup> gerthaldean: etsenpluan, adibidean.

<sup>15</sup> Jinkoaren manhua: Jainkoaren agindua edo manamendua.

<sup>16</sup> azi banaite: hazi desberdin.

<sup>17</sup> berzerenekila: bestenekin.

<sup>18</sup> khoiago direla: zaleago direla.

<sup>19</sup> jakigairik: janari nagusiaren lagungarri.

<sup>20</sup> harri ezpikatüz: landu gabeko harriz.

<sup>21</sup> gropez zatekiala: harri arruntez zatekeala (ik. Testamentu Zaharra).

<sup>22</sup> ekinarte: handikeria.

<sup>23</sup> gerla ürrikoetan barneko gerratetan.

<sup>24</sup> legautsi: delito.

tara bihoztoitü ta behar zenian iripedia menpetü menaldetzera orotan buhatzen.<sup>25</sup> Denbora dolamendü hartan pheredikariak bere zerbützüko Jinkoak jarri zütianak haren manħü. Khinperari ziradiano debrütsü aharra zien<sup>26</sup> zerbützatzen ta erresuma leze infernieta urthukitzen<sup>27</sup> ihon ere Jinkoak erregen kontra ari zütian pheredikatzez etzereien erran, alabadere ordian heek berze ofiziorik etzien egiten, salgaitzez ta eskernioz<sup>28</sup> zütien erregiak belzten amorekatik behazaleen erditik erhaile zonbait jalk ladin<sup>29</sup> zorigaitzean sobera heetarik ziradian gerħü ta hala paradusüko bortha erakhusten zereitzen infernükōtarik arima flakü gaitztiak sareraziten zütien.

Düda bagerik pheredikariak eginbidea khristianen bide züzenian jartia dela ta berme daudiala erakhusten zereitzen okherraz, bakia die behar orrotan jarri. Egiaz bihotza honki,<sup>30</sup> ez elhe ederreż megopia igürütü<sup>31</sup> ta arima hutsik ützi. Pheredikaria beraren egitekoetzaz alpha dago berze zerbaitegitera manħüz ta beraren, ari denaren da üdüri, orozbat ebanjelioa berhez<sup>32</sup> dienak pheredikian üzten, jakinde faltsia dü pheredikatzen ta jendia herratzen. Galgiroak ere behar dütuki-nez zaiñtarik atheratü, dereitze indar berririk emaiten, heen axolgabiak behatzleetan bide handia dü egiten ta debriaren phatarra ordokitzen.<sup>33</sup> Pheredikarien elhe beratarra hau da «Egizie erraiten düdana, ez, egiten düdana». Hobe e'lizatia khümita letzen behazalia<sup>34</sup> bietara, eziez erraite hartarik nork sinhets e'liro,<sup>35</sup> pheredikariak honki mintzo ta gaizko ari diradiala. O! gaizki ari dena, honki egitia dü nekez gogatzen.

Dezagün azkentzian artiküliari jar gerthaldiak nihaurek entzün düdan pheredikiaren zathiaz. Iphar herri güziak Frantziako eremütarik Poloniakoetadrano frantses Calbinen heresiaz hirotürük<sup>36</sup> dirade ereiñik, Prusian bakhoizkki heetarik

<sup>25</sup> menaldetzera orotan buhatzen: asaldatzea denetan putzegiten.

<sup>26</sup> aharra zien: liskarra zuten.

<sup>27</sup> infernieta urthukitzen: infernutara botatzen.

<sup>28</sup> salgaitzetzaz eta eskernioz: salakuntzaz eta karikaturaz.

<sup>29</sup> erhaile zonbait jalk ladin: hiltzaile baten bat atera ledin.

<sup>30</sup> bihotza honki: bihotza ikuitu.

<sup>31</sup> megopia igürütü: izpiritua balakatu.

<sup>32</sup> berhez: bazter.

<sup>33</sup> phatarra ordokitzen: aldapa zelaitzen.

<sup>34</sup> khümita letzen: gonbida letzaten entzuleak.

<sup>35</sup> e'liro: ez lezake.

<sup>36</sup> hirotürük: usteldurik.

hanitz Königsberg-en nintzalarik,<sup>37</sup> frantses heetarik baten otsez heen ministre baten parerik etzela, elizako anderiak haren «prescha»la enganatü nündian.<sup>38</sup>

---

<sup>37</sup> Königsbergen: Hemen Egiategi Poloniaren alde soldado ibili zela Prusian beste leku-kotasuna.

<sup>38</sup> precha: frantsesez «prêche» erraten zaio protestanteen sermoiari.

Aphezak nahi güntüke güziak Santü, bena berze jendeak bezala gizon dirade. Zoor zeien errespetü osoaz gozatzen eztiradianian berek die ogena, jendiareki di-relakoz akortatzen, egipardiera<sup>1</sup> ere berzeren egitekoetan sartzen barnegi ta dia-pego<sup>2</sup> soberanak dialakoz mesperetzia soreraziten. Handinaia, iritzia ta zekeingoa batzüer dereitze menpenean iraunarazten. Artzañgoan aldiz arresak<sup>3</sup> ordü beno lehenago dütiela mozten ta dakiela ezin hobeki ilhiaz baliatzen bena bada heetan gizon santürik berentzat deusere begiratzen eztienik, hanitz ere gizon ezin phe-restiagorik aphezgoari ohore dereitzenik.<sup>4</sup> Johanes aphezak dütu hiruretanhogei ta hamar errege menpian, ehün ta hogei ta zazpi artxepizkopü dienek bedera hogei apezküpü menpe.

Nozpait aphezak izkontzen ziradian. Hildebran Aita Santia da lehena aphez alemaner izkontzia debekatü zereiena. Ethiopian aphez güziak emaztedün dirade, Eliza lehenian ere lege zaharren arauiala zienek, sakrifiatzen etzienek ere ziradian izkontürik. Denis Constantinopleko apezküpia bere lagüner zian gomendatzen aphezer ezar e'lezen kastidadiaren lege gogorra.

Cheremon Milako apezküpia bere emaztiareki ta haurrekila Arabiako mendiarat ihesi joan zela dakigü. Paphnuce Enberadoria kasto ta gizon zühürra zelarik ere Nisako kontzilioari Elizan aphezen izkontzia debeka zadin galthro egin zian.<sup>5</sup>

Simplicius apezküpütü zen izkontü zelarik. Frantzian ere badügi gerthaldi halakorik, Bernard Laonko lehen apezküpia gizon santia izkondürik zen ta S. Latron haren semia hiri berian apezküpü zen hil. Brandegis Manseko apezküpia ere zen izkontürik ta alhaba ziala Victor Rennes-eko apezküpia ere orozbat. Charle Mag-noren kapitularietan bereizta 348gerrena ta Lois Debonera<sup>6</sup> ere haren semeenean dügü legetarik, behin baizik aldiz Vienako Kontzilioan erabaki zela aphezer

<sup>1</sup> akortatzen,... egipardiera: ibiltzen... jakinminera?

<sup>2</sup> diapego: apego, lotura.

<sup>3</sup> arresak: hazienda (ardi, ahari, bildots eta beste).

<sup>4</sup> ohore dereitzeni: ezabatua *apezgoa ohoratzten diutenak*.

<sup>5</sup> galthro egin zian: galdetu zuen.

<sup>6</sup> Lois Debonera: frantseset Louis le Débonnaire (Luis Onegia).

phüntzeleki izkontzia zilegi zatekila, heltü zena 89. urthian Formosus Aita Santiaren baimenian.

Eliza lehenak, laur pharthatan erthaliten zütian bere honak, bata aphezküpiari, biggerrena aphezer, elizen ekidatien ta berzaroentzat<sup>7</sup> hirurgerren, eskeleen ta erientako laurgarren. Denbora hartan khristianak bi bakidaz<sup>8</sup> ziradialakoz komunikatzen elizalat ogi, ardo, frütü ere nork beriak zütian ekhartean. Elizan zen mahaiñ bat sakratia deitzen zena, hartan diakrek zütien jarten, heetarik ere komunianeko<sup>9</sup> beharra berhez jarten. Baratzen zen ordagoa eskeleer ta alhargüner zen berhezi.

Denbora hartan aphezak zütien aphezküpiak deitzen, apezküpiak aldiz artzainak zielakoz saldo guziaren errekeitia. Aphez hitza eta zaharrak ziradian ber bera, hartakoz ere Petiri Santia berari eman zian aphez izena ta ordian aphezak jarten zütien eskiak aphezküpiak bezala.

Lüzaz aphezek ustian izan die sekularietzaz akusa etzerokeiela.<sup>10</sup> Eleuthea Aita Santiak manhatü zialakoz aphezküpiak klerikaz zütiela akadoituren<sup>11</sup> ta Errumako aphezküpiaren baimenarekila baizik deus erabakiren etziela.

Innocent Aita Santiak debekatü zian erregek aphezak akadoi letzen. Hantik ere aphezek sekulariak heen kontra jakile etziratekiala zien jüdikatü;<sup>12</sup> bena aphezer ogen handiena dereienik egin Gabriel Billak ta Petiri Bessak,<sup>13</sup> lehenak Ama Berjina beno dianian aphezak gorago jarri ta berzea aldiz erregiak aphalago, bere «aphezteria erregetsuán»<sup>14</sup> diolarik ere hirurgerren berezitan aphezteria ta erregegoa pare doatzala diilarik ber photeria, hantik arren aphez güziak jinko diradialakoz erregiak beno diradiala gehiago ta direla heen gaintik dena arima bezala khorpitsetik. Aphezen photeria du haiñ handi ezarten non, zelükoa menpe betereiko<sup>15</sup> jarten. Dio ere Jinkoa zelian dagoeno bere zalthariren erdian aphezen manhiala han dagoela. Kreatorari Josue zela menpetü ta Jinkoa apezari zialakoz ekhia ükhura erazi<sup>16</sup> lüzatzeko eguna. Dio azkenekoz apheza dela lürrian, Jinkoa dena zelian.<sup>17</sup>

---

<sup>7</sup> ekidatien eta berzaroentzat (Lar.): eraikitze eta mantentzearentzat.

<sup>8</sup> bakidaz (Lar.): batasunaz.

<sup>9</sup> komunianeko: jaunartzek.

<sup>10</sup> etzeroekiela: ez dezaketela.

<sup>11</sup> akadoituren (Lar.): epaituko.

<sup>12</sup> jüdikatü: erabat epaitu.

<sup>13</sup> Petiri Bessa: Pierre Besse, Sorbonako teologilaria, 1568-1639.

<sup>14</sup> aphezteria erregetsuán: Erregezko apezgoa.

<sup>15</sup> betereiko: baitio.

<sup>16</sup> ekhia ükhüra erazi: eguzkia geldiarazi.

<sup>17</sup> zelian: zeruan.

Urbain 2. Aita Santiak Errumako Kontzilian zialakoz 1092. urthian bere elhe sagratütz Jinkoa ziela altharian kreatzen, hantik ere Baroniusek bere aunataren<sup>18</sup> 57.ianian 31. J. K. aphezak erregiak beno diradiala gaindiago dü erraiten ta 32. bersian «principatus politica» aphezenari menpe dagoela. Jesuita Cornelius Alapidez<sup>19</sup> düdarik eztü egiten mezan apheza J. K. beno handiago dela, dialakoz J. K. sakrifikatüren khorpitzaz<sup>20</sup> sostengatzen ta sakrifizio güzietan apheza sakrifikatia beno dela gehiago. Halako elhe<sup>21</sup> zentzü gabier arrapostia da Jinko honaren senthagailla<sup>22</sup> handienetarik bata dela Israeliten Egiptarik salbatzia.

Aaron zielarik aphez handia, heen khidari Jinkoak etziala jarri, bera bai Moisa gizon banutza<sup>23</sup> ta sekulariak sekularier manhatzen hitza ezar leizoan ahoan Aaroni ta hari zatekiala bethi Jinko gizontsü ere, Jinkoaren manhiak israeliter Moisak zütian bethi erraiten ta haren legiak ezkiribüz jarten, Aaron arren hari menpe zagoan. Jinkoak arren bere photeria etzian aphezen eskietan bera bai sekularienetan jarri.

Jinkoak dio «Bihür bedi Cœsari harena dena». Berze althe Eliza lehena etzen Cœsaren leger bühürtzen<sup>24</sup> hartakoz ere Justin martira mintzo zenean Enberadore Errumenari zioan «zuri Majesdadia dügü othoitzen, detzan gastiga khristian gais-toak izen harena desohoratzen dütienak ta izenaz baizik khristi eztiradianak» Constantinek debekatü zianian Arianer fabori izan e'ladin,<sup>25</sup> zakian aphezak batzü heen ziradiala althe<sup>26</sup> Donat heretikak bohatzen zütianak<sup>27</sup> enberadoreari bütü eman lezen eziigorri zialakoz khristi Afrikakoer diharü, Donatek zioan «Zer züzen zian Elizako egitekoetan» nahiz sinhetserazi erresuma Elizan zela, delarik khinper Eliza erresuman, delakoz hau berzia beno zaharrago ta photere güzia hartan berzela Constantinek etzian Eustachius Antiochako<sup>28</sup> aphezküpia deslüt-ratüren, ezetare Maximak aphezküpü zonbait gnostikek khozatü<sup>29</sup> zütienak hileraziaren.

<sup>18</sup> aunataren: hori Baroniusek hasi eta Beltran Ezponda apezpikuak hamazazpigaren mendean bukatu *Historia Ecclesiae* ospetsua.

<sup>19</sup> alapidez: halabidez = berdin ala Alapide izena.

<sup>20</sup> khorpitzaz: korputza.

<sup>21</sup> elhe: hitz, berba.

<sup>22</sup> senthagailla: batzutan sendagai, hemen «mirari».

<sup>23</sup> banutza: arrunta.

<sup>24</sup> bühürtzen: bihurtzen (bihürtzen: itzultzen).

<sup>25</sup> fabori izan e'ladin: aldekorik izan ez ledin.

<sup>26</sup> althe: alde.

<sup>27</sup> bohatzen zütianak: hauspotzen, putz egiten zituenak.

<sup>28</sup> Eustachius Antiochako (260-337) Antiokiako patriarka, ariozaileen etsai.

<sup>29</sup> khozatü: kutsatu.

Denbora zaharrenetan photeria printzeten zagoela dago broba Valius<sup>30</sup> Enperadorearen gobernia frairen egongiak zütianian legarrez kargatü ta heen koskariak ta gazteak güdarigei har litian. Theodorik ere goithü<sup>31</sup> zian latzki aphez bat gaztiga erazi zialakoz hilen harzilo bat ikerrerazi

Justinianek ardüra apezak zütianak honkiz akogatü,<sup>32</sup> zütian alabadere seküliaren akadoiarenpean jarri, kriminalian zibilian bezala ta arrazo<sup>33</sup> handian ezi photeria arintze soberanoetan ta xünen Jinkoarenetik eraitsirik<sup>34</sup> jende güzian, Elizakoetan ta mündükoetan orozbat aritzen. Zazpi edo zortzi ehün urthez Elizako gobernia izan zen halako, gerla zonbait zelarik aphezen ta irepediaren<sup>35</sup> artian, batak berzea garhaitü nahian Karles Handiak Elizan bakia ezarteko ta ber denboran menpea izan ladin hartan, aphezküpien pian aphezak jarri zütian, gerroztik ere Karles Bilhogabiak<sup>36</sup> adrakaia zonbaitez<sup>37</sup> aitaren obra ürrhentü.<sup>38</sup> Gerroztik bakiaz, Jinkori esker, gozatzen dügü, gauzak direlakoz beren lekhian.

---

<sup>30</sup> Valius: Erromako enperadorea.

<sup>31</sup> goithü: garaitu.

<sup>32</sup> akogatü (Lar.): ito.

<sup>33</sup> arrazo: arrazoi(n).

<sup>34</sup> eraitsirik: jaitsirik, jautsia.

<sup>35</sup> irepedia: populua.

<sup>36</sup> Karles Bilhogabia: Karlos Garbala, karolingatar enperadorea.

<sup>37</sup> adrakaia zonbaitez: arautegi batzuz.

<sup>38</sup> ürrhentü: bukatu, amaitu, burutu.

Printzian, zelakodi<sup>1</sup> ederrena da liberaltarzuna. Eztianik ere gütik berarena denik ta diana delarik iripediak alabadere iripediak dü maite den haren honaren emaile. Alexandra gazte zen bere erresuma ützirik, zianian gogatü Asian irapaiztü<sup>2</sup> berzerik, adiskider ari zelarik ahal güziak emaskidatzen,<sup>3</sup> batek galthro zereioan egin, zer zian beretzat begiratzen? Harek arrapostü, deus ez salbü esparantza ta zialakoz bere harmadari eman izigarri, zütian haiñ tinko arimak bere zorihonari estekatü<sup>4</sup> non nekez sinhets liratekianak obratürik hil beitzen loriaz ta ohorez akgatürik.

J. Coesar printze haren egiazko bezagaia zena banutz<sup>5</sup> Erruman sorthü jakintze ta obra harrigarritz bakian ta gerlan agitürik, erran daite<sup>6</sup> düdabagerik lürrian eztela izan gizon handiagorik. Gerla ta arrapatzea lagün doatza: Cœsarek bildü bazian aberatstarzün handirik, berraren handinahiari zütian emaiten zütilarik soldadoer emaskidatzen, zakialarik errepublikarentzat güda eraziten zütiano bere bitorentzat<sup>7</sup> Enberadore trituala<sup>8</sup> ziala hüillantzen.<sup>9</sup>

Adrian Enberadoria ere soiñezkoetaz, zaldien, soldadoen eretzian<sup>10</sup> handigaiaz<sup>11</sup> ta dohainetzaz khoroatzeko bidia zian ordokitü.<sup>12</sup> Alexandra Severak orozbat hirier ta hiritarrer honki eginez bihotz güziak zütian irapaizi ta behardüner dirua ziano ereiten aberatsak bere althe zütian jarten. Printzia denian emaile Jinkoaren eretzian düke franko othoite,<sup>13</sup> herioan ere franko nigar egile bakian dü bizia igaranen, hala zen Augusta enberadorea gobernatzten, honki eginez, bürü gaitzenak

<sup>1</sup> Printzian zelakodi: printzipeagan kalitate.

<sup>2</sup> irapaiztü: irabazi (Z).

<sup>3</sup> emaskidatzen: banatzen.

<sup>4</sup> zorihonari estekatü: fortunari lotu.

<sup>5</sup> bezagaia zena banutz: jatorriz zena arrunta.

<sup>6</sup> erran daite: esan liteke.

<sup>7</sup> bitorentzat: bitorientzat, garaipenentzat.

<sup>8</sup> trituala: titulura.

<sup>9</sup> ziala hüillantzen: zuela hurbiltzen.

<sup>10</sup> eretzian: buruz.

<sup>11</sup> handigaiaz: promozioaz.

<sup>12</sup> ordokitü: zelaitu, laundu.

<sup>13</sup> othoite: otoi egite.

zütian züzentzen, bihotz ñabarrak ematzen, megopia arrabuhinak hezten<sup>14</sup> hala bortxaz edo gogoz jendeen amorioa arrankatzen.

Heia hobe denez printzia gizon hon ta haren khidariak gaizto edo printzia gaizto ta khidariak hon? Hau da eskentza bat, aspaldikoa dagoena eta erabakia ihi eztiana.<sup>15</sup> Nere haitoala nintzate<sup>16</sup> azkenaren alte, ezi printziak ezinez berak, güziak egin, hanitz ützi beharrez, ekhidarrer<sup>17</sup> ta heek züzentzen ahal dütelarik printzearen okherkerietarik saldoa, gaizto badirade aldiz, gizonak gaizki habororik<sup>18</sup> die printziak beno honkirkik eginen.

Banaiterik<sup>19</sup> ezta printze gaiztoaren eta flakiaren artian. Karles IX Frantzian<sup>20</sup> zen heetarik, bera Aiñez Sorel<sup>21</sup> ederrian jarririk bere amorio osoa erresuma gal-dürük zagoan; Johannes Orleans-eko bastartak Konestable Richemontekila ta hau bi züberotar Ozain-eko semiak,<sup>22</sup> zütilarik ürgaizle, englesak Frantziaz huillan bürüzagıtü ziradianak, garhaitü zütian. Bi hüskaldün famatü heek bata Lahira berzia Piron<sup>23</sup> ziradian deitzen. Heen sortze etxiak azken ehüntzian oraiño beren izenetan zaudian. Jakilegoa hon baten medioz dütut batzü ülhünpetik<sup>24</sup> halako, bi herritarrak ekhiala ager eraziten.

Lois XIII osagarriz<sup>25</sup> flakia arima etzian aitak bezain bihoztoi ta gudari handi ta akadoigoan ezin tiesoagoa izan zen; bena Richelieu karedinala Frantziak ükhen dian ethorki azkarrena zian khidari lehena. Spainian orozbat Ferdinandok ta Isabelak Ximenez kardinala heen obra güzien langilia gerthaldi heetarik aski dügü ikhusten. Printzeek badiütie khidariak honki haitatzen, gauza handirik diela bethi obratzten. Khinper ere doatzanian khidarietan, printzetan beno falda dagoela bai.

---

<sup>14</sup> megopia arrabuhinak hezten: izpiritua gaitzak hezi egiten.

<sup>15</sup> ehi eztiana: erraz ez duena.

<sup>16</sup> haitoala nintzate: hautura/aukerara nindagoke.

<sup>17</sup> ekhidarre (Lar.): agintariei.

<sup>18</sup> habororik: gehiagorik.

<sup>19</sup> banaiterik (Lar.): differentziarik.

<sup>20</sup> Karles IX: Frantziako errege ahula, 1550-1574. Parisen San Bartolomeo eguneko protestanteen sarraskia utzi zuena egitera.

<sup>21</sup> Aiñez Sorel: Karlos VII. Frantziako erregearen ohaidea.

<sup>22</sup> Ozaineko semiak: Ozarain Zuberoako herri gaskoin bat da.

<sup>23</sup> Lahira ta Piron: Egiategi oker dago biak Gaskonian sortuak.

<sup>24</sup> ülhünpetik: ilunbetik.

<sup>25</sup> osagarriz: osasunez.

/ 345 / Ikhusirik dago Züberoan, ez printze bena aitoren seme soberano Nabarzin ta Bizkaien zena,<sup>26</sup> Frantzian Meritain deitzen zena, bera gizon phestia zelarik, kidaria gaiztoz ohoria, honak ta bizia batetan galerazi zereiena hantik jarraikia, printze hona gidari honak diana dela iripediari<sup>27</sup> hobe eziez printze gaiztoa gidari gaiztoak dütianak. Dakit erran zaharra dela «nolako nau-sia, halako mainatak» bena dakit ere bütüzagi honak eztirokialaz mithil gaistoa bere zerbützian ta ber arrazoaz daitekiala «Nausi gaistoak dükian nekez mis-kandi<sup>28</sup> lealik».

Alabadere Roboamen gerthaldiaz dakigü printze harek sinhetzi sobera zialakoz zerbützari gazte ta bütü arhinetan jarri bere erresumaren hirur laurdenak zütiala galdu. Ezagüt eztiro<sup>29</sup> printzeak bere zerbützari güziak, atünzte<sup>30</sup> halakoa balü gaistoen lekian honen haitoa ihiago<sup>31</sup> lizateke, bena printzea den gaisto edo hon khidariak dütü nahi hobenenak.

Zorigaitza iripediari haitoan dianian huts egiten ta dakianian berak baizik ez-tiala medika eskian ohoiñen ta maiñaten artian bortxaz baizik, bata berziaren ez salhatzia botxia bezain tieso<sup>32</sup> dü legia ezta arren espantagarri zer den erresuman igaraiten printziak ezpadaki, ezi khidari gaistoek iripediaren ta Printzeren artian die pareta bat jarri, nahiz daratürü zorrhotzenak xila lirokiana.<sup>33</sup>

Printzearen zelakodietarik laidogarriena<sup>34</sup> da erreligionia; zeren eta haren medioz hanitz beitateke<sup>35</sup> gauza gordenerik sekülan jakin dütükienak. Erreligionia da egiazki Printzearen ta iripediaren izkontze patoa, harez dago mündia lerden ta hari arrimatürik.

/ 347 / Printzek gauza honki gertiak beren obratzat dütie hartzen, gaitzak aldiiz beren gidarien bozkarrian jarten. Printzeak auzoekila<sup>36</sup> bakian diradianak iripedia boztaroan dago; gerlalat aldiiz enjogi direnian da eskeletzen, sarthü direnian hartin

<sup>26</sup> Nabarzin ta Bizkaien: Nabarzi Biarnon mugan, Bizkai Nafarroa Beherean.

<sup>27</sup> iripediari: populuari, herri xumeari.

<sup>28</sup> miskandi: mainat, morroin, mirabe.

<sup>29</sup> eztiro: eztezake.

<sup>30</sup> atünzte: intuizio, sen.

<sup>31</sup> haitoan ihiago: aukera/hautua errazago.

<sup>32</sup> botxia bezaiñ tieso: arkaitza, arroka haina trinko.

<sup>33</sup> xila lirokiana: zula lezakeana.

<sup>34</sup> zelakodietarik laidogarriena: kalitatetarik laudagarriena.

<sup>35</sup> hanitz beitateke: asko izango baitira.

<sup>36</sup> aizoekila: auzoekin.

jalk'ezin hantik nahi lükienian. Leziak dü haratko eraistia ihi,<sup>37</sup> jalkitia<sup>38</sup> aldiz neke. Argizagiak<sup>39</sup> düdü bere gora beherak, gerlak orozbat.

Printzen eretxian libürü laidorezaliak daude maithagarri bena beren ofizioari doia diradianak zereitze hügünigarri<sup>40</sup> bena ezi dieno heetan denbora auherki galten, Arkhimedari Sirakusaren galtzepenian borogatü ziana<sup>41</sup> zereie gertzen.<sup>42</sup>

Eztiroe gauza güziak ikhus entzün ta egin berzeren begiak, beharriak ta eskiak behar dütie. Iripedia maite badie heetan langile hobenenak iderenen dütie.<sup>43</sup> Haito<sup>44</sup> hortan dago haren eginbidia ta ez auzietan aharra txarretarik sorthüta hartakoz akadoiak zütialakoz Tiberak hügün, Senatian halako egiteko txipietan haren gogomena galthazaler etzela adibe,<sup>45</sup> Pretor ezetare konsuler zioan hantik gogoerazi senatorer, Enberadoraren ofizioa, arren, haiñen gaiñtik, ezi printzia giziberietara<sup>46</sup> eraisten dena, giziberiak düdü athetzen<sup>47</sup> ta berak xüxenezinez desaraudiak handik sortzen. Ütz beza arren khidarier nor bere ofizioaren lana, berzela bere photeria dago hilik ta bere manhiak osekia gaberik.<sup>48</sup>

Gordian Enberadoriak esker mila zioan bere Jinkoer Misistekoak erakatsi ze-reiolakoz<sup>49</sup> berak sekulan jakinen e'lütükianak hantik, Neronek salbü, bürüzagia egin zütian bethi bethüste handienian<sup>50</sup> ta gaizki eskolatü batenak bezala gorrotatü,<sup>51</sup> deslürerratü edo hilerazi arrazo handiareki<sup>52</sup> zian ükhen ordaria<sup>53</sup> ezi printzearen oikantzatik<sup>54</sup> da irepediaren zori hona edo gaitza sortzen. Adrian Enberadoriak egiteko handietan jende zaharrenak zütian biltzen ta bederakari eginkaia<sup>55</sup> aipaturik botz haboroena zian jarraikiten.

---

<sup>37</sup> eraistia ihi: jaistea erraz.

<sup>38</sup> jalkitia: irteztea, ateratzea.

<sup>39</sup> argizagiak: hilargiak.

<sup>40</sup> zereitze hügünigarri: zaizkiete higuingarri, gorrotagarri.

<sup>41</sup> borogatü: frogatu.

<sup>42</sup> zereie gertzen: zaiete gertatzen.

<sup>43</sup> iderenen dütie: ediren/idoroko dituzte.

<sup>44</sup> haito: hautu, aukera.

<sup>45</sup> adibe: adimenpeko, gogoan hartzeko.

<sup>46</sup> giziberietara: txikikerietzaz.

<sup>47</sup> athetzen: metatzen.

<sup>48</sup> osekia gaberik: famarik gabe.

<sup>49</sup> Misistekoak erakhatsi zereiolakoz: Misistekoak erekatsi zizkiolako.

<sup>50</sup> bethüste handienian: begirune handienean.

<sup>51</sup> gorrotatü: higuindu.

<sup>52</sup> arrazo handireki: arrazoin handirekin.

<sup>53</sup> ordaria: ordainezkoa.

<sup>54</sup> oikantzatik: ohituratik.

<sup>55</sup> bederakari: banakari, bakoitzari.

Printze harek zioan dagoetzenak bethi azkarrenak gertzen. Ezta erresumarak erreljione bagerik manteni daitekenik, ezetare printzerik harez baizik bere photerea balierazi lirokianik.<sup>56</sup> Erromanek haiñ honki zakien egia haren indarra non dierriak bortxaz beno erreligioniaz beitzütien menpetzen. Sekulan iripedia ezta haiñ menpe nola printze debotoari, zeren eta halako denian printzia, orozbat beita iripedia hala bakiaren adiskide bere eginbideari ere bethi lealki da enjogi Alexandra Severa zen mündü güzian maithatia, zeren eta zelarik legen gordoztari<sup>57</sup> latzena, hontarzuna zian haiñ handi, non jagoitik ezpeitzen<sup>58</sup> abiatü desnahikiderik haren eretzian<sup>59</sup> jende güzier ehti, arraitsü, ta honkiro agertzen zen. Egünik ere etzen bizi honkirik egin bagerik.

Iripidiaren amorioa bere printzearentzat da haiñ bero non haren gaistotarzünen erdia ezpeiti sinhestsiren;<sup>60</sup> honkiaz aldiz dialarik den beno milatan beitu erranen. Maithatia arren ezpada printzia dateke haren falda. Baldino Panicaillan haiñbeste amorio ta fidantza zian bere harmadak non soldadoek haren khorpitza<sup>61</sup> balsamatürük beitzien orotarat eramaiten ta bizirik zenian bezala zereielarik errespetü ekarten, haren izenian ziradian gudatzen. Türkak ere ihesi Eskandeberken banderek, bere büria baliz bezala zütian jarri. Tibera zahartürük ezinez bera ari, bere famak zioan, ziala zerbützari lealena. Nervak ikuhsirik bere fama galtzera zabilala berek, arützitü<sup>62</sup> zian erresuma zakialakoz iripidiaren printziaren eretzian amorioa zagoela faman. Diaz Cid aitoren seme gerlan, hüskaldün famatienna<sup>63</sup> moroak hanitzetan garhaitü zütiana hilik zaldian estekatürük<sup>64</sup> moroak Valenza hüllanian gudatü ta osoki garhaitü zütian, haren harmadak. Cid izena hitz arabia da moroek emana zelakoz gerlan ostikarra.

Clauda enberadoriak printze honen izenak zioan, ezkiribüz jar laitekiala erhaztün baten üngürian «erregen loria irepidiaren odolian zagoela ta hareki zela gütitzen edo emendatzen», zioan ere «zaia lüzenenak ziala gordatzen falda handiena».

<sup>56</sup> lirokianik: kezakeanik.

<sup>57</sup> legen gordoztari: lehen defentsatzale, lehen babesle.

<sup>58</sup> non jagoitik ezpeitzen non handik goiti ez zelako.

<sup>59</sup> desnahikiderik haren eretzian: harengan nahikunderik ez zutenik.

<sup>60</sup> ezpeitu sinhetsiren: ezpaitu sinistuko.

<sup>61</sup> khorpitza: gorpua.

<sup>62</sup> arützitü: utzi.

<sup>63</sup> El Cid hüskaldün famatienna: Arlanzon ibarra, orduan, euskalduna zen.

<sup>64</sup> estekatürük: loturik.

Printze hanitzek bentüratz gauza handirik die ikhasi. Frantzisko I. Frantziako errege handienetarik bata, oihan handi batetan ihizlari herratürük, gaia inkhatz egile baten keholan igaran<sup>65</sup> behartürük, erregiaren eginbidiaz jagoitik entzün etzütianak zereitzon gizon eskeliak erakatsi ta obratan zütiennak jarri. Henrike IV. zabilan ere gaiaz Pariseko kharriketan beha<sup>66</sup> langile botiketan zer zien harez erraiten, zakialakoz hantik egia zereiola jinen.<sup>67</sup> Felipe Mazedoniako erregia soinekoak zütian ber ofizio iripediarenaz ardüra jaunzten. Antonin Enberadoriak ere alemanenak her<sup>68</sup> izigari laket zena zian zonbait aldiz ere egarten.<sup>69</sup>

Printze honak dirade lürrian Jinko hilgarriak, halako dirade egiazki diradianian zeluko<sup>70</sup> legeen jarraikari ta beren iripediaren maithazale, dienian aizo honer<sup>71</sup> so-khorri emaiten. Bortxan baizik gerlarik eztenian phizten ta bere herriren abantaillaren gatik, bena ez sekulan lealenenak baizik. Egin beza lege nahi bezaiñ beste, beren gerthalidetzaz honki gehiago heetzaz deno da obratuko. Hartakoz «printziak nahi lükianak iripedia nolako, ager bedi bera holako». Den erreligionian, den oitura honetan, ontzarte zühürtian<sup>72</sup> jarri jende güzia aingürütarik datke aberatstürük. Joana Nafarroako ereginak, biarnesak zütian kalbinistatü ta ziradian güziak Luis XIII. pian katolikatü zelakoz erregia net halako, zelako ere aita handia<sup>73</sup> halakatu.<sup>74</sup>

Printziak diradialakoz gizon faldari, diradeneri hartakoz ere bizi diradiano heen biziarenaren kondairarik ezta agertzen, dialakoz egiak bekhaitza zorroizten ta errana dena, «printziaren errazita<sup>75</sup> delakoz herioaren estafeta» gurtatiek,<sup>76</sup> Jinkoak bezala ohore güziak nahi dütie berentzat. Germanicus garhaitü alemanak zütianian, ohore güzia zian Tiberari dagokela ta deusere ez beretzat begiratü, izkirietatik jarraikiaz ageri den basa garaitzaren zolan ezarri zianian Tibera Coesaren harmadak Rhinaren ta Elbareni artian, dierriak garhaitürük oroikarri hau Marti jarri zen. Alabadere khozütürük<sup>77</sup> zen hil.

---

<sup>65</sup> gaia inkatzegile baten keholan igaran: gaua ikatzegile baten ke etxolan igaro.

<sup>66</sup> kharriketan beha: kaleetan adi/erne.

<sup>67</sup> zereiola jinen: zitzaiola etorriko.

<sup>68</sup> heer: haiei.

<sup>69</sup> egarten: jasaten.

<sup>70</sup> zeluko: zeruko.

<sup>71</sup> dienian aizo honer: dutenean auzo onei.

<sup>72</sup> ontzarte zühürtian: zuhurtiazko bertutean.

<sup>73</sup> aita handia (galizismoa): aitaita, aitonan.

<sup>74</sup> dateke: izango da.

<sup>75</sup> errazita: haserrea.

<sup>76</sup> gurtatiek: ohoratuek.

<sup>77</sup> khozütürük: kutsaturik.

Klitus zialakoz Alexandrari erran bere handitarzünaz ta balorietzaz eskerra ziala Mazedoniarer haiñ gaitz elhe heek izan zereitzon<sup>78</sup> non berak erho beitzian.<sup>79</sup> Agripa zen egiazki harmetan khidari handia bena bere zütialakoz bethi Augustaren zorihonari, bere bitoria güziak zütian eskentzen ta hala printze haren adiskidegoa zian osoki irapaizi. Agrikola ere Corialisen eretzian zelarik harmadaren khidari lehena, haren izenian baizik etzen gudatzen ezetare bitoriaz gozatzen; geroztik dierri khidari güziek eztirade beren printzeer baizik, halako lekhian haren harmadak garhaitü diala etsaiak, halako hirian edo halako bitorien ohoria eman.

Printzek egar eztiroie<sup>80</sup> jendiaren aitzinian konseiluak. Tibera halako kasian elhe gogorrez ixilerazi zian Junius Gallio.<sup>81</sup> Trajan etsai zonbaitek lotsatü ta samurtu nahiz Sura, haren biziaren kontra obratzen zela otsez<sup>82</sup> abiatü zen bera Surren etxera aúharitera.<sup>83</sup>

Adrian Enberadoriala soldadoen faboriaz heltürük bethi hoiñez zabilan harmandaren lehena, berekila zütian soinezkoak ta harmak, zaldiak ta mandoak, jatekoak ta ohatzeakoak, apairiak<sup>84</sup> soldado hobenenak beno eztütian, erien sokhorrian bethi lehena, baietare enberadore bakhoitza<sup>85</sup> errumaner erresuma, hüillan<sup>86</sup> lür güzia daukidatzen<sup>87</sup> ziana, berak ta haboroena hoiñez zabiltzalarik ikhustatü ziana. Sortzepenaz español zen, printze güzier gerthaldi eman daite,<sup>88</sup> errumanek halakorik güti ükhen sortü dütie.

<sup>78</sup> elhe heek izan zereitzon: hitz haiiek izan zizkion.

<sup>79</sup> erho beitzian: hil baitzuen.

<sup>80</sup> egar eztiroie: jasan ez diote.

<sup>81</sup> Junius Gallio: lehen mendean erromatar legegizona S. Paulo epaitu nahi izan ez zuena.

<sup>82</sup> otsez: alegia.

<sup>83</sup> auharitera: afaltzera.

<sup>84</sup> apairiak: janaldiak.

<sup>85</sup> bakhoitza: bakarra.

<sup>86</sup> erresuma, hüillan: erreinua, hurbil.

<sup>87</sup> daukidatzen: bisitatzen.

<sup>88</sup> gerthaldi eman daite: etsenplu/adibide eman daiteke.

## Ordainetzaz

Ordaiña da berdüthiaren akülia, da iripedia hontzen diana, dianak ere erakus-ten mereximentiak faboritzen diano galgiroak dütiala gastigatzen.<sup>1</sup> Gure erreli-jioniaren lekhü ederrena da, datekiala batatik ta berzetik gure animen doiala<sup>2</sup> akadoi azkenean sekülakoz iraiñen diradianak.<sup>3</sup>

Ordaiña da gauza hain izakoia<sup>4</sup> non beraz berraren mintzo dena. Gauloisek<sup>5</sup> errumarraren hartzeko phüntian antzerek beren marraketzaz zütielakoz soldadoak iratzarri ta Capitolia salbatü; irepediaren legez zen erabaki erresumaren khostuz zükiela hilartian hazkürria. Hor zahar bat<sup>6</sup> ere zialakoz tenploaren ohoiñak sal-hatü, ber legiaz zen gozatü, zonbat berze holako animaletarik bürüzagier bizia be-giratürük edo berze zerbützü señalarri eginik. Mainat<sup>7</sup> hobenenak bezala direnak zahartgoan honki errekeitatürük<sup>8</sup> hil. Zonbat zamari<sup>9</sup> beren bürüzagiak gerlan etsaiarenaz garhaitürük herioari arrankatürük,<sup>10</sup> beren estalbietan olhoa jan ezinez, ogiz ta ardoz bazkatü izan diradianak ta hil ziradianian heen üdüriala zurezko zaldiak heen larriaz estalirik ohorezki begiratiak.<sup>11</sup>

Tratamendü halakoak exerzitü diradianian abereen etetzian, gizonak bere zer-bützien laitekia ordain bagerik? Bai balima ezetare egingei dianetan, ezi zaldi za-harra zerralkiaz ta frenoaz lot bada bere zahargoan leal da gizona pausiaz<sup>12</sup> dadin goza zerbütza eztirokenian<sup>13</sup> ta ohore dian hiltzian bere bizian bezala. Errumenek errekeitü hartara etzien faldarik brobak daude<sup>14</sup> Horatius Codexian etsaien kontra

---

<sup>1</sup> galgiroak dütiala gastigatzen: kalteak dituela zigortzen.

<sup>2</sup> doiala: neurria.

<sup>3</sup> iraiñen diradianak: iraungo dutenak.

<sup>4</sup> izakoia: naturala.

<sup>5</sup> gaulois: galo, galiar.

<sup>6</sup> hor zahar bat: zakur zahar bat.

<sup>7</sup> Mainat: zerbitzari, mirabe.

<sup>8</sup> honki errekeitatürük: ongi zaindurik.

<sup>9</sup> zonbat zamari: zenbat zaldi.

<sup>10</sup> herioari arrankatürük: herioari ateraturik.

<sup>11</sup> begiratiak: zainduak, gordeak.

<sup>12</sup> gizona pausiaz: gizona atsedenaz.

<sup>13</sup> zerbütza eztirokenian: zerbitza ez dezakenean.

<sup>14</sup> azpian ezabatua *dagotze*.

gudatu denian hiriko zübian, Mucius Scævolak zialakoz Porsena hiriaren setiotik gibelerazi. Emazteen ohore tenploan / 351 /, Coriolanaren amak bere semia Errumako kalthetarik gibel ethorerazi zialakoz.

Kabale langiliari dagoan bezala hazkurreti hona, orozbat gizonari bere zerbützian dago, ordaiña. Aidürü hartan<sup>15</sup> ari da, bakhoizki gerlan. Bi haritz adarrez khoroa bat soldado bihoztoiener zereitzen bürian jarten, etsaien bülüsteak<sup>16</sup> zereitzenian bertüziten.<sup>17</sup> Anibalek soldadoer güdalat zabiltzanian hitzemanez zütian bihoztoitzen ta hitza zereien etxekiten.<sup>18</sup> Titus Gracchus karthaginesen kontra eraunsten zenian<sup>19</sup> etsai bütükal diuru soma bat zian emaiten edo motzlariari liberdadia üzten.

Arminius<sup>20</sup> alemanen khidari famatiak anaie bat zian Germanicusen hamardan; haren ikuskatü nahian joaitea zian errumener galdo egin.

Flavius<sup>21</sup> zen deitzen, bathü bezain sarri<sup>22</sup> heia nola begi bat zian galdu? Harek halako lekhian ta halako güdan zer ordaiñ zian ükhen? Soldata zereitzela emendatü ta alezlan bat eman,<sup>23</sup> khoroa ere gudarier emazkidatzen zenetarik bata ere ziala ükhen. Heek ziradian begi galdiaren ordaria Germanicusen pian. Scipion Afrikan aldiz, Scipioren denporan berze ordaiñik etzen salbü etsaier atzamanak baloriaren doiala emaiten ziradianak.

Bena dügün jar esperantza ezpadago ordaiñan ta lankhei güzietan sentha-gaillarik eztügüla ikerasiko gizonen obretarik sobera ardüra esperantza khea bezala aboatürik ardüra ere zerbützü handienak eskerbeltza lagüntürk, jakile Scipion herriz kanpo hil zena. Cristoffle Colomb Indiak ta Amerika iderenik españóler herri aberatsik, bester erakhuts e'lezan ber bidea, heen erregiak hilerazi ziana.

Ordaiñen feitian<sup>24</sup> ederrenak dirade fontsian apürrenak, arhinak baliorik gabiak, izaita batere eztienak gure gogoaren barnen zerbait uste ta kanpoan fan-

---

<sup>15</sup> aidürü hartan: igurikipen hartan, itxoite hartan.

<sup>16</sup> bülüsteak: bilaizteak, bilusteak.

<sup>17</sup> zereitzenian bertüziten: zitzaienean baimentzen?

<sup>18</sup> zereien etxekiten: hitzari eusten, hitza atxikitzen.

<sup>19</sup> eraunsten zenian: jarduten zuanean.

<sup>20</sup> Arminius: (-18, +25) edo Herman germaniar generalak, Varusen erromatar legioneak garaitu zituenak 9. urtean.

<sup>21</sup> Flavius: Titus Flavius, (39-81) Erroma edertu zuen enperadorea.

<sup>22</sup> bathü bezain sarri: topatu bezain laister.

<sup>23</sup> alezlan bat eman: zaldi alesan bat eman.

<sup>24</sup> feitian: efektuan.

tomak direnak<sup>25</sup> khürütze batenerekila<sup>26</sup> auna bat<sup>27</sup> zerrenda gorri edo urdin zonbait aldiz gobernü ahül bat gobernadoriari bere hona jan eraziten dereioana ta bere ondokoer pergamin athe bat<sup>28</sup> bazik üzten eztiana.

Hartakoz zahar errana dago gerlako zerbützia bi jente suerter irizten eztela<sup>29</sup> aberastarzünian edo eskelegoan daudener: lehener deirelakoz zerbütza herria ta erregia dohaiñ, berzer aldiz deus gal eztiroieno zerbaiten irapaiztian direlakoz inkaratzten ta dremenden<sup>30</sup> ordaiñaren esparantza denian egiatik, goldenabarrari loth beitaude,<sup>31</sup> tieso hil artian.

Zerrenden gatik aberatsak dirade ari, berziak khürütze arhinarentzat hogei ta bost urthe zerbütziarekin dieno phezü bizkarrian denbora llabüragoan aldiz aberatsa zerrendak dü altxatü bera dabilalakoz ordaiñen üthürrila<sup>32</sup> ta han ezpadü thipil erraiten<sup>33</sup> gerlan beno hobeki lizatekiala bere jauregian, beitü Ekidariari<sup>34</sup> adiaraziten hala ere aberatsek dielakoz harmada edertzen, dieno eskelek iratzalten<sup>35</sup> txipiago. Ordaiñen athia gudarientzat har beno mehiago, aberatser aunaz doa zerrenda, berzer aldiz emeki emeki hel eztadila.

Bena gudaria iripediaren ezagütziala ez fida, ezagütiak eztialakoz ordaririk iripedian eztü egongiarik amriotik da ezagützia sortzen ta iripedia dagoeno amorio gaberek düta erranen<sup>36</sup> kabalia beno sordeitz<sup>37</sup> dela? Ezi heetan ukha eztaite ezagütze handirik badela; edo hobeki mintza nadin egiazkoa han dagoela ta heetarik dügüla, ardüra, gaizki merexitürik ordaiñ segürrenak baietare jarraikienak.

---

<sup>25</sup> fantomak: fantasmak, ireltxoak.

<sup>26</sup> batenerekila: batenekin.

<sup>27</sup> auna bat: auna bat luze, beso bat/ukondo bat luze.

<sup>28</sup> athe bat: meta bat.

<sup>29</sup> irizten eztela: heltzen ez dela.

<sup>30</sup> inkaratzten ta dremenden/...: keiñatu, ta den gutienik.

<sup>31</sup> loth beitaude: (azpian *loth beitagotze ezabatua*).

<sup>32</sup> ordaiñen üthürrila: errekonpentsen iturrira.

<sup>33</sup> thipil erraiten: garbiki esaten.

<sup>34</sup> ekidariari: kreadoreari.

<sup>35</sup> iratzalten: izalarazten.

<sup>36</sup> düta erranen: esango ote dut.

<sup>37</sup> kabalia beno sordeitz: aberea baino txarrago.

Erreligionia da konzentziaren gurazkongarri<sup>1</sup> ihorek<sup>2</sup> hartan züzenik eztiana, ezetare talazkida<sup>3</sup> ahal lirokiana. Bortxaz edo amorioz hel ahal daite animal basena, bena erreligione okherraren xüxentzia da Jinkoaren obra; haren manhüz israelitek nozpait gudatu bazien Kananean odolgiroak, geroztik ihori holako photererik eztü eman ta printze batzuek beren gain halako lankeian sartü, züzenik bagerik, gauza sagratü ta santian gaitz güziak zereiela gerthaldi berri dago brobatürük<sup>4</sup> ezi Karles V. enberadoriak Alemaniako gogarpetariak<sup>5</sup> zütiano kaltarraiten<sup>6</sup> Henrike II Frantziako erregia sokhorri zien othoitü, ta haren Alemaniari liberdadia küperatü.<sup>7</sup>

Arrazo berian Lois XIII Gustaf Adolf Suedako erregiari jündadürük biek gogarpetien etsaia zien garhaitü: halako obrak eztirade Jinkoarenak baizik. Etxian Enberadoriak zelüko manhürük gudukatzeko alemanak, arren heen bakirea etsaiai frantsesak ta suedoak zütian jarri. Luis XIV. zütialakoz erreligionian bere iripediak eskerniatü, gerla tristetan zen sartü, milion bat gizon Frantziatik desterratiu ta deus honik obratü, lana etzelakoz Jinkoari agrada.

Eztait<sup>8</sup> arrazoan daudenez hotxki bizi behar giradiala gure erreligionian eztireneki, ezi güziak girade Adamen seme ta aurhide, erreligionen banaitiak askazigoa desegin eztiro,<sup>9</sup> uste badüt nere erreligionia anglesarena beno hobe dela, haren go-goa / 354 / khinperra dago. Enian<sup>10</sup> ezta legerik harena dezadan guda, berian da hain gizon pherestü nola ni enian, ni enian beno anglesa berian lealago.

Jinkoak eztianez nahi dierri güziek nork bere gisala lezen zerbütza, bere legen arauiala nork daki? Ta sinhestian amorioan ta garbaian dagoela erreligioniaren

<sup>1</sup> gurazkongarri (Lar.): ondarezko, patrimoniozko.

<sup>2</sup> ihorek: iñork.

<sup>3</sup> talazkida (Lar.): gogo emate.

<sup>4</sup> brobatürük: probaturik.

<sup>5</sup> Alemaniako gogarpetariak: Alemaniako menpetuak?

<sup>6</sup> kaltarraiten (Lar.): erasotzen, atakatzen.

<sup>7</sup> küperatü: eskuratu.

<sup>8</sup> Eztait: eztakit eta zalantzhan nago.

<sup>9</sup> eztiro: ez dezake.

<sup>10</sup> enian: ene erreligionean, nire erlijionean.

igaburra nork eztaki. Arren khirstia hobenena da, eginbide hartan xüxenenik da-bilana ta gogoan badüt ni nizala bidetik herratürük nabilana.

Jenderik ezta aiten erreligionia etzereienik hobenena, hartakoz berri bataren aipamenak ohiltzen eztiana.<sup>11</sup> Gauza zaharretan dügü fedia haiñ tinko non sinhets ezpeikiniro gure aitasoak ibili direla bide okherrian hartako indianoak zioan na-hiago zela bere aitekila<sup>12</sup> infernian, eziez khristien lagün pharadüsiaren espartzan. Halako da gizonaren gogomena ustian zaharrago delakoz bere erreligionia den hartakoz hobiago, hala ere nekez goga daite jendia erreligiona berriala, bagerik badago.

Erreligiona egiazkoak berzer eztü mesperetxürük ekhartan, bena bai heek errespetü eskentzen. Errege David bethi bizi izan zen Hiram Tir-eko<sup>13</sup> erregiaren adis-kide, Salomon orozbat Jerusalemeko tenpliaren eragiteko, Seleukos<sup>14</sup> Asiako erregiak hanko sakrifizioen gastiak bere khostüz ziradian egiten.

Berze errege hanitzek ere oberta izigarriak zütien templo hari igorraiten, alabade-pagano ziradian güziak. Gregoire XIIIk sokhorri eman zian frisoer Espaiñako erregeren kontra, etziradilarik Aita Santiar menpe. Egün oroz dügü printziak erreligiona banaitietan bizi direnak algarri sokhorri emaiten.

Constança Julian apostata, Heraclius<sup>15</sup> Constantin IV ta Vgerrena menpean, khirstia franko zütien menpe lealenak. Theodorik, Alarik ta berze wandalen erregiak orozbat batzuek ziradilarik pagano berziak arrien / 355 / erreligiona egiazkoaren etsai odolkiroenak ziradian.

Erreligioniaren astakürian zonbat gerla, hari arrotz ziradianak ta kapa haren pian zonbat latzeria ta herio mündian. Zonbat eliza errerik ta zonbat iripedi es-keletürük. Ezta erreligionerik gerla manhatzen dianik; güziek bakia die pheredikatzen, phüntü hartan diradilarik bizitzia, zeren erreligionia heen aharren arrazorik eztauke.<sup>16</sup>

Nor berian dagoeno, berziak berian beza ütz bizitzera, faltsü heen iretziak iza-nik ere, hobetzeko Jinkoak printzer eztü eman photeria, bena bai manhia beren hitzaren tieso begiratzia ta beren artian dütien balorakider leal izaitia; hau lizate

---

<sup>11</sup> ohiltzen eztiana: atera eragiten ez duena.

<sup>12</sup> aitekila: asabekin.

<sup>13</sup> Hiram Tireko: -969 Tyroko errege, nahiz paganoa izan, Salomon temploaren eraiki-tzen lagundu eta Tyroko salerospena garatu.

<sup>14</sup> Seleukos: (-325,-280) mazedoniar erregeak ez zuen Alexandroren imperio osoaren es-kuratzea ardietsi.

<sup>15</sup> Heraclius: (575-641) Enperadorea persiarak garaitu baina leku sainduak galdu.

<sup>16</sup> heen aharren arrazorik eztauke: heen eztabaideen arrazoinik ez dagoke.

egiazki heen erreligionia ta dierrienarena, ihoren eskerniatzia ezi nor bera da bere konzentziaren nausita Jinkoa berbera haren akadoi bakoitza. Jinkoak zian, Kain seíñalatü zianian eskümükätü<sup>17</sup> bathüren zütienak erho e'lezen<sup>18</sup> gosez ere hil e'ladin, lür franko eman lantzeko ta hiri ekidatzeko<sup>19</sup> hala nahi zian.

Jinkoak erreljione banaitiaren gatik, bizian ezetare honetan photererik etziala emaiten inhori da ageri, hartakoz ere Abrahamek Abimaleki balleraki<sup>20</sup> zien egin algarreki Isakek ta ber Abimelek Jinkoaren izenian ere zin egin gudarik etziekiela sekulan ta Galaad mENDIA zedarri<sup>21</sup> zatekiala. Jakobek ta Labanek ekideitzatü<sup>22</sup> zien.

Israelitak bakian bethi berze dierrrikila<sup>23</sup> izan ziradian salbü Kananeanekila Jinkoak zütialakoz eskümükätü, bena orai eskümükü halakorik iripedier eztelakoz sistatzen apostoliak dio «eskümükätü, etsai bezala har eztezagün, gaitzik egin eztezagün, bena bai honki ahalena karidadearen doiala egin bedi» hau erakhusten dereikünak.

/ 356 / Dezan nork berak jarraik zeliak<sup>24</sup> eman dereion bütübidia ezi hau da gizonaren eginbidian adra xü xenena<sup>25</sup> ta halako da apostoliren irakastaldia. Kanon 'khaldiz pharadüsiko borthak<sup>26</sup> eztirade phorrokatzten ezetare heetan jendia bortxaz sar eraziten.

Dezagün arren jüdiaoa, calvinista, lütheriana ütz beren sinhestetan katholikak bezain khristiak dirade bi azkenak halako Jinkoak nahi ezpaliütü, hitz bakhotx nahi bezala lütüke. Jüdioak ta türkak<sup>27</sup> beren erreligionen gozomen osoan düütü üzten ta ez khristiarer israelitek bezain kananeanen eretzian aritzez<sup>28</sup> ez halako manhürik heen kontra egin.

<sup>17</sup> eskümükätü: eskomulgatu.

<sup>18</sup> bathüren zütienak erho e'lezen: topatuko zutenek hil e'lezaten.

<sup>19</sup> hiri ekidatzeko: hiri sortzeko.

<sup>20</sup> Abimelek (hebreoz errege seme) Abrahamen anderea bahitu zuen, ustez eta haren alaba zen. (balleraki = hitzarmen).

<sup>21</sup> zedarri: mugarri.

<sup>22</sup> ekideitzatü: egiaztatu.

<sup>23</sup> berze dierriekila: beste nazionekin.

<sup>24</sup> zeliak: zeruak.

<sup>25</sup> adra xü xenena: arau zuzenena.

<sup>26</sup> pharadüsiko borthak: paradisuko ateak.

<sup>27</sup> türkak: musulmanak.

<sup>28</sup> kananeanen eretzian aritzez: kananeandarrekin jokatuz.

Jinko honaren obra da heregen aldondatzia<sup>29</sup> ta heen salbazionia errekeitatzia,<sup>30</sup> khristienena gerthaldi honez heir bidia xahatzia<sup>31</sup> berzela hel daite Sigismont enberadoreari heltü zereioana, khiristi hüillan güziak<sup>32</sup> bohemien kontra harmatürik akhasatü beitzien erresumatifak ta haren primü bakhaitza Ladislas bizi llabüragozkitü.

Orozbat gerthü zen Karles V enberadoreari Alemaniako hereger lüzez gerla eginik, bakia heen nahiala egitera behartü zen<sup>33</sup> bere semia enberadore ezintü müstürüts<sup>34</sup> ta dolamenez abartürik, konbentü batetan sarthü hiltzera.<sup>35</sup>

Felipe II. haren semiak aitaren herexak<sup>36</sup> nahian jarraiki, herri belgikak zütian pharteak galdu, ta berziaren begirama Austrriako askazier eman behartü. Gure Frantzian obra halakoetara Karles IX ta Henrike III nahian atrebitü zonbat ta zonbat zorigaitzetan etzien bizia akabi Mareskal Montlucek<sup>37</sup> bere pharte haiñbeste kalbinista ta heen ministro ürkaerazirik zer protxu dü erreligioniarik küperatü,<sup>38</sup> batere Valois, Austriasen Kastelaren ezetare Luisarenetik ezetare Montlucenetik üzten bakhaitza ez egon. / 357 / Egiptako erregek liberdade osoa iripidiari zien üzten; batzuk zezena, berzek horak, berzek krokodila zien gurtatzen. Zonbaitek die erran halako sofrimentian ta jenden berhez üzti hobekien garhaiteko zela arrazoa.

Beharrak dü bethi erreligioniak bardintü Josue Jinkoaren iripediaren izenian Gabaonekila<sup>39</sup> jüntatü zen ziradilarik pagano ta heer amorheanen kontra<sup>40</sup> sokhorri eman. Azak ere Judeako erregiak Jinkoari leal zenak, errege Benadabekis zerbitzatü zerion pagano zelarik. Orozbat Akhasek Judeako erregiak asirianak sirianen kontra zütian deithü. Menahemek ere israeliten erregia paktua, Paul asirianen erregiareki, zian egin, diharü ere eman. Makabeak ere errumenekin ballerakin etziroena egin? Dezagün arren aithor beharrak erreligiona banaitenak dütila iz-

---

<sup>29</sup> heregen aldondatzia: heresen konbertitzea.

<sup>30</sup> errekeitatzia: arduratzea.

<sup>31</sup> xahatzia: garbitzea.

<sup>32</sup> khiristi hüillan güziak: kristau ia guziak.

<sup>33</sup> zen: (azpian *beitzen* ezabatua).

<sup>34</sup> müstürüts: ahoa bete haginekin.

<sup>35</sup> hiltzera: (azpian *beitzen* ezabatua).

<sup>36</sup> herexak: aztarnak.

<sup>37</sup> Montluc: (Blaise de Lasseran de Monluc) (1502-1575). Oso zatarra protestanteen ihi-zean. Ez zen Euskal herrian sortu.

<sup>38</sup> küperatü: eskuratu.

<sup>39</sup> Josue ta Gabaon: beren artean egin hitzarmenak Saulek Kanaan herria garaitu.

<sup>40</sup> amorhenak: Mesopotamian II milenioan Akkaden buru. Amurrabi erregea izan os-petsuena haren lege taulak gorde direlako.

kontzen ta gaistoari eskia bethi eman izan dela sordeitzaren kontra,<sup>41</sup> berriz ere sordeitzari sokhorri gaistoa gert'eztadin handiegi.

Printzen tratietan erreligionia dago bethi berhez heen politikak haren eztianian beharrik. Gizonaren lehen ballerakina da Jinkoareki bapteian deiolakoz hitzeman zereiola leal izanen. Kalbinistek, lutheranuek, griegoek ber alarazdean<sup>42</sup> baptheiaz dirade sartzen, hartara direlakoz güziak khristian, dirade anaie bederak dü bere jaiera<sup>43</sup> bera heen banaitiak ogenik khiristi izenari egin eztiro,<sup>44</sup> zeren eta sagramendiaren mugidalda<sup>45</sup> gizonaren photeriak ainbeste ezpeitiro,<sup>46</sup> ezetare jaiera batek berziaren khinper<sup>47</sup> züzen habororik haren honkian<sup>48</sup> edo gaitzian erraiteko eziez egiten diradian orenetan.

Jesus Kristen izena da khristianenak, haren sektariekin zonbait aldiz iharrausidiena,<sup>49</sup> bera aize'khaldier<sup>50</sup> bethi xütik egon da. Printzek ere zonbait aldiz beren onkarriak borraska heetan nahasi zütielakoz, gerla erreligionekoak dirade sorthü beren artian, nahiz nork bere sekta edo fabori ziana balia erazi; bera beren abantailantzat baizik eztiradiano ari iripediak ere sinhestian erreligioniaren gatik ziradiala gudatzen hartakoz gerla suerte hau da bethi gaitzena izanik ühaitz odolak<sup>51</sup> ixurerazi, dierriak eskeletü ta erreligioniak irapaizi, irapaizi beno haboro<sup>52</sup> galdu.

Ordian galtzena zabilalakoz ta erresuma erreligione gabe zelakoz leziren bazterrian, entzüten ziradian jende zühurren heiagorak<sup>53</sup> Jinkoaren erresuma mantenitü behar zela ta erreligionia segürtatü dialakoz, batak berzia betiraunden<sup>54</sup> delakoz ere iripediaren eretzian, dena arima khorpitzian.

Erreligioniak eztütü maite jende ephelak, bero nahi düti bere adiskidiak, nahi beita arrena garra bihotzian dienak, ezi epheletik hotziala haiñ mehe da banaitia

<sup>41</sup> sordeitzaren kontra: txarragoaren kontra.

<sup>42</sup> alarazdean: ausartzian, erabakitasunean.

<sup>43</sup> jaiera: joera.

<sup>44</sup> eztiro: ez dezake.

<sup>45</sup> mugidalda: eragina.

<sup>46</sup> ezpeitiro: ezpaidezake.

<sup>47</sup> berziaren khinper: bestaren alderantziz.

<sup>48</sup> habororik haren honkia: gehiago haren ongian.

<sup>49</sup> iharrausi: inarrosi, astindu dutena.

<sup>50</sup> aize'khaldier: haize ukaldiei.

<sup>51</sup> ühaitz odolak: basaibai odolak.

<sup>52</sup> irapaizi beno haboro: irabazi baino gehiago.

<sup>53</sup> heiagorak: garrisak.

<sup>54</sup> betiraunden: eternitatean.

non erran ahal belaite<sup>55</sup> diradiala ber gauza. Bihotz beroek baizik beha eztaude noiz datekian bakiaren ta akadoiaren<sup>56</sup> besarka erreligionia alageratzen diana ta izigarri Jinkoari laket dena.

Ebanjelioa pheredikatu etzeno mila erreligiona faltsük estaltzen zien lurre eru-manek zienaren gatik Espaiñian, Frantzian ezetare berze lekhietan gerlarik eztü egin izanik ere heekilan banaite handirik, bena nonbait nausitzen ziradiankal<sup>57</sup> hanko Jinkoak Errumarat iripedien<sup>58</sup> / 358 / lealtarzünaren berme zütien eramaiten ta han berenekilan izkontzen.<sup>59</sup>

Bena erreligione khristiana agertü bezain sarri faltsü güziak batetan hari etsaitürük, alde orotarik kaltarraieez ta onkarraiez<sup>60</sup> baizik harez mintzo etzen. / 359 / Mundian sortzen zen meskabü güzietzaz ziradian khristianak gaizkertiak<sup>61</sup> bizi-tzen ziradilarik angüriak bezala. Orai aldiz Judioak J. K.en jinkotzia ükhatzen deien Erroman berian daude bake osoan. Diano inkisisioniak Trinidadia Jinko bakoitzian gurtatzen ta pürgatoriaoa ükhatzen, dialakoz apezak Bazkoz gomatzen<sup>62</sup> diala erreraziten.

Berze elhe halakoetarik dio hau heregek<sup>63</sup> noizpaizko kaltarraitürük erraiten ondokoek katholikak papistak dütie deitzen ta berentzat katholiko izena begiratzen, dioelarik söz garbitü diela erreligionia papistek, jarraiki dütien dogetarik<sup>64</sup> ta bere usadio gaistoetarik, bena aipatzen eztie heen bertarazale<sup>65</sup> famatü Luther ta Calvin heen apostoliak ezetare erraiten ehüntze<sup>66</sup> zointan erreligionia ezarri dien ohiko gisala beztidürik, otsez<sup>67</sup> ordian zen bezala diela jarri, ezi<sup>68</sup> bi apostolü hetarik lehena fraile zen Alemanian, berzia kalonje Frantzian beren irakasdetan<sup>69</sup> izan ziradian griña handietan betzigoetara aharran<sup>70</sup> Espiritu santiak etzütian arren

---

<sup>55</sup> belaite: bailitateke.

<sup>56</sup> akadoiaren (Lar.): justiziaren.

<sup>57</sup> ziradiankal: ziren bakoitzean.

<sup>58</sup> iripedien: populuen (alegia, garaitu herrien).

<sup>59</sup> izkontzen: ezkontzen.

<sup>60</sup> kaltarraieez eta onkarraiez (Lar.): erasoz eta merezimenduz.

<sup>61</sup> gaizkertiak: gaitzez leporatuak.

<sup>62</sup> gomatzen (Lar.): trufatzen, burlatzen.

<sup>63</sup> herege: herese.

<sup>64</sup> dogetarik (Lar.): deabruetarik.

<sup>65</sup> bertarazale: hara ekarle.

<sup>66</sup> ehuntze: mende.

<sup>67</sup> otsez: alegia.

<sup>68</sup> ezi: zeren.

<sup>69</sup> irakasdetan: irakasketetan.

<sup>70</sup> betzigoetara aharran: irainetaraino eztabadan.

goiargitü, ezetare Jinkoak bidaldeatü<sup>71</sup> ofizio hartako. Nontik arren heen photeria bertarrant ahal lezen ehün Kontzilioek amabostehün urtheetan erreligioniaren ohore egin zütienak

Biz<sup>72</sup> heen errana ezkiribu Santian eztiradiala gure jaunaren legian, bena Elizari gaitzik ezzpadie egin, deusere Jinkoaren zerbützian eztenian egobiarrik<sup>73</sup> honki die egin ta errigarri<sup>74</sup> bizitzü halakoek nork bere eliza berria nahi ükhen dien obratü ta bi ükhündari heen lanthari.<sup>75</sup> Ezta alabadere heen fideldarik sinheste tiesoan eztagoenik bere eliza S. Petrirenena egiazki dela.

/ 360 / Josefek jüdioen kondairan, 13. berezitan dereikü erraiten errumenen jüdioen kontra gerlaren hatsarrian<sup>76</sup> bi errelijione ziradiala Cœsareako hirian, hantik zena judioen galtzepen güzia gerthü. Errelijione banaitetarik lege ta oitura berri diradialakoz sortzen hantik dira aphezen ta ministrien artian aharrak<sup>77</sup> heen pheredikietarik iripedien higuinak ta heetarik gerla odolgarriak.

Prusiako erresuman bada errelijione güzietarik ta heen artian ez aharra bakhoitzik; senthagailla<sup>78</sup> halako lizatekeia printziaren legeen indarretik gerthü bakiak diala han ere egongia? Ez ja arauki haiñbeste dierri banaitetan herrian, ezi arrotz heetan kalbinista frantsesek saldoa dienak handi ta dierri haren izairitzü bakalda.<sup>79</sup> Nork eztü ezağıtzen alabadere alemanak ta prusianak bezain mantso daude bakian, hirur Johane Lili bethi<sup>80</sup> bihotzian dütkiela hilartio<sup>81</sup> dioelarik.

Khiristia khiristiari, frantzesca frantzesari lothürük, alanoa alanoari bezala<sup>82</sup> zer da hantik heltü, erresumako erikindia<sup>83</sup> herri arrotzetara jestegitürük<sup>84</sup> erresuma

<sup>71</sup> bidaldeatu: gidatu.

<sup>72</sup> biz: bedi.

<sup>73</sup> egobiarrik (Lar.): pazientziarik.

<sup>74</sup> errigarri: parregarri.

<sup>75</sup> bi ükhündari heen lanthari: bi ukapen heen landatzaile.

<sup>76</sup> hatsarrian: hasieran.

<sup>77</sup> aharrak: erriertak, liskarrak.

<sup>78</sup> senthagailla: mirari, mirakuilu.

<sup>79</sup> izairitzü bakalda: naturazko taldea. Frantses saldo horrek eraiki zuen Berlin XVIII. mende hasieran. Haien ondokoak Berlinen bizi dira.

<sup>80</sup> Hirur Johane Lili: Frantziako erregeren armak edo flordelisak. Hortaz Egiategik erran dezake Oihenarteren gisa «han izanik horra naiz», zeren idazki guzietan sakabanaturik dago, gure idazlea Berlinen eta Polonian egon zela soldado.

<sup>81</sup> bihotzian dütkiela hilartio: bihotzean izango dituztela hilarte.

<sup>82</sup> lothürük alanoa alanoari: alano zakurra zakurrari loturik.

<sup>83</sup> erresumako erikindia: erresumako elitea.

<sup>84</sup> herri arrotzetara jestegitürük: atzerrira iheseginik.

herenaz zelarik flakatürik ta herenaz haren etsaiak indartürik.<sup>85</sup> Zorigaitz hain-besteren kausa nontik? Erregetzü Valisco kasta Karles IX ta Henrike III haur mentsez<sup>86</sup> akabatzera zabiltzalarik, Gizek<sup>87</sup> odol hartarik ama bat ükhen zielakoz Frantzian erregetzia bürian zen lanthatü, bena Henrike IV. Nafarrako erregia erresumako primiak zereielakoz thronoaren bidia thapatzen kalbinista gaitza zelakoz, zioelarik «khora printze hartara erorten bazen kalbinista zatekiala erresuma oro».

Bertan zütian katholiko güziak lotsatü, batian Aita Santia ta Espaiñako erregia ere Gizakoek<sup>88</sup> nekatüko zütiela kalbinistak ziratekenian bürüzagıtü<sup>89</sup> harmetara bi althetara ziradian / 361 / nor laisterrago lehiatü ordian batak berzia frantzes ziradiala, güziak khristian, güziak adiskide edo askazi<sup>90</sup> batetan etsaitürik ta odol egarritürik otsoen ta artzainhoren<sup>91</sup> pare erauntsi ziradian.<sup>92</sup> Aphezek alde batetik, ministreak besteetik arotz bohaderaren<sup>93</sup> ofizioa zieno zinez egiten. Espaiñako erregiak arotz katalaner inkatz beharra zereien zuskitzen<sup>94</sup> ta Erromari harri ez-pata zorrotzgeiak hil eraziten.

Aroztegi<sup>95</sup> heetarik jalki diradian galgiroak zorigaitzak, sakrilegioak, nork erran ahal litiro?<sup>96</sup> Heetarik Frantzia galdia zelarik Jinkoaren esküpetan dagoela eztate<sup>97</sup> düdarik ezen heek zien arren Henrike IV. tronian jarri. Heek ere kalbinistak faboritü dütiala, nork diro ükha.<sup>98</sup> Erreligionian daude gogomen banaiteak bakhoizkatü ahal litironak eztzerezola hala desagrada ageri da, bai etare obra hartara atrebitü diradianak dügü ikhusten, ikhusten ere sekta heen etsaietarik, heen ondokoetarik ere eztila baratü halere ta sektak daudela xütik.

---

<sup>85</sup> herenaz haren etsaiak indartürik (Luis XIV begi kritikoz dakusa).

<sup>86</sup> haur mentsez: haur gabez.

<sup>87</sup> Gize: Guiseko dukea, Lorrenako printzea, halatan ere kanpotar printzea zen German Imperiokoa, ez frantsesa.

<sup>88</sup> Gizakoek: Guisearen inguruan antolatu zen «liga catholica» Euskal Herrian Urtubiko anderea zelarik Espanako erregearentzat protestanteen zelatari eta salatari: hortarako euskaraz XVI. mendean hogei bat gutun idatzi zituen.

<sup>89</sup> ziratekenian bürüzagıtü: izango zirenean buruzagi.

<sup>90</sup> askazi: ahaide, senide.

<sup>91</sup> artzain hora: artzain zakur handi, txuria, otsoen etsaia.

<sup>92</sup> erauntsi ziradian: ari izan ziren, jardun zuten.

<sup>93</sup> arotz bohaderaren: errementari hauspoaren.

<sup>94</sup> inkatz beharra zuskitzen: ikatz beharra hornitzen.

<sup>95</sup> aroztegi: errementeria.

<sup>96</sup> erran ahal litiro: esan ahal letzazke.

<sup>97</sup> eztate: ez da izango.

<sup>98</sup> nork diro ükha: nork dezake uka.

Gerthaldi lotsagarri heen landan, nola sar daite gizonaren hünian<sup>99</sup> Lois XIV bere konfesoreaz enganatürik Nanteseko Edita errebotatzera atrebitü zen ta Jesuiten amorioaren gatik bere photerian galtzera herena; zilegi etzaikü Jinkoaren akadoietan so egitia, bena zirelakoz jesuitak lür güziaz hügüntürik<sup>100</sup> dirade orai judioak bezala lür güzian herratürik?<sup>101</sup>

Kalbinistak dirade dübabergerik katholikuen etsai narrikatiengak, izan dira heek Engleterraren judioak Espaiñian izan diradianak. Zeren? Zeren eta Jinkoak toleratzen diano gurtatzen dütianak tolerariak gük ezpeitütgü nahi ta eztügülariak aldondatzen,<sup>102</sup> gure etsaiakbeitü emendatzen ta hantik gerla haboroenak erreligioneari arrotz osoki diradianak arrapizten<sup>103</sup> gerla haiñ odolgiro dena non erreligioniak deno, zereitzon ohiltzen. O! Erreligioniaren zaiñak daudelarik kharidadian, harek dereiküno manhatzen konzientziak eskernia eztetzagün bena medio güziez gogomen banaitiala bakiala jinerazitez ez i gizonaren nazaroa da idiarena, «non etare zemaia latzago, han bur’khaldia zinezago».

Lutherienek ezetare kalbinistek Jinko honaren graziaz khristian diradiala dioe. Jesus Kristen dagoela lealen bakia, hartan die esperantza artekaririk nahi eztie apostolu Elizari tingo daudela ta haren leger leal dirade ustian heen pheredikariak Lutherez ez etare Calvinez hitzik eztie aipatzen erreligioniaren berrizale heen salbatzeko ta berentzat zahartzat beraien primagoaren gatik liburuetan, salbü Ezkribü Santian mintzo die, diradian Bibliaz; bena ministriak bethi ari diren pheredikietan katholiken kontra bihotzak behazaler khozützen<sup>104</sup> Aita Santia eztilarik berze apezküpiak beno gehiago Elizan, Jinko bezala diela gurtatzen ta herohoria dielarik santier egiten egiazko idolatrak diradiala. Halako irainez dütie heresiak beren ustekidetan gogortzen ta haborotik haboroala<sup>105</sup> katholikoetarik ürrühüntzen, dena profeziaren otsandia<sup>106</sup> dioanak denbora azkenetan erreligionne banaitak berhezirik, batzü berziak erhiaz dütiela eseituko.

Erreligione gaberik erresuma lerden eztaoke, harek dü jendia bilzen ta bizi beharrerat lürrak lantzen; Alemania nozpait herri oihan ta landa baizik etziana, jende gütik ta basa zen Strabonen ta Cautaren erraniala, orai da Europako herri ede-

<sup>99</sup> gizonaren hünian: gizonaren burmuinean.

<sup>100</sup> hügüntürik: gorrotaturik.

<sup>101</sup> herratürik: sakabanaturik.

<sup>102</sup> aldondatzen: konbertitzen, fedez aldatzen.

<sup>103</sup> arra pitzen: berriz pitzen.

<sup>104</sup> behazaler khozützen: entzuleak kutsatzen.

<sup>105</sup> haborotik haboroala: gehiagotik gehiagora.

<sup>106</sup> otsandia: ospea.

rrena, halakatü dizalakoz erreligion khiristianak. Pagano zenian Engleterra ehünetan gütiago zütian hiriak ta jendia arauiala, ber aukera egin daiteke erresuma güzietan, habororik diot Luther ta Calvinen sektak diabetari katholikak / 363 / beno diradiala hanitez gauza ageria dago.<sup>107</sup> Englesek berek die aithortzen erreligione berria herrian sarthü geroztik heen iripidea heren handi batez emendatürük dagoela.<sup>108</sup> Erreligionia bethi printzeten iritauraren<sup>109</sup> kapa izan da. Harez zien pheredikariak nafartarrak menaldestü<sup>110</sup> Johana Erregina kontra; orozbat parisie-nak Henrike IV etsaitü.

Mahomet dagokariak<sup>111</sup> bere erreligione faltsiaz harmetzaz beno baliatüz,<sup>112</sup> zen bere kenkida<sup>113</sup> izigarrieta. Lehenik bere alkoranareki<sup>114</sup> Arabian emazpitürük<sup>115</sup> sirianak ta dierri güziak Hellespone drano<sup>116</sup> amorioz edo bortxaz zütian garhaitü ta haren ondokoak Libia ta herri güziak Hongriala drano, Grezia ere bere ugarte güziekila batetan menpetü.

Austriako printzek nahian ere Alemania güzia garhaitü, gerla lutheraner ta kalbinister handirik zian egin, esparantzan heek zütükienian menpetü, Frantziat bürrüzagitü, llabürzki Europako enberadore ziratekiala; hartakoz ere Frantziako errege alemaner jüntatürük, Austriako handinaia aphalthü<sup>117</sup> behar ükhen zian<sup>118</sup> ta geroztik bere zedarrien barnian baratü.<sup>119</sup> Sinhets arren eztezagün erreligioniaren gatik printzeak bethi diradiala gudatzen ta Jinko honak eztakiala zertakoz diradian ari, ta haren baimenareki baizik obra e'lirokiela<sup>120</sup> honkirkir ezetare gaitzik.

---

<sup>107</sup> Ipar herrietako protestanteen ekonomia garapen ederraren azterketa ez da oraingoa.

<sup>108</sup> herenez emendatürük: herenaz gehiturik.

<sup>109</sup> iritauraren: iraupenaren ala hiritar izaitearen?

<sup>110</sup> menaldestü (Lar.): jazartu, asaldatu.

<sup>111</sup> dagokariak (Lar.): iruzurtiak.

<sup>112</sup> harmetzaz beno baliatüz: Espainiaren konkistan badirudi erraz egin zutela musulmanek bisigodoez asek baitziren penintsulako jende xeheak edo *iripedia*.

<sup>113</sup> kenkida (Lar.): *conquista*.

<sup>114</sup> Alkoranareki: Koranarekin.

<sup>115</sup> emazpitürük (Lar.): menpeturik.

<sup>116</sup> Hellespone drano: Hellesponteraino.

<sup>117</sup> aphalthü: beheratu.

<sup>118</sup> behar ükhen zian: behar izan zuen.

<sup>119</sup> zedarrien barnean baratü: mugarrien barrenean paratu.

<sup>120</sup> e'lirokiela: ez lezaketela.

Mündüko gauzeten hobenena düda bagerik da aberastarzüna bena eztelarik gizonaren bihotza osokiago bethatzen diana ezi zonbait jende aberats bizipena eskeliek beno sordeitz<sup>1</sup> dütienetarik eztüğü ikhusten ta emendatzen dütieno egünkal<sup>2</sup> ürrhe zakiak, eskaleki bizi direnik. Sathor xiloen<sup>3</sup> pare da heen egarria betha ezitekino egarriz direnak hiltzen: hantik zühürraren elhia<sup>4</sup> «egiazko aberatsa dela, nahiak eskeletü diana».

Aberatsa bere doian dagoena dabila lürrian, ontzia bezala aize honian itxasoan, berze errekeitürük salbü baiala<sup>5</sup> heltzia eztialarik, hurak dütü erdiratzen ta lürriala hüllandzen.<sup>6</sup> Han ere honki jinek<sup>7</sup> bazter orotarik die ügürükitzten<sup>8</sup> delakoz zori honaz bethi lagüntürik: alabadere eskeliak bezala galthatzen dü Jinkoari egün orozko ogia ta behar güziak;ogi hortan daudiala nork eztaki, eziogi bakhüna baizik ezpaliz aberatsen ogia ments etzereiener,<sup>9</sup> othoitzerik auher lizate.<sup>10</sup>

Aberastü nahian ari dena ta eskele egoiten, deno aizoa honkiz akogatzen<sup>11</sup> hüllenik soo eginik<sup>12</sup> ezta ogena, balima lehenian izanen, ezi bide handia jarraikirik, meskabiak dütükie bathü<sup>13</sup> berzia aldiz bidesketzaz abiatürük da ardüra zori honiala<sup>14</sup> heltzen, deno lehena bere bidian baratü.

<sup>1</sup> sordeitz: txarrago.

<sup>2</sup> emendatzen dütieno egünkal: gehitizen dituzteno egun guziz.

<sup>3</sup> sathor xiloen: sator zuloen.

<sup>4</sup> elhia: hitza, berba.

<sup>5</sup> baiala: itsas baiara, badiara.

<sup>6</sup> hüllandzen: hurbiltzen.

<sup>7</sup> honki jinek: ongi etorriek.

<sup>8</sup> ügürükitzten: igurikatzen, itxaroten.

<sup>9</sup> ogia ments etzereiener: ogia eskas etzaietenei.

<sup>10</sup> othoitzerik auher lizate: otoitzik/erregurik alfer lizateke.

<sup>11</sup> aizoa honkiz akogatzen: auzoa ongiz itotzen.

<sup>12</sup> hüllenik soo eginik: hurbildik begiraturik.

<sup>13</sup> meskabiak dütü bathü: nahigabeek ditu gelditu.

<sup>14</sup> zorihoniala: (azpian ezabatua *zorthü honiala*).

Medio hanitz dütü aberatstarzünak bata merkatalgoaren tratian, berzia ohoinkerian, heben zikhingoan,<sup>15</sup> han honki ükhenetan<sup>16</sup> ta da agertzen ordenuetan. Berze heetarik zoíñtara heltü / 365 / direnetarik batere ez aberatsik gütiz begiratzen ezpadakie jakin. Tacitak dio Cneus Lentullus Español zelarik Getulianak garhaitürük fama handia zela heltü ta izigarri aberastürük eskelegoaren ta aberatstarzünaren arteko menaskaro ta ohorezki bizia igaran ziala.

Zaldia gizonaren, mandoa ilhagin zakiaren, astoa eiheramenaren,<sup>17</sup> eskelia aberatsaren, güziak bata berziren zerbützari bagaude; diradilarik bata berziaren khosütz bizitzen ta aberasten. Ezi ezta lürretik haiñbeste ürrhe sortzen nola jende aberasten, bena deno bata pikarraitzen<sup>18</sup> berziak haren soñezkoak dütü biltzen, hala atzoko aberatsa egün eskele ta biharko eskelia aberats etzi.

Platonek zioan gizontzia dagoela hirur gauzaten, khorpitzian, ariman ta aberatstarzünian. Diru gaberik gizona dago jendiren eretzian khorpitzza arima bagerik; bera ere bihotz bagerik, odola alphor<sup>19</sup> gaberik orotan gogoa axolbagerik eskelegoa –hitz bakhoitz– gizonaren ekidate<sup>20</sup> güzien da erhailia<sup>21</sup> ta ber denboran aberatstarzüna arima aphalen altxazalia, megopia<sup>22</sup> thorpen zorrotzalia, khorpitz makhurren xüxentzalia ta senthagilla güzien langilia.

Aberatstarzüna Panta deitzen den harriren pare da,<sup>23</sup> berze harri güzien berdüthiak bereganat akandatzen<sup>24</sup> dütian ta haren ekhartia khozü güzietarik begiratzen diana: ezi aberatstarzüni berze gauzeten diradian berdüthiak daude hartzat deusere ezta egin eztaitekenik. Nahiak oro dütü obratzen; adiskidiak bazter güzietarik biltzen, hareki harmadak saldotzen<sup>25</sup> gudak irapaizten, etsaiak garhaiten, hiriak azolatzen<sup>26</sup> ta erresumak bordokatzen:<sup>27</sup> hitz bakhoitz aberatsa lürrian, pare dago Jinkoari paradusian.

---

<sup>15</sup> heben zikingoan: hemen zikoizkerian.

<sup>16</sup> honki ükenetan: ongi jasokoetan.

<sup>17</sup> eiheramena: errotara, eiherara eramatene den gari zama, edo arto zakua.

<sup>18</sup> pikarraitzen: bilaizten.

<sup>19</sup> odolaren alphor: bizidunen eta suen inguruko berotasuna.

<sup>20</sup> gizonaren ekidate: gizonaren iradokizun.

<sup>21</sup> erhailia: hiltzailea.

<sup>22</sup> megopia (Lar.): izpiritua.

<sup>23</sup> Panta: pantaura beste harri preziosen ezaguzeko harria.

<sup>24</sup> akandatzen (Lar.): erakartzen.

<sup>25</sup> harmadak saldotzen: armadak nasaitzen, ugaritzen.

<sup>26</sup> azolatzen: suntsitzen.

<sup>27</sup> bordokatzen: kordokatzen.